

GOITIA TAR XABIER

*Eusko-Umeak Atzerrian*



18

GOITIA TAR XABIER

# *Eusko-Umeak Atzerrian*

*Eratzaillea: Kerexeta'tar Jaime*



SUTONDOAN

Gudua beti da latza. Askoz be latzago bitartean umeak dagozanean. 1936-ko azkeneko gerran, ume asko izan ziran atzerrira igesean joan egin behar izan ebenak. Ume horreetariko bat Xabier Goitia, oraingo honetan SUTONDOAN sorta honetara jatorkun obraren lekuko nagusia.


Oroipen-liburu honen orrietan zehar Xabier Goitiak, bere ume-begien ikuspegitik, Belgika aldeko familia baten etxean egin zituan egunak azalduko deuskuz. Hasiera bateko gurasoen akordua eta herri-mina, han egunero egiten eban bizimodua, Euskal Herri-tik hara joandako eusko umeen gorabeherak eta azkenean jaioterrira bihurtzea. Baina umetaroko egun gazi-gozo gogoangarri horreek ezin ahaztu, eta Xabier Goitia adinekoak barriren barriz ikusi gura izango ditu aspaldian flamendarren etxe haretan itxitako «Moe» eta «Va».

*Eusko-umeak atzerrian* liburu honen prestakuntza-lanetarako lekukoak Jaime Kerexetaren laguntasuna euki dau, eta honena da testuaren azkenengo idazketa.

Liburu honen argitarapena, SUTONDOAN sortako aurrekoetan bezala, Labayru Ikastegia eta Bilbao-Bizkaia Kutxak egin dabe.



Euskal Biblioteka Labayru



1020526  
LITERATURA / N. 1488

GOITIA'TAR XABIER  
*Eusko-Umeak Atzerrian*

*«Zutzaz aaztuten ba'naz...  
igartu dakidala eskuma au!»*  
(Sal. 137,5)

*Euzkadi'tik erbegetaratutako  
mutiko baten gomutapenak*  
(1937-1938)

GOITIA'TAR XABIER

*Eusko-Umeak  
Atzerrian*

*Eratzaillea: Kerexeta'tar Jaime*



LABAYRU IKASTEGIA



**Bilbao Bizkaia Kutxa**

BILBAO  
1991



## ITZAURREA

España'ko guduari buruz idatziriko lana ez da oraindiño agertu. Naiz-ta anai-arteko burruka zital ori azaltzen aalegindu diran liburuak —eunka ta millaka, andik eta emendik— argitaratuak izan, azkenengoa noiz agertuko luzaro itxaron-bearrean egon bear izango dogu guztiok.

Gerra guztien artean izan dan gudu orretan, Katalunya, bai Kastilla edo Euzkadi'ko gizonen adore ta lerrenak azaldu dabez gure ta kanpoko istorigilleak. Gizonezkoak ziran geienetan guda-asieran koldarkeriz erailleak, edo zorionez eriotzari iges egin eutsoenak; euretariakoak guda-tokietan adoretu jausiak, aldiz etxeratuak edo zigor-lan tokietan urteak egin ebezanak; euretariakoak erriko kaleetan zear, buru-arro, lerroka joanak edo erbestera daroan bideari itun eta zapalduta jarraitu eutsoenak.

Neke ta oiñazeak geien eta sakonen eroan bear izan ebe-nai buruz berba laburrak idatzi dabez gaurko gizonak. Nori ardurarik emakume ta umeak? Ez dabe oneitarikoak istoriaz ikustekorik, istoria ori gizonak —burrukan gudariak— eratu izan da-ta.

Alan bere, laguntalde bi dira gudu bakotxean beste iñok baiño naibage zorrotz eta sakonagoak eroan bear izan dabezanak: emakumeak eta umeak.

Burrukara doaz gudariak. Etxean geratzen dira arein ama, emazte ta emaztegaiak, gerrara joan dana maite daben emakumeak. Gudariak «agur» esan eta barrezka doaz. Barria da areintzat gudu, eta an doaz barrien billa.

Espetxean sartu dabez gizonezkoak. Pozik dira espetxean, biotzak aberriaren alde sufritzen dabela diñotse-ta.

*Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz*

© LABAYRU IKASTEGIA - BILBAO-BIZKAIA KUTXA  
Aretxabaleta, 1-Ingua - 48010 BLBAO  
Tfnoa.-Fax.: 443 76 84

© Kerexeta'tar Jaime  
Elizburu, 24 - 48230 ELORRIO (Bizkaia)

ISBN: 84-86833-35-3  
Lege gordailua: BI-2481-91

Fotokonposaketa: IKUR, S.A. - Cuevas de Ekain, 3, 1.º - 48005 BILBAO

Silutegia: Artes Gráficas RONGEUI, S.A.L. - Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 ERANDIO

Etxean geratu diran emakumeak negarrik isurteko eskubiderik ez! Maiteari malko orreik atsekabe egingo leuskioe... Malkoak ezkutatu, bakartasunean negar egin, gizonak etxetik alde egiten dabela-ta euren burua adoretu erakutsi, etxean geratu diran ume ta zaarrai laguntzera bearturik dagoz.

Eta umeak? Nok ulertu ez dakien atsekabea zer dan? Nok ulertu, negar egin bear daben ez dakien negarra zer dan? Eriotza zer dan jakin bagarik ilten diran abereak lez, onela umeak be atsekabea eroan, atsekabea zer dan ez dakiela.

Urteak joan, gizon egiñai, leenago ezkutaturiko izu-ikarea agertuko yake. Bizitzan zear, gurutze astuna euren lepo erruba-geetan eroan bear izango dabe.

España'ko anai-arteko gudu zitalaz urrengo lerrook idazten dodazala, olerkitxo epiko bat idatzi nai izan dot, ezer esateko abotsik ez euken umetxoen poema. Euren malkoak legortu nai izan dodaz; aspaldi negar egin eben umetxoakaz batera neuk be neure negar-malkoak isuri nai izan dodaz. Malkoak datorkidaz begietara umetxo arein nekeak gogora dakardazala.

Euretariko bat nintzan ni, Prantzia'ra, Ingalterra'ra edo Errusia'ra eroanak izan eta eurak ez sorturiko alkarreganako gorrotoakaitik negar egin bear ebenetariko bat naz ni.

Nekeak lotua izan naz urteetan zear. Neke orrein aurka burrukan egin nai izan dot, lerrook idatziz. Atzerrian, erbestean bizi izateak sorturiko lokarrietatik nire burua askatu egin nai neuke. Nire Euskalerrriak, berari jarritako lokarriak, gerrateak sorturiko sasi-agintaritzak eutsazan lokarriak, beragandik jaurti nai leukezanez, neuk be nireak nigandik jaurti nai.

Lerrook idazten dodazala, beste asmo bat be ba-dot nire barruan. Asko dira gure errian, ixillean bizi izanik, gugandik alde egin dabenak. Asko omenaldi bana merezi izan dabenak. Gorrotoak eta iraiñak omen ori isillerazo egin dabe. Urrengo datoan gizaldiak gizon eta emakume guzti orrei omen-arri bat eregitea legezkoa izango da. Nik neure arrittoa jarri nai dot oroigailu orretan.

Azkenez, berbok amaitu baiño leen, neure eskerrona agertu nai dautsat biotz-biotzez Kerexeta'tar Jaime jaunari, nire lerrook orrazten artu dauan lanagaitik. Edozetariko izkuntzak ikasteko bide ta erraztasunak izan dodaz nire bizitzan. Ez, ostera, jatorrizko nire izkuntza lantzeko aukerarik. Gure lurraldeko seme-alaba askok lez, neure aalegintxoan indarrez jorratu bear izan dot nire euskal-sailla, iñoren laguntza bagarik: guk bizi izan dogun egoera larriaren ezaugarri bizia! Bidezko, beraz, «Itzaurre» onetan Jaime'ren izena aitatzeta.

Eskerrik asko berari.



## ATZERRIRAKO BIDE ILLUNEAN

«Babilonia'ko erreka-ertzetan negar egitera  
jesarri gintzazan, Sion gogoan genduala». (Sal 137, 1)

Emakume barre-samur bat agertu zan gure tren-gelan. Prantzeraz iru-lau berba esaten asi yakun. Guk, tren-gelan genozan umeok, ezin erantzunik emon. Berbarik ez, baiña gure artean bonboi ta gozokiak banatzen asi zan. Guk irribarre bigun bat egin. Orixe zan gure erantzuna. Arrieta andrea, Capbreton'dik Beljika'ra geugaz etorren Donostia'ko euskal-irakaslea, geure alkarrizketa isiltsuan sartu zan. Umetalde batetik bestera yoian, gure biotz itunetan poz dardartxo bat biztuera-zoteko itxaropenaz. Beljekarren eta gure arteko esanaiak euskeratu egin ebazan, arein eta gure artean maitasun-lokarriak sortuaz; an gengozan, aberritik urrun, etxeokandik aldenduta, eusko-umeok.

Prantzia'ko muga-aldera aurreratu yakuzan Beljika'ko erri zintzoaren ordezkariak.

Gozokiak emon euskuzan andereñoari, «Eskerrik asko!» esan guk. Eta Arrieta andreak «Merci beacoup!» biurtu. Eta berealaxe andereñoari irribarrez ganeratu: «Ardura izan!» «Eskerrik asko» esan bearrean, ba-zeitekean gure umeak «Ekarri asko» esatea. Atzerritarrarentzat ez dago alde andirik esakera batetik bestera. Baiña bigarrenak beste zer bat esan nai dau: «Apportez nous en davantage!»

Barre egin eban gure andereñoak, eta gugandik beste umetalde bategana joan zan. An be betiko aurpegi illun eta negartsuak.

Aurrera yoian gure trena, Beljika'ko lur leun eta emokorretan zear. Nekazariak lanean ziarduen euren lurretan; andrak jatekoa ekarten; umeak, eskoletatik etorrira, gurasoai laguntzen. Alde guztietatik bakea! Urrun, bai, urrun egozan gudatokitako gose ta premiñak, gudari il eta zaurituak, erbestetik etorritako arrotzen aurkako gerrea, bere erritxo adoretuagaz batera burrukara joan zan Alberto errege maitea. Bagilleko egun zoragarri onetan, bakea zan Beljika'ko lurretan nagusi. Gorroto eta bakerik ezaren kutsurik bere ez! Ez orrelakorik gure ume-biotzetan.

Barrero be beste emakume batzuk etorri ziran gugana. Bi ziran oraingoak, eta otzara zabal batzuetan jan ta edatekoak ekarrezan: ogi zuria, arrautza egosiak, guriña, ur-botilla bana...

Capbreton'dik urten gintzazanetik ia baraurik gengozan. A bai janaria gure gose amorratuarentzat: ogi txiki-zuriak, arrautzak eta gurin zatitxoak... Edariak be artu genduzan. Guretariko bakotzak ur-botilla bana. «Eau de table» egoan idatzita botilletan. Egarrria ase-guraz, ur aretatik edaten asi gintzazan. Garratza zan ura. Guk iñoiz edan ez genduana lakoa. Treneko leioak gora egin, eta an yoiazan gure botillak bide-ertzera. «Gure Eukalerrian ez dau onelako urik iñok edaten», esan eban arro guretariko batek. Trena aurrera yoian gure Brabanteko lur leun eta zelaietatik Bruselas'erako bidean. Itun yoian, gure biotzen itunaz. Jatekoak amaituta, geure gogapenetara biurtu gintzazan.

«Beljika'ra joango gara!», esan euskuen, Capbreton'en iru edo lau aste eginda gero. Euzkadi osoa Francotarrak zapalduta, gure errietako gizon eta emakumeak, faszisten bildur, erbestera igeska asi zirala, geuk be beste erri batera alde egin bear, azkenengo unean etozan barriai leku egiteko.

«Zuentzat obeto!», entzunda geukan. «Euzkadi'rako bidera goiaz guztiok, gurašo ta lagunakana».

Guretariko geienak ez ekien non gengozan, ezta Beljika non egoan bere. Oso gutxi ziran gure artean, Europa'ko Jeografia ikasita, gu ñora giñoiazan ekienak.

Orrelaxe asi genduan gure bidea. Euzkadi'ren ertzean jarrita egoan Capbreton, gure etxeokandik Belgika baiño urrago egoan. Belgika non egoan be ez ekien guretariko geienak. Eta gu Capbreton'dik Belgika'rako bidean...

Barrero bere, agertu yakuzan beljekar gizon eta emakume batzuk. Oraingotan, idatzita egozan txartel batzuk ekarrezan. Guretariko bakotxari beti itaun bardiña: «Bakarrik zatoz? Anai edo arrebatxorik ez daukazu?»

Zer zala-ta itaun guzti oneik? Artetan, an ebillen Arrieta andrea talde batetik bestera, bere burua ume guztien ama egiñaz. Ba-ekian arek, bai jakin bere, txartelak zetarako ziran, eta zer zala-ta bakotxari egindako itaunak. Baiña guri miñik ez egitearren, isilik bera...

Gure taldean ba-egozan anai edo arrebatxoren bat euker umeak. Gipuzkoa'ko mendi-erritxo batetik etorrita, euskeraz baiño ez eben egiten iru anaitxo areik. Beti lotsati ta bildurtuta. Otsoaren bildur diran arditxoan antzeko. La Pallice'ra lurreratu gintzazanean, naparreriararen aurkako bakuna bana ezarri euskuen ume guztioi. Bakuna orren erruz, areitariko bat osoro geisotu zan Capbreton'era elduaz batera, eta gure artetik egun batzuetarako beste lekuren batera eroan ebelako, ilda egoalakoaren zurrumurrua zabaldu zan gure artean.

Errapael eta onen anaitxoak, Bilbo'ko etxe on batetik geure artera etorriaz, zelan ibili eta nora jo ez ekien. «Guynemer» Pabeilloian bizi gintzazan artean, neure babespean artu nebazan umetxo biok. (Izan be, amabi urtetakoa baiño ez nintzan ni, baiña arein aldean gizontxoa, anaitxo bi orreik sei edo zazpi urtetakoak baiño ez ziran-eta!)

«Lekeitiarra» (ala Ondarrutarra zan bera?) eta bere arrebatxoa. Aurpegi gorri eta begi txiki biziak eukazan, eta portuko umetxoai dagokienez, beti burrukarako gertu, batez be bere arrebatxoaren alde besteen aurka egin bear ebanean (naiz-ta sarritan, portuko arrain-saltzailleen antzera, purrustadaka euren artean ibili). Guzti oneintzat berarizko erabagiak egozan artuta. Edo mojetan artuak izango ziran, edo bata bestegandik

urr egozan familietan. Onela alkarregaz egon, eta guztiok egun areitan geukan errimin eta tristurea garaitzeko gauza izango ziran.

Ni, bakarrik nengoan. Anairik ez, arrebatxorik ez. Nigaz norbait ete-neukan itandu eustan gizona, gugandik alde eginda laster, barrero gusanatu zan. Eskuan ekarren txartel bat paparrean eskegita ipiñi eustan. Txartelean prantzeraz eta nik uler-tzen ez neban beste izkuntzaz idatzita egoan: Izena-Zuzenbidea eta abar. Nirean auxe egoan idatzita:

*Famille Janssen-Van den Berg  
Eikenstraat 134  
Ekeren.*

Nok igarri itaun eta txartel guzti onein atzean ezkutututa egoana? Dana dala, txartel orrek gu guztion bizitzaren mugea ekarren. Alde batetik, gerrea zala-ta, nik Euzkadi'n itzi nebazan etxeokak. Bestetik, gau illuna.

Naiz-ta Euzkadi'tik iges egin, nire poza eta tristurean parte artu, nire izkuntzaz berba egiten eusten andereño ta abadeakaz batera egon nintzan odurararte. Orain sartzen nintzan tunel illunean, nortzuk izango nebazan lagun nire bizitzan? Bildurra ta itzaropena, naastean, ziran une orretan nire biotzaren jabe.

Beljika'rako gure trena laster zan Flandes'ko lur aberatsetan. «Vous êtes arrivés à la Gare... » Anberes'ko geltoki nagusian gengozan.





## «BIZKAI'KO LUR OSOA EZEREZTUKO DOGU...»

(Mola'k esana)

Epaillaren 31 zan, gure erri-guduaren bigarren urtea, eta egun orretan bide barria artu eban gu guztion bizikereak.

Goiz aretan, goizero lez, Igorre'ra joan gintzazan, Maria-nista Anaiak eben ikastetxean gure ikaskizunak egitera. Gu-duaren asierea Lemona'n gengozala etorri yakun gaiñera. Arreba lez neban Miren lengusiñeak etxe ta lur batzuk ebazan an, eta araxe joan oi gintzazan udaldi guztietan, ikastetxeko oporrak asten ziraneko. Udaldi aretako iru illabeteak, gudua-ren erruz, guk uste baiño geiago luzatu ziran. Gerrearen azkena ain urr ez egoala somaturik, nonbaitetik guk ikaskizunak artzea erabagi eban gure aitak. Penagarri egiten yakon, gu soloetan zear ezer egin bagarik ibilten ikustea. Leenengoz, gure auzoan aldi aretan bizi zan Marista Anai bati guri klaseak emoteko eskatu eutsan. Euren ikastetxea guda-mugan egoala-ta, gure auzoan ebazan senide batzuekana etorririk, euron artean egun batzuetarako babespea aurkitu eban.

Geroago, gure irakaslea auzotik alde eginda gero, Maria-nista Anaiak erabillen ikastetxe ezagun batera gu bialtzea era-bagi eban. Beraz, araxe giñoiazan astegun guztietan, Arratia'ko tranbia zaarrak, estulka lez, Lemona'tik Igorre'ra egozan bost kilometroak egiñaz eroaten genduzala. Ez zan nasaia Arra-tia'ko gure tranbia ori; baiña Igorre'rako joan-osterea egiten genduan artean, umore ta alaitasunik naikoa egoan. Era guztie-tariko gizon-emakumeak aurkitzen genduzan goizeroko gure

bide orretan. Arratia'ko baserritarrak Bilbo'ko edo Galdaka-no'ko plazara euren solo-ariak saltzera joaten ziran. Aurpegi zurbil eta itxura zirtzilla ekarren erritik baserrietara etozanek, Dima'n edo Zeanuri'n euren sabel gosetuak zerez asetearren zerbait erosteko itxaropenaz. Alderdi guztietariko gudari ta «milizianoak» (erdaldunak oneik, euskaldunak areik geiēn-tan) etorten ziran gure Arratia'ko bideetatik: Otxandio'ra yoia-zan batzuk, edo Legutiano'ko frentera, edo Bilbo'rako bidea artzen eben beste batzuek, zaurituta edo etxeakoak ikusteko baimenaz.

Igorre'ko ikastetxera giñoiazan gu. Lemona'tik gentozan geienok, baiña bai auzoko errietatik be: Kolaziño'tik (Ma-dril'go «txulittoa» esaten geutsan, eta geroago Donibane-Lohi-zun'era iges egingo eban gazte dotorea), Zornotza'ko Aste-pe'tik, mendi ta ibarretik. Arratia'n ez egoan Igorre'ko ikaste-txeagaz bardindu zeitekean eskolarik.

Gugaz etozan guztiakaz egiten genduan berba, ezeren bil-dur eta ardura bagarik, gure artean nok zarata geiagoka.

Adi be ba-gekian egoten, orraitio, batez be burrukatik etxerutzen ziran gudariak esatekoren bat eukenean.

Bilbo'tik ezagun yakuzan banaka batzuk be aurkitzen gen-duzan bein eta barriro Igorre'rako gure joan-ostera orreitan. «Berrio-Otxoa» izeneko Bilbo'ko gure ikastetxean neukan la-gunik zintzoenatarikoa zan Larrinaga'ren aita aurkitu neban bein Igorre'rako gure joan-etorrian. Berau be, Bilbo'ko beste gizon eta emakume batzuk lez, Arratia'ra yoian, etxeakoentzat zerbait erosteko asmoz. An yoian bera, nik ikusi nebanean, bakealdian abereak baiño jango ez eben arbi bat, polito-polito, aiztoaz zatitzen ebala jaten. Nik a ain beartsu ikusirik, lotsatuta geratu yatan. Abertzalea izanik, ez eukan nire lagunaren aitak zeren bildur izan bearrik; bere biotzak, semeakandik nik nekia-nez, jeltzale-asmo ta elburuetara jo eban beti.

Ez zan orrelakoa beste askoren zintzotasuna. Arratia'ko edo beste erritxoetan egozan «eskumako» asko ezkututata, erritxo orreitan iñök ezagutzen ez ebazala-ta. Enparaduen au-

rrean agertzen ziranean, abertzale zintzoen jokia egiten eben. Bein eta barriro, orraitño, barrukoa ezin isildu. Orduko egocrea zala-ta, negar baten eta atsekabetuta egozan, Francotarrak asierarik nagusitu ez ziralako. «Ara, orain zelakoak sufritu bear izango doguzan guztiok!» iñoen, euren jokaerea zuritzeko.

Eskoletako umeak daroen bizikerea an eta emen, edonon bardiña da. Geurea be beste eskoletakoen bizikera ia bardiña izan bear. «Ia» esan dot. Izan bere, guduak ekarri ebazan bestelako bizikeran izango ez genduzan ezbardintasunak. Esaterako, Igorre'ko osagillearen semeena. Geugaz etozan ikastetxe bere-ra. Arein aita eskubitar amorratua zala-ta, guda-asieran espetxeratu egin eben. Aitari jazoriko orri buruz ez ziran azartzen bere semeak berbarik esaten. Baiña areitariko batek, anaien artean argiena, ezin an miiña lotuta euki, eta «leialak» (gutarrak aldi aretan esaten geutsenez) azpiratzeko bildurrik ez.

Marianista Anaiak buruz beste orrenbeste esan bear. Praillan artean oiturea zanez, Kastilla'ko probintzietatik geure artera ekarriak ziran-eta, gure Euzko-Jaurlaritzari buruz maitasunik-eza (iguiña ez esatearren) agertzen eben aal eben ez guztietan. «Batxiller»-taldekoak Anai barri bat geukan irakasletzat: Bonifazio jauna (orduan ez egoan «Anai» esaterik). Onek, non-nai ta beti, zelan edo alan, gutarren jokaerea ez eban ontzat artzen. «Emen dozue —iñoskun bein, Errumania'ko mugea izentatuaz— Errusia'ko atsedentokia itzi eta geure artera etorri nai dabenak artzen daben bidea». (Bera an' egonikoa bai'litzan!). Buru-moteltxoak zan gure Bonifazio jauna, eta beste askotan lez oraingotan be ikasleok barre egin geutsan ganoraz.

Geienetan, orraitño, ez eukan gure bizikereak politika edo gerra-kutsurik.

Epaillaren 31-n, gure bizikera osoa ankaz-gora jarri yakun. Goiz aretan, goizero lez, Igorre'rako tranbia zaarra artu genduan. Bestetan lez, goiz aretan be, geure ikasketak egin genduzan. Eguerdian, etxeratzeko gogoz gengoan, Zeanuri'ko tranbia noiz etorriko ete-zan zain. Zerbait susmatzen genduan,

orraitño, beste egunetarikoa ez zana. Urritño mendietatik, Dima'ra doan ibarretik geuganaiño eltzen zan izugarritzko zaratotsa entzutekoa zan! Mendi arein ostean zear, egazkiñak ikusten genduzan, iruka, boska, seika. Eta Bilbo'tik Otxandio'rantz kamioiak gudariz beterik yoiazan. Otxandio'tik Bilbo'rantz kamioi bardiñak yoiazan, oraingotan gudari zaurituz beterik. «Estado Mayor» biurtuta egoan osagillearen etxetik miliziano erdaldun batzuek, geugana etorrita, aalbait lasterren Igorre'tik alde egiteko burubidea emon euskuen, Igorre'n geratzea arriskugarria izan zeitekeala-ta. «Zer zala-ta?», guk. Baiña areik erantzunik emon ez.

Azkenengo illetan, itsaso barearen antzera, baketsu izan ziran guda-mugak; bizikera barria artu ebela zirudian. Lagun lez alkarregaz bizi ziran albo bateko eta besteko arerioak, orain euren aurpegia erakusten eben. Epaillaren azken-egun aretan, gure Euzkadi'ren aurkako «ofensiba» nagusia —umeoi iñoiz burutu ez yakun ofensiba— lurpetik urtena lez agertzen yakun.

Zer egin? Etxekoakana aalbait lasterren biurtu, jakiña. Baiña eguerdi aretan ez gintzazan etxeratu beste egunetako tranbia zaarrean. Oñez joatea obe izango litzakigula-ta, taldeka egin genduan Urkizu'tik Lemona'raiño dagoan bost kilometro luzeko bidea. Amaikatxo bidar eginda neukan Urkizu'tik Lemona'rako bide-zati ori, artoa Urkizu'ko errotara eta Lemona'ra nire urun-zorrotzoa lepo-ganean neroiala!

«Orreitariko eriotz-txoririk agertzen ba'yatzue —esan euskuen—, bidetik alde egin albo batera, eta alboetako munetan etzun eta an zerraldo geratu zaitez!»

Ez genduan egazkiñik ikusi Lemona'rako gure bidean. Umeai dagokienez, arro gengoan Otxandio-aldetik egazkin faszistak ikusi genduzala-ta. Bidean aurkitzen genduan edonori guk geure begiz ikusitakoa azaltzen geutsan (gure amesetan zertxobait «loratuta»).

Egun aretan, ikastetxeko ateak itxirik, Igorre'ra geiago ez joateko esan euskuen. Barriro be «libre jaiok» gintzazan, berresietako txoritxoak lez libre. Barriro joan geintekizan Azurre-

ka-aldetiko piñudietara, barriro —udabarria zan-eta— abiak billatzera. Jakiña, aitzak ezin eikean entzun «Kamiñeruen» semeakaz txori-abitan giarduanik. Ingalaterra'n egindako urteak besteai —baita abereai be— begirune ta lotsa izateko irakatsi eutseen, eta bestela, baketsu egoana, asarre jarri zeitekean gu arela genbiltzala jakitean.

Gure opor barri-ederrak laster zurbildu yakuzan.

Sarritan aurkitzen genduzan gure joan-etorrietan, frentetik iges eginda edo frente batetik bestera ebizan gudari ta milizianoak. Geurera etozan bein baiño sarriago. Nekatuta, goserik, zikin-zikin eginda batzuetan. Lo egiteko zokondotxoren bat nai eben, edo gosea zerez ase, edo ur gardenata xa boia, besterik ez, euren koipea kentzeko. Lemona'ko gure etxeak beti eukazan ateak zabalduta, ara etozan gudariak —euskaldunak ziranak batez bere— geurean artzeko. Ba-ekien gure arrera on ori euren erara ordaintzen: guduan ikusirikoak azaltzen euskuezan, eta an gengoan guztiok adi, ezin adiago. Sarritan berandu egiten zan. «Bialdu egizuz ogera!», iñotsan amak aitari. Baiña guk ogera joatea baiño naiago areik iñoena entzutea. «Geure gudariak dira!», esaten genduan arro, eta jazopenik izugarrienak ikusten genduzan arekan, gure ume-amesetan loraz eta indarrez beterik agertzen ziran jazoera negargarriak.

Baiña gudariak soillik ez, baita beste eratako gizon eta emakumeak be etorten yakuzan aldi aretan etxera. Goiz batez, auto bat gelditu zan gure etxe-aurrean egoan «Sastegian». Autoan gure lengusu Juanito etorren. «Padura» batailloiaren bigarren buruzagia zan bera. Auto berean, beste emakume zaar bi etozan. Ganora bagarik jantzita. Aspaldiko argazkietan agiri diran lako jantzi barregarriak eroiezan soiñean. Buruak ulmotz, orraztu bagarik. «Sastegian» lagunakaz jolasean niarduanarren, ez nebazan emakumeok ezagutu.

«Esan tia Bentura'ri (tia Bentura geure ama zan), Billa-ro'ko izeko mojea eta Artetxe'ren arrebea dagozala emen!»

Otxandio'tik guruerantz urreratzen etorren gudua, eta Billa-ro'ko mojai, bakotxa bere senide edo ezagunakana joateko

burubidea emon eutseen. «Komentuan geratzea asturianoakaitik arriskugarria izan leitekeala-ta». Izeko Adorazioen errukigarria! Amazortzi urtetakoa zala joan zan komentura, eta arrezkero, berrogeiren bat urte zirala, andik geiago iñora urten ez, geisotegira be ez. Gerreak birrindu ebazan moja errukarri arein bake ta zoriona, eta etxetik barriro mundura urtenerazo, Jau-nari barriro mundura ez biurtzeko zin egin eutsoenarren. Aspaldiko lagun batzuk ikustera lagundu neutsen, berrogei urte zirala geiago ikusi ez ebezanak. Poz tantakadatxo bat, gerrearen ezbear-itsaso zabalean...

Ez ziran gurera etozan ikustaldi guztiak orren pozgarriak. Frentea geugana urreratzean, Francotarren egazkiñak geure ganean ikusita, arei bildur izaten ikasi genduan. Arraibi-auzoan bizi gintzazanok, egun baten alkartuta, babespenen bat eregitea erabagi genduan, egazkin bildurgarriak urreratu zeitezanerako. Gure buruak non gorde euki gengian.

Gure etxe-ostean egoan mendi-aldatz baten, tunel bat zulatatu, piñu-enborrez tunela tinkotu, aurki batzuk alboetan jarri, eta... an egoan gure babeslekua amaituta. Igesleku onen ate-aurrean zelaitxo bat geukan: argia, eguzkitsua, bidezabaletik urrun, baketsua. Emakume ta umeak, baita gizonik geienak be, an egiten genduzan gure egunak, goizetik illunabarrerarte, gordelekuko atadi-aurreko zelaitxoan. Emakumeak ekin eta ekin euren esku-lanari; gizonak, amar illabete irauten eban gerreak zelako azkena izango. Umeok, alde batetik pozik, ikastetxera joan eta ikasketa gogaikarririk geiago entzun-bearrik ez geukalata. Baiña bestetik, zelan edo alan ikaraz beterik, guk argi ikusten ez genduan eta laster buru-ganera etorkigun zerbaiten susmoz. Batzuetan ez zan susmoa bakarrik guk sentitzen gendua. Etorteko zan ori argi agertzen yakun, eta orrek bai gure barruak izutu be!

Bein, amak Igorre'ra bialdu genduzan, irakasle izan ziran Marianista Anaiak ikusi eta gure zorrak ordaintzera. Ain uste-bage etorri yakun alako epaillaren 31 ikaragarria, eta guk ille-roko ikasketa-zorria ordaintzeko be astirik izan ez. Gure ama,

emakume zintzo ta arteza zan-eta, leengo gure irakasleak diru-premiñan ete-ziran bildur zan. Ez zan, ez, ames utsa gure amak susmatu ebana. Eskerroneko agertu yakuzan gure irakasleak, eta bein eta barriro, beste ikasleen gurasoai, premiñan egozala-ta, ikasketa-zorrak ordaintzeko erregu bizia egin euskuen. Azkenengo illean ez ei'eben iñongo laguntzarik jaso, eta leenago-ko diru apurak erdi agortuta ei'egozan.

Anaien nagusi zan Martzelo jauna (misiñolari antzeko bizardun gizon ona), Benantzi ta bioi, erreta egoan erri ederra erakusten saiatu zan. Igarotako asteetan egazkiñak, bein eta barriro etorririk, erria ondatu egin eben. Erreka-ganean, Dima'rako bidean egoan zubitxo eta alboko iru-lau etxetxoak auts biurtuta egozan. Gizon-emakume batzuk be zauritu ta illak. Gugaz ikastetxera etorren mutiko bati ankea moztu egin bear ei'outsoen. Aren irudia ezin egun areitan kendu! Egunak igaroala, umeok be asi gintzazan gerra zital aren ondoren izugarriak geure begiz ikusten. Leengo gure poza mardulduta egoan. Zer dala-ta, gizon eta emakume, ume errubageak batez be, min sakonak ikusi bear?

Ez yat niri sekula aaztuko, egazkiñak gugana etorri, edo, beste bagarik, egazkiñen urreratzearen ezaugarritzat, adarrots ikaragarria entzuten neban baktotxean biotz-barruraino sartzen yatan ikara sorrotza. Amaikatxo bidar, Lemona'tik Bilbo'raturta gero, Francotarrak Bilbo menperatu baiño aurreragoko azken-asteetan, gure bazkari urria jateko etxeok mai-inguruan jesarrita gengozala, jo eban adarrak! Egazkin zitalak Bilbo'rantz etozan. Une orreitan, aita gure biotzetan adore apur bat isurten aalegintzen zan, eta, erdi-barrezka, auxe esaten euskun: «Iltekotan, non maian jaten gagozala baiño obeto il?» Aitatzoren berbak, naiz-ta nik aita iñor baiño maiteago izan, ez ziran gauza nire ikarak baretzeko. Bilbo'ko gure etxe-aurrean, Zabalbide'n, «Galera» eritxon moskor eta alperraren etxepean egoan babeslekura iñor baiño leen sartzen nintzan ni.

Gaiñera etorkiguzanak ikusirik, niretzat ondoren astunak sortuko ebazan burubide bat artu eben nire gurasoak. Etxeko

gazteenok, Iñake gure arreba gaztea, nire anai Benantzi eta gazteena nintzan ni, aberitik alde egin eta erbestera joan geitezala erabagi eben.

Gurasoen burubide onek poza ta negarra, naastuta, ekarri eustazan. Umetarik niarduan nik erbestera joan eta bestelako osterakaz amesetan. Zelan aaztu «Berrio-Otxoa» ikastetxean, ikastaldi-artean geukazan opor-alditxoetan, ni lako ameslari bategaz nerabillezan alkarrizketak? Askao-kalean egoan ogitegi bateko semea zan bera, alperra ta gogorra («Pinchapeces» ezizena ezarri geutsan lagunok, nik zegaitik ez dakidala).

Egunen bate(ta)n misiñolari izango gintzazala-ta, or ekin geutsan luzaro autu orri. Gure «Misiñolari-dei» orrek ez eukan zer ikusirik arimen salbamenaz, eta bai lur barriak ikusi, iñoiz entzuniko erri berarizkoetara joan, basa-pistiak eizatu, eta orreitariko zorakeriakaz. Jolastokian zokondotxo bat geukan, geure «Erreserbea», eta antxe askatzen gintzazan gure ikasketa gogaikarrietatik.

Aitak eta amak arturiko erabagia zala-ta, aspaldiko nire amesak egiazten asi ziran. «Beste erri barriak ikusiko dodaz —niñoan nire kolkorako—, izkuntza barriak erraz ikasiko, eta nire bildur onetatik iges egin aal izango dot».

Nora joan? Aitaren gogapenak ezagutu ezkerok, ez egoan orretan ezpairik. Aal izan ezkerok, Ingalterra'ra joango gintzakez.

Euzko-Jaurlearitzak aurretiaz jakiñerazoten eban noiz eta nora zan joateko urrengo «espediziñoa». (Berba au erabilten eben orduko irrati ta egunkariak, baita Euzko-Agintariak be, umeen erbestera joateak adierazoteko). Oneitariko leenengoa, Prantzia'ko itsasertz-aurrean dagoan Oleron izeneko ugartera gertatu zan. Guduaren leenengo illetan zan ori, artetan aparteko arriskurik ez egoala.

Nik orain azaltzen dodazan egunotan Ingalterra'rako joanaldi bat aurretiaz jakiñerazota egoan. «Espediziño» orretan lau millaren bat ume joango ei'ziran.

Luzaro, bere gaztarroan, Liverpool'en lan egin, eta Ingalaterra ia bere erria aña maite eban aitak, ez eban zalantzarik izan. Beste lau milla umegaz, gu irurok be joango gintzakezan Ingalaterra'ra urrengo «espediziñoan». Mutikook baiño azitxoagoa zan Iñake'k bere ardurapean artuko gendukezan. «Ez izan ardurarik, Bentura —iñotsan aitak amari—; ez dira alperrik galduko gure umeak!»

Aginduta egoanez, arduradunakana joan zan gure aita, gu iruron izenak emotera. Zoritxarrez, bera arekana joan orduko, lau milla baiño guraso geiago egozan euren umeen izenak emoteko joanda. Ingalaterra'rako, ba, guretzat lekurik ez. Urrengorako ete? Baiña nora?

Artetan, zer guztiak, guk uste baiño ariñago asi ziran eltzen. Arerioen egazkiñen etorrerak gero ta sariago. Frentea gero ta urrago. Arerioen egazkiñak Lemona-alboetako erri-xoetan euren sorta bildurgarria jaurtiten asi ziran.

Ama neure bildur zan, neure osasunaren bildur, eta barriro be arek erabagi bat artu eban, bere biotz samurarentzat erabagi neketsua: Lemona'tik alde eragiñik, Bilbo-inguruetako Bolueta'ra eroango nenduen. Onelaxe asi zan, zatika-zatika, etxekook alkartzen genduzan lokarria eteten. Eta zer, ama maigarri batentzat, etxeko txikarrena iñoren etxera bialdu-bearra baiño samintsuago?

Bolueta'n gure arreba nagusia zan Karmen'ek lagun kutun bat eban, nik ondo ezagutzen neban laguna: Juli. Umezurtza zan. Aren nebak ezkonduak edo gerran ebizan, eta aitzatzat eban lengusiña bategaz bizi zan. Lengusiña onen izena be Juli zan ezker, «Juli gaztea» esaten geutsan, berau besteagandik bereizteko. Amak arekana eroan nenduan; eta gure Juli biak ni etxekotzat artuarren be, neugaz geratu zan Bolueta'n, Lemona'ra biurtu bagarik, ni etxe barrira oituko ez ete-nintzan bildurrez. Iru-lau egun egin ebazan Bolueta'n; baiña lengusiña biantzat bera an egotea alde batetik neketsu ta karu izan zeitekeala, eta bestetik Lemona'koak ikusi naiez, onelako baten Lemona'ko besteakana biurtu zan, ni Bolueta'n bakarrik itzita. «Bes-

teak» esan dot Lemona'koak aiatuaz, baiña ori be egia utsa ez dala esan bear dot. Urteak ziran gure Iñake gugaz ez egoala. Bermeo'n, portuko elizako abadea geure amaren nebea zan: osaba Bizente. Onek gure etxekoakaz artu-emon ezin estuagoak ebazan. Abade gazte zala, Bermeo'rako izentatu ebenean, ara eroan eban naskatilla gaztetxo bat baiño ez zan gure ama. Antxe ezagutu eban gure amak bermeotar jatorra zan bere senarra. Osaba Bizente'ren etxean ikusi genduan lur onetako argia sei neba-arrebok (eta eurotariko umetxo bi bertan il!); etxe aretan bizi gintzazan guztiok gure aita itsasoan ibili zan artean. Eta itsasoko bizikera latsaz gogait eginda, legorrera etorri eta guztiok Bilbo'ratu gintzazanean, ez orregaitik osaba Bizente'gaz lotzen genduzan maitasun-lokarriak eten. «Guztiok eroango dozuez Bilbo'ra?», esan eutsan aizta gazteari —gure



Anberes'ko Geltokian.

amari— aitzarik zaarrenak, abadearen giltzain zan izeko Mari Juana'k. «Itzi egiguzue norbait, gure etxe zaarrean be poz apurren bat loratu daiten!» Iñake izan zan Bermeo'koakaz geratu zana...

Iñongo onena zan gure artean bera, laguntzeko beti gertu. Tabakorik merkeena («Matakintos» esaten geutsana) erosteko, edo Batzokiko ziñera joateko lau txakurtxiki bear genduzanean, an egoan bera nebatxoai laguntzeko gertu. Neskatillatxo liraiña izanik, bere babespean artzen genduzan Bermeo'ra —Gabonetan-edo— joaten gintzazan bakotxean. Batez bere, okerkeriaren bat eginda-edo, osaba ta izekoa asarre jarrita, etxetik ez urteteaz zigortzen genduezanean. Nire ume-begientzat ames bat zan gure Iñake, ona, biguna, polita, beti laguntzaillea.

Bein, amak Juli'renean egin ebazan egunetan, gugandik iru kilometro urrun egoan Bilbo'ra eroan nenduan. Zabalbide'ko senideak ikusi, eta, egunkarien bidez Bermeo'n zer jazo zan atara ezin geikeana, euren bitartez jakiteko asmoz joan gintzazan Bilbo'ra. Gure etxea Pasaia'tik iges egindako familia batek artuta eukan. Baiña gure beeko bizitokian «Osaba Anizeto» bizi zan, Bermeo'ko gure aititaren anai gazteen barregarria. Semeak mundu zabalean zear sakabanatuta eukazan. Ez, ostera, alaba Paulatxo (amari be Paula eritxon, Paula arrain-saltzaillea, eta, edozelan be, ama eta alaba ezin izen bardiñaz deitu). Bermeo'n egoan, Demikus'ko albaiter (beterinario) bategaz ezkondu. Gu Zabalbide'ra eldu gintzazanean, an egozan senar-emazte ta suiña, aldi aretan artu geinkean aparti urria artzen. Suiña ikusirik, gure Bermeo'koen arduraz —batez be Iñake'renaz— amak itandu: «Gurerik ikusi bai? Zer egiten dau gure Iñake'k?». «Egun bi dira —erantzun eutsan arek— Italiarrak Bermeo'az jabetu dirala. Areik sartzeko, eta nik iges egin! Osaba ta izekoagaz geratu yatzue an Iñake». Barri ori latzegia zan egiazkoa izateko. Gure Iñake faszisten erpeetan! Negar baten asi nintzan, arreba maitearen izena zotinka bein eta barriro esaten niarduala. Amak bere besoetan estutu nenduan, eta isi-

lik, nire zotiñak baiño entzuten ez zirala, Bolueta'ra biurtu gintzazan. Bilbo'tik alde egiteko asmoz, Santutxu'ko futbol-zelaiari, olezko iskillotz trebetzen ziran gizon-talde bat aurkitu genduan; besterik iñor be ez. Ez yatan guzti au larregi ardura. Nire gogapenak Bermeo'n egozan, bearbada geiago iñoiz ikusiko ez neban Iñake'ren ondoan...

Ez egoan, bada, niretzat erbestera joaterik, ezta «espediziño» barriren bat gertatzeko zanik be.

Abar-domeka zan. (Artetan, aste bete Bolueta'n eginda gero, barriro be Lemona'ra eroan nenduen. Gure Karmen Juli'gana etorri eta biok «San Andres» izeneko batailloiaren kamioi baten eldu gintzazan Lemona'ra. Etxekoen miña sentitzen neban biotzean, eta ezin luzaroago etxetik kanpo bakarrik jarraitu.) Domeka orretan, gure etxekoen artean oiturea zanez, etxeko guztiok goizeko Mezatara joan gintzazan, Lemo-aizpean dagoan elizara. Jai-jantziz giñoiazan, baiña bai arduraz beterik be. Orduko, Gernika ederra auts eginda egoan, Durango'n ainbat errubage il, eta Francotarrak Bilbo'rantz aurrera etozan. Noiz elduko ziran Lemona'ra? Mezatan, Maurizio Mimentza'k emon euskun uste onaz, guztia aaztu yakun; baiña, Mezea amaituta gero, Elizondo-auzoko etxe-aurrean, bata bestearen zain, elizatik noiz urtengo, guztiok alkarregaz etxeratzeko gengozala, Lemo-aitz bizkarrean zartadak entzuten asi gintzazan. Zornotza-aldeetik etozan iskillotz-suak, eta tontorreko elizaxoaren inguruan egiten ziarduen lubaganak galerazotea zan arein elburua. Argi ikusten genduan oraingotan, egunkariak ordurarte isildu nai euskuena. Faszistak Zornotza'raiño aurreratuta egozan, eta laster Lemona'ra be elduko ziran. Eta guk gurera iñoiz be etorriko ez ziralakotan!

Domeka ikaragarria, Abar-domeka a! Egazkiñak gure gainera bein eta barriro etozan, eta etxe-ostean egindako babeslekuan egin genduan egun osoa: ototzean, negarrez guztiok, alde guztietatik jausten yakuzan bonbak gu noiz lurperatuko bildurrez.

Eta Bilbo'ra joatea erabagi eben gure gurasoak. Ez egoan Lemona'n luzaroago jarraitzerik! Bearrezkoen genduzanak, arto-uruna, indiabak, garbantsu eta lentejak zorroetan sartu, patiñetik ura atarateko motortxo bere lekutik kendu...

Astelenerako gaua laster igaro yakun, lorik egin eziñik be. Biaramonean, goizeko lauretan, berarizko tren batek artu genduzan Bilbo'ra. Galdakano'ra eldu orduko, an ebizan gure ganean, saien antzera, bere ostean etorriko ziran egazkiñai bidea atontzen eutsen egazkiña, guk ezizentzat «Goikoetxea doillo-rra» ezarri geutsan egazkin zitala. Saiak gorpua lez, arek be eriotza agertzen eban.

Bilbo'ra eldu gintzazan. Niri bizitzako zati bat amaitu, eta beste bat asteko zan.

\* \* \*

Inglaterra'rako izenak emonda, «Habana»-n lekuri ez ebenentzat, «espediziño» barri bat asmatu eben gure agintariak. Inglaterra'ra joan zan «Habana» itsasontzia Bilbo'ra biur-tuta bereala, beste ume-talde bat arturik, Prantzia'ra joango zan.

Erriak eukan bildurra gero ta sakonagoa zan, eta ara edo bestera iges egiteko ziranak gero ta geiago. Beraz, gure agintariak erabagi zorrotz bat artzera beartuta egozan: umerik txikarrenak baiño ez ziran erbestera joango, amairu urte egin bagarik egozan umeak soillik. Benantzi'rentzat ez egoan, ba, Prantzia'ra joaterik. Igaroriko asteetan amalau urte bete eban. (Lemona'n ala Bilbo'n? Jazopen latz eta garratz areik zitala, urte-egunak zelan ospatu?)

Joatekotan, ba, neu bakarrik joan bear izango neban Prantzia'ra. Zer egin? Gu irurok erbestera alkarregaz bialtzeko gurasoan itxaropen guztiak, arrakalduta dagoan baserri zaar baten antzera, goitik-beera jausi ziran.

Aitak beragana joateko egin eustan dei. Une samin aretan, umearen burubidea bear eban, erabagi okerrik ez artzeko.

«Txabi, zer dozu naiago? Gugaz emen geratu, ala Prantzia'ra bakarrik joan? Benantzi amalau urtekoa dan ezker, arentzat ez dago joaterik.»

«Joan!», izan zan nire erantzun ariña.

Eta aitak bare-bare ganeratu: «Bai, obe izango yatzu! Zoaz eta gerra zital onetatik onik atara egizū zure burua!»

Nik emondako erantzunaren ondorenak orduan ez, geroago ulertuko nebazan, «Habana»-ra igoteko gengozala.

Erabagia artu bai, baiña Bilbo'tik noiz urtengo ez genkiala, an gengozan guztiok artaga ta urduri.

Francotarrak gero ta urrago geukazan. Egunak ziran, Lemo-atxean izaniko burruka gogorak amaituta gero, Lemona artuta egoala. Bertako gure ezagunen agotik entzun genduzan laster askatuak izateko itxaropenez, an geratu ziran familia batzuk eroan bear izan ebezan neke ta zoritxarrak.

«Ba'al-dago Prantzia'ra joateko diran umeai buruzko barririk?» Itaun ori zan aitak ia egunero itauntzen ebana, nik iñoiz beragandik alde egingo ez nebalakoaren ustez, bearbada. Inglaterra'rakoak ara joanda egozan. Itsasontzi berean joango ei'gintzazan besteok bere. Itxaron-bearra gaitz egiten yakun guztioi: ez dago, egon be, gizonaren bizitzan zalantza baiño neketsuagorik. Eta artetan, egazkiñak gure erritxoak erre, Bilbo'n baserri ta alboko errietakoak pillatu (gure «Gran Vía» ederretik amaikatxo burdi ta bei, mendiko bideetan lez!), eta guztion atsekabea egunerik egunera sakonagoa.

Maiatzaren azkenengo egunean (maiatz-edertasunik ez genduan maiatz aretan somatu) kartadun bat etorri yakun arratsaldeko orduetan aitarentzako karta bat ekarrela: «espediziño»-idazgelatik (ofiziñatik) bialduta etorren, eta bereala ni gertu eukiteko jakiñerazoten euskuen. «Habana» biaramonean urteteko zala, eta illuntzerako itsasontzian egon bear izango nebala; Portugalete'ko.trena artuko gendukeala umeok; gurasoak, barriz, ez ebela geltokitik aurrera joaterik.

Karmen eta Miren nire soiñekoak gertatzen asi ziran, nire izen-aurreko letrak barrukoai itsasten... Gizontxo baten antze-

ra euki nenduen une aretan; nire bizitzan leenengoz eroango nebazan azpiko soiñekoak, agiñak garbitzekoa, eta niretzako gauza barriak... Aitak kartatxo bat idatzi eustan. «Emen dozu au: nire lagun andia dan Gorgonio Renteria'rentzat da. Egunen baten berau aurkituko ba'zendu, esan egiozu noren semea zarean.»

Andik laster barriro be beste kartadun bat. Soiñekoen ardurarik ez eukiteko; soiñean geukazanak baiño ez geikezala eroan; enparaduak urrengo baten, gu gengozan lekuetara bialduko euskuezala. Portugalete'ko geltokian agertzeko ordua be jakiñerazo euskun.

Nik nebazan amaika urteetan, ez neban onelako unë larri-rik iñoiz izan: gure ama geisorik egoan, eta Portugalete'ko geltokira laguntzeko gauza ez zan amatxori «agur» esan bear. Jantokian geukan «chaise-longue» baten egoan aspalditxo etzunda. Zurbil, argal, gugaitik eroandako ardurakaitik geisorik. Ez eban negarrik egin. Mosu laztan bat emon eustan —gau guztietan gu ogera joan orduko emon oi euskunez—; eta agur egiteko, «Txabitxu, ona izan zaitez beti!», besterik ez eban esan. Amatxok gure euskera bigunean esandako berba bigun oneik lagun izan nebazan urrengo illetako bide-zidorretan zear, eta umetxo bati bidean agertzen yakozan oztipoetatik onik atara nenduen.

Une orretan negarrik-edo egin ete-neban ezin esan daiket gaur. Beste aldera begiratuko neban, bearbada...

Bere bakartadean itzi genduan ama errukarria.

Zer geiago? Naiz-ta aalegiñik beroenak egin, ezin ekarri daikedaz burura une areitan bizi nebazan guztiak. Ba-dira, alan eta guzti be, nire bizitza osoan aaztuko ez yatazanak, orduan izaniko esperientzia pozgarri ta itunak. Nik zelan ez dakidala, geroko neure bizikerea eratu dabe jazopen orreik, eta zelan edo alan neureak egin dira.

Leenengoa, amatxoren agur ituna zan. Bigarrena, aitatxo azkenez ikusi neban unea. Geltoki-ateraiño lagundu eustan, baiña aurrerago joatea guraso ta senideak debekatuta euken.

Neskato ta mutikotxoak baiño ez gintzazan trenera igo, gure etxeetariko askok porturaino geugaz joan nai izanarren be. Geltokiko ate-aurrean egin neutsan agur aitari. Negarrik ez, tristorarik ez, eskolako mutikoakaz ondartzara ostera bat baiño egingo ez ba'neu lez.

Bostak ziran. Portugalete'rantz asi zan tren. Umeok leioetan; senide ta adiskideak, alde bietara eskuak gora jasota, guri agur egiten.

Eta arein artean, niretzat eunkada arein artean bakarra, aita maitea. Nire eriotzaren kanpai-durundia entzun ba'neu lez; oiñaztuak lurrera jaurti ba'nendu lez... Une orretan ikusi neban iñoizko argien, noraiñokoa zan nire aitaganako maitasuna. Ez ete-zan, ba, nire errua etxekoak nigaitik orrelako atsekabea ar-tu-bearra?





## ERBESTERAKO BIDEAN

Umetan, anai-arteko gudu aren erruz, Prantzia ta Beljika'ra joan nintzan ezker, beste askok guri buruz idatzi daben edozein irakurgai edo idazlan / oso interesgarri izan yat. Orrela, nik parte artu neban jazoera orrei buruz idatzi diran zuzenbageria ugariak irakurri dodaz.

Izugarriak dira gerrak. Ikaragarriak anai-arteko burrukak. Izugarria gure frenteeetan gure gazte mardulak itxaropen bagarik bizia emotea. Izugarria erri baketsuak erreten eta emakume ta ume errubageak ilten ikustea. Ikaragarriagoak, bearbada, alde bateko ta bestekoen artean erretako ikusi-ezin eta gorrotoak. Baiña guztien izugarriena «Bakearen mandatari» izan bear leukeenak, eurak be, guzurra ta gorrotoa dariela ikustea da. Orra or, guri buruz, España'ko eliz-gizonai jazorikoa, zotiñez nire etxeokak niri azaldu, eta aldi aretako aldizkarietan geroago irakurri aal izan nebanez.

Begoña'ko Ama dogu Bizkai'ko «seme leial» guztiok gure Ama ta babespetzat. Amaikatxo bidar joan gara umetarik Artagan-tontortxora, gure ardurak, andi edo txiki, Amaren babesean jartera!

Francotarrak Bilbo zapalduta bigarren illean, an alkartu ziran gure jauntxo barriak, Begoña'ko Amari ainbeste il eta espetxeratu eta erbesteratuen lepo-ganetik, garaille urten ziralata, eskerrak emotera. Une egokia agertu yaken Bizkai'ko seme guztien Amaren jaia, «gorri ta sasi-abertzaleak» zapuztu eta orduko bizikera ederra leenagokoaz bardintzeko. Begoña'ra etorri ziran artean, Aita Santuaren ordezkoko zan Antoniutti jauna egoan. Eta beronegaz batera an agertu zan Goma

kardenala be. Leenagotik zan berau gure artean oso ezaguna. Beronek idatzi eban España'ko gotzainik geienak izenpetu eban karta negargarria.

Aldi onetan egin eban itzaldian, ume errubageak erbestera beartuta eroanak izan zirala esan eban. Arek iñoanez, «sasi-abertzale ta gorrien bada-ezpadako elburuai laguntzeko». Negargarria, benetan, eliz-gizonen guzur-esatea...!

Bolueta'n egin neban astean, umeen artean oi danez, beste nire adiñeko mutiko batzuen lagun egin nintzan. Areitariko batzuk langille-semeak ziran. Idazgeletan euken beste batzuen gurasoak euren ogibidea. «Eskumakoak» ziran batzuen etxeokak, «ezkerrekoak» beste batzuenak. Ez eukan gurasoen politikak gure artu-emonetan zer ikusirik. Galdakano'ra doan «Bide barria»-ren azpian tunel bat egoan, eta tunel orretara joaten gintzazan egazkiñak urreratzen ziranean. Tunel aren aurreko enparantzan alkartzen gintzazan areik alde egiten ebenean. Gure artean sarrien erabilten genduan berbeta-gaia kanpora yoiazan «espediziñoak» ziran. Batera edo bestera, geienok norabaitera joateko gengoan. Arein artean ziran anai bigaz laster egin nintzan adiskide. Ezeren ardurarik izan bagarik, «Errusia'ra joateko izena emonda eukela» esan eusten. Komunista Alderdikoak ziran arein gurasoak: nora joan, ba, «langilleen atsegin-lorategira» izan ezik?

Beste etxeoketakoak, euskal-abertzaleak ziran-eta, naiago eban euren umeak Sartzaldeko errietara bialtzea: Prantzia'ra naiz Inghlaterra'ra.

Prantzia'rako nire joatea zala-ta, idazgela batetik bestera aitari lagundu neutsan ezker, neuk esan daiket zelako seriotasunez erabili oi ebezan gorabeera areik gure Euzko-Jaurlaritzak jarririko arduradunak. Ofiziña bat baiño geiagotara joan bear izan genduan aita ta biok (zegaitik ez dot iñoiz be jakin), eta, alkarrizketa bakotxaren ostean, aitag izenpetu egin bear eban, gurariz eta libre, berak artzen ebala bere gain erri izentatu batera ni joatea.

Errukarri ta lotsagarria benetan jauntxo barriak orrelako gurrak esatea eta euren umeak, gerrearen arriskuetatik zaintzeko, erbestera bialdu ebezan gurasoak onela iraintzea. Umeok ez genduezan erabili euskaldun abertzaleon onerako, ez, faszisten propaganda-elburuetarako baiño.

Nik esandakoetatik argi ikusi daitekenez, ez ziran bear-tuak izan gure etxeokak gu «fedebagako arrotz-lurretara» bialtzera (aldi aretako propaganda lotsagarriak, «Gerra Santua» —«Cruzada»— beste errietako katolikuen artean aldezteko, esan oi ebanez). Ezta —kristau-izena eroien jauntxo areik gerneratzen ebenez— gure kristau-fedea galtzeko zorian be.

(Egia da, ostera, guretariko batzuk erbestetik etorrerazo genduezala, gure gurasoen baimenik eskatu bagarik!)

«Habana» itsasontzia zala-ta, arro izan dira iñoiz España'ko itsas-gizonak. España'ko portuetatik Ipar-Ameriketa'ra eta Antilla-ugarteetara egiten ebazan arek bere joan-etorriak; España'ko literaturak agirian esan oi ebenez, «Ama Aberri»-ko portuetatik Ameriketa'ko «alabakana», gerran galduriko azkenengo «ondakiñetara». Leengoen miña sentitzen eben agura asko «Habana» izena aitatuaz.

Anai-arteke gerra zitala oldarrez biztu zanean, itsasontzi bakotxak bera egoan portuan geratzeko agindua artu eban, edo, une aretan itsasoan zear ibili ezkeru, ontziari edo itsasgizonai egokien portura joateko. Gure «Habana» arroa «leialak» eurakanatu eben eta Bilbo'ko portuan lotuta geratuerazo.

Gerrea amaituta gero, leengo joan-etorri zaarretara jo eban. Suak ondatu eban betiko gure «Habana» arro, zaarra, New-York'eko portuan lotuta egoala. Millaka ume ta emakume errubage, gerrearen izutik atara ebazan itsasontzi agurgarriaren azken tristema!

«Habana» egoan porturako bidean, ez genduezan zirikatu egazkin faszistak. Baiña gerreak dakarren atsekabe ta negarrak ikusi aal izan genduzan (gebazan) gure trenaren leioetatik. Lurtxana'n, ibai-ertzean, an ikusi geikean Valencia'ko Gobernua-ren urpeko guda-ontzi bat. Eta zerbaít aurrerago, —noizbaít

itsasoan burruka-susmoren bat egoanean, portutik urteteko adorerik ez ebalako— gure erriak «Portu'ko Pepe» ezizena ezarri eutsan «José Luis Díez» itsasontzia. Matxitxako'ko burrukan ez eban arek parterik artu; bai, ostera, Del Río, guk geukan egazlaririk onena ta trebeena, lurrera jaurti ta il. Ezer egitekotan, okerra egin bear!

Portugalete'ko aizpean dagoan tunel negargarria! An egozan, gau ta egun, millaka, gizon zaar, emakume ta ume goseberak, egazkiñetatik euren bizitza salbatzeko gogoz. Santurtzi'ko kai zabalean egoan, gure zain, «Habana» arroa.

Non egoan gerra izugarria? Non gure bildurrak? Non —au be jazotekoa zan— gure etxeke maiteak? (Umeai orain eta leen eta gero, erraz, errazegi aaztuten yake edozer. Zer izango litzake umearen bizikera ikaragarria, jazoera neketsuakaz aaztuteko gauza ez ba'litz?)

Ontzira geroiazan maillatik legorra itzirik, ontzira igo gintzazan. Udabarriko illunabar gozo ta leuna zan. Ume-talde bakotxari gelatxo bat emon euskuen. Gero, jateko gozoa, aspaldian euki ez genduzan gozokiak. Laster itzi genduzan aaztuta gure etxeokak.

Artega, nekatuta, egun aretan biziriko guztiak jota geratu gintzazan. Loak triskatuta gengoan. «Lotan dagozala, txiro ta aberats, guztiak bardiñak ei'dira», diño esakera zaarrak. Gure egoereari buruz, esakera ori aldatuta, auxe esan geikean: «Euzkadi'ko ume errukarriak, une aretan, beste errietako ume zorionsuen antzeko gintzazan». Lo egin, umeok, biar zuenakandik urrun egongo zaree-ta!

Ontzi-tresnen zaratotsak iratzartu genduzan biaramon-goizean. Portutik itsaso zabalean zear giñoiazan. Bagillaren egunsenti zoragarria zan (bagillaren leenengo eguna), eta, gure leiotxo biribiltxoetatik aspaldian ikusi bagarik geukan geure Kantauri urdin-ederra ikusi geikean. Euzkadi'ko lege-uretatik —orduko «iru millak»— urten arte, «Císcar» —«Portuko Pepe»-ren antzeko bat— genduan gure alboan lagun.

Ia urpean egoan gure gelatxoa. Polito-polito, banan-banan, aurpegia katuak lez garbituta, an agertu gintzazan ontzi-gaiñean. An egozan emakume ta ume, guztiak alkartuta, zokondo guztietan erdi etzunda, lo, negarrez, umeai isilik egoteko esaten. Zurbil, gose, jazoriko nekeak, itsasoak jota...

Itsas-gaiñetik ikusten genduan, arrituta, Bizkai'ko izpazter ederra. Kai-txoriak geuri jarraitzen geukazan, gugandik zerbait artuko-ete zain. «Císcar» Bilboratu egin zan. Ez gengoan, orraitino, bakarrik. Beste guda-ontzi batzuk, andi ta txikiagoak, agertu yakuzan zeru-mugan.

Urte asko igaro dira guzti oneik jazo ziranetik, baiña ontzi orrein izenak ez yataz onen erraz aaztuko.

Itsasoak inguratuta, zeru-lur urdiñak baiño beste lagunik ez genduala, «Home Fleet»-eko ontziak (aitak irakatsita neukan «Home Fleet» orren esanaia) geugaz, bai, baiña oso urrun ikusten doguz. Arnasa garbia artzen diardugu ontzi-gaiñean. Onelako baten, guda-ontzi zaar, lau tximiñiaduna, dator guga-nontz. Iñok ezer esan orduko, ba-dakigu guretariko askok ontzi zaarraren izena: «Velasco» da. Bilbo'ko egunkarietan sarritan ikusita daukagu aren argazkia. «Velasco» itsasontzia zan, «Almirante Cervera»-gaz batera, otso amorratua ardi apalenzat dana, gure Bermeo'ko arrantzaleentzat areriorik bildurgarriena. Bildur ziran gureak, areik agertzen ziranean, eta Bermeo'ko portuko emakume arrain-saltzailleak bigarrenari izena aldatu eta izen barregarri bat ezarri eutsoen: «Amante Severa».

Zer dala-ta urreratu emakume ta ume baiño ez dakazan gure «Habana»-ri?

«Home Fleet»-ekoak, berealaxe, zoli jarri ziran. «Morse» ezaugarrien bidez, an asi eben batak eta besteak, guretzat ulertu eziñezko alkarrizketa. Onela «berba» egiten ziarduan leenengo gugandik urruntxo ebizan guda-ontzi eder-aundi bat zan (guretariko «jakintsuenak» *kruzeroa* zala iñoen; *akorazadoa* be ba-leitekeala izatea). Ingalaterra'k aldi aretan eukan guda-ontzirik indartsuena zala jakin genduan geroago, «Hood» izenekoa. Gurea amaitu ostean asi zan gudu nagusian, guztiok

dakigu zelako azken ikaragarria izan eban ontzi arro arek. Jau-nak emongo al eutsen, guri lagundu euskuen itsas-gizon gartsu arei, guk guretzat nai genduan bere bakea!

Beste «Home Fleet»-eko ontzi txiki ta arin bati zuzentzen eutsazan arek bere ezaugarriak, seiñaleak (leengo jakintsuak beste au *destroyer* zala iñoen, ontzi oso ariña). Geugana alboratu zan bigarren au, «Velasco»-gana artez joan orduko. Mariñelak guri kiñuka egiten ikusten genduzan, guri laguntzeko gertu egozala adierazoten lez. «H 64» eukan alboan idatzita. Zer jazo ete-yaken mariñel adoretzu arei, une aretan guztiok susmatu eta laster zart egingo eban gerran?

Txakur indartsuak aausika eginda, txalin-txakurtxoak buz-tana anka-artean daroala iges egiten dauanez, alantxe egin eban iges «Velasco» zaarrak gure «H 64» etorrela ikusiaz. Fut-bolea bai'gengoan, txaloka asi gintzazan ontzi-gaiñean umeok...

Beste ikusteko andirik ez geukan gure joanaldian. Emakume ta umetxoak itsasontzi-gaiñean lo egin edo atsedean artzen eben. Euren senarrakaitik ixillea negar egin (non egongo-ete areik, galduta egoan gerratean burrukan?) Umeak, itsasoak jota, erdi-geisorik...

Illunabarra da. Urriñean Prantzia'ko itsasertz zabal eta leuna agertzen yaku. Gure «Habana»-k ertzetik urruntxo aingurak itsasora jaurtiten dauz. Lotan goaz. Nekatuta gagoz.



### «DOUCE FRANCE» (Prantzia gozoa)

Amaika urtetako mutikoa izanik, eta orduko urte bi Prantzia'ko izkuntza gogoz ikasiarren, ez nekian, iñoiz entzun be ez, gure Naparroa'ko euskal-semeak Karlos Nagusia eta onen buruzagi Roland'i egindako burrukearen barri. Ezin, ba, irakurri il-zorian egoan Karlos'en gudaroztearen buruzagiak, geiago ikusiko ez eban bere errira begira esandako azken-berbok: «Douce France! - Prantzia gozo ta biguna!»

Obe zan. Nire Prantzia'n eukiriko leenengo esperientziak ez eukan gozotasun eta biguntasun orrezaz zerikusi andirik.

Taldeka eroan genduezan txalupa baten itsasertzera. Gu eldu orduko, an egozan guretariko beste batzuk. Asarre agertzen ziran, eta geuk be bildurra artu genduan.

Gu itsasertzeratu gintzazan «La Pallice» eritxon portutxoan, olezko etxe zaar bat egoan, besterik ez. Etxe orren inguruan ebizan ertzain batzuek, kiñuka, etxera sartzeko iñoskuen. Etxe-barruan osagille ta geiso-zain batzuk, zuriz jantzita, tresnak eskuan, geukazan gure zain. Aurrera, gure erritxoetara joan orduko, naparreriarren aurkako txerto (vacuna) bat artze-ko geukan. Gerran murgilduta lez egoan gure erria, gu guztiok goseak erdi ilda, aul eta makal geienok, geisoa laster zabaldu zeitekean gure artean.

Edonora doan edonori egin oi yakona egin euskuen geuri be. Alan eta guzti be, ez yakun erraz aaztu Prantzia'ko gure leenengo esperientzia mingotsa.

Geroago, Landes'etako Capbreton'era eldu gintzazanean, guretariko batzuk, txerto orren erruz min andiak eroanda, geisorik jarri ziran. Gernika'ko Zallo'k —iru anaietariko nagu-

siak—, Gipuzkoa'ko mendietatik etorritako iru anaitxoak... guztiok euki genduan zerbait. Ume errukarriak, euren euskal-mendietatik gerreak oildu, eta asierarik, euren aberri barrian, orren sakon nekeak eroan bear!

Abadeak eta andereñoak deika asi yakuzan, SNCF'eko geltoki txikitxora joateko. An egoan, geure zain, Prantzia'ko bideetan eroan bear genduzan trenan.

Bakotxa bere tokira. La Pallice'tik alde. Gure eskumara Kantauri'ko itsasoaren ertz urdiña (prantzesak «Gaskuñña»-ko izpazterra diñotsoc. Baiña Gaskuñña ta Euzkadi bat dira.) Andik eta emendik itsasertzean zear sakabanatuta, ugartetxo txiki zoragarriak. Aruntzago, izparrenean geldu, gure «Habana»: Agur betiko! Ezkerretara zelai gozo, bigun, berdeak. Beiak, bei txikitxoak...

Erri anditxo batera eldu gintzazan: onen izena, La Rochelle. Geroko urteetan ikasiko neban uri onen izen andia. Naparroa'ko erregegaia, geroago Enrike IV izeneko Prantzia'ko erregeak, uri onetara iges egin eta bertan babesa aurkitu eban Prantzia'ko erlejiño-gerratean. Niri, La Rochelle izena aitatzen yatanean, ez datorkit burura esne berroz beteriko ontzitxo bat baiño. Geltokian emon euskuen bertoko Gurutze Gorrikoak; nik egarriz agora eroan eta agoa erre.

La Rochelle'tik Akitania'ko uririk ospetsuena dan Bordel'era daroan bidea, edonok ezagutzen dauzan erritxo ta lur-rakaz txipristinduta dago. An dago Cognac, Prantzia'ko edaririk entzutetsuenari izena emoten dautsan lur onetako erritxo. An Rochefort, gaztaeak dirala-ta, munduan zear ezaguna. Eskuma ta ezkerretara, bei txikitxo askok —Rochefort'eko beitxoak— bedar-zelaietan larratzen ziarduen, eta Egoalde-eguzki epela artzen eben maastiak ikusi geikezan.

Geroago gizonai buruz entzungo dodanez, ez dakigu une aretan umeok nondik gatozan, non gagozan, nora joateko garen... An agiri da gizon eta emakume talde bat (gure Euzkadi'tik erbesterratuak areitariko geienak) gure zain. Umeok talde bitan banantzen gaitue. Bertan geratuko dira talde bateko neskato-

mutikoak. Aurrera joango dira beste taldekoak. Prantzia'rako bidean loratu diran egun bateko lorak, adiskidetasun barriak, laster zimelduko dira. Gure azkenengo berba ta agurrak dirautsaguz alkarri: «Ez gutzaz aaztu! Aalbait ariñen idatzi!»

Nora doaz eurok?, nora garoez gu? Ego-aldera gure tren. «España'ko mugara! —diñoskue gure andereñoak, itxaropen eta poz apur bat gudan sortzeko asmoz—. Euzkadi'tik urr, etxeokak ikusteko lez, izango gara laster!»

«Nok jakin? Laster amaituko da, bearbada, gure gudua, eta, atzerrian egote labur baten ostean, egun batzuk barru geure etxeokakana biurtuko gara!»

Ames orretan goaz Ego-alderantz, Akitania'ko maasti eta Landes'etako piñudietan zear. Geltokirik txikienetan, an batu dira gizon eta emakume taldeak, España'tik datozen umetxoai «agur» egiteko. Ukabilla erakusten dabe gizonak, umetxoak ikurrin txikitxoak, emakumeak sarritan negarrari eutsi eziñik. Prantzia'ko «Erri-taldekoak» dira, antza, eta Euzkadi'tik erbestaturiko umetxooi biotzetan adore apurtxo bat sarrerazo nai daukue.

Paris'tik gure mugara daroan bidean dagoan Labenne'ra eldu gara. Illunabarra da laster. Goizetik asita, egun osoan emendik ara ibilita gagoz. Nekatuta. (Leenago beti aitari, Zumaia baiño aruntzago ez nintzala iñoiz joan, nik esan. Zumaia'ra joan gintzazan, «Berrio-Otxoa»-ko umeok igazko urteazkenengo osteran...)

Emen be trenez aldatu egin bear ei'dogu. Ez geiago, antza. Barre egiten dautsagu alkarri, gure geltokitxoan, gorritz koloretuta dagoan tren zaar barregarria ikusten dogula. Nora joan tren orretan? Labenne'tik, itsasertzera, Capbreton'era, egiten ebazan bere osterak sekulako tren zaar onek. Eta gu Capbreton'era ei'giñoiazan.

Tren zaar ori orain baiño leen nonbait ikusita nago. Non, baiña? Izan bere, nire bizitzan leenengoz etorri naz ona oraingo onetan. Begoña'ko Karmeldarretan erakusten euskuezan «Wester» zaarretan, antza. Capbreton'erako tren barregarria

ikusiaz, Aita Domingo'ren irudi ontsua etorri yatan barrura. Illero, leenengo domeketan, Agurtza Deuna esanda gero, elizearen alboan egoan «Zine»ra eroaten genduezan, Aita Domingo'k erakusten euskuzan filmak ikustera. Orduko filmak isillak ziran ezkerro, gure Aita zaarrak an jazoten zana bere berbakaz adierazoten euskun. «Or ikusten dozen ori, Ameriketa'n aspaldian erabilten zan tren zaar bat da», esango eban arek (guk tren zaar bat zer dan jakingo ez ba'gendu lez!). Aita Domingo'k berba egiten ebanean, edonok aditzen eban atzeritik etorria zala bera. Izan bere, «Gerra Andia» 1914-an sortu zanean iskillorik eroaterik nai ez ebala-ta, erritik iges eginda, geure artera etorri zan. «Lisieux'ko loratxoa» zan gure Aita Domingo'k bere erritik ekarri eban laguna. Moja aren izena beti eukan bere agoan.

Aita Dimanche'ren tren (guk, prantzesa zala-ta, onela esaten geutsan) eta guk geure aurrean geukana bat ziran. Eta Capbreton'erako gure osterea, zelan edo alan, «Far-West»-era bizikera barri baten billa yoiazan Amerikatarren antzerakoa zana ezin ukatu.

Capbreton'era eldu gintzazanean illuntzea zan, illunabar biguna. Ezin, ba, baketsu ikusi gure aberri barria. Nekatuta gengozan. Aalbait lasterren ogera joan eta lo egiteko baiño beste gogorik ez geukan.

Urrengo goizean, egunsentiaz batera ikusiko genduzan gu-re etxe barria, gure zelaiaik...



## CAPBRETON

Prantzia'n egon nintzanetik sarritan nai izan dot jakin, zer dala-ta daroan ondartzza-erri zoragarri onek daroan izen ori. Euzkadi'ko muga datza erri ori, Bretoiña'tik oso urrun. Bai Bretoiña'ko semeak, bai euskaldunak, arrantzale amurratuak izan diran ezkeru, arraiñetan joan orduko, itsasertz onen aurrean dagoan izpazterrean aurkituko ete-eben Bretoiña'ko seme kementsuak euren babesa?

Piñudi, ondartzza eta itsasertz zabal eta zoragarriak inguratuta dagoan erri onetan, atsedeen-zelai bat eukan Akitze'ko Eleizbarrutiak, Kantauri-kresala bear eben ume ta gazteak udaldiko aste batzuk an egin eta itsasoko aize osasuntsua artu leikeen.

Aldi aretan Matthieu jauna, gizon adoretzu ta maitagarria, zan Akitze'n gotzain. Euskalerriko semea izanik eta gure izkuntza sakon ezagaturik, gure Erriaren zoriak bera oso ardurata eukan. Alde bateko eta besteko min eta nekeak, bereak bai'liran ikusita eukazan; gure Ego-Euzkadi ikustatu eban eta bai aalegiñik andienak egin be, min eta nekeak, aal izatez, leuntzeko. Arerioen aldean gerra-asieran geratu ziranak eurak aukeratutako lurrera joan aal izatea zan Matthieu jaunak biotzean eukan asmorik beiñena.

Urte batzuk geroago, gudaldian Bermeo'ko portuko elizearen abade nagusi izandako nire osaba abadeak azaldu eustan, beiñola berak, Bermeo'ra etorri zan Matthieu jaunagaz izan eban alkarrizketa. Nire osabeak ez ekian prantzeraz tutik be egiten. «Zelan alkar ulertu?», itandu neutsan nik. «Zelan? Euskeraz!», izan zan aren erantzuna.

Gure gerrea aurrera eta gero ta bildurgarriagoa biurtzen yoiala, gure agintariak umeak toki ziurretera, erbestera, bialtzea erabagi ebenean, Matthieu jaunak bere Eleizbarrutiko atsedeen-toki ori eusko-umeentzat atondu eban, eta bere sakeleko eta Akitze'ko kristauen diru ta laguntzaz toki ori aurrera joaten lagundu eban. Ez ziran, ez, Prantzia'ko kristau guztiak Matthieu jaunagaz eretxi batekoak. Andiegia zan erri guztieta-ko kristauen artean España'ko «sasi-katolikuak» egiten ziar- duen propaganda lotsagarria. Ezin, ba, askok Matthieu jauna «gorrien alde» egindako oneik eta beste maitasun-ezaugarriak onartu. Baiña arek ez eban, orraitioño, onetan bere jokaerea aldatu. Nonbait, antza, Ebanjelioaren mamiña diran Gurutze'ko Paul deunaren berbak eukazan irakurrita: «Azkenengo egunean, zure maitasuna zelakoa, alakoa izango da auzia».

Gure atsedeen-toki ori Capbreton'go inguruetan, erritik kilometro batera-edo, egoan. Alde batetik eta bestetik Landes- etako piñudi zabalak, eta Hossegor'erako bidean, gu bizi gintzazan aldetik, txalet txukun-politak.

Sarbidean, etxe edertxuago baten, gure ardurea eben morroi ta neskameak bizi ziran. Etxe onetan bere sukalde ta umeen jantokia egozan. Piñudiaren ertzean, egunero Mezea ospatzen zan elizatzkoa. Astegunetan ez ziran asko Mezatarra yoiazan. Domeka ta jaiegunetan, ostera, Mezatarra joatera guztiok, ume ta arduradun, bearturik gongozan ezkeru, Meza Deuna sarbiderako etxe dotorean ospatu oi zan.

Bakunak, lauak ziran gure txabolak, ondo aizetuak eta umeentzat guztiz egokituak. Niri izentatu eusten txaboleak izena «Pavillon Guynemer» eban. Txabola bakotzak izen barria, geienetan Prantzia'ko istoriako gizon edo emakume baten izena eban. Prantzia'ko historia iñoiz be ikasi ez genduan ezkeru, ez gekian izen guzti areik zer zala-ta egozan an jarrita.

Nor zan, esaterako, Guynemer jaun ori?

Miragarria da, olan be, gure txabola orren izena geroago be niri ez aaztutea. Urteak igarota, Gerra Nagusian jazorikoak azaltzen ebezan ainbat liburu lodi irakurrita neukazan. Eta li-

buru lodi orreitan aurkitu neban Georges Marie Guynemer'en izena. Prantzia'ko egazaririk entzutetsuena bera. Alemania'n Von Richthofen zanez. Beste egazkin asko lurrera bota ebazana, egun baten, bera izan zan lurrera jaurtia. Baiña egun orreitan esan dodan guzti au «Ames-jakintza» (Science fiction) baiño ez zan.

Txabola guztietarik zabalena geurea zan. Gela zabal-argitsu bitan bananduta egoan, eta berrogeiren bat umentzat eukan lekua; gure ardurea eben andereñoentzat gela txikitxo bi egozan egokituta. Neskazaar bi ziran gure andereñoak, Eibar'en abade-laguntzaille zan Larrañaga'tar Polikarpo jaunaren arrebak. Oso ezaguna zan Polikarpo jaun ori, Eibar'en eta Euzkadi osoan langilleen alde, batez be Euzko-Langille Alkartasuneko langilleen alde egindako lanagaitik (aldi aretan langille orrei «Solidarioak» esaten eutseen). Eleizearen Gizarte-Ikaskizunak zabaltzen... aretan zan a mutilla! Bearrezkoa zan, izan be, jaun orren lan ori, Eibar'en indarririk andiena sozialistak euken-eta.

On eta bigunak ziran biak, gure premiñetan umetxoai beti laguntzeko gertu; apal eta zintzo, abade baten ezkonbagako arreben eredurik onena. Oni buruz be, ez yat aaztuko, ni testigu nintzala, jazoriko polit bat.

Gure txabolearen aurrez-aurreko bidearen beste aldean, etxetxo polit-txukun baten aizta zaartxo bi eta euron loba zan neskatilla gaztetxo bat bizi ziran. Idazgela bate(ta)n lanean ziarduan neskatilla orrek erderaz be erraz egiten eban. Aal eban guztietan geure aldera etorri eta burdinsaretik gugaz jarduten eban berbetan. Gugaz erderaz egin eta bere izkuntza ontzeko eukan unea berak alperririk galdu nai ez. Pozik gengozan gu, aregaz berba egiteko; gure betiko bizikera gogaikarria zelanbait aldatu egiten zan, eta gure «Mimi» orrek (Mirentxu, orixe zan aren izena) gozoki, txokolate ta beste oparitxo batzuk ekarri oi euskuzan.

Bein, bere izekoren bategaz geugana etorrita, gure ta izekoaren arteko alkarrizketa bakotxaren izkerea biurtzen eban. Alkarrizketa orretan giarduala, ara non agertzen dan gure aizta



«Va» = aitatxo; «Moe» = amatxo.

bietarik gazteena, eta gure ta izekoaren arteko alkarrizketan parte artu be bai. Berak be euskeraz eta erderaz baiño ez ekian ezkeru, «Mimi»-ren laguntza bear izekoagaz berba egiteko. Onelako baten, gure andereñoari buruz andra prantzesak bere lobatxoari: «Esan egiozu neskatilla polita dala!» Izan bere, begi eder, zeru-urdiñak eukazan gure andereñoak! Leenengotan zerbait arrituta, ez zan azartzen Mimi izekoak esanikoak erderatzen. Baiña azkenez, esateko ta esateko, eta izekoaren berbak erderatu. Ez yat aaztuko zelako bigungarri eta bere errubagetasunean maitagarri biurtu zan gure andereño apala!

Andereñoak soillik ez, baita abade bi be ba-egozan Capbreton'en geure ardurea ebela. Irun'en abade laguntzaille leenengo, eta gerratean «Saseta» batailloiko kapeillau izanikoa zan areitariko bat: Irueta'tar Manuel jauna. Geroago, Beljika'ra joan gintzazanean, ikastetxe baten egon zan gugaz, eta aregaz artu-emon estuagoak izan be izan genduzan. Bigarrena, Prantziskotar bat: Aita Arrue. Entzute andiko musikaria zan bera, eta, geroago jakin nebenez, Joseba Deunaren omenez egindako abestirik politenaren egillea. Aita Arrue'gaz be artu-emonak izan genduzan Beljika'ko egunetan. Euskal-jairen bat gertu-bearrean gengozanean, an egoan bera guri laguntzeko gertu.

«Premiñak adimena zorroztu egiten dau». Orrelako esakeraren bat legokio ondoen gu gengozan txabolategiaren sarbideari. Leenengo atalburuan esan dodanez, «Habana»-ra joateko gengozala, soiñean geukazanak baiño ez eroateko esan euskuen. Geroago bialduko euskuezala gugaz artu aal ez genduzanak. Artu bere, bialduriko oncik geroago artu genduzan. Baiña ez guk nai genduan beste laster. Ori zala-ta, gure soiñekoak garbitu-bearrean gengozan guztiok. Baiña, zelan? Capbreton-era eldu eta bigarren astean-edo, guztiok xaboi-zati bana jaso genduan. Xaboi ori artu orduko, ez geukan gure gorputza ta soiñekoak zerez garbitu. Adimena zorroztu bear!

Asmakizuna nok idoro ete-eban ezin esan daiket. Gure txabolategia piñudi ta etxetxoz inguratuta egoanarren, zelaia

bera legor eta ondartsua zan, eta an artelatz («alcornoque» erderaz) batzuk, an-emen sakabanatuta, azten ziran. (Gure bizitzan leenengoz ikusi genduzan artelatzak ziran. Ordurarte orrelako zugatzik Extremadura'n baiño ez egoala uste genduan.) Zugatzen azala, txorkoa, bigun eta leuna zan ezkeru, gure soiñekoak alperrik galdu bagarik garbitzeko, egokia izango yakula geritzagun.

Ezezagun orrek garbibide ori asmatu ebaneko, an asi gintzazan mutiko eta neskato, gure aurpegi ta soiñekoak, xaboirik onena bai'litzan, txorko-zati arekaz garbitzen. Barre egitekoa zan, ordurarte neskatoak soillik egin eben lana, mutikoak egiten ikustea. Baiña laster agortu zan gure lan-zaletasuna. Gure txabolategiko zuzendariak, artelatzak alperrik galdu bear genduzala-ta bildur, oso asarre, orrelakorik barriro aurrerantzean ez egiteko agindu euskun. Jaunari eskerrak, andik laster geure xaboi-zatitxoa jaso genduan guztiok.

Gu Capbreton'era elduta egun batzuetara, kaixa andi batzuk ekarri ebezan gure txabolategira. «Euzko-umetxoai» («pour les petits basques», prantzes-izkuntzak ain bigun esan daikenez) eskiñiak ziran. Uretarako soiñekoak ziran: praktxoak mutillentzat, jantzitxoak neskatillentzat. Guztiak bardiñak, gaztaiña ta ori kolorekoak. Bai poztu gintzazala ume guztiok! Aurrerantzean ondartzara joan, baiñoa artu eta itsasertzeko ur gardenetan uger egingo genduan!

Gu gengozan tokitik iruren bat kilometro urrun, Hossegor'erako bidean, egoan gure ondartzara. Ur garden eta baketsu, urtegi baten antzerakoa zan. Piñudiak ondartzaraiño eltzen ziran, aurrez-aurre erria ikusten genduan, eta gure albo batera Kantauri-itsasoa geukan. Uger egiteko eguna zala esaten euskuen bakotxean, an giñoiazan guztiok, neskato ta mutiko alkar-gandik bananduta, bata bestearen ostean, Seminarioko abadegai koskorren antzera.

Erriko bideetatik igaroten gintzazanean, an ziran erriko atso guztiak geugaña begira.



Gure joan-etorri oneik, aize ederrak artzeak, ez euskuen, orraitino, etxean itzi genduzan maiteak aaztuerazoten. Inoiz ez lez euken areik egun oneitan inongoak jasan-bearra. Ezagutzen genduzan prantzes lagunai geure erriaren barriak itauntzen geutsen sarritan, baiña areik orrelakorik ez ekielakotan, edo bearbada guri ezer esan nai ez. Umeak gintzazan, eta obe yakun etxeko zoritxarrak ez jakitea.

Ondartzarako bidean, orraitino, egunkari-zati apurtuak batuta aurkitzen genduzan; an agertzen ziran albistak adierazoten aalegintzen gintzazan.

«Zuk prantzeraz egiten dozu-ta, zer diñoeg egunkariak?»

Guretariko batzuk —neu euron artean— prantzera irakurri eta ulertzeko lain ba-gintzazan ezker, an inguratzen genduezan beste ume koskorrak, azkenengo barriak entzuteko asmoz. Ez euken beti gure egunkari-atalak guk nai genduana. Baiña ez yat inoiz aaztuko Sopelana ta Getxo Francotarrak artu izan ebezaneke egunkari-albistea. Bilbo bera be laster egoan arein eskuetan jausteko zorian.

Orrelako barriak entzuten genduzan bakotxean, itun biurtzen gintzazan gure txabolara, eta, zokondoren baten taldeka alkarturik eta albistak alkarregaz azaltzean, zotinka asten gintzazan.

Bazkari-osteko atsedena egiten genduala, amaikatxo bidar onelako baten, guretariko bat negarretan asi!

«Zegaitik egiten dozu negar, ba?»

Eta arek: «Neure etxekoak etorri yataz burura».

Ijitoak euren illetetan lez, geuk be lotsa bagarik isurten genduzan gure negar-malkoak.

Gu guztiontzat ikaragarriak ziran albista areik. Jaunari eskerrak, umeak aazkorrak egin dauzalako. Aaztuteak bakarrik legortu eikezan gure negarrak.

Gu inguratzen genduezan piñudi ta zelai baketsuak be ez ziran gauza guri, gerratean egoan erriaren semeak gintzazala aaztuerazoteko.

Bein, ondartzatik gentozan. Egun ederra bagil aretako egunik geienak lez. Eguerdia. Gure txabolategiko zelaira eldu

eta esparruan sartuaz batera, an non agertzen dan gure buruganean egazkin bat (gure Capbreton, Baiona ta Bordel'en bideerdian egoan-eta, batetik bestera joan-etorriak egiten ebazan egazkiña, edo bidaztiak uri batetik bestera eroiazanak-edo...). Guk egazkiña ikusi ta berealaxe, gure gorputza lurrera, zugazpeetara, negarka, aldarrika, anaiak anaitxoak babestu naiez. Leenago bizirikoak, guban bildur guztiak une aretan! Makiña bat aalegin egin bear ebezan gure arduradunak, ezeren bildur izateko ez geukala guri sinisterazoteko! Gerra-ume errukarriak! Geroago be, Olanda'ko mugara eroan nenduenean, egazkin-otsak amaikatxo bidar sortuerazo eben biotz-ikarea nire barruan!

Ez ziran beti negargarriak ondartzarako gure bidean izaten genduzanak. An egoan gure joan-etorrietan ia beti topatzen genduan langille naparra. Geroago entzun genduan ez, España-ko «Erri-talde»-ko alderdikide zintzoa izanik, arin bai arin be, egin eban iges Francotarrak asierarik zapaldu eben bere Naparroa'tik.

Erritik iges egiteko beartuta egoanak, ezin inoiz parkatu etxekoakandik bananduta egotearen errudun ziranai. Bizikeletan etorren bere lanetik, eta, gu ikusten genduzaneke, ukabilla gora jaso —Naparroa'ko bere lagunak egin oi ebenez—, «Mue-rra Franco!» indartsu bat esan, eta, Prantzia'n egoanarren, biotza Ebro bere aldetiko Naparroa'n eukala erakusteko, «Me cago en...», guztiok entzuteko lez, durundatsu erantsiten eban. Berbok entzunaz, guztiok barre egiten genduan, eta gure abade ta andereñoak be irribarre biguna egiten eutsoen.

Ez ondartzako urak, ezta gure bigarren astean arturiko xaboi-zatiak be galerazo eben umeok zikin biurtzea. Onelako baten, guk ezer susmatu bagarik, ulemoztaille bi geugana etorteko zirala jakiñerazo euskuen. Aspaldian ulea moztu bagarik gengoalako etorriko zirala uste genduan. Azkenengo egun larrietan ez genduan geienok astirik izan Bilbo'n —amabosterik amabostera, gurean'oiturea zanez— ulemoztailleagana joateko.

Umeak egin oi dabenez, laster asi gintzazan guztiok, batak besteari esaten: «Zuk joan-bearra dozu!». —«Eta zuk ez, ala?» — «Ni ez noa orrekana. Orreik ez dabe mozten ulea gureak lez!». Oraingoa, baiña, besterik zan. Mundakar mutikotxo bat zan errudun, ulemoztailleak guztiok ule-motz itzi genduzanaren errudun. Bere ule eder-tximurra zala-ta, arro egoan Mundaka'ko gure mutikoa. Baiña garbia ez zan ezkeru, laster biurtu zan aren ule ederra zorri ta bartz-abi.

Izurri a gure artean zabaldu ez zeitean, gure arduradunak gure txabolategiko ume guztioi ulea moztea erabagi eben. Bizkor egin eben euren lana gure ulemoztaille biak. Egun aretan ikusi neban leenengoz ulea mozteko tresna elektrikoa.

Ule-mozte ori zala-ta, ez egozan guretariko guztiak alai ta pozik. Neskatoak, batez be, negar garratzak egin ebezan euren ule-adats ederrak moztuta ikusiaz. Mutikook, ostera, gure kas-kamotzak zirala-ta, amaika barre egin genduan!

Gure txabolategian lege zezatz eta gogorra zan errege. Eleiz-arloan eta oitura-gaietan ez egoan makurkeriarik. Domekero Mezatarra joatera beartuta gengoan guztiok. Ez egoan mutiko ta neskatoak (neba-arrebak alkarregaz egozanean izan ezik) alkarregaz berba egiterik.

Bein —leenengo egunetarikoren bat zan, domeka edo jaija ez dot orain gogoratzen—, gure txabolako arduradunak (Eibartarrak ez, beste batzuk geukazan aldi aretan) jagiteko turutotsa entzun ez (egon be, «Guynemer» pabilloia zelaiaren beste ertzean egoan), eta iratzartu eta ogetik jagi gintzazaneko, goizeko Mezea amaituta egoan. Beraz, ogetik gosaria artzera zuzen joan gintzazan. Gure egitada ori ez zan orren arritzekoa. Gosaria amaitu genduaneko, gure abade bat, gure arduradunakaz osoro artegatuta, berba egiten ziarduala ikusi genduan. Geroa-go jakingo genduan zek egin eban aren asarre.

Andereñoak guretariko «zaarrenoi» banan-banan dei egiñik, domeketako soñiekoak jazteko eta amarretarako gertu egoteko esan euskuen. Mezatarra joan bear genduala.

Kilometro bateko osteratxoa errira eginda, erriko elizara, Meza Nagusitara joan gintzazan. Jakiña, batek be ez eban Meza-tako latinezko barbarik edo prantzeraz egiñiko sermorik ulertu; baiña gure Don Manuel'ek, bere eginbearra bete eban-eta, urrengo gabeen nasai egin eikean lo, barruko kezka bagarik.

Orain idazten dodazan eretxiok, ez ziran aldi aretan «science fiction» baiño. Nik gaur idazten ba'dodaz, nongo munduan bizi gintzazan adierazoteko da. (España'ko gure arerio amorratuak, «komunista-zale eta Eleizearen arerioak» gintzazala etenbagarik iñoen, eta Prantzia'ko euren lagunak ez ziran aspertzen gure erriaren aurka beste orrenbeste esaten.)

Gizonaren bizitzan jazo oi danez, argi ta odeitsu ziran gure Capbreton'go egunak. Odeitsua zan gure arteko ume bik zelaitik iges egin ebenean. Gure erri-miña, gure tristurea, errian itzi eta guduaren ondoren negargarriak croan bearrean egozan gure etxeokoi buruzko gomutea, egunerik-egunera sakonakoak ziran. Taldeka ekiten geutsan sarritan lelo orri, gure artean «i-lleta-izketak» ospatzen genduzanean. Umeen artean ba-ziran txabolategitik iges egin eta etxeokokana biurtzeko asmoa gero ta gartsuago ebenak. Capbreton berbera non egoan be ez gëkian ziur, mugatik zenbat kilómetrok aldentzen genduzan be; baiña, entzunda geukanez, ez ei'gengozan etxetik ain urrun.

Onelaxe asi zirañ, ba, gure txabolako batzuk Capbretondik zelan iges egingo aztertzen. Guretariko batzuek orretariko zorakeriarik ez egiteko girautsen, bidea oiñez egiteko luze ta ez-ezaguna zala, eta laster arrapatuko ebezala prantzes jendar-meak. Orrezaz gaiñera, nok esan euren etxeokak be, azkenengo larrian beste askok lez, ez ebela Euzkadi'tik alde egin?

Alperrekoak ziran gure oar eta burubide guztiak, curak arturiko asmo zoro aretatik biurrerazoteko.

Goiz baten, andereñoak —goizero egin oi ebenez— gu iratzartzera etorri yakuzanean, oge bi utsik egozala konturatu ziran. Mutikoak, esparrutik Hossegor'erako bidera salto egiñik, arrezkero mugarako bidean egozan. Txoriak udabarrian lez, askatasun-arnasa biguna dastatu eikeen eurak be.

Zoritxarrez, laburra izan yaken askatasun-aldi ori. Andereñoak, iges egindako umeen barri emon eutseen abadeai, eta oneik jazioa jendarmeai jakiñerazo. Laster ikusi genduzan gure artean gure «morroiok», arturiko arriskua zala-ta biotza pil-pil, baiña asmatu-riko amesa bete ez ebela-ta itun.

Prantzia'n gure egotea oso laburra izan zan. Ataurrean geukan aren amaiera, baiña ez guk gure amesetan asmatu genduan lakoa. Geure inguruak ezagutu, piñu ta ondartz maite eta gugaz ona etorritako mutikoakaz adiskidetu orduko, albista izugarria zabaldu zan gure artean: «Bilbo Francotarrak artu ei'dabe!». Bilbo jausiaz, «bide luzea» asi zan Francotarrakandik millaka ta millaka iges egin nai eben euskaldun askorentzat. Edonok ekian eurak «askaturiko» lurraldeetan egin ebezan gogorkeriak-eta, ez egoan «gurutz-gudari» oncin arrapakiña izatea nai ebanik.

Onelaxe asi zan guk iñoiz ikusi ez dogun lako «Euzkadi'ren erbesterako biderik» andiena ta garratzena. Geienak, artetan «askaturik» ez egoan Kantauri-ertzeko beste lurraldeetara egin eben iges, beste askok aal eben bideetatik Prantzia'ra, eta guztiak euken zelan-alan lur libreren batera joateko asmoa. Capbreton'go gure zelaia iztera bearturik gengoan, laster etorteko ziran familia beartsu askok euren burua non babestu euki egien.

Andereñoak gu adoretzen saiatzen ziran, naiz-ta bein baiño sarriago orretarako guzurtxoren bat guri esan. »Beljika'ra goaz —iñoskuen—. Etxetik urrago«, iñoen gaiñera azkenengo egunetan etorri yakun eta Don Polikarpo'ren arreba biai laguntzen eutsen Erandio'ko irakasle baltzeran batek.

Guretariko geienentzat Beljika aitatu naiz ez aitatu bardin zan. Irakasle gazte arek esana, ba, beste bagarik sinistu ta iruntsi. Ba-egozan, orraitño, gure artean eskolara joan eta gure Beljika ori non egoan ekienak. Laster ulertu eben oneik irakasle arek esandakoa guri adore apur bat emoteko zana...

Azken-eguna eldu yakun. Goizerik jakiñerazo euskun Don Manuel'ek guztiok biaramonean gertu egoteko, trena iñoren

zain euki bagarik. Egun osoa egin genduan urrengo eguneko osterarako gure iru-lau soiñekoak gertatzen. Banaka batzuk autortzara joan gintzazan abadeakana. Orixe zan, aurrerantzean bizi izateko geukan erri barri ez-ezagunera joanaldia asi orduko egin genduan azkenengo jazopena.

Biaramon-goizean Mezatarra joan gintzazan guztiok. Gosarirako ara non agertzen yakuzan guk aurrerago ikusi genduzan iru-lau emakume gazte. Gosaria eurak banandu; bonboiak, txokolatea eta guk iru aste eder eta garratz areitan ez geukazan ainbat gozoki ekarri euskuezan.

Geroago jakin genduan, Valencia'n egoan España'ko Gobernuaren Zuzenbide-Ordezkarri zan Irujo jaunaren alaba ta senideak ei'ziran emakume gazte areik.

Euskalduna zan Irujo jauna. Alan be, arazo gogor eta mingots ori artu eban, parkatzerik ez egoan gerra-aurrean, ainbeste gogorkeri egin ziran «gorri»-lurraldeko bizikerea leunagoa, zuzenagoa ta samurragoa biurtzeko asmo bakarraz. Mingarriak izan ziran bere arazo orretan izan ebazan eragozpenak, baiña ez gure gizon adoretua neketan egozan gizon eta emakumeak bear eben laguntza-bidetik alde-eragiteko aiñakoak. Bere etxeakoak, alaba bakarra ta senideak ainbat eragozpen garaitu bear izan ebezan, Naparroa'tik iges egin eta Capbreton'go ertzetara eltzeko.

Beste politikari oso entzutetsu baten senideak be gugandik urr bizi ziran. Prieto zanaren etxeakoak, Capbreton'go inguruan dagoan erritxo lilluragarri baten, Hossegor'en, auzotu ziran. Orrekaz ez genduan iñoiz artu-emonik izan.

Trena geure zain egoan. Guretzat «bide luzea» asita egoan. Gau ta egun osoa bidean. Beljika'ko muga. Anberes'ko Geltoki Nagusia.



### «GARE CENTRALE» (Geltoki Nagusia)

Aitatuko dodazan oneik amar urte geroago jazorikoak dira. Gasteiz'ko Eleizbarrutiko Seminarioan Teologia ikasten niarduan. Nire ikasketak sakondu eta aize barria artzeko asmoz, Lobaina'ko Ikastetxe Nagusian ikasteko baimena eskatu ta lortu neban.

Urte-asiera eta Gabon-arteko iru illabeteko aldian, baita urteko beste iru illabeteko aldietan be, geureakana joan eta aste-azken bat geure guraso ta etxeoakaz egiteko baimena emoten euskuen gure «Leon XIII» Seminarioan. Guraso ta anai-arrebak urrun egozan ezker, ez neukan nik egun orreitarako nireakana joateko astirik.

Jaunari eskerrak, Seminario berean, Getxo'n jaio eta gure gerratean Belgika'ra etorri zan abadegai bat bizi zan. Gazte zoli ta argia, beste bere iru anai ta arreatxo bategaz, Malinas'ko abade baten etxean artu ebezan. Aitak bere seme-alabatxoak maite daikezanez, alantxe maite ebazan Ceuppens jaunak —orixe zan beronen izena— neba-arreatxo errukarri areik.

«Geurera etorri zaitetz!», inostan Josu'k, Getxo'ko gure abadegaiak.

«Baiña...» Ni erantzuten asi orduko, «Ez izan ardurarik!», esan eban gaiñera arek. Ceuppens jauna abade pobrea da, baiña ezin onagoa. Pozik baiño pozago artuko zaitu gure etxean!»

Josu'gaz eta beronen anairik zaarrena zan Martin'egaz, berau be Lobaina'ko Unibersitatean ikasten ziarduan-eta, egun areitan, Gabonetarako be Malinas'era euren etxera joateko egin eustan dei Ceuppens jaunak.

Baiña ez da Malinas'era egin neban joan-etorri au lerro oneitan nik aitatu nai dodana.

Nire leenengo edo bigarren Malinas'erako osteran zan, edo bearbada, besteren baten. Ez naz aldi orretzaz geiago gomutatzen.

Nik umetan ezagutu nebazan Anberes'ko lagun batzuk ikustatzera joan nintzan Anberes'era. Oneitariko bategaz berbetan niarduala, gerraldiko gomutagarri batzuk ekarri nai neukezala agertu neutsan nire lagunari.

«Nongo gomutagarriak? Zetan lagundu daiketsut?»

Eta nik: «Anberes'ko egunkari baten aspaldian argitaratu ziran argazki batzuk. Areitariko baten neu be agertu nintzan.»

«Noizkoak dira argazki orreik?», arek niri.

«Aspaldikoak —erantzun neutsan nik—. Arrezkero amarren bat urte igaro dira. España'ko gure gerratekoak. Gu Anberes'era leenengoz eldu gintzazaneakoak. Baiña arrezkero amar urte igaro dira, urte gogorak, urte errukibageak. Ez dot nik uste erraza izango danik orreitariko argazkirik jaristea.»

Nire lagunak, ni laguntzeko ardurea erakutsita gero, argazkiren bat lortzeko bear ebazan zeaztasun batzuk itandu eustazan.

«Ze egunkaritan agertu zintzazan?»

«'Gazette van Antwerpen' zan egunkarian. Eguna —gutxi gora-beera— 1937-ko bagillaren 25-a.»

Egunkari orretan lan egiten eben lagunak eukazan aspaldiko nire adiskideak. Itanduko ebal, eta egun batzuk barru erantzungo eustala.

Alkarrizketa onen iru edo lau egun geroago, sobre zabal bat ekarri eustan Malinas'ko nire zuzenbidera. Nire lagunaren kartatxo bat ekarren bere barruan:

«Emen doakizuz «Gazette van Antwerpen»-eko agiritegian aurkitu dabezan argazki bi. Bat zeuk esandako egunetari-koa dala uste dot. Ori da zuk nai zeukena?»

Ezin nik sinistu nire begiak ikusten ebena. Antxe agertzen nintzan ni beste lagun batzukaz batera! Amar urte luzeak, ge-

rra errukibagea, Anberes bera alde batez erre ta ondatuta, langille-ofiziña askoren ardurabagekeria... Ala ta guzti be, an nengoan ni, an egoan nire argazki zaar interesgarria. Alako poza nik argazkia ikusiaz! Biotz-ikara andia izan neban barriro, aldi aretako une mingots eta latzak barriro burura etorri yatazanean. Barriro be, pelikula zaar baten lez, Anberes'ko gure Gelto-ki Nagusira etorriaz bizi genduzanak bizi nebazan.

Malinas'ko geltokira eldu gintzazan. Prantzia'tik Beljika'ra gentozala, Matthieu jaunaren babespetik Van Roey Kardinal jaunaren babespera gentozan. Malinas-Elizbarrutiko gongotzaiña bera zan ezkerro, Malinas eta Anberes'ko kristauak artuko genduezan euren etxeetan. Eldu izan zan Malinas'era guretariko ume-talde bat. Anberes'era eldu orduko, azkenengo geltokia. Barriro be leenago Bordel'en jazorikoak. Guztiok alkarri «agur» esan, aalbait ariñen idazteko, ez aaztuteko...

Trena aurrera yoian. Leioetatik, bertan geratu ziranai, eskuz agurka ekiten geutsen. Gure jesarlekuetara biurtu gintzazanean..., a zan nirea: Nire bota ederrak ez egozan nik itziriko lekuan!

Nik Lemona'n egindako egunetatik, Zeanuri'ko zapatagille bati aitak niretzat egiteko esan eutsan mendi-bota ederrak neukazan. Guk «naparrak» esaten geutsenatarikoak ziran-eta, arro nengoa ni arelako ederrik iñok ez eukalakotan. Pitxirik baliotsuena bai'litzaz neukazan nik bota areik. Capbreton'dik Beljika'ratu gintzazanean, ez egoan nire bide-zorroan areintzat lekurik. Uger egiteko jantziak, eta bearbada iñogandik arturiko emokariren batzuk, oiñetakoentzat neukan lekua bete egin neban. Orregaitik, ba, pardeltxo bat egiñik, bide-zorro nagusiari lotu-bearra izan neban. Arduraz zaintzen neban nire pardeltxoa, nire «naparrakaz» iñor jabetu ez zeiten, Malinas'era elduta, nire lagunai «agur» egin neutsen artean.

Trenak Anberes'erako bidea artuaz batera berealaxe konaturatu nintzan nire bortzegiak, tamalez, ez egozala bide-zorroaren alboan. An-emen billatu neban nire pardeltxoa, alboko guztiai itandu neutsen ea iñok ikusi ete-eban... Alperrik! Isilla

zan guzti arein erantzuna. Ez zan arritzekoa! Zer ardurua nire oiñetakoak, etxetik urrundu eta etorkizunaren tunel illunean sartzeko egozan gure ume errukarriai?

Alan be, maitasun-aldetik niretzat balio andia eben. Orain arte, bortzegiak ipinten nebazan bakotxean, Lemona'ko Ereño, edo Elorriaga edo Arlanpe auzo ta mendietan nengoala uste izaten neban. Lokarri bat geiago egoan orain etenda, nire erriarri lotzen nenduan lokarria.

Ez da luzea Malinas'tik Anberes'era daroan bidea. Laster gintzazan Anberes'ko Geltoki Nagusian.

«Gazette van Antwerpen»-etik eskuratu neban argazkia begien aurrean dodala, barriro be Anberes'era gure eltzearen gora-beerak pillatzen dira nire barruan.

Trenetik jatsi ziran leenengoetarikoa nintzan ni, «13» txartela paparrean neroiala. Beljekar-talde bat egoan gure zain. Emakume batzuk —guretzat ain barregarri jantzita— geugana begira. An negarrari cutsi eziñik, bat, Arrieta andrea, guri adorre apurren bat emoten saiitzen zan, eta euskal-kantak —«Aurtxo guztiok alkarturik..»— abesteko iñoskun.

Aurrerantzean gure euskal-abesti zaar, eztitsuak, izango genduzan Beljika'ko bideetan zear, beti lagun. Iriondo jauna, gure Don Manuel, gu artzeko egozan beljekar-batzordekoakaz berbetan. Guretariko batzuk eskuetan euskal-ikurrintxoak eroiezan. Baiña geienok ezetarako gogorik ez, ezta negar egiteko be. Atzerrian galduak lez gintzazan. Leenengo artu-emonak amaituta, autobusetan artu eta andik eliza batera croan genduezan.



## VAN ROEY KARDENALAREN EKINTZA

Euren umeak atzerrira bialdu ebezan gurasoak, zer batek alkartzen ebazan: gerreak eta Francotarraei eutsen bildurrak. Bestela, talde andi bitan egozan bananduta, bai politika-arazoe-tan, bai erlejiñoetan. Talde andi bat, euskal-abertzale familieta-ko umeak egiten eben. Etxe oneitarikoak, geienetan, elizkoi ta Jainkozale zintzoak ziran. Urrengo taldea ezkerreko alderdieta-rikoak —sozialistak eta komunistak, geienbat— egiten eben.

Leenengokoen aldean, aspaldian egozan oneik Eliza ta er-lejiño-arazoetatik alde eginda. «Sowjet»-alkartasuna langilleen aberria zalakotan, ara bialdu ebezan euren umeak komunista familietarikoak. Beste eretxi guztietarikoan umeak lur bardiñe-tara izan ziran bialduak, baiña geienetan ez alkarregaz. Gura-soen burubide ta naiaren arauz, batzuk besteakandik aldentuta bizi ziran. Begirune andia euken, onetan be, gure euskal-agin-tariak, umeen etzekoen eretxiari buruz.

Beljika'n, gu erriko familietan artzeko ardurea era bitako ongille-bazkunak artu eben. Areitariko bat «Erri-arteko Guru-tze Gorria» zan; bestea, «Van Roey Kardenalaren Ekintza» eri-txona. Leenengoak, ezker-familietako umeen ardurea eban; bi-garrenak, barriz, «euskal-abertzaleena». Ni, bigarren talde onc-takoa nintzan.

Zer dala-ta bigarren bazkun onen izena? Van Roey Karde-nala, mundu osoan zear ezaguna zan Mercier Kardenalaren or-deko, eta onela Malinas'en Gongotzain eta Beljika'ko Elizea-ren nagusi zan. Gu artu genduzan bazkunaren leendakari izentatu eben, eta arrezkero laguntza-bazkun orrek Van Roey Kardenalaren izena artu eban.

Ez zan, ba, ezelan be arritzekoa, gu artuko genduezan fa-miliakaz izan bear ziran azkenengo gora-beerak erabagi-bitar-tean, gu katoliku-eliza batera eroatea. Anberes'ko Katedral mi-ragarritik urr, uri zaarrea dagoan «Zint-Willibrordus» elizara eroan genduezan. Ingalterra'tik Bee-Lurretara etorri eta bertako apostolutzat dauken gizon adoretu onek be atzerrian egin ebazan bere bizitzako urterik geienak. Geu be, bere babespean artuko aal izango gaitu!

Gela zabal-andi baten sartu genduezan —sakristian bear-bada— eta orma-inguruan jarrita egozan jesarlekuetan gu jesa-rreraso.

Azterketa asita dago.

Gizon eta emakume, urtetsuak geienetan, ezkonduak, eto-zan gure «Zint Willibrordus»-eko sakristia orretara, gure «agi-riak» aztertzeraz. Gure txartelean euren izenak agertzen ziral-a konturatu ezker, umeari biurtzaille baten laguntzaz berba egin, edo kiñu bat eginda, eurakaz joateko esaten eutsoen. Au-rrerantzean, umea arein ardurapean egoan.

Nire «etxe barrikoak» agertu ziraneko, alde eginda egozan ainbat ume. Senar-emazte urtetsuak, beljekarren erara jantzita. Senarrak, Ingalterra'n gizonak eroan oi daben kapelea —«bon-biña»— eukan buruan, eta aurreko gerran burrukan egin ebala jakiñerazoteko, orduko gudariak daroen korapillotxoeroian paparrean. Emaztea, emakume loditxo bat zan. Onek be kape-lea buruan, eta begi aurrean aldi aretan beljekar-emakumeak ain ustetsu eroien saretxo eukan. Une onetan ez dakit nik geiago barbarik edo kiñurik egin ete-eusten. Une orretan jazori-ko geienak aaztuta daukadaz. Asteko egozan jazopenak latze-giak izango yatazan, eta euron gerizpean jarri dabez beste guz-tiak.

Ipar-geltokian egoan edategi batera eroan nenduen, eta bertan artu eben jesarlekua treña eldu zan arte. Ardao, patar edo orrelakoren bat artu genduan. Orduan esanikoetatik «Ma-dame», eta ontziak jasotean esandako «Santé»-az baiño ez naz gomutatzen. Prantzes-berbak ziran nik entzuniko berba biok;

baiña urduri biurtzen asi nintzan, nik ulertzen ez nebazalako, eta ikarea emoten eusten nire inguruan beste berbakera bat berba egiten entzun nebanean.

Geroko nire urteetan ezagutu izan dodan Alemania'ko erria beste erririk geienen antzekoa da. Prantzesak lez, eurak be musika-zaleak eta zaratatsuak izan daitezke; Jainkozaleak dira —eta bearbada Jainkozaleegiak batzuetan—, Ego-europarrak oi diranez; politika-arazoak dirala-ta, italiarrak berotu oi diranez, berotu ta gartu egiten dira areik be; olandarrak aiña garbi ta txukun agertzen yakuz; beljikarrak aiña diruzale; eta abar. Ez dira Suezia'ko semeak baiño arroagoak, eta Elizeari ta erri beartsuak lagundu bear yakenean, Irlanda'ko Elizearen seme zintzoen antzeko eskuzabalak agertzen dira.

Baiña nik guzti au urte asko geroago ikasi dot. Orain azaltzen dodan une onetan, txarkeri ta okerkeriaren irudi berbera agertzen yatazan Alemania'ko semeak. Ba-genduan euskaldunok arei buruz zetan asarre izan! Euskaldunok erri baketsua gintzazan, salerosle ta merkatarik bakunez itxusituta, alemaniar salatariak etorteko zan gerrea gertatzen ziarduean.

Gure erria saldu egin eban Perkonigg doillorrak. Jatorriz austriarra, eta antxiña bere erriko aaldunen ordezkoa, urteetan gure artean ondo artua izanik eta Euzkadi'ko etxerik onenetan senide, tarteko ta lagunak eukirik, bera norbait zala-ta, agiririk garrantzitsuenak gure erriaren arerioai eroaten saiatu zan. Francotar gudaroztea alemaniarrak ornidua izanik, geure lurrean gertatu ebazan Alemania'ko gobernu «naziak» bere gudari ta iskillak etorteko zan gudarako. Eta batez be, Alemania'ko egazkiñak ziran Gernika —gure erriaren biotza— erre ta ondatu, eta bertako bizilagun errubageak il, zauritu eta munduan zear sakabanatu ebezanak. Eurak erre eben jorraillaren astelen negargarri baten gure Euzkadi'ren «Erri Santua»...

Esperientzi neketsu guzti areik, egun areitako gomutak, nire gogoia beterik euken, Anberes'ko Geltokia itzita, trenera igo gintzazanean. Nora goaz? Nora naroe?

Orain arte nire erriko umeakaz egon nintzan. Andereño ta abadeak neure izkuntzaz egiten eben berba. Beljikarren bat geugana etorrela be, zelan-alan nik ulertzen neban prantzeraz egiten eusten berbakerea. Orain, niretarrakandik alde egiñik, eurokandik urrun bizi bear nebala, ara non konturatu nintzan ni eurakaz eroaten nenduen edo nire «etxe barrikoakaz» egiten berbeta ez-ezaguna niretzat barria zana. Ze izkuntza zan areiña? Zegaitik ni Anberes'tik atara? Beljika erri bitan zatituta dagoala, ez zan nik aldi aretan iñoiz entzuniko zerik. Ondorena argi iruditu yatan: «Indarrez naroe Alemania'ra!» Nik ulertu ezin neikean Flandes'ko izkuntza latza, nik bildur neutsen arerioen antzeko iruditzen yatan. Nire Euskalerrri, nire aita-ama eta etxeokandik urrun izanaz gaiñera, nire etxera urreratzen nenduen lagunakandik aldentuta egonaz gaiñera, indarrez eroaten nenduen orain, nik geien bildur neutsan erri zitatera...

Zotinka ta negar baten asi nintzan. Inguruan neukazanak, euren etxean artzen nenduen senar-emazteak, trenean geugaz etozanak, neugana begira egozan errukitsu, arduraz nire negarmalkoak zek sorrerazoten ebazan ulertu eziñik.

Nire bizitza luzean izan dodazan uneetan latz eta atsekabetsuenetarikoa zan, izan be, nire egoera a!

Ni negarrez eta zotinka, albokoak ni adoretzeko gogoz, Olanda'rako bidean dagoan eta Ekeren'go auzo bat dan Kape-llen izeneko geltoki txikira eldu gintzazan.



## HEIKENSTRAAT, HONDER VIER EN DERTIG

Niri emondako txartelak iñoanez, Ekeren izeneko erri-txoan bizi ziran ni artu nenduen «familia barrikoak». Erri txikia zan Ekeren, Olanda'tik amarren bat kilometro urrun egoana. Baiña nire «etxeokak» ez ziran bizi errian bertan, Heikenstraat'en baiño (edo bardin dana, Aretxen kalean): kale izena eukiarren, erritik kanpora egoan baserri-bide bat zan, besterik ez.

Ekeren'dik Kapellen'era egoan trenbidean asi eta Ekeren'dik Iparralderantz yoian bide nagusiraiño luzatzen zan gure kale ori.

Leenago baso-bideren bat izanik, orain be bide orren antzekoa zan bera. Ezker-eskumaldera etxetxo barri eta txalet zaar batzuk inguratzen eben. Gu bizi gintzazan etxea, gurearen antzeko beste iru bizitoki eukazan etxe luze baten zatia zan. Bakuna, apainbagea, orduko langilleek euken lakoa zan, ni artu nenduan familia txikiarentzat —Janssen-Van den Berg familiarentzat— guztiz egokia. Etxe-ostean kortatxo bat, eta ortu polit-txiki bat.

Ludovicus Janssen (bere lagunak «Lodewijk» esaten eutsoen) eta Jeanne Van den Berg senar-emazteak urteetan nai-koa aurreratua ziran. Ez zan orren aspaldi ezkondu zirala; baiña areitariko bat, Jeanne emaztea, leen be ezkondua izana. Ego-gelan, ormatik eskegita, lauki eder baten, gizon gazte baten argazkia eukan. Belgika'ko leengo gudarien jantzia eroian, eta paparrean leenago gerratean parte artu ebenak ain arro eroiezan ezaugarriak erakusten ebezan. Janssen andrearen leenengo senarra zan, eta, nik entzun nebanez, alemaniarren aurka burrukan egiñaz, beste gudari asko lez, eriotza goragarriaz il zan.

Janssen jauna Belgika'ko Tren-bazkunetako ogipekoa zan, ez goikoa, ez beekoa. Baiña gure auzoak, beartsuagoak ziran-eta, gorengo giza-maillakotzat euken berau.

Flandes'ko izkuntzaz —orduko beartsuen artean oi zanez— egin eutsoen erritarrak «Mijnheer» (jauna) berari, eta «Madame» (edo Mevrouw, Andrea) aren emazteari. Tren-bazkuneko arazo ta lansari ziurrak eukazan, ez gaur bai eta biar lanik ez euken auzokoak lez. Oneitariko geienak Anberes'ko portuan egiten eben lan. Egunsentirako an yoiazan gure auzo-kook beste albo-errietako gizon asko lez, bizikeleta-ganean, Anberes'erako bidean zear. «Botterham» bat eroien atzeko pardeltxoan (ogia ta guriña, edo onen orde, merkeagoa zala-ko, «Solo» margarina), eta kafe-antzeko edaria eukan latontzia.

Bein baiño sarriagotan eguerdirako etxeratzen ziran, portuan lanik ez egoala-ta. Onelakoetan epel etozan euren etxe-etara, edo-ta euren utsa edo lanik-eza isiltzearren, lagunakana jotzen eben eta politikeari ekiten eutsoen.

Oneitarikoen langille-etxe baten geukazan (euken Janssen'ekoak) lagunik onenak. Paenen'ekoak (onelan eritxen gure lagun orrei), gugandik urr, baso-bidearen alboan, euken gure antzeko etxetxo bat. Etxeko jauna langille zakar eta latza zan. Leenago eukiriko geisoren baten erruz, guztiz buru-soil zan. Ori zala-ta, beste aldetik umore bagako gizona, sarritan baiño sarriagotan egoan asarre gure Paenen jauna. Bein —Heikensstraat'en orduko ba-neukazan nik aste batzuk igarota—, kaskasoilla zala-ta, umeak egin oi dabenez, barre egin neutsan nire eskuaz bere burua igurtziaz. Beste bagarik, aurpegiko gogor bat emon eustan. Aren semeak orretan arduraz egoteko esan eustan. Geiago ari barre egiteko gogo zearo galdu yatan.

Gutziz ezbarriña zan aren emaztea. Baserritarra, adikorra ta biguna, beti alai, iñongo lanak egin bear ebazan, senarrak etxera ekarren lansari urriaz etxeko guztiak aurrera eroateko. Olanda'rako bidean, gugandik iru bat kilometro urrun egoan Hoeneven erritxotik etorren bera, baserri-etxeko baten alabea.



Aren nebea, Lodewijk, arrebea baiño askozaz gazteago zana, arein seme Josken'egaz lagunik onenatarikoa biurtuko zan.

Iru seme-alaba eukezan Paenen senar-emazteak: neskato bi, Julia ta Maria, eta mutiko bat, leen aitaturiko Joseph («Josken» = Josetxo, guk esango geutsanez). Neure adiñekoa zan Josken; ni baiño zerbait zaarragoa onen arreba biak. Neskatilla polita, moduzkoa eta ondo ikasia zan areitariko zaarrena, Julia. Domekako Mezatarako jai-soiñekoak jantzi eta buruan kapelaxoa (berak eukazan jai-soiñeko ta kapela bakarrak bearbada), ez leuke iñok sinistuko baserritik etorritako familia beartsu baten alabea izan zeitekeanik. Astiro, ia andikiro, yoian, Mezea entzutera gure auzoko elizatxora. Nok esan, a ikusirik, goren maillako familia bateko alabea ez zanik, edo-ta familia orreitariko seme-alabai dagokien azierarik onena izan ez ebanik? Baiña apala be ba-zan-eta, ez eban ezelan be bere jatorri apala ukatzen. Mojak zuzentzen eben eliz-alboko eskolara yoian, eta an ikasi ebazan ziñu ta jardukera moduzko areik.

Polita zan bera, leuna ta lotsakorra. Nire ume-amesetan, nik bera maite neikeala uste neban iñoiz. Geroago, gizon ez-kondu batek Julia beretzat euki nai ebala konturatu nintzanean, txutxu egin nebala autortu bear dot.

Ez zan aren antzekoa Maria, aiztarik gazteena. Latza zan au. Abots sarkor eta iguingarria eban, eta amagaz berba egiten ebanean lotsabagea izan zeitekean. Bere jokaera guzti onetan ez eban besterik agertzen, Julia baizen polita ez izateagaitik eukan bekaizkeria, ikusi-eziña. Aizta biak yoiazan eskola batera; baiña, sarritan jazo oi danez, bere aizteak ikasten ebana ikasteko Maria gauza izan ez. Aitaren antzeko emoten eban Maria'k, amarena Julia'k.

Josken zan Paenen-etxeke mutiko bakarra. Josken, Joseph'en izen txikia da, «Joseph txikia», edo guk euskeraz esango gendukenez, Josetxo. Mutiko argi, adimen zorrotzekoa zan bera. Bera be, prailleen eskola batera yoian, Ekeren eta Anberes uri andiaren arteko bidean egoan Deurne izeneko errira. Goizero, aren aitak porturako bidea artzen ebanean, an yoian bera be,



Josken'egaz. Eskumaldean, geure etxea.

bizikeletea artuta, guretik bederatziren bat kilometro urrun egoan Deurne'ra. Aitak lez, margarinaz gantzututako ogi-zati batzuk eta kafe antzeko edariaz beteriko botillea artzen eban. Eskolan sopa bero bat emongo eutsoen ezkerero, ez eukan illuntzeraiño etxeratu-bearrik. Etxera biurtu, ikaslanak amaitu eta bidera giñoiazan biok gure biziketetakaz nok geiago egitera.

Nire irudimen ori, nora zoaz? Biurtu zaitez barriro gure leenengo egunetara. Ekeren'era etorri-barria nazan ezkerero, nire inguru barria zeatz idazten diardut. Or dozu, ba, Paenen familia, gure etxeokaz («nire» Janssen-Van den Berg familia barriagaz) artu-emonik estu ta adiskidetsuenak eukazan familia.

Anberes'tik eldu gintzazaneko —ni beti negar eta zotinka—, an geukazan Paenen'ekoak gure zain. Negarrez nentorren onetzaz errukitsu ta maitetsu agertu yatazan. Ezin alkarregaz berbarik egin —Paenen'ekoak flanderaz (zerbait prantzeraz egiten eban Julia'k izan ezik), besterik ez eben egiten—; baiña laster nergar-malkoz beteriko alkarrizketa asi zan gure artean. Nire etorrerearen leenengo unetik eurenkoa bai'nintzan artu nenduen, eta abegi on onek arekanako nire zaletasunean aurkitu eban bere erantzunik bero ta zintzoena.

Josken zan berarizko kutuna; eta adiskidetasun orren lokarria bizikeletea zan. Aldi aretan Belgika'n bizikeletan ibiltea ez zan kirol atsedentsua, benetako premiña baiño. Belgika'ko lurra ain bardiña ta leuna izanik, zaar eta gazte, emakume ta gizon, guztiak erabillen tresna ori bizitzako une guztietarako. Bizikeletan yoiazan umeak eskolara, bizikeletan emakumeak sal-erosketara; bizikeletan eltzen ziran gizonak euren lantegietara, eta gure auzoko abadeak be, antxiñako sotana luze ta kapela biribilla eroiala, tresna orren laguntzaz egiten eutsen ikustaldia bere parrokiako familia ta geisoai.

Pozik ikasi neban, ba, neuk be, nire etorrera-biaramonean bizikeletan ibilten. Josken'ek «profi» baten bizikeletearen antzeko bizikeleta txiki bat eukan. («Velo» iñotsen beljikarrak.) Paenen jaunak, portura joateko, bearrezko eban zaar eta indar-

tsu bat eukan; Josken'en amak, azokara joateko; Julia'k eta Maria'k, Aizten Eskolara joateko. Gurean bat baiño ez egoan, Mevrouw Jeanne'rena. Mijnheer Ludovicus trenean lanean ziarduan-eta, ez eban iñoiz be aren premiñarik izan. Anberes'ko geltoki langintzatik etorren beti Ekeren eta Kapellen arteko geltokira, eta emendik gure etxera ez egoan orren urrun, osteratxo bat egiteko beste bide.

Ekeren'era eldu ta biaramonean, negar-malkoak, legortu bagarik neukazala, «bizikeleta-eskolan» asi nintzan. Nire tristura gogorrean, zerutiko argi-izpitxo bat agertu yatan onela. Urrengo egunean, Josken'en laguntzaz Capellen'era iñoiz azartu nintzan. Bizikeletan ibilten ikasi neban ezkerero, laster beljekar biurtzeko nengoan. Arrezkerero, tresna orretan neukan nire lagunik zintzoena. Edonoiz eta edonora azartzen nintzan nire bizikeleteaz, eta zaldun batek bere zaldia maite eikeanez maite neban nik nire bizikeletea. Bera zan nire kirol-laguna, beragaz niñoian gure auzoko elizatzora, beragaz Capellen'era dendakoak egitera edo Hoevenen'era Josken'en aitita-amamak eta Lodewijk ikustatzera. Geroago, bizikeleteak eroango nenduan guretariko eusko-ume taldetxo bat eta iru euskal-abade egozan Koningshof'eko barrukoen eskolara. Alai ikusiko nenduan Marienburg, Brasschaat eta Schoten'en zear yoian bideak, asterik atera autortzen eta gure mutikoakaz arratsaldea igaroten Koningshof'era niñoiala.

Aspaldiko nire amesa beteta geratu zan.

Beti geure arduraz, aitak bizikeletan ibiltea debekatu egin euskun. Ezta Lemona'n egiten genduzan uda-oporretan be, ez egoan bizikeletan ibiliterik. Bein —guri sarritan esan oi euskunez—, bere lagun baten seme ederra, bizikeleta erosi-barria eukala, auto batek zapaldu eta illa ikusi ei'eban. «An ekarri eben zorro baten sartuta...»

Eragozpen ori zala-ta, asarre gengoan Benantzi ta biok, lagun guztion artean bizikeletan ibilten ez gekian bakarrak geu gintzazan-eta. Izan be, aitak orren barririk ez ebala ikasi eban Benantzi'k bizikeletan, Lemona'ko «Kamiñero»-nekoak Bil-

bo'n euken lengusiña batek alogeran artu eban bizikeletan («Zubi-siku»-ren alboko aldatzean). Nik neuk, edo bildurtia edo lotsatia nintzalako, ez neban abadagunerik izan, Ekeren'en '1937-ko bagillaren azkenengo egunetan ikasi neban arte. Gizon barria nintzala neritxon nire buruari. Betiko nire asmoa beteta geratu zan.

Ekeren'go nire bizikerea ez zan izan bagillaren egun epel-zoragarrietan bizikeletan emendik ara ibiltea bakarrik. Beste egiteko batzuk eldu yatazan lepo-ganera.

Janssen-Van den Berg familia, ekanduzko kristau-familia zan, beste geienak baiño ez ohea, ez txarragoa. Mijnheer Janssen arro egoan benetako katoliku-fededuna zala-ta, eta beste sasi-uste ori or eta emen agertzen eban, dudarik ez dauan gizon batek agertu daikenez. Ille batzuk geroago (geroago azalduko dodanez), ni Koningsholf'era joateko nengoala, erdi-ordituta (moskortuta) etorri yakun bein etxera. Berau onela ikusiak ez eutsan bere emazteari aparteko pozik emon; bien artean eztabaida gogorra sortu zan. Eta Mijnheer, eztabaida ori zala-ta asarre, azkenean apal-apalik eta eraspentsu esaten asi yakun: «Aurrerantzean Jaunaren gurutzea eroan bear izango dot nire lepo-ganean!» Orretarako be, bere sasi-erlejiñotasuna.

Gure etxetxoan ba-geukazan erlejiño-irudi batzuk. Jantokian Jesus'en Biotzaren irudi bat egoan eskegita; oge-ganean, Gurutzea. Otoitz batzuk baiño ez genduzan etxe aretan egiten, eta, zegaitik edo agaitik, bear zan baiño sarriago egiten eben uts Domeketako Mezatara gure senar-emazteak.

Onela ta guzti be, ni Capbreton'dik etorrita gero, guk egin genduan leenengo ikustaldia geure elizatzoko abadeari izan zan. Leenengo, oiñak garbitu eustazan Madame Van den Berg'ek. Egindako bide luzea zala, eta nik nekazan sandaliakaitik, ez egozan nire oiñak Goi-Beljika'koen artean oi dan beste garbi. Nik neukazan soiñekorik txukunenak jantzi nebazan: jake zuri-urdiña, Karmen nire arrebeak niretzat eiotako jantzi polita, euskal-txapela.

Abegi onez artu genduzan gure abade jaunak. Abade gazte bat zan bera. Beljika'ko abade askoren artean oiturea zanez, Elizbarrutiko eskola baten egin ebazan urteak ingles-izkuntza umeai irakasten. Naiz-ta oraingo lan ederra pozik bete, leengo irakasle-urteetara biotzez lotuta lez egoan artetan. Nire etorreaz, izkuntza barri bat ikasteko abagadunerik onena sortu yakon. Bere jesarlekutik jagirik eta arazatik gaztelerazko gramatika bat arturik, leenengo irakaspina emoten asi nintzakion. Oso erraz egin genduan irakaspin ori arduraz eta gogo andiz artu eban berak. Etxera orduko, tratu bat egin genduan: Ni irulau bidar etorriko nintzan abadetxera, ari gaztelerazko esanaldirik errazen eta beiñenak irakasteko, eta arek niri flamenkerak ikasketak emongo eustazan. Leenengo ikasketa oneaz amaitu ziran gure alkarrizketak. Bagilla artetan amaitu bagarik-eta, oraingo nire etxeoai obeto otu yakun ni erriko eskolara joatea.

Abadeagaz izan neban alkarrizketa orren urrengo egunean, Jeanne andreak Ekeren'go eskolara eroan nenduan. Nire bizitzan barriro be aro barria asiko zan.



## «VA» ETA «MOE» («MU» esan!)

Ekeren'era elduta iru-lau egunera, legortuta egozan nire malko garratzak, eta Alemania'ra indarrez eroan bear nenduen bildurra ta ikarea be baretu egin ziran. Ez ziran askatu, orraitino, nire izate barrian somatu nebazan larri ta cragozpenak.

Heikenstraat'eko nire leenengo egunak «negar-egunak» izan ziran. Nire etxeakoak ain urrin, nire lagunak Belgika'ko aibat erritxotan zear sakabanatuta, erri arrotz baten bakarrik nengoala neritxon. Julia, Maria ta Josken nire ezbearrean niri laguntzera saiatzen ziran, eta nire zoritxarrean be parte artzen eben. Polito-polito, ba-niñoian ni nire bizikera barrira oituten.

Jeanne andreak aginduta eukan nire lo-gelatxorako oge barri bat. Ogetxo ori eltzeko zan artean, ezkon-oge zabalean nengoan lo egitera beartuta. Ludovicus'ek aste aretan gabeko lan-aldia eukan ezkeru, oge zabalean niretzat lekurik naikoa egoan.

Egun gutxi barru, oge txiki-barria ekarri eben, eta ni libre ta nasai nengoan. Etxeko ortura eta inguruetako larre zabaletara begiratu neikean nire gelako leiotik. Illuntzeetan Anberes'tik Rotterdam'era gure buru-gaiñetik egaz egiten eban motor biko egazkiñaren burrundarea entzuten neban. Egazkiña leenengoz entzun neban illuntzean, leen Capbreton'en lez, Lemonan' egindako egun bildurgarriak gogora etorrita, arrantzaka asi nintzan.

Geroago egazkin aretzaz ia oitu egin nintzan, eta zelalan neure lagun biurtu zan. Ezagutzen ez nebazan atzerriean usain gozoa / beti amesetan nengoan oni ekarstan. Ameslari au pozik egon zeitekean.

Larrialdirik mingarri ta sakonena Ekeren'go leenengo egunetan, nik uste bagarik, jazo yatan.

Zelan egiten neutsen nik dei Mijnheer Ludovicus eta Madame Jeanne'ri, larrialdi ori eldu baiño leen? Leenengo egun areitako esperientziak lausotuta lez agertzen yataz, nire negar-malkoak lausotuta. «Izeberg» baten tontorraren antzera, bata edo bestea baiño ez dira jagiten; beste guztiak murgilduta dagoz nire bizitzaren urpean. Ezin, ba, nire itaun orri erantzunik emon. Gurera etozan eta prantzeraz ekien beste guztiak lez, neuk be «Monsieur» eta «Madame» baiño beste izenik ez neutsen esango, bearbada.

Birritan ezkondua, baiña bietan seinbage, amesetan egiten eban Madame Jeanne'k, beste emakumerik geienak euken eta berari ukatzen yakon zoria eukiteaz. Berak bultzatu eban Mijnheer Ludovicus, gatxez egoan Euskalerriko umetxoren bat etxean artzeko. Pozez beterik artuko eban berak bere bakartadean lagundu eikeon neskatillatxo bat. Izan be, alde batetik Mijnheer'ek, aren senarrak, ia egun osoa etxetik kanpo egiten eban, eta bestetik, bere eretxiz, auzoko emakumeakan, beemaillakoak ziralako, ez eban berak aurkitu nai leukean laguntasunik aurkitzen. Neu nintzan, ba, beterik ez egoan ama-gogonen kaltetun biurtzeko.

Nire etorrerea ezkeru, egun batzuk igaro ziran. Egongelan biok soillik gengoan. Mijnheer, bere lanean ziarduan. Egunean-egunean ikustaldia egiten etorri oi yakuzan Paenen'ekoak, artetan etorri bagarik egozan.

Gure alkarrizketan ganorabagako gaiak gerabizan. Nire izkuntza ain urria izanik, eskuz eta begiz aalegintzen nintzan, miiñak esan ez eikezan gure gerrako jazoerak, Madame Jansen'i azaltzeko. Une bakotxean, «Bai, Madame», «Ez, Madame!» zan nire erantzuna. Onelako baten, aurpegi illunaz jarri yatan, eta niri so egiñaz, gogor, ia arrantzaka, auxe esan eustan: «Ez dozu geiago esango "Madame" nigaz, ezta "Monsieur" be Janssen jaunagaz berba egin dagizunean. A zeure aita, eta ni zeure ama gara». Eta errazoirik laketzen ez eban errubagako

abotsaz ekin eutsan gaiñera: «Aurrerantzean, “Moeder” edo “Vader” izenaz egingo dauskuzu dei, edo, zu lako gure umeak esan oi dabenez, “Moe” edo “Va”.»

Oiñaztuak jota lez geratu nintzan. Nire maiteak urrunean izteak, arekandik ain urrun eta barri bagarik egoteak sortzen eustan miña naikoa ez zalakotan, emakume arrotz batek amaren ordezkot jarri eta »ama« bakarrari zor neutsan maitasuna beretzat artu nai. Errubagako aren burukeria lako latz izan zan nire erantzuna: «Ez, ezelan be ez! —esan neutsan zotinka—. Amarik bat baiño ez daukat, urrunean, aberrian, ni beragana noiz biurtuko zain dagoana!»

A zan ames etena, Jeanne andrearena, nire erantzuna aditu ebanean! Izan be, bera alditsu ta arro izanik eta iñoren ezeztaren aurrean bere burua makurtzeko ez zala, oituta egoan bera baiño makalagoa zan bere senarrak berak nai ebazan guztiak, biotzez egiten. Ezin, ba, ontzat artu ume batek berari orrelako erantzuna emoterik.

Izugarria izan zan aren jokaerea. Niri aurpegian plastada gogor bat emonda, arrantzaka, bere gizon-abots iguingarriaz, txillioka asi zan: «Naiz-ta amatzat artu nai ez ba’nozu be, zeure ama naz ni nai-ta-nai ez! Eta “Moe” esango daustazu. Eta ez zara zure España orretara iñoiz be joango! Ementxe geratu bear izango dozu betiko! Orrek egin dau berea. Ikusiko dogu nor dan emen indartsuena!»

Aldi onetan ez neban nik artetan ezagutzen, euskal-base-ritxoren baten itziriko amaz, urriñetik amaren gomutaz, artzain batek asmaturiko kanta maitagarri ta ituna:

*«Noiz ote-naiz emendik jinen zuregana,  
Ama, saritatzera zor dautzutan lana?»*

Geroko urteetan, negar egin dot abesti mamin eta kutun ori abestuaz; Austria’ko Innsbruck’en nengoan orduko. An neukan lagun zintzo batek, aberriko kanta bat abesteko esan eustan. Bera musikari aparteko zan ezkerero, kitarratxoaz laguntzen eutsan nik emondako soiñuari. Urtebete leenago, nigandik

urrun, il yakun ama. Eta nik, lagun orren laguntzaz, artzaiñaren abestia kanta. Eta malkoai ezin eutsi..

Beljika’ko erbestean ume nintzala, sakon ulertu neban ez daukala iñok, amak bakarrik bete bear dauan biotzeko zokondo beteteko eskubiderik.

*«Maitatua sobera nintzelarik aurra,  
ez nakien nik zer zen amaren bearra...  
Amaz oroit orduko, eldu zaut nigarra!»*

Orreik ziran beste askoaz batera, umeen ardura bagarik nagusi zitalak sorturiko gerrearen ondorenak. Orreik, umeak eroan bear genduzan ondoren negargarriak.



## ERRIKO ESKOLAN

Neure onerako zan, ala euren onerako? Niri azikera ona emotearren, ala nigan jarrita eukazan itxaropenak bete ez zira-ta, gogaikarri biurtzen asi nintzakielako?

Dana dala, nik aurrerago esan dodanez, Ekeren'era ekarri, abadeagana eroan, eta biaramonean ni eskolara bialtzea erabagi eben Janssen-Van den Berg senar-emazteak. Ni nora bialdu ez egoan, orraitiaño, artetan argi. Leenengo, euren eretzid biderik onena zalakotan, Josken, nire laguna, yoian ikastetxera joatea onena izango litzakidala uste eben. Anberes'ko inguruetako Deurne izeneko auzo batera yoian Josken. La Salle'koak edo euren antzeko beste Anai batzuk euren auzo orretan ikastetxe bat familia beartsuentzat. Oso entzute onekoa zan bera, batez be baserritarren artean, alde batetik ikastetxea zuzendu ebenak Anaiak ziralako, eta bestetik baserritar eta beartsuen alde Anai areik ainbat mesede egin ebezalako.

Janssen andreak aginduta, ba, niretzat lekuri izango ete eben itandu eban Josken'ek. Itandu bai, itandu eban; baiña, tamalez niretzat lekuri ez egoala erantzun eutsen. Urtea amaitzeko egoala-ta, obe litzakigula urrengo urterako geure izena emotea. Artetan, erri-eskolara joatea legokigula ondoen.

Onela, ba, Ekeren'go eskolara joanda, Zuzendari jaunagaz alkarrizketa egiteko gogo agertu neban. Julia'k —ondoan egin eikeana bera zan-eta— Zuzendariaren etxera lagundu eustan, ni Zuzendariagaz bakarrik itzi nenduan, eta bera etxera biurtu zan. Zuzendariak bere etxean bazkaltzeko esan eustan.

Gizon txikitxo bat zan bera, Flandes'etako geienak lez, ulegorri. Buru-soilla eta surpeko (bigote) urri bat eukan. Ni

ikusteaz, bere poza agertu eban. Atzerrietatik etorritako ume-taldeko ume bategaz berba egin eta gerrateko barri artu aal izan eban olan.

Atzerrietako katolikurik geienak lez, Franco buruzagia nonbait be, España'ko komunistak azpiratu ebazala-ta, biotzez onartzen eban berak. Besterik ezin, ba, azkenengo asteetan «nazionalak» lorturiko garaipenai buruz, sutsu ta gogoz, egiten eban berba arek. Ondo baiño obeto ezagutzen ebazan, bien arteko mugak —katoliku ta «gorrien» arteko mugak— nondik yoiazan, Franco'ren gudarozteak nondik egiten eban aurrera, eta abar. Zoriontsu eritxon gure zuzendari orrek Belgika'ko egunkarietan ikasitako guztia niri azaldu, eta jantokian eukan España'ko karta zabal baten (kolore ez-bardiñeko orratzaz markatuta eukazan gerra-muga guztiak) bere barri guzti areik bardindu ta konparatzeari.

Ez zan arena lakoa nire poza. Francotarrak egiten eben burrukea gurutz-gudutzat eukitekoa ete-zan, eta gure Gernika erre ebenak zein izen merezi-ete eikeen itandu neutsan. Neure eztabaidak jakiñerazo neutsazan. Gure egunkarien bidez ezagutzen nebazan nik areik gure erri errukarriari egindako gaiztakeri ikaragarriak, katoliku batek egin ete-daikezan. Guzti oneik itandu neutsazan nik gure zuzendari onari.

Ni nondikoa nintzan eta zelan pentsatzen neban konturatuturik, ez eban geiago Franco'k egindakorik aitatu.

Nik esandakoak ari, burua aldatu ete-eutsoen? Edo-ta, bear aiñako maltzur ete-zan, niri bere eretxiak geiago sartzen ez aalegintzeko? Bazkaltzean beste gai batzuk artu genduzan gure auturako.

Erdi-lotsatuta nengoan alde batetik, arro bestetik, gizon-txo bat bai'nintzan, ia dedu ta ospez nenbillela jakiteaz. Izan be, neure gurasoakandik ikasi neban euskerea, geure izkuntza; baiña eskolan, ikastera beartuta gengoan erdereza egiten neban, eta, zelan edo alan, enparaduakaz egiteko lain bear neban prantzerea be egiten neban. Ez eben aren ikasle koskorrak orrenbeste egingo.

Gai onetzaz, aste batzuk geroago, ni testigu berezi izan nintzaneko jazoeratxo bat ez yat oraindiño aaztu. Bein, erriko agintariak niri Heikenstraat'era bialduriko mandatu bat jaso neban. Mandatu orretan, agintariak Udaletxeko idazgela baten agertu neitela jakiñerazoten eusten. Ni errian nengoala aste batzuk ba-ziran ezkeru, nire personari buruz barri batzuk emotera bearturik nengoan. Nik arazo ori bakarrik egin neikealata, Janssen andreak txartela erakutsi eta, eskolaldia amaitutakoan, Udaletxera joateko agindu eustan. Joan nintzan, ba; arduradun batek artu nenduan bere idazgelan, eta bizitzako zeaztasunak itandu eustazan: izen eta abizen, gurasoen izenak, non jaiu, eta abar. Txartelean neure izena jarri, eta, itaun guztiai erantzunda gero, txartela arduradunari biurtu neutsan. Orduko—nire adiñeko ume batek egin daikenez— erraz egiten neban nik berba prantzeraz, baita flamenkeraz be zertzobait. Oso ganora bagarik, flandestarrak egin oi dabenez, prantzeraz egiten eban gure arduradunak ezin ulertu eikean ni lako ume koskorrak ain erraz eta ardura bagarik nire artu-emonetarako prantzerea erabiltea. Nire lana amaituta, aregandik alde egiteko, «agur» esan neutsanean, barriro be pozturik eta arriturik geratu zan. Neu be, ori zala-ta, arroputz nengoan...

Zuzendariagaz alkarrizketa ori eginda biaramonean, Ekeren'go erri-eskolara joaten asi nintzan.

Ekeren erria katolikua izanik, erritarrik geienak astero Mezatara joaten ziraneko errian, ez zan arritzekoa eskola aretan guztiok kristau-arnasea sakon artzea.

Gure ikastaldien asieran eta amaieran, irakasle ta umeok otoitz egiten genduan. Klaseko ormetan Gurutze bat geukan eskegita. Kristau-ikasbidea be bertan artzen genduan. Oneitari-ko erlejiño-itzaldi baten gaia ez yat oraindiño aaztu. Jesus'en Biotzaren barikua zan (bagillekoa, uste dodanez). Flamenkeraz egiten ez nekianarren, arek zertzaz berba egiten eban ulertzeko aiña bai, orraitaiño.

Jesus'en Biotzaren eraspinari (doboziñoari) buruz egin euskun, ba, bere itzalditxo. Paray le Monial'go mojak izan

ebezan agerpenak ziran arek erabillen gaia. Moja ori nor ete-zan, iru-lau ikaslek emon genduan erantzun zuzena. Neu izan nintzan bat arein artean. «Sainte Marguerite Marie de Alacoque», esan neutsan nik. «De» bagarik, zuzendu eban berak. Ez nekian nik gure ikasleai ta irakasleai esateko lain flamenkeraz egiten, San Anton'go gure elizan, beste iñok baiño leen (gure artean) Aita Kardaberaz euskaldunak egin ebala berba gai orretzaz.

Aldi aretan, Erroma'ko Aita Santua zala-ta, sarritan egiten euskun berba gure zuzendariak. (Zegaitik, ez neban iñoz be jakin. Pio X-garrenaren eta «Modernismo«-aren gomutaz? Edo barriro be, aspaldi zanaz jazo zanez, Mussolini zala-ta, Vaticano'a giltzapean biurtzeko arriskuan egoalako?). Gure eskolan Aita Santua goratzen eben doiñuak italieraz abesten genduzan («Evviva Pio undecimo, Padre nostro il Papa...»)

Beste mutikoen bizikerearen antz-antzeko zan nik eskolan neroian bizikerea. Goizero, nire bizikeletea artuta, an niñoian ni Heikenstraat'en zear, makalez (txopoz) inguratuta egoan baso-bidean zear, larra ta landa-artean zear.

Nire eskolarako bide orretan, etxera etozan langilleak aurkitzen nebazan sarritan. Areitariko batek, ni ikusten nenduan bakotxean, Franco jauntzarraganako sentitzen eban destaiña adierazoteko, erpurua berantz egin (antxiñetako Erromatarren artean, norbait eriotzara galdu bear zanean, egin oi zanez!) eta bere auspoen indar guztiaz «Franco, caputti!» esaten eustan. Berau ikusiaz, Capbreton'go napar-langilleaz berealaxe gomutatzen nintzan.

Nire eskolako leenengo egunetan, bazkaritarako etxera etortzen nintzan eguerdian. Bizikeletan nire joan-etorriak egin aal nebazan artean, bidezko yatan eguerdian etxeratze ori egitea. Baiña, edo azokara erosketara, edo Capellen'era urdankoteak eroatera joan bear ebala-ta, astein birritan-edo bearrezko eban «nire» bizikeletea Madame Jeanne'k. Orrelakoetan eskolara oiñez joatea neukan nai-ta-ez. Eguerdirako etxeratzea gaitz eta gogaikarri egiten yatan-eta, bide barriren bat billatubearrean nengoan.

Ni lez, erritik urrun bizi ziran banaka batzuk ez zirala eguerdirako etxeratzen konturatu nintzan. Eskolaldiak amaitutakoan, eskolako larrean geratzen ziran, eta etxetik ekarritako ogi ta sasi-kafea bertantxe jan eta edaten ebezan. Egun orreitan eurakana joanda, alkarregaz, neuk be, triste, beiakana begira neure ogi ta kafea artzen nebazan. Ordu itun oneitan neure etxekoan gomutea etorten yatan gogora. Etxeko bero ta maitasunak egiten eusten uts eguerdi orreitan. Zer jazoko yaken Bilbo'ko nire maiteai? Aspaldi zan etxekoan albistarik izan ez nebala, eta «Gazzete van Antwerpen» edo Janssen jaunak, bidaztiak trenean itzita, ekarten eustazan egunkari prantzesak, ez ekarren gure erriari buruz barri onik.

«Ume beartsuen bazkari» onek, orraitño, zelanbaiteko poza ekarri eustan. Nire ogi tristea artzen neban orma-kontran, arrien lagun egin nintzan. Gudarien antzera, azkar eta biziro, «... onder den Mensen...» (ze kanta zan ori? Gizon eta gerrakaz zerikusia eukala zirudian; baiña nondikoa bera?) goiz eta arrats, besterik ez bai'lekian, abesten eban Piet'ek. René, beti ain mutil fiña, baiña eskolan arlote zakar bat baiño ez zan. Araxe etorren gure T. be, eskola-liburu artean bada-ezpadako orri ta aldizkariak eroaten ebazana eta neskatillai buruz beti ain sutu berba egiten ebana. Eta beste ainbat, era guztietarikoak. Guztiak etozan inguruetako auzoetatik. Urrun egozala-ko, edo batzuetan euren gurasoak lanean ziarduelako eta eurak etxera ezin biurtu zeitekezalako, eskolan geratzen ziran.

Onelako baten, egun euritsua zan —Flandes'en sarritan izaten dan lakoa—, eta guk gure «bazkaritako» aterpe egokirik aurkitu ez, barri gozo bat zabaldu zan gure artean: «Biardanik geu be eskolako jantokira joan gaitekez. Urliari esan ei'dautso atezaiñak».

Eskolearen alboan, elizarako bidean, egoan gure jantoki ori. Urrunetik etorten ziranak edo familia beartsuetakoak joan zeitekezan ara. Baiña, lekua bear zan lako andia ez zan ezkeru, batzuk kanpoan geratzera bearturik egozan. Gela zabala zan, erdian mai luze bat eta alde bietara jesarleku bana egozan.

Epeltxo egoan bertan, eta euria egiten ebanerako aterpetxo bat geukan. An, mai-inguruan jesarrita, gure «botterham»-a jan genginean. Andra pare bat etorten yakun, eta lapiko andi batetik, koillarakada bana sopa bero emoten euskuen. Gienetan, guk gerratean leenengoz ikusi ta jan genduan «Sopa Juliana»-ren antzeko sopa gozoa.

Ikasketak flamenkeraz emoten euskuezan. Urrun, bai, Jaunari esker, urrun egozan norberena baiño agintarien izkuntza arrotza ikastera bearturik egozan aldi zoroak.

Aste batzuk baiño ez, Flandes'en nengoala, ez nengoan ni nire ikaskideak egiten ebezan arazoak egitera bearturik. Onelakoren bat agintzen euskuenean, nire aulkitik enparaduakana begiratzen neban, euren arazoa nik egin bearrik ez neukala-ta, pozik. Aparteko arau au zala-ta, gure eskola-mutikoen artean neu nintzan zorionekoa. Baiña zoritzarreko egun baten, niretzat nasaiegia zala cretxi eutsan orri gure maisuak, eta neuk be enparaduak egiten ebena egin bear nebala esan eustan. Aurre-rantzean, berak esaten ebana idatzi egin bear izango neban, ba, naiz-ta irakasleak flamenkeraz esandakoa nik gutxi, gutxitxo baiño ez ulertu. Ezin, ba, maisuagaz batera egon. Zelan egin nik orrelako lanik, flamenkeraz berba egiten ez nekiala eta ortografi-arauak ezagutzen ez nebazala! Nik esandako onci ez eutsen jaramonik egin gure maisuak. «Ondo ekiala berak —ziraustan— nik uts bagako lanik egiteko gauza ez nintzana, baiña ikusi egin nai ebala bere begiz noraiñoko aurrerapideak egin nebazan.» Beraz, lana besteakaz egin eta, amaitutakoan, besteak lez maisuari emon neutsan. Zer atarako ete-eban arek nire lan barregarri aretatik?

Ate-aurrean geukazan udako gure oporrak. Ikasturtea amaitu baiño egun batzuk leenago, gure klasearen urteroko bidaldia (eskursiñoa) urrengo astean egingo genduala esan euskuen.

Madame Jeanne'k nire «botterham»-a gertatu eta nire bottillatxo sasi-kafez bete eustan. A bai poza nirea! Goizerik bizikeletea artu eta eskolara jo neban, bidaldiari uts egiteko bildu-



rrez. An egoan gure zuzendaria umeai azkenengo oarrak emoten. «Gure bidaldi orretan kamiño ta bide nagusietatik alde egiteko asmoa geukanarren, ez zan beti erraz izango auto ta motor guztietatik alde egitea.» Nondik eta nora joango gintzan be azaldu euskun (azalpen au ez neutsan nik ulertu; edota, ain pozik nengoala-ta azalpenari jaramonik egin ez?), eta orren ostean otoitz laburtxo bat be esan eban, «egun eder onetan okerrik jazo ez dakigun».

Trenbidearen luzeran, Olanda'ko mugarantz yoian bide estua artu genduan guztiok. St. Marienburg, nire eskolarako bidealdian urrundik ikusten neban erritxotik igaro gintzazan. Heikenstraat eta Brasschaat'en arteko bide zaarra, Kapellen. Bata bestearen ostean, guztiok, erreskadan pozik giñoiazan, zuzendaria aurretik eta beste irakasle gazte bat geure atzetik etozala.

Olanda ta Belgika arteko mugara eldu gintzazan. Mugan be gure zuzendariak arazoa beteten eban erztzain bategaz berba eginda gero, ertzaiñak, beste bagarik, mugea zearkatzeko baimena emon euskun. Olanda'n gengoan. Gure errien antzeko erriak. Gure gizon-emakumeen antzeko gizon eta emakumeak. Izkuntza bat. Antxe bazkaldu genduan, beste aldeko erritxo bateko enparantzan gure «botterham»-a.

Illuntzean etxera biurtu gintzazan. Baiña aurrerago, eskolan «agur» esan geutsan alkarri, pozik biaramonean eskolara geiago etorri-bearrik ez geukala-ta. Ez neukan nik une aretan beste pentsamentu ta gomutarik. Ezta tristura txikarrenik be. Aldi aretan nik artetan ez nekianarren, gaurkoa izango zan Ekeren'go nire eskolarako azkenengo osterea. Azkenengo astetetan egin nebazan lagun barri-onak ez nebazan nire bizitzan barriro ikusiko. Nor arduratu orrelakoakaz oporrak ate-aurrean dagozala?



## UDAKO OPORRAK

Ekeren uria, Anberes portu anditik zazpiren bat kilometro iparralderantz dago. Gure auzoa, kilometro bat eta erdi gorago, Ekeren'go iparraldean. Iparraldetik eta sartzaldetik «xuka-lurrak» (beste era batera esanda, «polderrak») zabaltzen ziran. Gizonaren lan eta aalegiñaz itsasoari «osturiko» lurra dira oneik. Itsas-gaiña bera baiño beerago dagoz lur oneik, eta, itsas-gorai eusteko, arresiak dagoz. Iparrerako bidean, erriak oso txikiak dira. Bedartza zabaletan beiak baketsu larratzen dira. Lurra urbidez eta erretenez bananduta dagoz, eta «xukalurretan» zear sakabanatuta dagozan baserriak bata bestegaz bide zearrez alkartzen dira.

Asitako oporretarako ezin jolastoki egokiagorik aurkitu. Josken'ek ikasten eban Ikastetxean, geureakaz batera asi ziran oporrak. Baita Lodewijk aren osaba gaztea yoian Ikastetxean be. Libre gengoan, ba, irurok, libre txoriak lez, gure bizikeletakaz emendik ara joateko, larretan etzunda eguzkia artu eta kanaletan uger egiteko. Aste batzuetarako libre gengoan, eta askatasun-sentimentu au iruron bizikeretan jaun eta jabe zan une aretan

Oso alkaturik gengoan gure taldetxoan, iñoiz be ez alkarren artean asarrerik, ezta umeen artean be, batez be osaba ta lobearen artean ia egunero sortzen ziran gora-beerakaitik.

Lodewijk —beste anai-arrebak ezkondu eta etxetik kanpora joanak zirala— bere guraso zaarrakaz Olanda'rako bidean egoan Hoenen'en bizi zan, ume bakar. Bai berak, bai gurasoak, arreba-alabarik zaarrena ezkondu zan Paenen'ekoakaz eukezan artu-emonak ain estuak zirala, ez zan arritzekoa, goiz

eta arrats, berak aal eban une guztietan Lodewijk Heikenstraat'en agertzea.

Aren arrebearen umeak, Julia, Lodewijk baiño zaartxoagoa zan; Maria, aren adiñekoa, eta Josken, osabea baiño gazteagoa. Orren arauzkoak ziran, izan be, lobak osaba gazteagaz ebezan artu-emonak. Julia'k bere babespean artuta lez eukan Lodewijk; Maria, ari iseka ta barre egiteko beti egoan gertu, eta Josken, anaién artean oi danez, beti ziarduan matrakan bere osabeagaz.

Flandes'etako «xuka-lurretako» benetako baserri-semea zan Lodewijk. Lodia, aurpegiz osasuntsua, ulegorria, ez zan gauza erraza bere begi urdiñetatik irribarre bat sorrerazotea. Apatza, astitsua, astuna, seriotasunik andienaz artzen eban beti Maria eta Josken'ek berari barre egiteko asmoz oi eutsan edozer. Mutiko arrigarria gure Lodewijk! Ezin onelako lagun ona ta zintzoa biotzez maite izan ez.

Baiña arek eukazan guztietarik, aren gizon-bizikeletea zan nire biotzekoena, nik geien euki nai nebana. Joseken'ena (bera be ume zimel eta artega zan-eta) txikiegia zan niretzat. Eta nik erabilten nebana, Madame Jeanne'rena izanik, emakume-bizikeletea zan. Eta nik gizonak dauken lakoa euki nai.

Arro egoan bera gizon-bizikeleta ori zala-ta. Ez eutsan iñori, ezta lagunik zintzoenari be, bere bizikeletea itziko. Neuk be beste orrenbeste egingo neuke. Ni, neure etxekoaz nenbille-nean, ezin ardurabagea izan. Leenengo egunetako bildur eta ikarak garaituta gero, gero ta ardura txikiagokoa biurtu nintzan, naiz-ta arduratsu izateko errazoirik naikoa euki. «Zalditik» jaustea kirol bat ba'litz lakoa egin yatan. Belaunetako zauriak osatzen yatazaneko, ba-nengoan barriro be lurrean, belaun biak zaurituta, min baten.

Hoevenen'era Lodewijk'i lagunduta gero, bide zabalaren ondoan bide estutik etxerantz nentorren. Bidean etxera etozan langille-talde bat uste bagarik aurkitu neban. Bizikeleta-bidexoa estua zan ezker, arduraz ibili bear nire aurrez-aurre etorren langilleren bati topekada bat ez emoteko. Baiña areitariko

batek, iraduz ebillelako-edo, bere bidetik urtenda, ni bekokiz jo eta lurrera jaurti nenduan. Txillioka ta biraoka asi yatan langillea: «Got verdumme gij!» (Madarikatu-ori!) iñoan berak, jazoriko ezbearraren errudun neu nintzalakotan. Ni, errudun ez nintzala, neuri egokidan bidetik niñoiala... Neu be deadarka asi nintzan. Flamenkeraz ezinda, prantzeraz asi nintzakion: «C'est vous que êtes sorti de...» Or nik esan neikean guztia! Portuko langille-taldea aurrera yoian bere bidetik, niri jazorikoari jaramon egin bagarik. An nengoan bidean ni bakarrik, lurrean, zaurituta, bizikeletearen aurreko txirringea biurtuta neukala.

Udaldian zan beste au be. Ipar-Beljika'ko «xuka-lurretan» patata-batzea egiteko sasoia zan. Bein, Lodewijk'en adiskide batek, geugana etorriarik, Hoevenen'go baserri andi bateko patatak batzeko, langille gazteak bear ebazala esan euskun. Lan-sariak ez edozelakoak, eta lana aste bitarako-edo izango zala. «Etorriko zaree?»

Berealaxe nire buruan biraka asi nintzan, zenbat diru irabazi neikean zenbaketan. Eta, beti lez, mutilla nintzan, ba, ni amesetan! «Diru orreaz zer erosi? —nirautsan nire buruari—. Bizikeleta barri bat erosiko dot. Oraingotan neure sakeleko diruaz. Gizon-bizikeletea, Lodewijk'enaren antzekoa, eta bearbada ohea, argi andiaz, Jef nire eskola-adiskidearena lakoa. Onek, bai, onexek eukan lasterketarako bizikeletea...»

Orduak igaroten yatazan, alai, zoriontsu, nire dirua ta bizikeleta barria zala-ta amesetan. Eta, jakiña, orrelakoa izan bear nire lagunakaz nerabilen autua. Esaterako, Koningshof'eko Josu'k eta Mateo'k, ori zala-ta, beste bagarik curak be, lan orretara etorri ete-zeitekezan itandu eustenean...

Patata-batzea asteko eguna eldu yakun. Madame Jeanne'k nire «botterham»-a gertatu ta sasi-kafeaz botillea bete eustan. Pozik egoan bera be, nik diru apurren bat irabazi neikeala-ta. Ez geukan diru larregirik gure Heikenstraat'eko etxetxoan. Janssen jaunak etxera illeroko lansari ziurra ekarren. Baiña diru ori laster geukan eralgita. Etxean aalbait ondoen jaten genduan. Margarina merkerik ez, gurin karua baiño. Patata egosi-



Mevrouw Jeanne = Jeanne andrea.

rik ez, albokoak jaten ebezanez: guk beti prijiduak. Zaldi-urdankakoterik ez, beti bei edo txal-okelea baiño. Arro egoan gure Madame Jeanne, Paenen'ekoak baiño askozaz obeto jaten genduala-ta.

Bein, legortu egin zan gure ugaritasun ori, eta esperientzia barri au oso interesgarri egin yatan, gizasemeen barru ta azala sakonago ezagutzeko.

Domeka ta jaiegunetan, beste edozein umeri emon oi yakonez, etxeokak neuri be txakur-txiki pare bat emoten eustezan. Izozki, urrak edo txokolate zatiren bat erosi nengizan. Domekarik geienetan, iñora ez giñoiazan-eta, ez geukan ezer erosteko aukerarik. Nik, domeketako nire txanponak aurreratzten niarduan: egunen baten, aukera obeaz, patxadazko gauzaren bat erosiko nebalakoaren ustez («Velo» bat, esaterako. Orreik salgai egozan denden aurretik igaroten nintzan bakotxean, ume mizkiña gozokien aurrean lez geratzen nintzan). Domekeroko nire txanponak «Belga» bat, bost franko egiteraiño eldu ziran. Nire «Belga» ori jantokiko arazako tiradorean ezkutatzen neban. Madame Jeanne'k ondo ekian nire diruaren istoria ori.

Illaren azkenean (garilla zan, ala dagonilla?), txanpona bear-bearrezkoa ebala-ta, emoteko eskatu eustan Madame Jeanne'k, illaren asieran barriro biurtuko eustala-ta.

Naiz-ta biotz-minduz (neure dirutxoa zan-eta), emon egin neutsan dirua. Ez egoan, ez, Janssen-Van den Berg'enean dirutan larregi.

Ulertzekoa zan, ba, Madame Jeanne'ren poza, nik, patatabzera joanda, ainbat diru irabaziko nebala entzun ebanean...

Bizikeletca artuta, an joan nintzan Joseken'egaz Hoevenen'era. Lodewijk be geure taldekoa zan ezkerro, beragana jo genduan lanera joan baiño leen. Lodewijk'en gurasoak euken basserria, gure patatak batu bear genduzan soloetara ez egoan ain urrin. Eldu gintzazan, ba, etxaguntza andi aretara taldeko irurok. Mutiko-talde bat egoan orduko an alkartuta, ugazaba noiz etorriko zain (areitariko batzuk nik eskolan ezagutzen nebaza-

netarikoak ziran). Agertu zan, noizbait be, ugazabaren seme bat, eta leenengo etorritakoai berba batzuk esan eutsezan. Oneik, artetan etorritakoai edo bana-banaka etozanai arek esandakoa jakiñerazoten eutseen. A bai ames ondo samintsua gurea, arek esandakoa entzun genduanean! Guztientzat ez ei'egoan lanik, guretariko batzuentzat baiño ez; lansariak gure amesetakoak baiño eskasagoak izango zirala; eta, ni atzerritarra nintzan ezkerro, aldundien berarizko baimen bat bearrezko izango nebala, geroago be ertzaiñakaz gora-beerarik izaterik nai ez ba'genduan beintzat. Gure taldetik Lodewijk baiño ez eben lan orretarako artu. Josken eta biok etxera biurtu gintzazan, itun, tristuraz beterik, gure amesak ezereztuta... Naikoa izan bear izango yatan Madame Jeanne'ren bizikeletea. Ari emondako txanpona, orraitino, ez neban barrero ikusi-ta, barrero be domeka ta jaiegunetako txakur-txiki ta andiak aurreratu-bearrean nengoan. Asierarik. Txakur-txikienik be ez neukan, euki be.



## KIRMESAK

Udako oporren asieran Kirmes-jaiak ospatu genduzan Ekeren'en. Eskolako zuzendariak, onelakoetan beti oi ebanez, jai orrein zegaitia eta zetarakoa, bai erritar guztientzat, bai guretariko baxotxarentzat, azaldu euskuzan. Aspaldi danik sortu oi diran orretariko jazopenak, geienok nondik datoza eta zetarako sortzen diran jakin be ez dakigu-ta, bere ikasleai gai orrei buruz argi apurren bat emotea bere irakasle-arazotzat eban.

Kirmes-jaiak asierarik eukun elburua azaldu euskun leenen. Izenak berak —«Kirmes»— adierazoten dauanez, jai oneik kristau-bizitzan eukun euren sutrai ta sorburua. Nire ikaskideak, Flandes'ko semeak ziran eskero, ez eben arek iñoana ondo ulertzeko azalpen-bearrik. «Kirmes» berbearen iturburua «Kirk» («Eliza» esan nai dauan antxiñako berbea) eta «mess», berba bien alkartzetik ei'torren. Bigarren «Mess» berba onek ez ei'eban «Meza Santuaz» zerikusirik, «Maas» berbeaz baiño. Azken onek, «Azoka» esan nai ei'eban, Erdi-Aroan izan oi ziran azokak. Labur esanda, ba, Eliz-jaiia dala-ta euki oi dan azoka esan nai dau «Kirmes» berbeak, eta ortik ei'etozan egun onetan geukazan jaiak.

Gogorik onenaz guzti oneik azaltzen euskuzanarren, ez geutsan jaramon andirik egin gure zuzendari maiteak iñoanari. Beste nonbaiten, Kirmes-jaitan bertan, geukan gu gure gogoa, Kirmen-jaietz beterik egoan gure burua, eta Kirmes ori, zer beterik izan zeitekean umeontzat, poza, alaitasuna, eskolarik eza, «Boxing-car»-ak erroteko eskubidea, «Errusitar-mendietara» igo, eta amesetan geukazan beste ainbat gauza baiño?

Jai orreitarako eskuzabaltxoagoak agertu yakuzan gura-soak. Madame Jeanne'k be, txakur-andi batzuk emon eustazan, jai orreitan bear zan eraz ibilteko. Eskuratutako txanponak asko ez ziran ezkerro, atzetik eta aurretik begiratu bear izan nebazan, txanponak zetan eralgi erabagi orduko. Nire erabagia laster artu neban. Bizikeletea ba-neukan-eta, urrengo mailla zelan edo alan motorrean ibiltea zan. «Boxing-cars» edo mutur-jokako autoetan eralgiko nebazan nire txanpon guztiak. Ez, ba, gozokirik, ez su-iskillorik, ez «Errusitar-mendirik», ez beste onelakorik. Mutur-jokako autoetan lurperatuko neban nire dirua.

Amesetako gure eguna eldu yakun. Auto barri bate(ta)n leenengoz ibili bear dan gaztea lez, onelaxe joan nintzan ni «jokako autoak» ebizan tokira.

Diru askorik ez neukan, franko bi. Franko bateko ordain-tzaz, iru miñutuko osterea egin neikean. Birritako osterea egin, eta an neukazan nire diruak janda. Sakel utsez an nengoan ni, aurpegi luzez, nik baiño txanpon geiago jaso ebenak egiten ebezan joan-etorri zoroak ikusten. Josken zan areitariko bat. Kirmes'era etorriaz, Julia izan genduan lagun. An ziarduan bera gure poza ta alaitasuna ikusten. Nire diru apurrak eralgita triste ikusi nenduala, bere sakeletik beste franko bat emon eustan. Irugarren osterea eginda, gure Kirmes'en illunabarra zeru alaian jatsita egoan...



## ERREGÉ-JAUREGIA (Koningshof)

Naiz-ta Josken eta onen osaba Lodewijk'egan lagun on eta zintzoak euki, aldian-aldian neure bakartadea sentitzen neban. Nigaz Capbreton'dik etorritako ume-taldetik bat be ez zan etorri Ekeren edo alboko erriren batera. Ez neukan, ba, nire izkuntzaz berba egiteko erarik, edo Capbreton'go egun triste ta ederrak gogoratzeko, edo orain geukan bizikerea alkarri azaltzeko abagunerik. Garratz eta triste biurtzen yatan bein baiño sarriagotan onela bakarrik egotea.

Onelako baten, ba-yatort Josken, eta, niri poza ekarteaz bera be pozik, ba-diñost berak: «Txabi, eskolako lagun batek zuen arteko mutiko batzuk non dagozan ei'daki. Alako Barrukoen Ikastetxe baten. Ez ei'dago gugandik urrun Ikastetxe ori, amarren bat kilometrotara baiño ez. Zure lagunok ikusi nai izango dozuz, ez ba? Bizikeletaz joan gaitenez, zuk nai izan ezkerro. Biok joan gaitenez. Bidea nondik dan ba-dakit nik gutxi gora-beera, eta egunen baten, bazkal-ostean joanda, aurkituko dogu ikastetxe ori.»

Nik baietza emon neutsan, eta joate ori urrengo asterako iztea erabagi genduan.

Biok joango gintzazan; baiña egun orretan ez gengoan biok soillik. Lodewijk, Julia eta Maria be alkartu egin yakuzan, gugaz arratsalde libre bat egin eta (neskai buruz nok ori ukatu?) Julia eta Maria Ikastetxea ta nire lagunak zelakoak eteziran ikusteko jakin-guraz.

Koningshof'erako bidea («Koningshof = Errege-etxea», orixe zan gure Ikastetxe ori egoan lekuaren izena) bide atsegin-tua zan. Kapellen'en ondoan egoan trenbidea zearkatu bear

genduan leenen; urrengo, beste erriren baten ingurua lez zan erritxo batera eldu gintzazan. Bidearen alde batera, etxetxo zozagarri, ortuak loraz eta urkiz beterik geukazan. Bizikeleteaz bide estuari jarraitzen geutsan, baiña berez bide zabaletik be joan geintezkan. Ez egoan bide aretan auto joan-etorri apartekorik. Gudariz beterik yoiazan guda-kotxe batzuk argi erakusten eben andik urr kuartelen bat egoana.

Brasschaat'era eldu zan gure taldea. Beste erritxo guztiak baiño garrantzitsuagoa zirudian erri onek. Bein uri onetara eldu ezker, gure euskal-mutikoen etxetik urr gengoan. Baiña nongo bidetik jarraitu? Nai-ta-ez, ba, itandu egin bear.

«S'Gravenwezel'erako bidea artu egizue leenen —esan euskun guk itandu geutsan norbaitek—. Emendik kilometro pare batera-edo, urbidetik urr, eskumatara egin eta berealaxe «Pensionat»-a (onela eritxon guk billatzen genduan etxeari) aurkituko dozue. Ez dozue utsik egingo. Etxe oso andi bat da. Bidetik, izai baten ostean ikusiko dozue billatzen dozuen etxea.»

Gure bidetik, laban egin eta jaustea oso erraz yakun arebide bati jarraitu geutsan bost neska-mutilok. Ur-ertzera eldu gintzazanean, ez egoan urbidea guretzat zabalik. Schoten-alde-tik gabarra astun bat etorren astiro. Ontzi-ganean andra lodikote bat, soiñeko garbiak eguzkitan eskegitara. Uraren atea egegi arte, guk itxaron egin bear...

Josken, gazteena ta alaitsuena izanik, gu guztion aurretik yoian, gure etxea leenen aurkitzeko gogoz. Alako baten, eskuaz kiñu bat egin eta alai esan euskun: «Or dago etxea!»

Gure eskuma-alde-tik, bide osoaren luzeeran, beresi sakon bat egoan, eta beresiaren atzean, gugandik urr, etxe eder-argi bat ikusten genduan. Geuri esanda lez, eskumatara jo eta... bertan geukan guk billatzen genduan etxearen ataurrea. Atea jo genduan, lotsati, baserritik etorri eta orrelako etxe ederrik iñoiz ikusi ez daben mutikotxoen antzera. Izan be, gu lako umeentzat etxe oso ederra zan gure aurrean ikusten genduana. Ango inguruetan arririk ez egoan ezker, etxerik geienak adri-luz eregiten diran lurralde aretan, etxe eder au be, inguru

apain eta polit baten erdian, adrillu gorri eregita egoan. Ate nagusiaren aurrean lorategi zabal eta ederto apaindu bat egoan. Bide zabalak etxe orretara jotzen eben, guztien erdi-tokia bai'litzan. Albo batera eta bestera pago ta piñu antzeko beresitxoak, eta beresitxo oneitan egurats-etxe polit-txukunak.

Orain ulertu neikean nik toki onek Koningshof (leen esan dodanez, Errege-etxe edo lorategia) izena zegaitik eukan ezarrita. Ez zan, ez, jakiña, Bruselas'en errege-etxe-koak eukan Laecken errege-etxeaz bardintzekoa. Beste era batekoa zan. Nire ustez, ez litzakion gogor egingo erregeari inguru eder onetan bizi izatea.

Onelakoetan nengoa ni, nire beste lagunakaz, isilik, atea guri noiz zabalduko zain. Moja baketsu, lodikote batek atea zabaldu eta zer nai ete-genduan itandu euskun. Guretariko zaarrena zan-eta, Julia'k guztion izenean egin eban berba. Ni aita-tuaz, guztiok eusko-umeakaz berba egin eta, aal izan ezker, etxe-inguruak ikusteaz pozik bai pozik be, izango gintzazala esan eutsan.

Moja baketsu lodikoteak gela zabal batera guri lagundu eta, besterik esan bagarik, alde egin eban gugandik. Artega gengoan ain luzaro itxaron-bearrez; eta onelako baten, etxe-pasaiatik oin-otsak entzun genduzan. Norbaitek atea zabaldu eta ara non agertzen yakun nik aspaldian ondo ezagutzen neban irudi bat. Irun'dik etorrira, guk Capbreton'en egindako irulau asteetan geugaz egondako Don Manuel zan bera.

Euskal-mendietako baserritar-antza eukan. Buru zabal, ule bakoa, belarri andi, ezpan urtenak. Agoan beti zigarro bat erreten. Ez geutsan umeok maitasun sakonik iñoiz agertu. Ezta berak be ez guri! Gure Don Manuel umezalea ez zan ezker, gure maitasun-eza orren ordaiña baiño ez zan.

Gure etorrereaz ardura apartekorik erakutsi bagarik, zer nai ete-genduan itandu euskun labur eta legor. Oraingotan neuri egokidan berba egitea. Geure gurariak agertu neutsazan; arek erantzunik emon ez; eta orrela, gure alkarrizketa (?) amaitzat emon genduán.

Gure jesarlekuetatik guztiok jagirik, etxeko pasaia zabal eta garbietan zear igaro gintzazan. An egozan, gela zabal-andi baten, mutiko batzuk, euren astia zelan emon ez ekiela. Gelaerdian egoan mai luze batek argiro agertzen eban gela zabala jantokitizat be erabilten ebena. Eta orma-kontran ikusten ziran beste mai txiki batzuek eta idaztolak, gela berean umeai ikasketak emoten yakezala adierazoten eben.

Gela andi orretan beste ainbat gauza egiten ebezan gure mutikoak: kartetan, erri-kantak abestu, alkarregaz burrukan egin, eta batzuetan —kanpoan euria edo lanparra eginda, mojarik edo abaderik agertzen ez zanean— futboleko jokatu be bai.

Leio zabaletatik gelan eguzki ederra sartzen zan. Ate andi batetik, etxeko ormak inguratzen ebezan jolastoki estutxo bate-ra eta umeen komunera urteten ziran gure mutikoak.

Jolastokian be agertu gintzazan. An ziarduen olgetan, brusa baltzez jantzita, ume koskor batzuek. Gora ta beera, emendik ara astiro-astiro —liburu bat irakurten— yoian moja gazte bat, batzuetan umeak zelan jolasten eben begira. Barru-Ikastetxe baten benetako irudia.

An egozan mutikoai, berba pare bana baiño ez geutsen esan. Geienak beljikarrak ziran. Euskaldun banaka batzuk. Nigaz Heikenstraat'etik etorritakoentzat arekaz berba egitea gauza eziña zan. Eta neu be «etxe bakar» batetik («pribatua» esaten genduan guk aldi aretan) nentorren ezker, kanpotartzat neuken mutiko areik; ikastetxean egozan mutil «pobreak» ikusita, bere jakingurea ase nai leuken norbaitetzat.

Guzti oneik zirala-ta, ezin —asierarik— nire erritarrakaz artu-emon zintzorik izan.

Asarre nengoan orrez gaiñera, Julia ikusita, mutiko areitariko batek esandako lotsabagekeriakaitik. Gure ume batzuen artean be —beti bardin!—, neskatxak atsegiferako baiño ez dirala-ta, ezin arei burura etorri auzo bateko mutiko ta neskatillen artean adiskidetasun garbirik izan daitekenik.

Ekeren'go nire lagunak etxe aretako euskaldunai buruz artu eben eretxia zelakoa zan, ez eusten niri agertu. Ni bai, ni

mutiko batzuen ganorabagekeria zala-ta, oso minduta geratu nintzan. Agur, eusko-umeak zirala-ta nik barruan neukan ames-buruerari! Pozik nengoan Koningshof'en luzarago ez egon bear izateaz, pozik lagunakaz Flandes'ko larra ta baserrietara biurtu aal izateaz.

Andik aste batera-edo, barriro joan nintzan Koningshof-era. Bidea ikasita neukan ezker, oraingotan bakarrik jo neban etxe aretara. Mutikoakana ez baiña, beste zer bat egitera baiño.

Etxean —Bilbo'n— oso eraspentsu eta Jainkozale zan amagandik artu neban erlejiño-aziera, egiazkoa ta benetakoa izan zan. Eta aziera orretarako ezaugarri garrantzitsuenetariko bat Autortza-sakramentua egitera joatea zan. Astero, zapatu edo jai andien aurregunean, ania ta biok joaten gintzazan autortzera. Ez, orraitioño, beti abade bategana. Illean birritan, «Berrio-Otxoa» gure Ikastetxeko umeok, guztiok alkarregaz joaten gintzazan Mezatarra. Illaren leenengo domeketan, Begoña-aldean euren eliza ederra euken Karmeldarrekana; irugarretan, Jon Deunaren elizara, gure Ikastetxea parrokia orretan egoan-eta.

Domeka ta enparadu jaiegunetan, amak geure Andoni Deunaren elizara eroaten genduzan. Bertako abade laguntzaille zan Don Pedro Orbe'k, amaren autor-entzule berbera izanik, gure ume-autortzak entzun eta guri adorea ta poza emoten aalegintzen zan.

Capbreton'en egon gintzazan artean, ez neban eragozpenik izan nire erlejiño-bizikereari jarraitzeko. Baiña ni Ekeren'era ekarrita, erri onetan bakarrik nengoala, nire bizimodu guztia zearo aldatu zan. Nire atsekabeen arteko andienetarikoa, Autortza-sakramentua astero egitera ezin joan izatea zan.

Egoki agertu yatan leenengo unean, ba, Madame Jeanne'gaz gai orretzaz egin neban jarduna. Niri laguntzeko gertu egoala eta gure elizatzoko Erretore jaunagana berak lagunduko eustala erantzun eustan.

Beste izkuntza baten autortzen oituta ez nengoan ezker, ez yatan atsegin ezelan be Erretoreagana joatea. Bein joan nin-

tzakion, ba, baiña geiago ez. Ardura orretan nengoala, Koningshof'eko Ikastetxeko albistak eldu yakuzan. Nire premiñean nasaitasun andia somatu neban. Goia barrero argi ikusi neban, eta barru-barruko pozez beterik geratu zan nire burua.

Aurrerantzean astero joan neintekean Koningshof'era. Geienetan, bakarrik niñoiari; banaka batzuetan, Josken'ek beste egitekorik ez eukanean, berak laguntzen eustan. Nik ara egiten nebazan joan-etorriak oso laburrak ziran geienetan. Abade-etarikoren bati (asieran nai-ta-ez Don Manuel'i, besterik ez egoan-eta) «Arratsalde on!» esanda, elizara niñoiari zuzen.

Autortzarako gertatu egiten nintzan, aste-barruan izan nebazan «gogapen, berba ta egiñak» barrero burura nekazala; minutu pare batera Don Manuel etorren, eta, aldi labur baten ostean, barrero «libre» nengoan.

Onelako askatasuna, askatasun-sentipena, beti izan dau nigan asteroko autortzak. Sakramentua artu-ostean, barrero nintzan gizon libre bat. Sentipen ori nondik sortu leitekidan, ez dot iñoiiz gogoetarik bear dan sakon egin. Barruko askatasuna, Jau-nagandik datorren askatasuna zan nik sentitzen neban ori, ala Jainko antzekoren batek nigan sorrerazoten eban premiñaren sasi-askatasuna? Autortzera joan-bearretik askatasuna?...

Autortza amaituta, mutikoakana joaten nintzan, arekaz berba egiteko asmoz. Baiña alkarrizketa au irurik bitan laburra, ezin laburragoa izaten zan. «Arrotz», kanpotartzat neuken areik, eta neu be bildur eta ikarati agertzen nintzan arein artean. Bildurta izate orrek «andereño» ezizena ekarri eustan. Baiña bildurta izateak bakarrik ez. Gugaz Capbreton'en egon ziran mutikoen artean, ba-ziran banaka batzuk lotsarik eta modurik euki ez, eta beste guztiak euren antzeko izan bear ebela uste ebanak. Orreitarikoen ago ta biotz koipetsuetan sarrien erabili oi eban gaiak, neska-maitakeria eta abar ziran.

Beste askok lez, orrelakoetan ez neban pozik aurkitzen-eta, ez da arritzekoa areik ni «neskatillatxo»-tzat eukitea. Gizon-biotzez makala danak alboko errubagea zapaltzen aurkitzen dau bere bada-ezpadako atsegia. Areik be bai.



## «GU ZAPALDU NAI GENDUEZANEN AURKA JAGI GINTZAZAN»

Ille bi-edo egingo nebazan Heikenstraat'en. Anberes'tik ikustaldi bat egin eusten. Kotxe dotore bat etorri zan gure baso-bidetik; geure etxe-aurrean geldituta gero, jauntxo gazte bik, geure atean egin eban dei. Bernaerts anaiak ziran, leen Eskalda uri andiko alkate izandakoaren semeak. Familia guztiz katolikuan jaio ta aziak, Eliza ta lagun-urkoaganako maitasun-arazoetan era askotariko egitekoetan egozan sartuta. Gure Euzkadi'tik, burrukea zala-ta, eusko-umeak Beljika'ra etorri gintzazanetik, lanik onena egiten ziarduen biok «Van Roey Kardenalaren» ekintzan. Batak eta besteak zaletasunik andiena erakusten euskuen, eta aal eban guztietan geu ikustera etorten yakuzan. Eusko-umeok eskerroneko gintzakiozan, eta areik egiten eban guztia edo areintzat interesgarri zan edozer biotzez eta adi onez entzuten genduan.

Andik ille batzuetara, Koningshof'eko nire egunetan, batez be mundu estu baten geu lez bizi diran umeen artean oi danez, geuk be, gazte orreitariko bat zala-ta, «nobela» bat asmatu genduan.

Geroago azalduko dodanez, Koningshof'en gengoan umeok astean birritan ikustaldi bat izaten genduan. Abade naiko gazte ta gogotsua etorri yakun arte, Capbreton'en egondako andereño bi etorten yakuzan, guri ikasketa ori emotera. Arcitariko bat eibartarra zan, bergaratarra bestea. Biak ziran politikak, apalak eta umeontzat on eta gogotsuak. Eusko-umeak egozan beste toki askotara lez, geurera be etorten ziran bein baiño sarriagotan Bernaer's anaiak. Geu ikustera etorri yakuzan ba-



ten, an aurkitu ebezan gure andereño giputz biak, eta, gazteai dagokienez, alkarregaz berbetan asi ziran.

Umeok, beste bagarik, geure nobelatxoia asmatu genduan. Bergara'ko Miren anai biatarik zaarrenagaz ezkondu genduan. Jaunari eskerrak, ez eban Miren andereñoak gure ames zoro orren barririk izan; pospoliña baiño gorriago jarriko yakun; ain apala ta errubagea zan bera!

Nigana etorri ziran onetan, «Korreio-arduradunen» antzeko emoten eben.

Areik ekarri eikeen eta nik amesetan euki neikean doairik andiena ekarri eusten: Bilbo'tiko karta bat, nire guraso ta maiteen aldetik, Prantzia'ra iges egin nebanetik, leenengoz jasoriko karteak.

Ez zan, ez, arazo erraza karta ori Bilbo'tik Heikenstraat-era elduerazotea. Sobre-gaiñean ikusten neban «Gurutze Gorria»-ren ezaugarritik atara neikeanez, erakunde onek artu eban bere lepo-ganean ardura ori. Beste ezaugarri batzuk agiri ziran «Gurutze Gorria»-renaz batera. Obo gorri baten erdian urrengo berbok irakurri zeitekezan: «Visado por la Censura». Kartearen asieran nire etxeokak idatzitako berbak argiro adierazoten eben karta ori nondik etorren eta zelako ezbearretan egozan niretararak. «Viva Franco» zan leenengoa. «Arriba España» urrengoa. Eta amaitzeko, «II Año Triunfal».

Orreitarikok ziran gure jauntxo barriak gure etxeokoi esanerazoten eutseezan berba politikak, gure erriak croaten ebazan neke izugarriak isillerazoteko asmoz.

Etxeko guztiak idatzi eusten zerbait: aitak (naiz-ta idazteko nagia be nagia izan), geiago amak (bere ezkerretatik eskumara etzunda lez yoian letra andiaz), Iñake nire kutunak, eta gugaz bizi zan eta etxekotzat geukan Miren gure lengusiñeak. A zan nire poza, etxetik albistea jaso eta guztiai ondo yoiakiela jakiteaz artu nebana! Obo gorriaren erruz, ezin areik idatzi nik jakin nai nebazan beste zertzelada asko.

Neuk bakarrik ulertzeko erara be bai. Osaba abadea, Bermeo'tik urtenda, ia berrogei urtetan bere zainpean izan eban

elizea iztera beartu eben jauntxo barriak. Euskalerriko mendietako erritxo batera, Bermeo'ko beste lau lagunakaz batera, bialdu ei'eben; baiña, etxeokak iñoenez, erri barri orretan be — Elgeta'n— pozik egoala zirudian. Osaba on errukarria, iñoiz negarrik egin ez ebana, iñoiz aspertu ez zana, lan barri bat artzera beti gertu egoana! Igarotako asteetan, abade ganorabagako batek esanda, Francotarren erpectan illa zala-ta entzun nebanean, bai samintsu ta garratz isuri nebazala nik negar-malkoak!

Iñake, antza, Bilbo'ra, gurasoakana joan zan. Eta izeko Mari Juana, gaisoa, non ete-egoan?

Illunabar aretan, Bernaerts anaiak Anberes'era biurtuta gero, goiko nire gelako bakartadean, Flandes'ko muga bageko «xuka-lurretara» begira, uda-txirrita zorrotza entzuten nebala, bein eta barriro egin neban negar. Bakarrik eta ain urrin nengoa-la-ta sorturiko tristurea zan?, ala etxeok maiteak bizi ziralako poztasuna?

Andik egun batzuetara, adi egon eta etxetik alde ez egiteko jakiñerazo eusten Erretore jaunaren bitartez. Anberes'tik etorteko ikustaldi bat zala-ta, zain egoteko. Biamamonean zeatzago eldu yatan barri bardiña. Don Pedro Orbe izenaz Anberes'en egoan abade bat ei'zan etorteko. Hoevenen'erako tranbien geltokian jatsiko zala. Eta ni beragana joateko.

Esandakoaren arauz joan nintzan gure elizearen ondoan egoan geltokira, eta, arantz niñoiala, ara non agertzen diran abade bi urrunetik gure baso-bidetik gurerantz datoza, alkarriketa bero baten jarduten ebela. Don Pedro zan areitariko bat, geure Erretore jauna bestea.

Aditzekoa zan jazorikoa. Arduratsua zan gure Don Pedro'k, nigana etorri baiño leen, edozela be, Erretore jaunagana joatea egokiagoa zala eritxi eutsan. Lagun-bearrez egoan gure erri zapaldua-ta. Onela jokatuaz, gure erria ta bere arazoetarako lagun barriak beraganatuko ebazala uste eban. Bide batez, niganako ardurea erakutsi eta nire bizimodu barria zelakoa zan ikusi eikean.

Ezin pozago ni egon, biak alkartu nebazanean. Gure etxeko lagun ezin obeagoa zan Don Pedro. Urte asko ziran, San Anton elizan, Bilbo zaarrean, abade laguntzaillearen arazoa beteten ebara. Gu bizi gintzazan Zabalbide kaletik urr bizi zan bera. Kaleko mutikoak biotzez maite genduan gure Don Pedro. Auzoko Gaztediaren ardurea be berak eban.

Eguerdi-aurreko lana amaitutakoan, inguruetakoa beste abadeakaz batera bazkal-ordurako etxeratzen zanean, geure aurretik igaro bear izaten eban. An gengozan «kaleko ume-taldea», ikastetxetik etorrita, ostikopelotan (futboleant) olgetan, edo San Klemente'ren aurreko arrizko jesarlekuan jesarrita, urlia Anaiak Ikastetxean agindurikoak alkarri esaten. Erlejiño-erriko umeak gintzazanontzat, ekandu bat lez zan jesarlektutik jagi, abadeakana jo eta arein eskuai mun egitea (aldi aretan geure errian be, Euskalerrian, egiten zanez).

Gure amaren autor-entzulea zan bera. Gure erriak askatasuna galduta, Don Pedro'k Prantzia'ra iges eginda, beste abade laguntzaille batzuek, politika-arazoetan oker sartuta egoalokotan, salatu ebenean, makiña bat gora-beera gogor izan ebazan gure amak a salatu eben abadeakaz.

Pozik agertu zan bera be ni idoro (aurkitu) eta osasuntsu nengoala ikusiaz. Alkarri berba batzuk esan eta nire ta etxekoen barriak itanduta gero, Erretore jaunagaz aurreragotik ekarren autuari jarraitu eutsoen. Arrituta nengoan abade biak latiñeraz egiten entzunaz. (Don Pedro'ri eraso neutsan nik, Bilbo'n nengoala, goizean-goiz Meza Santua. Amaitutakoan, beste meza-mutillai lez txakur-aundi bat emon bearrean, niri «Malba zurizko» karamelo bat emoten eustan. Arein arteko izketa entzunaz, ba, ezin nik aspaldiko nire «Kirie-eleisonak» burutik kendu!).

Gure Don Pedro'ren prantzes-izkuntza eta auntsaren estula era batekoak izango zirala-ta, alkarregaz latiñeraz berba egitea erabagi eben, antza. Nire mezatako salmu ta otoi zetatik zubirik ez areik erabillen alkarriketara. Esakera bat, orraitino, ulertu neutsan Don Pedro'ri: «Contra invasores surreximus!»

(Abade-latiñeraz esanda: «Gu zapaldu nai genduezanen aurka jagi gintzazan»).

Ikustekoa zan, ba, gai labana erabillela gure abadeok alkarriketa orretan: Zer zala-ta alkartu zan Euskalerrri kristaua «Jainkoaren arerioakaz», Gurutzearen gudari eta España'ko fedearen alde egiteko jagi ziranen aurka burrukan egiteko?

Onela, ba, Euzkadi'ko gure abadeak, katolikurik geienak gaitzesten eben jokaerea legetu ta zuzentzeko erabillezan errazoiak erabizant gure Don Pedro'k be.

Gora-beera oneik ez ziran ain garrantzitsuak niretzat aldi aretan. Beste ardura batzuk neukazan ume bat baiño ez nintzan onek. Ezin orduan susmatu, faszisten gorrotoagaitik atzerrira iges egindako gure abade onak sentitzen ebezan min eta ulertuezak euren errazoiak abade ta katoliku arrotzai, euskal-kristautuen jokaerea legetu nairik azaltzen eutseezanean. Ondo be ondo egoan taiatuta Francotarren propaganda: katolikurik geienak, arerio bakarra («komunismoa») zapaltzen zala-ta, eskumako faszisten ideolojia ta pentsakerea onartzeko gertu egozan aldi aretan. Sua amatatu nai, sutara orioa isuriaz...

Baiña neugaz egoteko etorri zan batez be gure Don Pedro. A nire poza berau ikusiaz! Gure Janssen-Van den Berg'enekoak be pozik egozan, ikustaldi a zala-ta. Arro agertzen zan onetan eurak benetako katolikuak zirana... Emen agertu yaken abagunerik egokiena etxeko urrekoai euren katoliku-izate au erakusteko. Abadeak eurak be (esango eben euren kautarako) etxera etorten yakezan... Eurak bein eta barrero ori iñoelako, kristau zintzoak ete-ziran, ba, gure senar-emazteak? Mijnheer Ludovicus eta Madame Jeanne, Beljika'ko gizartean, erdi-maillakoak ziran, «burgestxoak» gaur esango gendukenez.

Mailla onetakoen artean berarizko dan erlejiño-bizikerea, gatz bagakoa zan guretar oneik erabillena: oiturazko ta azalezko erlejiñotasuna alde batetik, eta bestetik benetako kristau-bideak, guztiak naastuta.

Domekero gure auzoan egoan elizaxora joaten ziran Meza-tara, Meza Nagusitara. Ni goizeko Meza-tara joaten nintzan,

aal neban guztietan, Josken eta onen arreba biakaz. Onein aita, Paenen buru-soilla, Mezatarra joan bearrean, etxean geratzen zan. Txakur-lasterketaren bat izatean, araxe yoian berak eukan txakur bizi ta eder bategaz. Arro egoan bera, txakur ori zala-ta.

Ama, Paenen andrea, ez beti, tarteka-marteka joaten zan Mezatarra: etxean egitekorik izan ez, eguraldi on bat izan, edo berarizko jairen bat ospatzen zanean. Alde onetatik, ba, argi egoan «gure» etxeakoak Paenen'ekoak baiño elizkoiagoak zirana. Baiña bada-etzpadako sasi-errazoren bat naikoa yaken, Mezatarako agindua bete ez eta euren jokabidea zuritzeko. Amaren Jainkozko gerizpean azita nengoan oni, oso gaitz egiten yatan arein jokabide ori ulertu ta ontzat artzea. Iñoiz —umeen amesak!— jokabide orren azalpena eskatu neutsen.

Orixe jazo zan, esaterako, Madame Van den Berg'en aspal-diko lagun bat a ikustera etorri yakunean. Lagun ori etorri baiño egun batzuk leenago jarri nenduan Madame'k ikustaldi orren jakitun. Pozik nengoan ni, ikustaldi ori zala-ta. Egurdikoa beste egunetakoa baiño ohea izango genduan; jaun orregaz berba egiteko abagune ona izango neban; eta —nok jakin?— bearbada txanponen bat emongo ba'leust, ainbat obeto. Mezatarra niñoiala eldu zan gure ezagun ori: Josken eta onen arreba biakaz elizatik etorri, eta onei «agur!» esanda, etxean sartu nintzanean ikusi neban leenengoz.

Etxeko egon-gela txikian egoan bera jesarrita, agoan pipa zaar batetik erreten, eta Mijnheer'egaz alkarrizketan. Madame Jeanne'k arazorik asko eukan eskaratzekoak gertatzen eta noizean bein baiño ez etorren gugana, guri kafe apurren bat ekarri, ondo ete-yoakigun ikusi, eta nik ezagutzen ez neban zer edo au edo besteari buruz zerbait itauntzera.

Meza Nagusitarako ordua eldu zanean, elizara joan bearrean, an geratu ziran etxean irurok.

Bazkalordua eldu zan, kafea guztiok alkarregaz artu genduan, eta gero, etxerako asmoz, Heikenstraat'etik alde egin eban.

Madame Jeanne, ari azken-agurra eginda gero, etxean geratu zan erratillu ta beste mai-tresnak garbitzen. Mijnheer eta

biok tranbiaren geltokira lagundu geutsan. Etxerantz gentozala, domekea izan eta Mezatarra joateko agindua egoan ezkerero, Mezatarra zegaitik joan ez ziran itandu neutsan Mijnheer'i.

«Ba..., ez zan bidezko gaurko onetan Mezatarra joatea —erantzun eustan arek—. Dana dala, nik Jaunari otoitz egiñik, Goikoak beste bagarik parkatu egiten daustaz nire utsak. Ez da besterik bearrezko, gauza guztiak bide artezean barriri jarteko.»

Bere uste ori zala-ta, zelanbait arrituta geratu nintzan. Nik bestetara neukan abadeakandik ikasita: pekatua parkatzeko, premiñan izan ezik, utortza nai-ta-ezkoa zala...

«Orrez gaiñera —esan eban berak—, beste zeren bat zan ni Mezatarra ez joateko. Etorri yakun orregaz «Moe» bakarrik izterik, ez neban nik nai».

Ez eban besterik esan, baiña nik, umetxo bat baiño ez nintzan onek, jazoera guztiaren susmo bat lez artu nebala autortu bear dot.

Senar-emazteen arteko artu-emonak ez ziran, antza, aparte maitetsu. Maitasunezko ezkontza baiño onurazko ezkontza izan zan areiña. Aspaldi zanetik itzi eben gazte-izatea. Madame, aspaldian, alargun. Ez zan egunoroko euron artu-emonetan aparteko zaletasunik susmatzen.

Ez zan, ba, arritzekoa, noizean-bein euren anka-jokoren bat bataz edo besteak egitea. Arrisku orretan egozala ikusi dogu azaldu dodan jazopen orretan. Beste baten, ni testigu izan nintzan jazoera batek, argiako erakusten eban arein ezkontzan zerbait ustel egoana.

Udako egunetan, sargori egoan egunetan batez be, eguerdian Madame Jeanne ogera joaten zan, bazkalondokoa egitera. Bere lo laburtxo orretan, bake utsa euki nai eban-eta, etxeko ateak itxi egiten ebazan. Artetan, nik etxe-osteko ortuan itxaroteko egindu eustan berak. Ortuan egotea gogaikarri egiten yatan-eta, an egoten nintzan ni etxean sartu eziñik, bera jagi eta eskillaretatik beera etorren arte.

Bein, itxaron-bear gogaikarri baten ostean, etxeko egongelan norbait egoalakoaren zaratak entzun nebazan. Madame

beera etorri zalakotan, eskaratzeko atea zabaldurik, beragana joan nai nik. Egon-gelako atea zabaltzeko nengoala, Mijnheer etorri yatan barrutik, eta, ni kanpora sakatuaz, ortuan egotea obe nebala esan eustan asarre. Erdi-zabalik egoan atetik, Julia ikusi neban, ikaraz, ariñeketan soiñekoak ipinten. Barriro kanpoan nengoala, Mijnheer'ek atea itxi eta gela aretako leio-oialak jatsi egin ebazan.



## HEIKENSTRAAT'EKO ZERIKUSI GUTXIKO AUTU-MAUTU BATZUK

Munduko kale ta bide guztiak euren istoria, andi edo txikiagoa dabe, kale orretan bizi eta bertan biziriko ordu eder edo itxusiak egin dabezan guztien istoria. Zelan aaztu niri Bilbo'ko gure etxeokak bizi ziran kalean egin nebazan ume-bizitzako zatirik andiena (eta ederrena, ikasketa-osteko bizikerea zan, izan be-ta)? Zabalbide'n (bai izen polita gure kale estu ta luzetak ebana!) egiten genduan jolasean guk futbolea egunkari zaarrakaz egindako «baloiakaz»; bertan eratzen genduzan gure antzerkiak (jakiña, «zuri» eta «indioen» artekoak); bertan entzuten genduzan ikara-ipuiñak (Pedro Basaras'ek —«Pedrolas» ezizenez— ekazan «Zerutik etorritako Banpiroen» ipuin sorta-koak, esaterako); alkarregaz burrukan egiten genduan, indartsuagoa nor zan edo —gure azien artean— kaleko neskatillarik politena «emaztegaitzat» nori egokion erakusteko (abereak, umea nok lortuko dauan egin oi dabenez).

Euki be, berarizko istoria eukan gure Zabalbide'k, San Klemente'ren denda-aurreko arrizko jesarlekuan (guk «eroa-penaren jesarlekua» esaten geutsana) kaleko umeak idatzitako istoria.

Lemona'n Arraibi'ko gure etxe-aurretik yoian bideak be berarizko istoria eban. An, Gasteiz'erako bidean, gure «Sastegia»-ren aurrean egoan ormatxoan alkartzen ziran auzoko gizonak, euren emazteak etxeko lanak amaitu, josteari ekin, edo kartetan egiten eben artean. Ormatxoaren ganean jesarrita —geure aita, «kamiñerua», «Daniel andi», Anton, eta beste ainbat— gerrako albisteak, beste errietatik etozanak zirala-ta

zer egingo, gudariak egiten ebezan egintza arrigarriak... onei-  
kek ziran euren jardunetan erabilten ebezan gaiak.

Bilbo'tik Gasteiz'erako bide zabal onek be, berarizko isto-  
ria eukan, ezbarña, bai, baiña bizi ta ederra, koloretsua, uri  
andietako kale dotore-zabalak izan daikkeen aiñakoa.

Heikenstraat'ek be bere istoria euki bear, beste gure kale  
ta erri orreitarikoen antzekoa izan ezarren be; bere taiuko isto-  
ria eukan. (Beljika'n ez dabe auzoko gizonak zerupean alka-  
rriketarik egiten, ezta umeak be kalean antzerkirik.) Nik orain  
azaldu nai dodan istoria beste era batekoa da, nik Janssen'en  
etxean bizi nintzala ikusi ta bizi nebazan zertzelada ta autu-  
moutuak. Eurak izan dira nire bizitza ta nortasuna zelan edo  
alan moldatu dabezanak.



## ALBERT

Gure janaririk garrantzitsuena ogia izanik, eta egunero  
otoitzean geure bizitzarako ogia eskatzen dogula, nire atalbu-  
rutxo au ogigille baten istoriaz asi nai dot.

Gure Heikenstraat inguruetako beste erri guztietatik urrun  
egoan, eta, beretzat okindegi bat eukiteko lain gauza ez zalako,  
kanpotik ekarten euskuen auzoan bear eta jaten genduan ogia.  
Egun birik baten, motor ori bat agertzen zan gure kalean, ogigi-  
ñaren motorra. Txilintxo entzuten genduanean, ba-gekian  
guztiok: ogi-saltzaillea etorri da. Txiliña entzun eta bereala,  
etxe guztietako ateak zabaldurik, etxekandrak kalera etozan,  
«botterhams» gertatzeko bear ebezan ogi zuri-luzeak erostera.  
Motortxuaz etorri zana, adiskide baten antzeko agertzen zan.  
Etxekandrakaz berba egin, eta bide luzean —Merxen'etik gure-  
ra— entzundakò albistak geure auzokoai jakiñerazoten eutse-  
zan. Ogi-saltzaillea zan bera, baiña baita barri-zabaltzaillea be.  
Auzo bakotxean ogia saldu, eta auzo bateko albistak urrango  
auzoan zabaltzen ebazan.

Gazte kaskar eta baltzerana zan bera, ezelan be ez gure  
kaleko gazte ulegorrik antzekoa. Izate alai eta argikoa zan,  
eta etxekandrakaz berba egiten ziarduala —Ipar-Europa'ko gi-  
zon-emakumeak ezin egin daikena—, miin eta esku, bere gor-  
putz osoaz egiten eban berba. Auzoko guztiak maite eben gure  
ogi-saltzaille gaztea, eta bera be besteak pozik eukiteaz pozik  
egoala zirudian.

Bein, gure etxe-aurrean Josken'egaz nengoala, ara non da-  
torren Albert (izen ori eritxon gure ogi-saltzailleari) bere mo-  
tor eta txiliñaz. Txiliña entzunerazo eta an agertzen da gure



Mijnheer Ludovicus = Ludovicus jauna.

Madame Jeanne ogia erosi eta ogiakaz batera arek zabaltzen ebazan albistak entzun-guraz. Beste guztiak lez, Josken eta biok be, geure jokia amaituta, ogi-saltzailleari urreratu gintzakiozan.

Barri-saltzaillea izanik, emakume bat aiñako nun-ze-barri zan gure Albert. Leenago iñoiz be ez nenduan ni ikusi, eta, ni Josken'egaz ikusirik, berealaxe itandu eban: «Eta mutiko ori, nor da, ba?» Ba-eukan ogi-erosleen artean zabaldu eikean beste barri bat. «Españar bat dala esan dozue?» (Madame eta Josken'entzat ez egoan artetan «euskaldunik». Guztiok gintzazan «españarrak».)

Eta beste bagarik, bere leenengo agurra españeraz jaurti eustan: «Buenos días, señorita».

Nik barre eta olantxe zuzendu neutsan: «Ez naz ni "señorita"». «Baiña gure izkuntza biak —erantzun eustan arek— oso bardiñak dira.»

Italiarra zan Albert, bere aberri pobretik alde egin eta biotz oneko Beljika onetan ogibide barri bat idoro ebenetarikoren bat.

Arro egoan bera, ainbat izkera egiten ebazala-ta: Flamenkeraz, Prantzeraz, eta, beste guztiak baiño maiteago, amagandik ikasitako izkuntza. Ez zan, ez, gutxi gure ogi-saltzailletxuak ekiana! Bestela be, ondo maite eben Heikenstraat'ekoak gure Albert, eta egun birik baten euren artean alako eleaskoduna euki aal izateaz guztiak arrituta egozan.

Ez dakit nik zegaitik, baiña ez nengoan ni ziur gure Albert'ek «Ele askoren grazia» eukanik. Zelan jakin, baiña, berak iñoan guztia egia ala ames utsa ete-zan?

1933'ko Urte Santua zala-ta, gure Albert'ek ni ezagutu baiño lau urte leenago, Erromara'ko joan-etorri bat egin eben Karmen nire arrebarik zaarrenak eta geugaz bizi zan Miren'ek. Guri esan euskuenez, Miren'ek «bokaziñoa», Jaunaren deia, ei'eukan, eta luzaro ikasten egondako Durango'ko Prantziskotar-Aizten komentuan sartzea erabagi ei'eban. Bein etxe orretan sartu ezkeru, iñoa urteterik ez egoala-ta, Erroma ikusteko

asmoa agertu eban (Lisieux'ko «loratxoak» lez. Bai gauza biguna ta polita!). Mojetxean sartu, ez zan iñoiz sartu, baiña gure lengusiña biak euren osteratxoa egin eben Erroma'ra. Joan-etorri orretatik Santuen irudiak, Agurtza bedeinkatuak, parkamen osoak, eta Pedro Deunaren enparantzan eta Carcassonne uri zarreran ataratako argazkiak ekarri ebezan. Baita Italia'n ikasiriko berba batzuk be. Orreitariko berba batek, garnu-ontziaren antzekoa zalako, barre eragiten euskun. Berba ori «pericolo» zan, eta «arrisku» baiño ez zan orren esanaia. Italia'ko txoko ta bidebietarik geienetan aurkitzen ei'zan berba barregarri ori. Eta orren barregarri zalako, ez yatan berba ori ain erraz aaztu.

Or neukan, ba, nik gure auzokoen artean ipuin baten antzera zabalduko ogi-saltzaillearen «Ele askoren doaia» birrintzeko iskillorik egokiena. «Zelan esaten dozue zuen izkuntzaz «Gevaar»?»

Ixillean, egun baten, erantzuna ausnartzen geratu zan. Gero, bere erantzuna etorri yakun, erantzun ziurra ez, irakaslearen itaunari zerbait erantzun bear, bai, baiña zer diñoan ez dakian ikaslearen antzekoa. «“Danger”, prantzeraz lez!», esan eban azkenez.

Bere ezjakiñean atxitu, arrapatu neban ogi-saltzaille gaisoa. Eta Josken'ek oraingotan ni, eta ez Albert, jakituna bai'nintzan, Albert'ek porrot egin ebala zabaldu eban auzo guztian. Guztiok barre galantak egin genduzan, Madame Jeanne'k beste iñok baiño geiago.

Betiko bere bideari jarraitu eutsan Albert'ek, ogia emen eta barriak an zabalduaz. Oraingotan barri interesgarri batzuk eukazan. Españar mutikoa. «Pericolo» zala-ta, azterketa. Bestela be, bizikera gogor batera egonaz, ez eutsen gure barreai jaramonik egiten.

Biotzez pozik egoan Madame Jeanne, Albert'en utsa eta «bere mutikoaren» garaipena zala-ta. Eta ogi-saltzaille arrotz aren aurka urrengo burrukarako iskillorik zorrozten asi zan.

Egun bi geroago, betiko orduan, Merxen'go okindegiko motorra eldu zan, eta Albert, beti lez, irribarre ta ogiak, berba

gozo ta azkenengo albistak zabaldu eta banatzen asi yakun. Gure «134-ra» eldu zanean eta Madame Jeanne agertu, eta onek asteko ogia ordaindu eutsanean, antxe gengoan Josken eta biok be. Ogia emon eta diruak trukutzen ziarduen artean, azkenengo egun bietako albistak emoten asi zan bera. Bere lana amaitu eta motorrera igo baiño ez, ara non asten garean irurok —Madame Jeanne'k be orretan laguntzen euskula— aren lepotik deadarka: «Albert, stoeffer! Albert, stoeffer!» (=«Albert, beatzen ganeko!»)

Madame Jeanne'k zirikatatu genduzan berba oker eta iraintsu ori Albert'i esatera. Bide egokia benetan guban, mutikokan, dedu ta lotsea sarrerazoteko!



## HEIKENSTRAAT'EKO JUDARRAK

Gure eta Paenen'ekoen erdian, gugandik urr, egurats-etxe bat egoan. Naikoa zaarra, burdin-sareaz inguratuta. Begoña'ko Karmeldarren Prailletxetik urr egoan «Sorgin-Etxe»-koaren antzekoa zan. Etxe zaar ori ia bakarrik egoan, arresi arrakaldatuak inguratuta, lo-bedarrez estalduta. Etxe-aurretik igaro bear genduan bakotxean, lasterka egiten genduan, atzerantz begira guri jarraituz norbait ete-etorrenentz. Ez egoan zetan izan guk amesetan egiten genduan orrelako arriskuen bildurrik. Gure basabide illunean egozanak, illunabarreko itzalean euren maitasuna agertu-bearrez maitatzaillak baiño ez ziran.

Heikenstraat'eko jauregi narras orretan sendi (familia) aparteko bat bizi zan. Senar-emazte ta iru ume. Mutil gazte, argal eta oso egokituak areitariko bi, eta neskatillatxo lodi-polita irugarrena. Senar-emazteak, lantzean-bein, euren etxetik kanpora yoiazala ikusten genduzan. Umeak ez ziran iñoiz be kanpora joaten. Bira-bira zaar baten jolas egin, kulunk-aurkian etzunda egon edo lorategi bedartsuan zerbait irakurten ziar-duen beti. Txaleta eta gure auzo-bidea burdiñazko sareak banantzen ebazan, eta sareak berak baita etxe onetako bizilagunak eta auzoko beste guztiak be. «Agur», «egunon» edo orrelakoren bat zan arein etxe-aurretik igarotean umeak burdiñazko sare-ostetik jokoan ikusten genduzan bakotxean alkarri esaten geutsana.

Bein, familia orri buruz, zer zala-ta besteokana ez etortea, Josken'i itandu neutsanean, onek ixillean, alde guztietara begira, onelako erantzuna emon eustan: «Judarrak dira! Jende zirzil eta bada-ezpadaakoak!» Or, arek niri esan aal eustan guztia.

Ez nebazan geiago ekarri burura, Josken'ek esandako berbok. Egin be, zer egin neikean nik izate ori aldatzeko? Or dagoz, beste bagarik, ainbat gizon eta emakume bada-ezpada-koak: Fede-bageak, lapurrak, Mari-bideetakoak... Dagozala judarrak be, eta, niri zer?

Josken'en etxetik nentorren bein, jauregi zaar aren aurretik igaroten nintzala, liburu bat irakurten ziarduan anai bietariko bat aurkitu neban. Bere arrebatxoa bira-biran olgetan ziarduan artean, arek irakurten ziarduan. Une aretan ez eustan betiko «Agur» edo «Egunon»-ik esan. Atean dei eginda, irakurten ziarduan liburutxoa erakutsi eustan. Eskumako orriak gazteleraz eta ezkerretakoak nik ulertu eta irakurri ezin neikean izkuntzaz idatzita egozan —jidisch edo eberkeraz ziurren—. Arro egoan bera liburu ori niri erakutsiaz. Erderaz ikasten ete-egoan, ba? Nik neukazan flamenkeraren ezaguera urriaren languntzaz, eskumako orrian idatzita egoan erderazko «leche» berbea biurtu neutsan. «Melk», esan neutsan. Arek ezkerreko orrira begiratu, eta ezetz. Nik, barriro be, «Melk» zala. Onelako baten, billatzen ziarduan berbea aurkitu ta neuri be baietza emon berak. «Esnea» zan, bai, ezkerreko aztarren barregarri arekaz idatzita egoana.

Andik egun batzuetara beragana etorteko agindu eustan Madame Jeanne'k. Gauza garrantzitsuren bat esateko zanean, beste orrenbeste egiten eban berak beti.

«Aurreko eguastenean «judar orregaz» egon ei'zara. Eta niri ezer esan ez!», egin eustan deadar, asarre.

Nik ezin ulertu zer zala-ta jakiñerazo bear neutsazan nire joan-etorri guztiak, batez be nire izketa ori ain garrantzi bagea izanik.

«Bai, egia da», erantzun neutsan nik. Eta asarre neu be, niri kuku egiñaz norbait ebillela ikusirik, «Ta? Zegaitik ez dot mutiko orregaz barbarik egingo?»

«Aurrerantzean ez dozu geiago mutiko orregaz, ezta orren etxeakoakaz be, barbarik egingo. Orren anai ta arrebatxoagaz be ez! Entzunda? Orreik judar zikin batzuk baiño ez dira.»



«Nok ezan dautsu nik aregaz berba egin dodala?»

«Ixi, eta ez geiago itaunik egin!»

Nik eta mutiko arek alkarregaz berba egin genduan leku aren aurrez-aurre atso bakar bat bizi zan etxe bakar bat egoan: Mevrouw Van den Bril, bere bizitzaldirik geiena etxeko leioaren aurrean egiten eban andra zaartxo bat zan. Auzoko gizon eta emakumeak ez eukan ia artu-emonik, baiña bere «oar-lekuk» gure basabidean jazoten zan edozer ikusi eikean, inok be-  
rau ikusten ez ebal. Besteak ez, baiña gure Madame Van den Berg'egaz ba-eban zelako-alako adiskidetasuna. Gure Madame'ren aldetik ez zan adiskidetasun ori ardura bagakoa, zerbait billatzen ebana baiño. Lantzean-bein geurera etorren Van den Bril andrea, eta etorten zan bakotxean bere ortuko igalietarik zorrotxo baten ekarten euskuzan maillukiak, sagartxoak eta abar.

Pozik egoan Madame Jeanne onelan ezer ordaindu bear bagako mai-azkena etxean artu geinkeala-ta. Bere erara ordaintzen eutsazan mailluki ta kerexak, arek etxera ekazan ganorabako ipuiñak adi-adi entzunaz.

Nire susmoak Mevrouw Van den Bril'egana joten eben. Besterik inok ez nenduan ikusi —ezin ikusi be— judar mutiko aregaz berbetan.

Ez eukan, orrezaz gaiñera, gure Madame'k besterik inor beragana etorri eta orrelako ipuiña azaltzeko lain kutun zanik.

Andik egun batzuetara, nik jazoriko ori geiago aitatu ez nebala, Madame Jeanne'k berberak esan eustan nire susmoetako andrea zala ni salatu nenduana.

Nik uste dodanez, bizitzan ezin naastu daitekezan jokaerak naastu nai dabezan lagunetarikoa zan gure Mevrouw Van den Bril. Oso elizkoia alde batetik, enparaduai buruz ardura larregi erakusten eban bestetik. Ez egoan aren jokaera orretan gauza barririk, edonok ikusi daikenez. «Nihil novum sub sole». Jira-beera guzti oneitan, gauza bat bakarrik zan barria: judar mutikoa zala-ta, enda ta erlejiño-gaiak naastatzea. Euskalerriko seme izanik, ez yatan inoiz agertu beste fedeko gizasemeakaz

alkarrizketan egiteko unerik. (Izan be, ez geukan gure errian, politika-alderdietarikoak izan ezik, beste «areriorik».) Nire azierea orrelakoa izanik, mutiko aregaz nik tolesbaga ta errubage egin neban berba. Orren asarre Madame'k niri oiuka egiteak, ia barre eragin eustan nire barruan. Urte asko geroago, ume ez nintzala, lortu neban nik gai ori ausnartzeko sakontasuna, eta Israel'go erriak gure izeneko kristau-gizartean eroan bear eban zuzenbagekeria izugarria ondo ulertzeko abagunea.



## POST DATA

Amar urte geroago, munduko bigarren gerratea amaituta gero, aspaldiko miñez josirik, biurtu nintzan Heikenstraat'era Lobaina'tik ostera laburtxo egiñaz.

Antxiñako «Sorgin-Etxea» osoro barrizatuta egoan, etxe-aurreko zelaiak arduraz edertuta, burdiñazko sarea barriz koloretuta.

Baiña nik basabidetik ikusi neikezan gizon eta emakumeak ez ziran amar urte leenago, nire atzerri-egunetan, ezagutu nebazanak.

«Inglaterra'tik etorritako batzuk dira —esan eustan Joskenek—. Leengokoen senide edo tartekoak... «Nazi» zitalak, badakizu...»

Non il ete-eben nire mutikoa? Bergen-Belsen'en, Auschwitz'en, non? Edo alemaniarrek zapaldutako Beljika'tik iges egin, eta, «Gurasoen Lurrera» joanda, bere errikoakaz alkar-tzea lortu ete-eban? Or, inoiz erantzunik izango ez dauan itauna.



## EZ MUTIKO ORREGAZ IBILI!

Neure ardurea eban Madame Jeanne'k, gorputz-arimearen ardurea. Amarik maitatzailleenak eta arduratsuenak euki daiken erara eukan berak bere «mutikoaren» gora-beeren ardurea. Jazopen askotan agertzen zan ardura ori, baita nik jarraian azalduko dodan garrantzi bagako jazoeratxo baten be.

Nire lagunik kutunena Josken zala, bein eta barriro be esanda daukat. Baiña ez zan a nik Heikenstraat'en neukan lagun bakarra.

Egunak joan, eta lagun barriak egin nebazan, bai Ekeren'go Ikastetxean, bai Heikenstraat'eko gure auzoan. Auzo onetan, gure etxetik urr, anai bizi ziran, umezurtzak, izeko baten babespean. Areitariko nagusiena neure adiñekoa zan. Mutiko galanta ta ederra zan bera, ule zurigorria, liburuetan agertzen diran benetako jermendarren eredua. Ez zan, baiña, mutiko orren irudia ni beragana bultzatzen nenduana. Askozaz interesgarriagoa yatan (zelan izan bestela mutiko-artean?) aren bizikeletea, aren «velo»-a. Bizikeletan ibiltea, lasterketan egitea, neure poz, min eta lerarik sakonena izanik, berezkoa zan nik orretariko tresnarik ederrenakaz arduratsu izatea.

Lilluratuta lez geratzen nintzan tresta orreik salgai egozan denda-aurretan; bizikeleta ederren baten egarri be egarri nintzan, eta eguneko ta gabeko nire amesa orrelako tresna ederren bat, dinamo eta argi, «kanbioa» eta —aal izan ezkerro— lasterketarako «manillarrak» eukitea zan.

Nire ameseta orreitariko bizikileta bat eukan mutiko eder, galant, zurigorriak. Ortik etorkidan niri areganako zaletasuna. Bizikeletak ziran —alkarregaz gongozanean— guk gerabilen

gaia, era bateko eta bestekoak eukezan on-gatxak. Berak eukana ibilteko amesa ez zan iñoiz bete. Artetan ezagun barriak baiño ez gintzazan ezker, lagunagoak izan eta aren «velo» ederrean ibilteko baimena eskatzeko bear neban adorea noiz eukiko itxaroten nengoan. Baiña une ori ez yatan iñoiz eldu. Oraingotan be norbaitek kuku egin, eta ni mutil orregaz nenbillela jakiñerazo eutsan Madame Jeanne'ri. Onak beragana joanerazo eta mutil orregaz geiago ez ibilteko zeatz agindu eustan.

Agindu barri ori entzunaz, nire barruan arritu egin nintzan. Arritu bakarrik ez, asarre be jarri nintzan. «Nora nire mutikoaren bizikeleteaz ibiltea?», esan neban nire kautan. Eta argi Madame Jeanne'ri: «Ta? Gauza okerra ete-da, ba, orrelako lagun bat eukitea?» Barriro be arrituta agertu yatan bera, nik berak agindutakoen aurka zerbait esatera azartu nintzalako. «Ez ete-dakizu, ba, mutiko orren etxeko ta senideen artean birikeriaren erruz, illak eta geisoak izan dirana?, bere aita ta arrebea il, eta bera, berbera, bularretik egon dana? (eta dagoala oraindiño, bearbada?). Ori jakin bear zenduan, eta ez emendik ara orreitariko mutikoakaz ibili eta etxera geiso ori ekarteko arriskuan izan!»

«Beti bardin, zaarrok! —esan neban nik nire kautan—. Osasuntsu izatea mundu onetan dan gauzarik gorengoena bai'litzan be...!», jarraitu neutsen nik nire gogapenai.

«Ez zara ibiliko geiago mutil orregaz, ezta bere anaiagaz be! Entzun dozu?» Axe zan bere azken-berbea.

Onelaxe amaitu zan nire lagunaren bizikeleta ederraz euki neban eztialdi laburra. Leenengo gauan, neure bizikeletea ezagutu orduko, alde batera itzi bear...

Beljika'ko nire udaldi aretan, beste lagun batzuk be egin nebazan nik, Madame Jeanne'k ez ekiala. Sargori-egunak ziranean, Lodewijk, Josken eta ni, irurok geure bizikeletea artu, «xuka-lurretatik» igaro eta Hoevenen'erako bidearen ezkerretara egoan kanal estura joaten gintzazan. Capbreton'en emondako ur-soiñekoak neukazan nik artetan nire zorroan ondo zainduta. Madame Jeanne'k ez jakiteko lez, ixillean artzen ne-

bazan nik soiñeko areik (onela ez neukan aren bildur zetan izan) eta kanalera giñoiazan, uger egitera. Gu lez ugerretara etorrita egozan gure adiñeko beste mutiko batzuk topatzen genduzan kanal-ertzean. Areik beste erritxo eta baserrietatik etozan eta batzuek Lodewijk ezagutzen eben, eta beste batzuk Josken'egaz ikastetxera joaten ziran. Laster guztiok lagun egin gintzazan. Ugerrerako, neure gaztaiña-koloreko soiñekoak jazten nebazan nik. Besteak, bakotxak berak eukana. Batzuk kanalera billoizik joaten ziran, eta uretan murgildu. Ez zan guretarikorik iñor be arritzen ori ikusiaz, inguruetan neskatillarik ez egoan-eta. «Belgas», beljekar-zigarroen kaxatxo bat erosteko lain diru geukanean, alkarri emon eta guztiok erre egiten genduan.

Libre gengoan, txoriak lez, libre, persona nagusiak beti gure zain ez geukazala. Lemona'n, eguerdi-aurreko amaika-amaiketan, auzoko lagunakaz, ugerretara joaten gintzazanez, libre ta alai.

Geure «botterham»-ak jan eta sasi-kafea edaten genduan, larra zabaletan etzunda. Eta illuntzean, barriro etxera. Areik bai egun zoragarriak, erritik urrun, mundutik urrun! «Xukalurren» azkenbagariko zeru-muga, txoriñoen txorro-txio gozoak, ertz bagariko larra bedartsuak, larretan bei baketsuak... guzti oneik nire biotza baretu eta leenago bizi izandako egun izugarriak aaztuerazoten laguntzen eusten.

1937'ko udako egun eguzkitsu oneitan masustak batzera be joaten gintzazan.

Paenen'ekoen lurretatik St. Marienburg'eko beresietarako bidean larrak inguratu edo alkargandik banantzen ebazan masustak egozan.

Bide-zaarretatik eltzen gintzazan gu larra areitara. Basamasustak eta sasitza orreitan ainbat masusta batu geikezan. Josken'en amagandik ikasita eukan gure Madame'k masustak jateko zelan gertatu. Guri plater bana emonda, an bialtzen genduzan biok masustak batzera. Etxean ardao apur bat isuri eta azukaraz gozotzen genduzan. Postre merke ta ezin ohea geukan onela.

Lantzean-bein Mevrouw Van den Bril'ek, bere ortu edereetik igali gorri-garratzak ekarten euskuzan etxera; edo ni bere etxe-aurretik ikusiaz, etxera ekarteko emon. Leen eder izaniko ortu zabala eukan andra orrek. Etxean bakarrik bizi zala-ta, ezin guztiak berak artu. Igali gozoak galtzen itzi bearrean, geuri emonaz eta beste auzokoen arteko familietan banatzen ebazan berak bere solokoak.

Josken'en amak be beste orrenbeste egiten euskun. Ez geukan, ba, gure udaldi zoragarri aretan jateko igalirik erosi-bearrik.

Gure etxe-ostean be ortutxo bat geukan guk.

Sasoia etorreanean, Mijnheer Janssen'ek lurak landu, eta azak, prantzes-porrak, perexilla eta beste ainbat soloari ereiten ebazan. Zokondotxo baten lorak be erneten ziran. Baiña, Beljika'ko beste soloetan lez, gure ortuan batez be guk geukana, patatak ziran. Ezin iñori burura etorri Beljika'n patata bagako orturik; ezin burura etorri patata bagako bazkaririk be. Beljekarren bizitzan patatak dira mamiña. Patata legorrak familia beartsuen etxeetan; prijiduak («pommes frites») mailla erdiko edo obeto jan daikeen etxeetan.

Urdankakoteari buruz be beste orrenbeste jasoten zan. Urdankakotea etxean zelakoa jan, or agertzen zan ezeukien (lan-loturik ezeukien) eta eukitsuen (aberats izan bagarik, illaren azkenean lansari ziur bat eukenen) arteko muga. Gu (edo bardin dana, Janssen'ekoak), muga orren eskumaldetakoak gintzazan; Josken'en etxeakoak, ostera, ezkerraldetikoak. Areik jaten eben urdankakotea, zaldi-urdankakotea, gurean txalaren edo beiaren okelaz atonduta jaten zan.

Muga ori nondik yoian, Madame Jeanne'k zeatz irakatsita, ondo baiño obeto ikasita neukan. Ikasketa ori niri ondo irakatsiaz, gure «honderd vier en dertig» beste auzoko etxerik geinak, eta batez be Paenen'ekoak baiño gorago egoala jakiñerazo nai eustan.

«Ara —iñostan bein Madame Jeanne'k, Paenen'ekoai buruz—: Euki ez eta daukelakotan agiri nai, orixe dira orreik.

Gure bardiñak diralakotan, arro egiten dabe euren burua, baiña ez uste guk daukagun aiña daukenik orreik. Or dozuz Julia ta Maria, eta Josken berbera be, bai arro doiazala elizara domeketan arroputz jantzita, «etxe onekoak» bai'lira. Eta etxean zer? Zaldi-urdankakotea jan, eta patata prijiduak jai andietan baiño ez».

«Bein, Astrid gure erregiña gazte ona zala, soiñekoen premiñan egozala-ta, karta bat idatzi eutsoen. Gure erregiña persona oso biotz onekoa zan, ezeukiai laguntzeko beti gertu. Jantziak jaso ebezan. Eta zer? Or ebillen gero Josken'en ama, jantziak bear aiñako onak ez zirala-ta, ezin asarreago. Zer emongo eutsen, ba? Dendetan erosten diran lako onenak? Koi-petsuok, euren merezia ondo artuta euken.»

Ez dot uste Madame'ren eretxi garratz oneik, Paenen'ekoak zelakoak ziran egoki zeazten ebenik. Baiña orrelakoa zan zan Mevrouw Van den Berg.

Gorago aitatu dodanez, ortutxo bat geukan, etxe-ostean, eta ortuan patatak zenbat nai.

Udazkena —gure udazken laburra— amaituta, azaroa (ereite-aroa) etorreanean, lan gogorra egiten eban Mijnheer Lodewijk'ek. Leenen, lurra jorratu ta goratu, azea edo prantzes-porrak ereiteko lorrotzak gertatu, eta azia lurrean ereiten eban. Ereintza guzti au bakarrik egitea —lantzean-bein Josken'en aitak laguntzen eutsanarren— gauza neketsua ta gatxa da, baiña beste aldetik bere bizitza osoa urian eta lentegian igaro bear ebanarentzat lan atsegingarria. Lan onek ba-eukazan, orraitio, ain atsegingarri ez ziran bere aldeak.

Flandes'ko lurak lur lau eta makurrak dira, batez be «xuka-lurrak», itsasoari kendutako lurak. Aspaldiko gizaldietatik itsasoari lurak kendu dautsoez gizonak, eta onela txikinka-pitinka itsasoari kendutako lurrai «polder»-ak (xuka-lurrak) jarri dautsee izena.

Lurrak ain makurrak diralako, ur-gaiñean dabe euren azala. Lurrean ats egin, eta urre-gorririk ez; baiña ura zenbat gura aurkituko dozu, geldí dagoan ura, jakiña. Ez ibairik, ez erreka-

rik, ez beste alakorik (Eskalda ibai andia izan ezik!) ez dozu an aurkituko, mendi ta aldatzik orretarako ez dago-ta. Ori dala-ta, ez dago Flades'ko etxeetan —baserri-etxeetan— urik. Etxerako bear dan ura, patiñetatik atara bear, iñok edan ez daiken ura. Gure etxeko eskaratzean, goizeko orduetatik asita, kafelapiko andi bat geukan suete-gaiñean. Egarrri izan ezkerro, ez genduan iñoiz urik edango, patiñetik ataratako urik, kafea baiño, sasi-kafea, jakiña.

A zan kafea, ura bera baiño epel eta itunagoa...!

Gure komunak be —naiz-ta etxe barri bateko urak izan—, Euskalerriko baserrietako aldi areitako komuneren antzekoak ziran. Gure korten orde, etxetik kanporako gela txiki baten, «oxin baltz» bat egoan. Urik ez, a zan egun batzuetako atsa!

Lur orreitako semeak gizon trebeak dirana ezin iñok ukatu. Norberaren satsak —abereenak bakarrik ez— lurra emokor biurtzeko erabilten ebezan. Geurean be egin genduan lan ori, ni Heikenstraat'en nengoala. Jaunari eskerrak, bein baiño ez. Ez yataz orduko sunda ta atsak erraz aaztuko...

Patatak atarateko sasoiu eldu zan. Mijnheer'ek —naiz-ta orren gazte ez izan— solo-lanak pozik artzen ebazan. Patatak berak atara, eta Madame'k eta biok, otzaretan sartu eta komun-aldeko beste gela batera eroaten genduzan. Ba-gekian Beljika'ko baserrian urte guztian zer jango genduan.

Lan ori amaitutakoan, urrengorako lurra atontzea bearrezko yakun, eta lur-atontze orri satsa ezartea egokion. Onetan be gure Mijnheer zan benetan mutilla! Tiñako zaar bat artu, oni kordel luze bat lotu, eta lanera, mutillak! Urte guztiko kakak eta garnuak an zabaldu ebazan «Vak»-ek gure arloan.

Orduko nire latifiñak Mezea erasoteko aiñakoak ziran, berterik ez. Geroago izkuntza eder ori maitekero ikasi nebanean, Erromatar zaarren esakera bat be ikasi neban: «Homo homini lupus»: Gizona gizonarentzat otsoa! Esakera zaar ori beste era batera euskeratuko neban nik sasoi aretarako: «Gizonarentzat ez dago gizonaren kaka lako gauza atsituagorik».



## EKEREN, AGUR!

Ekeren'en egin nebazan egun argi ta illunak, barre ta negarrak, laster izango eben azkena. Nire erri-miña zala-ta, azken ori etxerako bidea izango zala uste neban bein baiño sarriagotan. Nik artetan irakurri bagarik neukazan Salmoetan, bat egoan orduko nire biotzeko asmo ta gurariak egokien agertzen ebazana: Babilonia'ko ibai-ertzetan judarrak egin oi eben otoitza:

*«Zutzaz aaztuten ba'naz, Euzkadi ederra,  
igartu dakidala eskuma au;  
itsasi dakidala miin au ago-sabaian  
zutzaz gomutatzen ez ba'naz...»* (Sal 137, 5-6).

Iñoiz bildur izan nintzan Heikenstraat'en edo alboko erriren baten betiko geratu bear izango nebala-ta. Bein, Madame Jeanne'k be bildur eta kezka ori sakondu eustan: «Ez zara iñoiz be zure erri zoritxarreko orretara joango! Ementxe geratu bear izango dozu betiko!» Berbok entzunaz, nire erri-miña sakonago, eta nire negarrak garratzaigoak biurtu ziran. Baiña ez neutsen Madame Jeanne'ren zemai orrei sinismen larregirik emoten. Etxera joan ez! Baita oiñez joatera bearturik ba'nengo be!

Bein bakarrik amor egin eta nire itxaropen ori galtzeko zorian jarri nenduen. Une latz orretan goiko gelara joan eta an azken bagariko odei-ertzeraga begira, biotzaren illunetan amesetan egin neban, emen betiko geratze orretzaz. Julia emaztetzat artuko neukela. Ames ori nigan agortu egin zan; aren lorarik ez neutsan iñori erakutsi.

Euzkadi'ra biurtu: orixe zan nire itxaropen bakarra.

Ez zan, orraitaiño, nire itxaropen ori beste bagarik bete.

Ekeren'en eta Bilbo'ren artean beste egotaldi luze bat egin neban nire bizitzako bide luzean. Zer zala-ta?

Mijnheer Ludovicus eta Madame Jeanne'k, leen esan dodanez, maitasunezko ezkontza ez, errazoizko ezkontza baiño ez euken eginda. Maitasun andirik ez zan agertzen etxe aretan, baiña —ori be esan bear— asarre andirik be ez. Inglesak esan oi dabenez, senar-emazte arein artean, euren artu-emonetan «Gentlemen-agreement» bat zan jaun eta jabe. Ez senar-emazte gazteen arteko kutxu-putxurik, ez lora zimelduen antzeko asarrerik; bakotzak berea egiten eban —batak etxera dirua ekarri, besteak etxea atondu—, eta besterik ez eben nai. Zu illeroko zeure lansaria dakazu eta zuk etxea garbi eta bazkaria gertu euki egidazu, lanetik etorri naitenerako. Zer bear eikean besterik? Bein bakarrik konturatu nintzan, euren artean zerbait geiago izan zeitekeala, eta bearbada euretarikoren bat espatsu egon zeitekeala. Alako domeka baten, Madame Jeanne'ren aspaldiko laguna geurera etorri zanean. Nik Mezatarara zer zala-ta joan ez zirala itandu neutsanean, Mijnheer Lodewijk'ek erantzun: «Kanpotik etorri yakun orregaitik! Ez dago ondo ama aregaz soillik iztea. Zer jazo daitekion be ez dakigu-ta...»

Erantzun onek ez eustan une aretan buru-austerik emon. Biotz garbiak garbi ikusten ei'dabez beti gauza guztiak. Eta ni ume koskor bat baiño ez nintzan. Geroago, berba areik buruan biraka erabiliaz, arein esanaia sakonago ulertu neban eta biotzean poz epel bat somatu be bai. Gure Mijnheer be emaztea galtzeko bildur zan, edo-ta aren zintzotasunari buruz ez eukan arek ziurtasun bat-batekorik. Ara nondik, ba, maitasun-izpitxu bat agertu!

Baiña beste egun onetan benetako asarreren bat sortu yaken, antza. Orrelakoren bat jazoten yakonean, eraspentsu biurtzen zan gure gizona, eta elizan edo beste nonbait entzuniko berbak osteratzen ebazan besteen aurrean. Bene-benetarikoren bat jazorikoa izan bear, ba, gugana biurturik, zorrotz eta eraspentsu, otoitz baten antzera urrengo berbak esan euskuzanean:

«Gaurkoan neure Gurutz-bidea asi dot, eta ni gurutze astuna sorbalda makaletan eroatera bearturik nozue!»

Eta ori esanda, aurkitik jagi eta kanpora joatekoa egin eban. «Joan, joan», iñotsan Madame'k.

Laztan baten zain egoan bera? Edo emazteak berba apalen bat esango eutsalakotan? Emaztearen erantzun garratza entzunaz, ateruntz joanda, atea bultzakada gogor bataz itxirik, etxetik alde egin eban.

Ezer jazo ez bai'litzan, betiko bizikereari jarraitu geutsan. Bearbada, bestetan baiño bigunago agertu yatan Madame. Orain etxean neu bakarrik nenduan. Biaramonerako etorriko zalakotan gengoan biok.

«Gabeko lan astunean, bere bakartadean geutzaz gomutuko da barriro —iñoan Madame'k bere eretxiaren zuzentasunean—. Orduantxe bururatuko yako egin dauan astakeria, eta parkeske etorriko yaku barriro. Alako ziztriña!»

Baiña biaramona eldu, eta «lelo» ziztriña agertu ez.

Eguerdirako bazkaltzera alkartu, eta maian aren jarlekua utsik.

Illuntzerako be, «Moe» ta biok soillik gengoan, etxetik alde egiñikoa noiz biurtuko zain. Illuntzean be ez yakun agertu.

Paenen'ekoak, euren oiturea zanez, apalostean geurera etorri bai, baiña ixil eta itun egoan orma-inguruetako aulkietan jesarrita. Geuri lez, eurai be ixilla gogor egiten yaken ezker, bestetan baiño askozaz leenago etxeratu ziran. Julia'k bakarrik itandu eban beti lez, bikunkiro: «¿Nora joan da, ba, Mijnheer?» Eta, erantzunik artu bagarik, negar ixil baten asi zan. Zer guttia ulertu eziñik, orduak iñoiz ez lako luze egiten yatazan, eta gosaritan «Tartine» pare bat iruntsita, kalera joan nintzan. Ez nintzan ni nor kanposantu biurtuta egoan gure etxean bazkari ta lo-orduak baiño besterik egiteko. Ez nekian nora joan, baiña alde egitea nai-ta-naiezko yatan. Josken'egaz ibili nintzan arona, ezer egin bagarik etxeko miñaz aaztu nairik. Larrara joan gintzazan aita kaska-soilla lanean ziarduan arlora, txakurrari jatekoa eroatera. Egúerdia baiño goiztxuago, a berera, ni geure

etxera joan gintzazan. A, Julia ta Maria'gana; ni, Madame'k gertaturiko bazkaria jatera. Betikoa euki genduan, «pommes frites» (guriñaz prijidurikoak, margariñaz ez, eta bei-urdankakotea, zaldiarena ez). Baiña onetan be, Madame artega egoala agertzen zan. «Prijiuak» eta urdankakotea ez egozan bestetan aiña ondo gertaturik, eta egunero ekarten eusten guztia jaten neban onek, egun aretan platera erdi-utsik mai-ganean itzi, Madame'ri betiko mosu epela emon eta agur otz bat esanda, barriro Josken'egana jo neban. Larrak, soloak, txakurra, betikoa; aaztuteko premiñan nengoan-eta, aaztuteko naikoa yatazan orreik.

Illunabarra zan guztiz nekatuta etxeratu nintzanean. Leengo gosari ta bazkaria barriztatzeko gerturik, arin apalduta bereala, goiko neure gelara, azken-bagako odeien ertzera begiratzera eta nire pentsamentuak barruan erabiltera joango nintzalakotan. Solo-aldetik egoan eskaratz-atetik etxera sartu nintzanean, bai arrituta geratu nintzala! Betiko aulkian jesarrita egoan Mijnheer, zikin, egun biko bizarra kendu bagarik, iñora begiratzeko gauza ez ziran begiak lurrean josita lez. Nire «Goeden Avond»-i («arratsalde on»-i) erantzunik ez, aurrean erabilia izan dan pistia baten antzeko egoan bera. Argi egoan erdi-ordituta egoana. Non egingo ebazan aurreko gau ta egunak!

Eskaratzean egoan Madame be agertu zan, aparria ekarrela. Bakotxari berea bananduta, mai-inguruan guztiok jesarri eta apaltzen asi gintzazan. Ixilik, euliak be gu baiño zaratatsuago ebizan, gelan zear egaz eta leioaren aurka joka, illunabarreko argitara urteteko gogoz. Bildurgarria zan gure ixilla! Galarrena sortu baiño leen, itsaso baretuaren antzekoa.

«Nonbait be biurtu zara! Non egon gau ta egun oneitan?» Berba onekaz, Madame'k ixilla austu. Zorrotza izaten ekian gure Madame'k. «Gau oneitan» esatean, berarizko berbakerea erakusten eban berak, senar epelaren zintzotasunari buruz bere ezpaia agertzen ebala.

Baiña senarrak erantzunik ez. Errudun zala argiro agertzen eban berak. Etxetik kanpo egun bi egin. Baiña orain jazo-

riko guztiak aaztuteko asmoz moskortu zala, apal-apal, berba bigun baten eske lez egoan an gure aurrean. Zenbat eta apalago Mijnheer, ainbat garratzago agertzen yakon Madame.

Ixilla barriro, ixil astuna. Eta barriro Madame'ren itaun zorrotza: «Ez al-dautsugu jatekorik, bear dan lez, etxean emon, iñoren etxera joan-bearrean izateko?»

«Anberes'en egon naz», erantzun eban arek oraingotan be apal.

«Bai, santuai arrenka!»

«Arrebeagana joan naz. Berak esanda etorri nakizue (naiatzue) gaur!»

«A ze sorgiña! Aregana ain sarri joango ez ba'zintzaz, ez genduke ezer galduko. Pisti txarrakaz dabillena be pisti txar biurtzea ez da arritzekoa!»

Mijnheer'ek eukan arreba bakarra zan Anberes'ko arreba ori. Urteetan umezurtz leen, eta mutil zaar geroago izandako Mijnheer'entzat ama ta emaztegaia zan bere arreba ori. Berari buruz esandakoak apal-apalik artzeko gertu egoan Mijnheer: moskorra zala —naiz-ta egun aretan bakarrrik bearrezkoa baiño edan ez—, emakoiia zala —naiz-ta beste bere adiñekoak baiño emakoiagoa izan ez—. Etxetik egun bi iges eginda zan-eta, errudun zan-eta, gertu egoan emazte suminduak esan eta esango eutsazanak apal eta makur entzuteko, gertu, egindakoagaitik damu zan-eta. Baiña Anberes'ko arrebeari buruz berba galdu areik esatea, bere arreba maitea onela iraintzea, ori ez eban ezelan be lagatuko. «Nire arrebea baketan itzi egizu. Aren aldean neskame bada-ezpadakoa baiño besterik ez zara zu», iñoan erbi gaisoaren antzeko begiak odolez beteten yakozala.

Itaun eta erantzunik gero ta laburragoak, gero ta latzagoak biurtu ziran. Leentxuago urrundik entzuten ziran trumoiak, orain geure ganean geukazan, eta guztiok ekatxaren erdian gengoan, aretatik zelan urten ez gekiala.

Platerak lurrera, kafe-pitxarra ormara... Onelako baten, ormearen aurka estutu eta «Il egin bear zaitut!», gorrotoz beterik esan.

Il egin bear ebalakotan, kalera urten nintzan laguntza-eske. Orduko, gure auzo-auzokoak ateetan geukazan gure artean zer ete-zan jakin-guraz.

Baiña, nik ezer esan orduko, an agertu zan gure gizona, erdi-ordituta, danbadaka, urtenbideko pasillotik etorrela.

«Alde emendik, moskorti ori! Zoaz zeure eme orregana!», aren atzean Madame oiuka.

«Moskorti ez ni, zeu baiño, neskame bada-ezpadako ori!»


Eta ori esanaz, etxeruntz biurturik, emaztea jotekoa egin eban.

Orren zain egoan gure alboko gizon gazte bat. Mijnheer'egana aurreraturik, ukabilkada gogor bat emon eta etxe ta bidearen artean egoan ur-askara ankaz gora jaurti eban.

Gogorra zan zartadea, izan be; baiña Mijnheer'i miñik geiana emon eutsana, zartada ori auzoko guztien aurrean emona izatea izan zan. Ordurarte, auzoko guztiak «Mijnheer» esaten eutsoen, eta, izan be, besteen aldean bere burua norbaitezat eukan. Aurrerantzean, nok esango geiago «Mijnheer», eta esandakoaren zintzotasunari nok sinistu aurrerantzean?

Ur-askatik jagi zanean, goitik beera lupetzaz eta autsez itxurabagetuta egoan. Praka-sakeletik zapia atara, bekokiko izerdi ta zikiña kendu, txistu lodi bat lurrera jaurti, eta, burumakur, judarren etxe-aurrean zear, Kapellen'go geltokirako bidea artu eban, guk guztiok begirakune maitebage ta arroakaz jarraitzen geutsala. Illuntze ta gauaren arteko muga zan. Alkarrri barbarik esan bagarik, bakotxa bere etxera joan zan.

Andik egun batzuetara, nik nok dei egin eutsen ez nekiala, an agertu ziran, gure Heikenstraat'en, Anberes'ko Bernaerts anai biak. Beti lez, maitekiro itandu eusten osasunez zelan etengongoan, nire ikastetxeko flamenkerazko ikasketetan aurrerapiderik egin ete-neban, etxekoen barririk jaso ete-neban, eta abar. Don Pedro'ren gorantzirik zintzoenak be ezin aaztu. Ezagun batzuekana yoiazala, «Zegaitik ez niri ikustalditxo bat egin?», otu ei'yaken bidean. Leenengo agur eta itaun laburrak amaitutakoan, Madame'k etxera sarrerazo eta kafea eskiñi eu-



Josken eta Lodewijk'egaz.



tsen. Niri Josken'egana joan neitekeala esanda, kalera bialdu nenduen. Josken egun aretan gogo oneko izan ezarren, betiko lurretara, aitaren solora ta txakurragana joan gintzazan. Nik Maria'ren bizikeletea ta berak bere txikarra artuta, galapada batzuk be egin genduzan, Kapellen'erako bidean zear, judarren etxe-aurretik igarorik. Etxera biurtu nintzaneko, Bernaerts anaiak alde eginda egozan. Madame'gandik asarre-berbak entzun bear oraingotan be: «Zegaitik ez jauntxo orreik alde egin orduko etxeratu? Noiz esan bear izango dautsut etxera sasoiz etorri-bearrean zagozala?»

Ez neutsan jaramon larregirik egin. Asarre-berba orreik aspaldian entzunda neukazan-eta, areitarikoak entzutera oitua baiño oituago nengoan.

\* \* \*

1937-garren urtea zan. Gure lurralde errukarrian negarra isurten zala, alboko Prantzia'n urte arrigarri ta gomutagarria ospatzeko ziran. Urte onetan, prantzesak Paris'en barriro be Erri-arteko Erakusketa atonduko eben. Erakusketa zoragarria, iñoen paristarrak, aurreragoko guztiak baiño andi ta ederragoa. Eta Belgika'n be erakusketa orren abotsa zabaldu zan.

«Paris'ko erakusketa orretara joateko asmoa dot —esan eustan onelako baten Madame'k—. Naiz-ta ain luzaro aurrerago Paris'en bizi izan, aspaldi da an geiago agertu ez nazala.» (Niri esanda eukan, ogetabost urte ebazala, etxe bateko neskame izan zala. Ortik, ba, senarrak, azkenengo gau aretan, esandako berba iraingarriok: «Bada-ezpadako neskame ori.») «Onela —jarraitu berak—, urte oneitan ikusi ez dodazan aspaldiko ezagunak barriro ikusteko abagunea izango dot. «Va»-k trentetan lanean diarduan ezker, joan-etorri orretarako oso gutxi ordaindu bear izango dot.»

Beste bagarik, biaramonean urrengo berbok esan eustan: «Koningshof'era joan bear izango dozu egun batzuetarako. Antxe egongo zara beste iñon baiño obeto zainduta. Antxe do-

zuz zure lagunak, zure errikoak. Ain maite zaituen abadeak be bai. Beste lekuren baten artuko ete-zeikeezan pentsatzen jardun dot, baiña zureztat leku egokirik ez dot aurkitu. «Va»-ren arrebeagana zu joaterik ez dot ezelan be nai. Egund batzuk baiño ez dira izango. Eta Paris'tik etxeratu naitenean, ainbat gauza ekarriko dautsudaz.»

Onelakoa izan zan Ekeren'i egin neutsan «agurra». Nik «agur» egiten neutsanik ez nekiala.

Guztia egin yakun erraz. Betiko irurok, Josken, Lodewijk eta ni, baxotxa bere bizikeletan, Koningshof'erako bidea, nik ain sarri egindako bidea, artu genduan. Kapellen, St. Marienburg, Soldadu-erria, Brasschaat, Schoten. Urbidea garaituta gero, beresiaren ertzean agertzen zan Koningshof'eko Ume-etxe andi-ederra.

Atea jo genduan. Don Manuel agertu yakun leenen. Gero, moja zaar eta zimel bat. Beste euskaldun-umeakana lagundu euskuen, jantokira, lo-gelara. Egund batzuk baiño ez ziran izango, baiña alan eta guzti be, bide guztiok ezagutu-bearrean nengoan.

Lodewijk eta Josken ordu betean-edo egon ziran nigaz. Baiña, laster berandutu egingo zala-ta, etxeratzean neure bizikeletea be eroan bear eben ezker, asti luzaragoa bear izango ebela-ta, laster egin geutsan agur alkarri. Betiko agurra, ez be-roagoa, ez tristeagoa, andik egund batzuetara Heikenstraat'era joateko nintzan-eta. Etxeratu ziran, ba, nire lagun kutunak, eta ni neure lagun barriakana, egund batzuetarako bakarrik izango nebazan lagunakana, biurtu nintzan.-

«Lagun edo ezagun batzuk etorri yatzuz! Joan eskaratzeko atera!»

«Nortzuk?», nik.

«Neskatilla bi ta mutiko bat», besteak.

Atera agertun nintzaneko, an egozan Paenen-etxeke nebarrebak, eta Lodewijk osabea, nire zain. Eurakaz ekarrezan nire jantzi, oiñetako ta tresnak. «Moe»-k negurako egindako jerseia. Ikastetxerako liburuak eta kuadernoak.

Ez eustan esan, ba, Madame'k egun batzuetarako baiño ez nentorrela, eta, orregaitik, soñekoakaz naikoa nebala? Bere eretxia aldatuta, luzaroko ete-yoian, ba, Paris'ko erakusketara? Josken'i egin neutsan itaun ori, baiña berak zer erantzun jakin ez. Areik Madame'k esanikoa beteten eben, besterik ez. Madame Paris'tik etxera biurtuta ei'egoan.

Aldi aretan beste susmo bat otu yatan niri. Polito-polito, Madame'k ni beste etxe batera bialtzea erabagita eukan, eta ori niri artez eta garbi esateko adorerik ez. Azkenengo egunetan jazorikoak gogora ekarrita, obe yatan Heikenstraat'en nik gei-ago ez irautea. Beljika'ra ekarri nenduenak niretzat familia bat nai izan eben. An ez egoan gei-ago iñorentzat familiarik.

Nire lagunai egin neutsen agurra, agur ituna izan zan. Bio-tzean susmoa erneten neukan betiko agurra izango zalakoa. Eskua bakotxari emon, «agur» esan, eta eskuaz alde batera eta bestera egiñaz, an artu eben S'Gravenwezel'dik urbidera yoian bide nagusia.

Agur, Josken!; agur, Julia, Maria, Lodewijk!; agur, Ekeren! Betiko, agur!



## EUZKADI-ZATITXO BAT ERBESTEAN

Ekeren'go gora-beeren ostean, etxe ta familia barriak artu nenduen eurakaz. Etxea, umeak artzeko ikastetxe andi bat zan. Orduan oiturea zanez, katoliku-familietatik, erritxoetan patxadazko eskolarik ez egoanean, orretariko ikastetxeetara bialtzen ebezan euren seme-alabatxoak. Gu Flandes'en gengoan ezkerro, umeak Flandes'ko baserrietatik geure ikastetxe orretara etozan. Flamenkeraz egiten eben euren artean, geienak beintzat. Onela ta guzti be, ba-ziran banaka batzuk prantzeraz egiten ebenak be (esate baterako, euren gurasoak Kongo'n eukezan batzuk), edo prantzera ta flamenkerazko naaste bat (erri bietako mugatik etozalako).

Ikastetxea, leen esan dodanez, «Koningshof» (Erregearen jauregi edo lorategia) eritxon albo baten egoan. Gure auzoari izen ori zer zala-ta ezarri eutsoen ez dot iñoiz entzun. Leku zoragarria zan benetan, leku barria, piñu-antzeko zugatzen berezi-arteana eregia. Alde guztietatik txaletak egozan, bakotxa bere lorategitxoaz. Gure auzoak eliza oso barri bat eukan —orduko erara eregia—, urez inguratuta. Bertara joateko, kristauak zubi baten bidez joan-bearrean egozan.

Koningshof, Schotenhof (Schoten'go lorategia) eritxon beste auzo zabalago baten zatia zan. Eta urren geukan erria Schoten zan. Argi egoan, ba, gure auzotxo ori, edozelako auzoa ez zana, eta aren bizilagunik geienak nonbaitetik etorritako «burgés» barriak zirana. Gu nortzuk izan eta nondik etorri jakin ezkerro, ezagun zan gugaz artu-emonik izateko makurtasunik izango ez ebena.

Gu, umeok, Capbreton'dik beste 'erbesterau' leku egiteko atara genduezanean, guztiok premiñan egonarren, ez eben gure zuzendariak —gure erriaren aaldunak— guri min larregirik egin nai. Naikoa zan guraso ta etxeko enparadu guztiakandik aldenduta egotea. Ori zala-ta, neba-arrebatxoak edo lengusu-lengusiñak alkarregaz iraunerazoteko aalegiñik andienak egin ebezan. Orretarako, bide bi aukeratu ebezan. Batzuetan, erri batera, auzoko familietara joanerazoten ebezan; beste batzuetan, orreitarikoak ikastetxe batera bialtzen ebezan. Naiz erri edo auzo baten, naiz ikastetxe baten, umeen errimiña ain sakona izango ez zala uste eben gure aaldunak —eta ondo uste izan be—. Geienetan, talde oneik abade edo andereño baten babesean egozan. Euskal-errietoetatik etozanean, euskeraz; erdaldun erri andietatik etozanean, erderaz, euren guraso ta erriko izkuntzaz egin eikeen, eta euren biotzetan urriñeko aberriaren maitasuna ta berotasuna somatzen eben. Orreitariko bat zan gure Koningshof'eko Ikastetxea. Geiago, batzuetan; gutxiago beste batzuetan, berrogeiren bat ziran an egoten ziran eusko-umeak. Jaiotez euskaldunak ziran geienak; banaka batzuk, Bilbo eta inguruetatik etorrita, euskeraz egiten ez ebenak. Beste aldetik, an egozan geienak mutikoak ziran. Iru edo lau neskatillatxo, mutikoen arrebatxoak ziran.

Naiz-ta beste arein arrebak izan, oneik aparteko bizikerea euken: etxeko mojakaz bizi ziran, eta, neskatillai dagokiezan arazoetan, mojai laguntzen jarduten eben. Oneitariko mutikorik geienak giputzak ziran, itsasaldekoak geienbat. Baiña bizkaitarrak be ba-egozan arein artean. Zintzoak eta onak, alai eta lagun onak areitariko geienak. Leenengo egunerik, Mateo ize-neko baten lagun egin nintzan. Motriku'ko semea zan bera, erriko mikeletearen semea, Oiartzabal abizenez. Bera ta erri bereko beste mutiko bat kantari ta dantzari piñak ziran. Kanta bat abesten eben biak abots ezbardiñetan, zoragarri. Kanpokoren bat gu eusko-umeok ikustera etorterakoan, laster esango eutsoen ari gugaz egoan abaderen batek: «Mateo, Jose Luis:

laster gertatu zaitezela!» Eta arrotzaren aurrean, gozo, bizi, egoki, gure motrikuar biok kantatuko eben:

*«Aurtxo danok alkarturik  
jolastutzero batuaz, bai...»*

Asieran biok arrotzari begira, jauntxo bi lez gero, itaun eta erantzun biurtzen zan arein kanta:

*«Nai ba'dezu», itauntzen eban Mateo'k,  
«Orixe bai», erantzun Jose Luis'ek.*

Eta barriro biok batera:

*«Alkarrekin abes daigun».*

Eta gure mutiko biak, euren euskal-zaletasuna agerturik, olantxe ekiten eutsoen:

*«Euskaldunak gara biotz-biotzetik,  
maitatzen dogula gure ama Euzkadi,  
Jaungoikoa eta Lege Zaarra,  
Gora Euzkadi, bizi beti!»*

Areik gure txaloak, areik gure motrikuarren poz eta irribarrea, arrotzen arritza ikusi ta zorionak entzunaz!

Mateo'k anaitxo bat eban: Nazari. Jose Luis'ek, anai bi: Josu ta Narkis. Eme-aurpegi eta azalekoak ziran mikeletearen semeak, begi-urdiñak, politak biak. Gizontsu, jokozaleak, zaratsuak, iru anaiak. Iru oneik itsasotik, itsas-gizon baten semeagandik etozan. Ez ziran, baiña, orreik Mateo'k eta batez be Jose Luis'ek irakatsi euskuezan kanta bakarrak. Erderazko kanta barregarriak be ba-ekiezan, gerra-kantak, nik leen iñoiz entzun ez nebazan kantak: «Fasizisten» kantak, guretzat entzutea be zearo debekatuta egozanak. «Cara al sol». «Por Dios, por la patria y el rey...», eta beste orrekin antzekoak. Umeakaz jazo oi danez, zerbait debekatuago izan eta gusto andiagotzatzen genduan debekatuta egoan ori. Guk, ba, Koningshof'en gengoanok, ikasguraz entzuten genduzan kanta orreik eta po-

zik ikasi be bai. Kanta barregarri onein artean, bat zan batez be barregarria:

«Navarra, noble y obrera,  
es la primera resurrección de la nación...»

Barregarria, bai, negargarria ez esatearren. Guk ezkutuan abestiok ikasi ta kantatzen genduzala, gure erria zapalduta egoan, gutarrak espetxeratuak. Baiña orren ardurabageak izan daitezke banaka batzuetan umeak.

Zer zala-ta ekizan Jose Luis'ek, goitik beerako euskalduna izanik, erderazko kanta «faszista» orreik?

Jazoera gogorak igarota eukezan Jose Luis'ek eta Mateo'k, batak eta besteak, joandako illeetan. Francotarrak Gipuzkoa osoa, gerrea asi ta leenengo illeetan, zapaldu ebenean, Bizkai'ko mugara elduta, muga onetan arerioen aurrean gerra-arresiak jarri ebezan. Lekeitio ta Ondarroa, alboz-albo dagozaren, bigarren au Franco'ren «erreketeen» erpeetan jausi; Lekeitio'k, ostera, gudarien eskuetan iraun. Motriku, Ondarroa baiño leenago eurakanatu eben Francotarrak.

Zer zala-ta nik ez dakidala (bearbada gerrearen amaia ate-aurrean egoalakotan, edo etxetik urteteko astirik izan ez ebela-ko), Mateo ta Jose Luis, euren anai-arrebakaz, Motriku'n geratu ziran.

Baiña egun batzuetarako izateko zan bizimodu ori, ille batzuetarako luzatu zan. Familiak erdibituta egozan, eta Francotarren menpean geraturikoak ba-eben igarotekorik naikoa Bilbo'ra iges egindako senar eta aitak zirala-ta.

Au onela izanda alde batetik, eta abertzaleen artean gerrearen asieratik bizi ziran batzuk eskumakoak izanik, eurak be andik iges egiteko asmoa ebela-ta, konponketa batera eldu ziran batetiko eta bestetiko erri-agintariak.

Truketa orren bidez, gure motrikuar orreik, udabarriko goiz baten, eroan aal ebezan gauzak euren lepo-ganean artuta, Ondarru ta Lekeitio arteko mendietan zear mundu batetik bestera aldatu ziran. Txapel gorria buruan, erriko kaleetan zear

egindako joan-etorrietan ikasi ebezan kanta barregarri, negargarriak, eurakaz ekarri ebezan. Bilbo'n kanta ez, baiña Koningshof'era etorriaz, kanta areik arein ezpanetan berbiztu egin ziran.

Gipuzkoa'ko beste mutiko batzuk geukazan gure artean. Arroita anaiak, gugaz Capbreton'en egoniko andereño baten semeak. Emekiak eta makalak ziran, eta areitariko nagusitxoen batez be, beti espaka ta erostaz (kexaz) geukan. Baiña, ama «ugasaben klasekoa» zan ezkeru, gu besteok baiño dedu ta lotsa andia goz erabilten ebezan anai biok.

Zarautz'ekoak, Goñi anaiak, osagillearen semeak, geukazan gugaz. Rekaredo eritxon areitariko nagusienari (nondik ezarri ete-etsuen España'ko istoriarako ain gogoragarri dan izen ori!). Mutiko lodikotea, bere urteetarako aziegia, beti txikarrenakaz ebillen. Umeok ezizenak ezartera —eta batez be ezizen latz eta mingotsak jartera— makurrak gintzazan-eta, noizbait praktetan egin eban ezkeru, betikoa zalakotan, guk «Cagonita» ezizen zikin eta itsusia ezarri. Anaitxo bategaz etorri zan gure Rekaredo ori, anai nagusiaren aldean oso ezbardina. Txiki, zimel, aldakor, sugelindarearen antzekoa zan. Mutiko bioi be motrikuarrai jazorikoa jazo yaken. Aita, Euzko-gudazteko osagille zalako, gudariakaz batera Gipuzkoa'tik iges egin eta Bizkai'ra etorri zan. (Geroago, beste gudariakaz batera Laredo'ko ondartzan Francotarrak azpikeriz arrapatu eta espetxeratu egin eben. Zurrumurrua zabaldu zan gure artean —ez dakit nik nondik entzunda— osagille ori Francotarrak erail egin ebela. Baiña orretzaz ez genduan mutikoakaz berbarik egiten. Ba'ete-ekien errukarri areik euren aitari gatxen bat jazo izan yakonik?). Amatxo, Prantzia'n egoala bein eta barrero esaten eben. Umetxoak be, amagaz Prantzia'n ille batzuk egin da gero, bizitza karua zalako eta amak eskuartekorik ez, amagandik alde eginda, Beljika'ra etorri bear izan eben.

Astigarribia'koak be beste anai bi egozan. Aitak, Landes'etako piñudietan ziarduan lanean. Ama be, Prantzia'n. Mutiko piñak ziran, piñegiak esango neuke nik. Anai oneik gure

laguntaldeagaz ez eben zerikusi andirik. Eta etxeakoak non ete-egozan itauntzen yaken bakotxean, beti bardin erantzuten eben: «Cambo-les-Bains, Villa Iturria». Oneik be etxe onekoak ziran, baiña gerrako gora-beerakaz guztiz zapalduda geratu ziran. Eta beste asko ta asko.

Orreixek ziran Gipuzkoa'tik etorritako ezagunenak. Emen-diko ta andiko beste giputz-ume koskorak be ba-egozan; baiña gu «zaarrenak» gintzazan ezkeru (amabi urteko zaarrenak!), titi-umetzat geukazan ume koskor orreik, eta euron izenak ikasi be ez genduzan egin. Euren artean be ba-egozan aita nonbait illa edo espetxeratua eukenak.

Orixe zan, izan be, sarritan gure eusko-umeen zori errukarria.

Bizkai-aldeko ume pare batzuk geukazan gure artean. Gernika'ko iru anai, Zallo anaiak. Mutiko jatorrak irurak. Gure artean ille pare bat baiño ez eben egin. Guretariko umeak —gurasoak eskabidea eginda— etxeratzen asi ziranean (barrio be, joate onei izena «espediziñoa» ezarri geutsen), gernikarrok izan ziran euren etxera biurtu ziran guretariko leenenak. (Areitarriko bat, bigarrena, Xabier, jesulagun (jesuita) eginda, Txina'ra misiñolari joan zan. Gaur egunez, Taiwan'en egiten dau bere misiñolari-lana.)

Durango'ko anai bi geukazan Koningshof'en: Goitisoloko anaiak, Pedro ta Xabier. Bietarik nagusiena, Pedro, gure talderako andiegia zala-ta, laster eroan eben, guretariko beste irugaz, S'Gravenwezel eritxon gure etxetik urr egoan beste etxe batera. Antxe egozan Larrabetzu'ko abade baten ardurapean, komentu bati erantsita egoan aspaldiko gaztelu baten, gure lau mutillok. Egunean-egunean etorten yakuzan gurera, gu ikusi eta gugaz lagunuen artean berba egiteko asmoz ez, curai S'Gravenwezel'go mojak emoten eutseen jatekoa geure aurrean aiatu eta gure bekaitza (ikusi-eziña) iratzartzeko baiño. Geu be areintzat «kakati» batzuk baiño ez gintzazan ezkeru, ez eben gugaz beste auturik ezelan be izaten.

Pedro'ren anaia, Xabier, mutikote indartsu ta barregarria zan. Beste iñor baiño zikiñago agertzen zan egunero, sudurretatik beti «kandelak» dariola. Jatekoari buruz, orraitino, erregearen maitik etorria ba'litz lakoa zirudian. Guztio maian eskeini eta besteok beste bagarik artzen genduana, ez eban arek iñoiz be biotzez artuko. Barikuko arraiñari batez be, aparteko gorrotoa eutsan. Beljika'ko gure kristauak, «moruen» aurkako burrukarik egin ez, eta ori zala-ta, «Bulda Deuna» ez eukelako, koipearen orde zald garratz bat eta okelearen orde arrain antzeko bat emoten euskuen urte guztiko barikuetan. Arraiña ez zan Bermeo'tik ekarritako lebatz bizia, ezta Santurtzi'ko sardiñen antzekoa be. Ez, urrik emon be ez! Arrain ori nondik ete-ekarren ez neuke nik esango; bai, ostera, gure arrain gozoaren antzik be ez eukana. Latz eta garratza zan orregaitik gu guztiontzat barikua. Baiña umeak gintzazan-eta, ume gosetia, edozer gauza, baita batek daki nondik ekarritako arrain antzeko ori jateko be gertu gengoan. Eta biotzez jaten ez ba'genduan be, an geukan gure alboan Zuster Gundrada, arraiña, azal eta guzti, janerazoteko. «Jan egizue! Arrain oso on eta karua dozue arrain au!», iñoskun guk arrain ona zer dan ez bai'gekian. Durango'ko gure Xabier'i ez, orraitino, ez leuskion iñok arrain ziztrin ori janerazoko. Zuster Gundrada geugaz egoan artean, autuari ekin gure Xabier'ek. Futbola zala ta ez zala, Durango'ko lagunak zirala, Gernika'ko erretea zala... Zuster Gundrada zerbaiten billa eskaratzera joanda batera, gure Xabier'ek arraiña atzamar-ertzekaz buztanetik oratu eta, katua baiño ariñago, an yoian gure morroia arraiña teillatu-ganera jaurtitera. (Beljika'ko katuak Bermeo'ko arraiñik iñoiz ez dabe dastatu-ta, ez euken Xabier'en arraiña esker onez iruntsitako atxakiarik.) Eta gure Zuster Gundrada ona pozez zorabiaturik egoan, nonbait be gure Xabier'ek arrain osoa jaten ebalata. Onela, ba, guztiok pozik: Zuster Gundrada, gure Xabier eta batez be... etxe katua.

Eguneroko sopeari be ez eutsan zaletasun larregirik agertzen. Baiña buruauste askorik ez eban bear arek bere jangura-

ez oni urtenbide bat aurkitzeko. Sopá apur bat baiño ez plate-  
retik artu, eta, agoan sartuaz, irunsi bagarik, norabaitera jaurti.  
Orrelakoa zan Xabier, Durango'ko gure txarrikumetxoa.

Erdaldunak be ba-geukazan batzuk. Asierarik Konings-  
hof'era meatoki-aldeko Ka. eta beronen anaitxoa. Ka.-k izena  
«illuna» eukan, aurpegia illunagoa, eta biotza be, antza, naikoa  
illuna. Capbreton'en alkarregaz egonikoak gintzazan ezkerro,  
naikoa ezagun yatan nire lagun barri ori. Leen be, aren autuak  
entzunaz, naikoa lotsatu nintzan; Beljika'ra etorriaz, lotsabage-  
kerian be aurrerapide andiak eginda eukazan. Jaunari eske-  
rrak, laster eroan eben Koningshof'etik ume gaxentzat eratuta  
egoan Malinas-aldeko erritxo batera.

Gure arduraz egozan mojen artean, bat zan gu guztiontzat  
maitagarriena: Zuster M. Assisia. Etxe andi batetik —guk non-  
baitetik entzunda geukanez— etorria zanarren, aren izeneko  
patroiaren antzera ona ta apala zan, eta ezegaitik be ez leukean  
bere goiko jatorri ori aitatu. Eusko-umecok bere erritarrak  
baiño errukarriagoak gintzazalako, geugaz egotea zan bere po-  
za. Batez be, gure gerra zitalean euren aita galdu eben giputz  
umezurtz maitagarri bik amatzat euken moja ori. Bata eskutik  
lotuta, sorbaldatik eskegita bestea, an ebizan gure umetxu biak  
beti Zuster Assisia'gaz...

Ni Koningshof'era etorrita laster, goizean, Meza-ostean,  
gosaria artzera gentozala, maian iru-lau leku utsik egozala ikusi  
genduan. Ka.'ren lekua zan areitariko bat. Bera ta bere antzeko  
pare bat, Duffel'era eroan ei'ebezan.


Une aretan ez gekian Duffel erria non egoan, eta zer zala-  
ta eroan ebezan ara gure etxekook. Andik egun batzuetara,  
joandakoen leenengo barriak eldu yakuzanean, agertu yakun  
areik ara zegaitik eroan ebezan. Malinas'tik urr egoan erritxo  
bat zan Duffel. Gure Koningshof'eko Ikastetxearen antzeko  
etxe bat egoan erritxo orretan, anai edo anai-arreba alkarregaz  
iraunerazoteko egokitua ez, zelan edo alan zigortuak edo ondo  
lotuta eukiteko ziran eusko-mutillak an eukiteko baiño. Duf-

fel'era Ka. eroan ebenetik aurrera, Koningshof'en garbiago  
egin yakun arnasea artzeko eguratsa.

Gure taldean egozanak be ez ziran beti alkargandik banan-  
du bear ez ziran anai edo neba-arrebak.

Ni, alako Mijnheer'i jazoriko eztabaidatik Ekeren'dik Ko-  
ningshof'era ekarri nenduen erara, an egozan beste banaka ba-  
tzuk be, anairik euki ez, baiña beste zerbaitegaitik Konings-  
hof'era ekarriak izan ziranak. Goierri'ko bat geukan, buruz oso  
argia ez zana. Naikoa atzeratua, esango neuke nik, Bilbo Za-  
arra'tik, San Anton auzotik, etorri zana. Geisosa zan bera, eta,  
ogean gabero bear ez zana egiten ebalako, «bonbero» ezizena  
ezarri geutsan. Baiña orretzaz, beste tokiren baten egokiago  
egin daikegula berba uste dot. Itzi dagigun, ba, ori urrengo ba-  
terako.

Orixe zan, ba, gure Euzkadi'ko txataltxoa Beljika'ko er-  
bestean. Ortxe egin genduan barre ta negar, alkarturik, eusko-  
ume erbesteratuok.



Koningshof. Etxe-aurrea.



## «NEGUA ELDU DA» GURE EUSKAL-ABADEAK

Goiz baten, gosari-ostean, jateko tresnak garbituta gero, gure egon-gela andiaren maietan jesarrita autu ta burrukan, umeak beti lez giarduala, onelako baten kantatzen asi ziran Mateo, Jose Luis eta gugaz egozan enparadu nagusiak. Erderazko kanta oso ezagun bati ekiten eutsoen:

*«El invierno ha llegado ya,  
¡qué desolación...!»*

Orrelaxe asten zan andikiro kanta ori asieran. Gero, bigarren atalean, oso ariña biurtzen zan, eta musika arin oni asierako neguaz ikustekorik ez euken ganorabagako berba batzuk etozan. Ezagun zan berba ganorabagakook norbaitek, leenengo kantakoak aldatuta, ezarri ebazana. Baiña nok eta zegaitik? Jose Luis zan guztiotarik gogotsuen kantatzen ebana-ta, jakin-guraz itandu neutsan:

«Zer esan nai dabe berba barregarri orreik?»

*«De la buena fortuna ha salido un...  
y la... espera a que se ponga un puro»,*

azkenean diñozuezan berba orreik?»

Jose Luis'ek Mateo'ri kiñu eginda, ate-alderuntz begiraturik, ixillean, iñok ez entzuteko lez, auxe esan eustan:

«Or datorren Don Manuel'gaitik aldatu doguz berbok. Ez al-zara konturatu bere agoan beti puro eder bat daroana? Ate-tik agertzen yakunean, ago ta sudurretatik keea botaten, odeiz eta lañoz negua bai'letor dirudi.»

Zaarrai barre egiteko izan dira makur umeak; baiña ezagun zan onetan gure mutiko areik Don Manuel'i maitasun-falta sakonagoa agertzen eutsoena.

Don Manuel Irureta abadea zan. Zaarra izan ezarren, bera zan baiño askozaz zaarragoa emoten eban. Ule bagako buru andia, baserritar belarri luze, ezpan astun eta miruaren mokoaren antzeko sudur makurrak, agura baten antza emoten eutsoen. Ume-zalea ez zana edonok ikusi eikean. Meza-ostean gosaria artuta (guk giñoanez, «orreik, bai, orreik artzen daben gosaria!»), geugana agertzen zanean, zigarroa agoan eta egunkaria eskuan ekazala etorren, «Egun on!»-ik esan bagarik. Bere maian jesarri, eta bere egunkaria irakurten ziarduala, guri, umeoi, esan oi euskuzan berba bakarrak guk egiñiko okerren bategaitik agiraka egiteko baiño ez ziran. Maitasun-ez orrezaz gaiñera, guztiok bildur geutsan: geure nagusi zalako, eta batez be asteroko autortzara beragana joaten gintzazalako. Autortzak berez umeari emoten dautsan on-ezaz gaiñera, zeatza, ezin zeatzagoa zan guganako autortza-gaietan. Guk zer esan eta egin, gizonezko elduak lez, jakin bai'gekian! Aldi aretako abadeak onela oituta egozana argi ikusteko, urte pare bat leenago neuri jazoriko bat azalduko dot.

Bilbo'ko gure San Anton elizan abade oso zintzo ta ona geukan, «santutasun»-usaiñaz bizi ta il zana. Egun aretan, gure Don Pedro elizan ez egoala-edo, beragana joan nintzan nire kezakaz. Eta leenen esan neutsana, zazpi edo zortzi urteko mutiko batentzat izugarria zan: «Biraoak esan ei'nebazan». Besterik itandu bagarik, berba gogor batzuk esanda gero, bere penitentzia latza jarri eustan: «Ogetamar aldiz «Agur Erregiña» esango dozu, eta biar Mezatara joango zara».

Autortza amaituta gero, elizako kapillatxoan nire «Agur Erregiña» esateari ekin neutsan. Bein eta barriro, amabost aldiz esan neban otoitz luze ori. Otoitz orren luzeaz nekatuta nengoan ezkerro, beste erdiak urrengo baterako itziririk, etxera joan nintzan. Etxera elduta, eskaratzean geukan armario baten ostean, ixilik, zutunik, barriro be nire «Agur Erregiña»k esatea-

ri ekin. Eskaratzean egozan ama ta árrebak / nik egiten nebana-  
naz arrituta egozan, eta amak itandu: «Zer zabiz or, Txabi?»  
Nik, lotsaz beterik, autortzan jazoriko guztia azaldu. Abadea  
baiño zuurragoa zan amak, erdi-irribarrez, itandu: «¿Zuk birao-  
rik esan?» Eta nik: «Esan, ez, baiña burura etorri yataz orrela-  
ko berba txarrak.» Amak, orduan, barre egin eta beste «Agur  
Erregiña»k esan-bearrik ez neukala esan eustan. Ez dakit nik  
gure abadeen ganorabagekeriaz zer pentsatuko ete-eban; one-  
gia zan bera, batez be geure aurrean, abadeen aurka zer bait  
esateko; baiña, umeak ezagutzeko, abadeai norberaren alboan  
umeak eukitea ondo letorkiela, ori ziur!

Orretariko a zan gure Don Manuel be. Zelan izan, ba, mai-  
tasunik orrelako abadeari?

Gure Don Manuel gerra-aurrean Irun'en abade laguntzai-  
lle izanikoa zan. Gerratean, «Saseta» batailloiko arduradun  
izentatu eben, uste dodanez. Gudariakaz batera Donostia'tik  
Bilbo'ra joanda, Francotarrak Bilbo'ra urreratu ziranean, Pran-  
tzia'rantz etorri ziran umeakaz, bera be Prantzia'ra etorri zan.  
Orain Koningshof'en gengoanok Capbreton'en egindako iru  
asteetan, bera be gugaz Capbreton'en egon zan, eta gugaz Bel-  
jika'ra be etorri. Capbreton'en gengoazala, ez geugaz aregaz ze-  
rikusi andirik, baiña bai aren gogortasuna sentitzeko aiña. Esa-  
terako, leen azaldu dodan Capbreton'era etorri eta andik laster  
jazo yakuna, erriko elizara, Mezatara, domekea zala-ta, joan  
bear izan genduanean. Orrelakoa zan, ba, gure Don Manuel.  
Capbreton'dik Koningshof'era ez zan ezer bigundu, leen baiño  
latzagoa biurtu bai, bearbada. Gure erriko gora-beerak jakitea  
ete-zan, ba, orretan errudun?

Ez zan Don Manuel Koningshof'en gugaz geukan abade  
bakarra. Larrabetzu'ko semea zan gure bigarrena: Don Eusta-  
kio Uriarte.

Epela zan Don Eustakio umeen artu-emonetan. Argi ta  
jakintsuegia gu lako ume kaskarrakaz berba egiteko. Motrikua-  
rrakaz, ostera, enparaduakaz ez eukazan artu-emonik beroenak  
ebazan gure larrabetzutar onek. Gauza arrigarria, berez; ez,

baiña, Don Eustakio Ondarroa'n abade laguntzaille luzaro iza-  
nikoa zala ekienentzat. Itsas-mutiko areik ikusiaz, aspaldiko  
bere Ondarroa'ko gogoetak berbiztu egiten ziran bere biotze-  
an, antza. Naiz-ta areik beti atsedentsuak izan ez. Aren taiu  
baketsu ta neurriduna ikusirik, ez leuke iñok ezela be  
susmatuko bere aurrean abade matrakalari bat eukanik. Baiña,  
antza, bere albokoak baiño argiago ta trebeagoa zalako, edo  
beste errazoiaren bategaitik, eztabaidarik naikoa eukirikoa ei-  
'zan, esaten ebenez.

Don Eustakio abertzale sutsua, eta Ondarroa'ko bere bi-  
karioa, karlista amorratua zala, ez zan gauza erraza euren arte-  
an artu-emonik izatea; orixe iñoen, beintzat, berau ezagutu  
eben geienak. Eta geroago be, Malinas'ko Elizbarrutiko Auzi-  
tegiagaz be burruka gogorak izan ei'ebazan. Onetan be Eliz-  
legea ondo ezagutzea mesede andikoa izan ei'yakon.

Zeaztasunok geroago, aberrira biurtuta gero entzun eta ja-  
kin nebazan. Aldi aretan ume koskor bat baiño ez nintzan, eta  
ardura gutxi emoten eustan orretariko gora-beerak entzuteak.

Azken negargarria izan eban gure Don Eustakio onek.  
Eta zelan edo alan nire lerro oneitan gure errian jazorikoak  
azaldu nai dodazala, ari jazoriko au be ez dot isildu nai. Belji-  
ka'n urteak eginda gero, bere Larrabetzu maitera etorri zan.  
Artetan ama bizi yakon, Goikolexea-aldeko baserritxo baten.  
Nora obeto amagana baiño? Araxe joan zan, ba, gure abadea,  
bere urteak baketan, aspaldi zanetik ez eukan baketan, bizi aal  
izateko. Ez eban errukarriak larregi eskatzen: bakea, ixilla, ba-  
serrian ama zaarragaz bizi aal izatea. Zin-eliza zan Goikole-  
xea'n emoten eban bere Mezatxoa. Pozik egoan. Baiña laster  
entzun eben orduko bere eliz-nagusiak, «ezer egiten ez eban»  
abade bat egoala an. Eta Orozko'ko Murueta auzora bialdu  
eben. Zelan izan errukirik erbestean egon izan zan abade «se-  
paratista» bati? Joan zan, ba, Murueta'ra gure abadea. Bere  
ama zaarragandik alde egin bear! Eta Murueta'ko bakartadean  
erri ta amaren miñez, bere negarra aaztu nairik, ardaoari emon  
eutsan. An il zan errukarria, bere abadetxe zaar bakarrean...



Baiña, orduko jazoera bat be ekarri nai neuke. Nire osaba Bizente, urte asko Bermeo'n egon zana —ogetamarretik gora bai—, Francotarrak Bermeo'n sartu ta egun batzuetara, Bermeo'ko beste abade bategaz, Gipuzkoa'ko erritxo batera erbeste-teratu eben. Arein orde, Francotarrakaz ondo konpontzen ei'ziran abade batzuk ekarri ebezan gure errira, eta arein artean, Ondarroa'tik, Don Eustakio'ren aurkakoa zan bikario jaunna. Nik albistok etxetik bialduta jaso nebazan, naiz-ta bein baiña sarriagotan «zensurea»-ren bildurrez, etxeok albistok niri ezkutuan lez jakiñerazo. Karta barriren bat Bilbo'tik etorren bakotxean, an alkartzen ziran Koningshof'eko gure abadeak kartearen inguruan, atxen inguruan saiak batzen diranez.

Bermeo'ko abadeari buruz bakarrik ez, baita albistai buruz be zuur eta negurridun agertzen zan gure Larrabetzu'ko abadea. Etxera biurtuta gero aurkituko neban aren aparteko jo-kaera orren zergaitia.

Ni Koningshof'era ekarri nenduenerako, ez egoan Uriarte jauna Koningshof'en, alboko beste erri koskor baten baiña. S'Gravenwezel eritxon erritxo orri, eta, izenak berak diñoanez, erritxo orrek Konderen batz zerikusia eban. Jauntxo au leen bizi izan zan jauregian, moja batzuek euken euren komentuan Don Eustakio. Zelako arazoa ete-euken, ezin esan daiket, andik etorkiguzan albistak gugana oso illun etozan-eta. Eusko-umeai laguntzeko, euren etxe ataltxo bat atondu eta guretariko lau ume artu ebezan moja oneik. Guretariko azienak ziran etxe orretara joateko aukeratuak izan ziranak, eta, eurokaz batera, Don Eustakio be etxe aretara aldatu zan.

Gazte oneik —zaarrenak izanarren, guztiak amasei urtetarik beerakoak ziran— guk besteok baiña bizimodu ederragoa eben, eta gugana etorten yakuzan bakotxean, bizimodu eder ori azaldu ta guban ikusi-eziña ernerazo baiña ez eben egiten.

Anberes'tik urr egoan Merxkem deritxan erriko eskolara yoiazan egunero. Eskolara joate orrek ez genduzan ardura-tzen —pozago gengoan besteok, bearbada, ikasteko joan-bea-rrik ez genduala-ta—; baiña ikastetxera joateko bizikeleta bana

euken, eta orrek, orrek bai, gu baiña zorionsuagoak zirana argi ikusterazoten euskun.

Gurera sarritan agertzen ziran. Euretarike batek anaia be —Durango'ko Xabier— geure artean eukan. Lau oneik etozanean, eskekoak dirudun bategana lez, aurreratzen gintzakiozan bizikeleteaz «osteratxo» bat egin aal izateko eske. A gure poza, gutzaz errukitu eta eskuzabal agertzen yakuzanean!

Egunak joan, egunak etorri, gure motrikuarrak eta enpara-duak baiña eskolatua nintzala-ta (Batxiller urte bi eginda neukazan Bilbo'n eta Igorre'n, eta beste iñok baiña obeto egiten neban berba prantzeraz), neu be Merxkem'go ikastetxera bialtzea erabagi eben gure nagusiak. Leenengoz barri ori —ez dakit nik noren bidez— ni joan neintekelakotan eldu yatan. Geroago, gure arduradun zan Jesuita batek, pozik joan ete-nintzakean itandu eustan. Nik baietza emonda gero, orretarako bideak atondu bear eustezala-ta, orretan ziarduela erantzun eustan. Noren bizikeleteaz joango ete-nintzan? Non geratu bazkaltzera? Egun otzak igaro artean, itxarotea obe litzakidala. Eta abar. Itxaropen ederra biotzean erneta neukan, bai, baiña itxaropen orrek fruturik emon ez. Artetan, etxeok be ni etxera biurtzea ondo legokidala jakiñerazo eusten.

Sekulako ikastetxe orretara joateko baldintza guztiak bete orduko, Bilbo'rako trena beste ume askogaz artu neban. Obe izan zan? Nik baietz uste. Itzi dagigun, ba, gure Merxkem ori alde batera, eta barriro Koningshof'era biurtu gaitez.

Don Eustakio tabako-zale amorratua zan. Baiña Don Manuel'en ondoan anditxoagoa, ondo ikasiagoa, «europatarragoa» emoten eban bere tabako-oituretan. Pipea erreteak «txoratuta» eukan gure abadea. Geroago azalduko dodan jazoera barregarri batek argi dakarsku aren zaletasan ori.

Irugarren abade bat be ba-geukan Koningshof'en: Lemo-na'ko semea au eta Eibar'en egonikoa. Iru abade ikusi eta mo-su-zapian korapillo bat egiñaz zoriona izango dauala diñoan

euskal-esakerea egiazkoa ba'litz, zoriñekoak izango gintzazan, ba, Koningshof'en gengoan euskal-umeok.

Lemona'koa izanik, abade ori aspaldian neban ezagun. Ez neban, orraitño, beste bagarik ezagutu, Beljika'n leenengoz ikusi nebanean. Ekeren'en nengoan aldia zan. Astero lez, betiko amar kilometroak egin nebazan, euskal-abade ta umeakana joateko. Don Manuel'en zain nagoala, ara non agertzen dan beste abade bat. Zimela bera, begiak bigunak, ulea tximurra. Ni sartokiko gelan ikusirik, iñoren zain ete-nengoan labur eta bigun itandu eustan. Don Manuel'en zain nengoala jakiñerazo neutsanean, nigandik alde egin eban. Une aretantxe abade a ezagun eta nonbait ikusia nebala bururatu yatan. Baiña non-ete? Aibeste neukazan illetan ikusita!



Josken'egaz. Eskumaldean, geure etxea.

Gero, ikastetxeko elizaxora joan eta autortzarako gertuten asi nintzan. Eta, sarritan oi danez, elizako ixillean beste zer baterako nire burua gertatzen niarduala, argi bururatu yatan abade a nor zan eta non ikusi neban: Lemona'ko elizpean, otoitzean ziarduala azkenengo udaldian! Nire lengusiña Miren'ek azaldu eustan abade orri jazorikoa. Autoan ibiltan ekian-eta, Eibar'ko ezagun batzuek euren berebilla izten eutsoen, Lemona'ra, ama ta anai-arrebakana etorri-bearra ebanean, aalbait ariñen etorri zeitean. Bein, bestetan lez, Lemona'ko «Curtidería»-ko aldatzean ara non yatorikon aurrez-aurre gizon bat. Gure abadeak, kotxeari eusteko-edo, astirik ez-eta, gizona zapaldu eta bertan il eban.

Abade ta gizon biguna berez zan ezker, astunak igaro bearrean izan ei'zan eriotza a zala-ta, naiz-ta errudun izan ez. Aurrerantzean, etxekoakana etorri-bearra izaten ebanean, besteren batek ekarten eban edo trenean etorten zan.

Arentzat penagarri zan jazoera ori aitatzerik nai ez neban ezker, elizatik urten eta beragana aurkeztuta, beste gai batzui buruz itandu neutsan: «Lemona'koa ete-zan.» «Nire ama be Lemona'koa zala.» «Bizente Munitxa ezagutzen ete-eban.» «Zelan ez ezagutu? Bai ondo be!». «Ba, neure osabea zan be-»

Arrezkero, naiz-ta arek umeen arteko berarizko kutunak nai izan ez (Ermua'ko arkitektoaren seme-alabatxoak baiño ez ziran alan be aren kutunak), aparteko ardurea agertu eban nitzaz.

Beste abade biai buruz geukan maitasun-ezaren orde, guztiok maite genduan biotzez Don Mateo Uriarte (orixe zan aren izena). Geugaz yoian goizeko orduetan elizara (naiz-ta Don Manuel'ek, zaarrenari egokionez, Mezea emon), geugana eguneroko eskolak emotera, geugaz auzoko bideetan zear lagun, geugaz illuntzean ogera giñoiazanean. Iñoiz —oso gutxitan jazo zana— guk nai genduan baiño beste jokaeraren bat agertzen ebanean, laster esango genduan gure artean: «Don Mateo be, beste bien antzeko biurtu ete-yaku?» Orixe zan guri atseka-

be ta ikararik sakonena ekarri leikegin pentsamenturik ikaragarriena. Konigshof'eko gure egunak, illun eta lainotsuak izango yakuzan, Don Mateo gure artean izan ez ba'gendu. Orregaitik, aurrerantzean azalduko dodazan poz eta negarrak, barre ta nekeak, egun lainotsu ta eguzkitsuak, norbait dabe euren erdian, eta norbait orrek izen bat dau: Don Mateo Lemona'koa (edo Eibar'koa, enparaduak inotsoenez).



## AITA MAURICE PETERS JESULAGUNA

«Peters» abizena Flandes'ko lurretan zabalduen dagoan abizena ei'da. Irrilariak isekaz esan oi dabenez, Janssens eta Peters abizenak, biak batera, Anberes'ko telefono-liburuaren orririk erdiak artzen ei'dabez. Asierea «Van den» daukenak be ez dira orren makalak, baiña nik eurakandik entzundakoa diñot, besterik ez.

Abizen orrek «Pedro'ren seme edo oiñordeko» esan nai dau, eta Ipar-Europa'ko lurralderik geienetan —Beljika'tik asita Eskandinabia'ko lurraldeetaraiño— oso zabaldua dago. Ortik dator, ba, nik Beljika'n Aita Peters bat ezagutu nebala esaten dodan baktxean, ezer be ez esateko arriskuan geratzea.

Beljika'ko lagundi edo anaidietan —beste gizarteko mailletan lez— ainbat Janssens eta Peters izan dira: eurotariko bat, geroagoko urteetan Jesus'en Lagundiko Nagusi izatera eldu zan ezkerro, mundu zabalean oso ezaguna izan zan.

Nik orain azalduko dodan istoriako Aita Peters be jesulaguna zan. Ez zan eldu bere beljekar jesulagunkidea eldu zan aiña gora; baiña nik ñera ezagutu nebanean, ni arritzeko aiñako arazoa eukan.

Maurice Peters (orixe zan bere izen osoa) lan-arloan ondo ezaguna zan, katoliku lan-jabe ta ugazaben onularia izanik.

Arazo ori berak eukiteak eraso andi ta gogorra egin eutsan asieratik nire ume-irudipenari. Euren lana beeko langilletxoan artean egiten eben abadetxoan ganetik / bere arazoa egiten dauan ugazaba lez iruditzen yatan. Langille-onulari izatea garrantzi bagako arazoa yatan aldi aretan; ugazabena izatea, ostera, arazo ezin goragokoa.

Astero Koningshof'era egiten nebazan ikustaldietariko baten aurkitu neban nik leenengoz berau. Autortza egin nai nebalata, Don Manuel'i dei egin neutsanean, moja atezaiñak aldi laburtxo baten itxaroteko esan eustan, etorri yakon bategaz berbetan ziarduala-ta. Alkarrizketa ori amaituta gero, Don Manuel eta beronen laguna alkartuta egozan gelara sarrerazo nenduen. Iru-lau berba baiño ez eustazan egin, geiagorik ez, prantzerez, jakiña, eta nik aldi aretako erriagaz berba egiteko neukan erraztasunaz erantzun neutsan. Ain ondo egiten nebala berba-ta, gure abadearen aurrean goratu egin nenduan. Arro nengoan ni. Orra or nik Aita Peters zuzen-zuzen ezagutzeko izan neban leenengo abagunea.

Ikustaldi au baiño leen ez neban aretzaz ezer entzun. One-la ta guzti be, euskal-umeok Prantzia'tik Belgika'ra ekarri ta erri onetako kristauen babespean jarri genduezanean, an zan bera arduradunen artean nagusienetarikoa. Malinas'en Frateur kalonjea eta Ceuppens abadea eta beste ainbat zirana, orixe zan Anberes'ko inguruetan gengoanontzat, beste askogaz batera, Aita jesulagun au.

Lantegi-jaun eta arazo-arduradun askoren onularia zalako zan gauza, izan be, euskal-umeoi laguntzeko be. Onularia izanik, kristau aberats askogaz artu-emon estuak eukazan, eta arcin biotzak premiñan egozan askori laguntzeko iratzartu ebazan. Bide onetan berak lortzen eban laguntzaz janaritzen ebazan Koningshof'eko Ikastetxean egozan ogetamar edo berrogei umeak. Ez zan, ba, arritzekoa, arduraz beteriko bere bizitzan Aita Peters'ek Koningshof'en egozan euskal-abade ta umeai ia egunero ikustalditxo bat egitea. Gela zabalera eroian eskillaretan agertzen zanean, guztiak poz andia sentitzen eben. Batzuetan urrindik eskuaz guri «agur» egiten euskun. Amesa joaten yakun orrelakoetan, aregandik beti zerbait lortzeko ustez gengoan-eta. Baiña orren iradu ez ebillenean, geugana etorririk, gugaz miñutu labur batzuk egiten ebazan. Onelakoetan, txokolatea ta bonboiak, barruko soñnekoak eta berari emondako jan-tziak ekarten euskuzan. (Ikastetxeko moja bat urreratzen ya-

kon, umeen arteko norbaitek zerbait bear eta ekarritakoak ondoen nori egokituko leuskiozan esateko.) Baiña sarrien ekarten euskuna, «pain d'épices» zan (azukarazko ogi illun-gozo bat). (Nor ete-zan gure Aita Peters'i, guk ain pozik jaten genduan ogi ori ain ugari emoten eutsan lantegi-jaun gozo ta ez-titsua?). Koningshof'en gengoan umeontzat Aita Peters'en etorrera ori, ume beartsuen eguneroko Errege-egun bat lakoa agertzen zan.

Geu bakarrik ez, geure abadeak be, zintzo poztuten ziran Aita Peters etorten yakun bakotxean. Umeakaz iru-lau berba egin, eta gure artean gozoki ta karamelo eta «pain d'épices» banatuta gero, batez be España'ko guduari buruz asten zan berba egiten. Gutarrak, naiz-ta Europa guztian sakabanatuta egon, gerra ori galdu bagarik ei'euken. Lurrarteko itsaso-alde-tik Valencia'ko Gobernuaren Gudaroztea ez egoan artetan garaituta. Amesa itxaropen guztien aita ta ama da, eta gure abadeak —naiz-ta gure burrukea gero ta galdugo izan— ezin euren amesen aurka egoan egia ori ontzat artu.

Ez yataz aaztuko Don Manuel'ek prantzes-egunkaria irakurten eta Don Mateo'gaz sutsu berbetan ziarduan eguneko benetasuna ta seriotasuna. Umeai buruz, edo bildurti, edo bere barruan (zegaitik?) maitasun-bagea zalako, ez euskuzan iñoiz be bere barruko sentipenak agertzen. Aldi onetan, orraitioño, guztiok susmo au izan genduan: garrantzi andiko barriren bat ekarrela benetan. Don Mateo'ren bidez jakingo genduan besteok be, zelakoa zan albista garrantzitsu ori. Gudarozte «leialak», Teruel, Aragoi'ko uririk andienetarikoa azpiratu ta eurakanatu ei'eben. Pirrus erregeak izandako garaipenaren antzekoa izan zan, tamalez, Errepublikarren garaipen ori. Izan be, Ebro ibaiaren burrukearen asiera izan zan, eta, burruka orren bidez, Francotarrak euren azken-garaipena lortu eben.

Guk uste genduan ez, beste gai batzuk be erabilten ebezan Aita Peters'egaz gure abadeak izan oi ebezan alkarrizketa orreitan.

Atzerrian egozan, atzerritarrak ziran Beljika'n gure abadeak, eta aldi latz areitan orreitarikoentzat legezko egoera lorzea ez zan beste bagarik gauza erraza.

Aita Peters'ek ekarri oi eutsezan emoitzak zirala-ta be, biotzez poztuten ziran gure euskal-abadeak. Don Manuel etenbagako txokor-erretaillea zan. Baketsu agertzen yakun Don Eustakio, pipatik erreteari beti ekiten eutsala. Irugarrenak, Don Mateo'k, gutxitxo erreten eban, eta, ori egiterakoan, beti zigarro bigun-meeak. «Zer jaten dozun esan egidazu —esan ei'eban norbaitek—, eta nor zarean esango dautsut». Zer erre, eta onela agertzen eban euretariko bakotzak bere izatea zelakoa zan: agindu-naia (gogorkeria esango neuke nik) txokor-erretailleak; bakea (edo, gauza asko igarota, gizonakan eta jazoeretan uste larregirik ez izatea?) pipatik erreten «zorutzen zanak»; eta gizon kezkatuari dagokiozan biguntasun eta begirunea irugarrenak.

Ille batzuk igaroko ziran, orain azalduko dodan au jazo zaneke. Aita Peters'ek bere jaiegun bat —jaioteguna edo izeneguna— ospatzen eban. Gu beragana joan bagarik, bera etorri yakun, esku ta sakel, opariz (erregaluz) beterik. Guretariko bakotxari berea emonda gero, abadeakana biurtu zan. Areik be zerbaiten ustez egozan, Aita jesulagunak zer ekarriko eutsen zain. Don Mateo'k, bere gustoko izan ez, baiña «faute d'autre», erretera bearturik egoan Beljika'ko zigarro-kutxatxo bat jaso eban, «belga» izeneko kutxatxo bat. Pozik egoan Don Manuel maian cukazan txokor pilloaren ondoan beste txokor-kaxa bat eskuratu ebala-ta.

Eta Don Eustakio'k, zer jasoko ete-eban gure larrabetzuetarrak? Guztiok gengozan, jakinguraz beterik, Aita Peters'ek besapean ekarren zorrotxora begira. A gure barrea, zorrotxoa edegi eta Olandarrak daroen lako buztinezko pipa luze-zuri bat atara eta Don Eustakio'ri emon eutsanean!

Guretariko bakotzak bere erara agertu nai eutsan bere poz eta eskerrona: umeok gure gozoki ta txokolateak dastatuaz; gure abadeak bakotzak jasariko tabakoa erreaz. Gure Don Eusta-

kio'k be munduko aalegiñak egin ebazan bere pipatik kea atarateko, baiña alperrik. Kukuak oker egin eutsan. Luzea, oso luzea, ogeta bost zentimetro luze zan bere pipea, eta, aal aiña aalegiñak egiñarren, ezin keerik pipeari atara. Ez eukan pipa aretatik erretoko bearrezko zan Ondarroa'ko arraunlarien auspo-indarrik. Aren aalegiñak ikusiaz, zer egin geikean barre baiño besterik? Uste dodanez, Aita Peters'ek jaiegunerako ekarririko Olanda'ko buztinezko pipea, bera bizi zan S'Gravenwezel'go mojetxe-ko zokondoren baten-edo betiko ezkutatuta egongo da.

Onularitza ori zala-ta, Kristau-Ugazaba Ekintzaren ordezkakoz izan bear ebazan batzarrakaitik, eten bagariko joan-etorriak egiten ebazan Aita Peters'ek Beljika'ko lantegi eta Diru-etxeetara. Geienetan, Anberes'ko inguruetara egiten ebazan ostera laburrak, baiña bein baiño sarriagotan baita Beljika'ko beste erri ta uri andietara be. Bidezko yakon bakotxean, «Pensionat»-eko guretarikoren bat etxetik artu eta beragaz eroaten eban, bera yoian urira. Orreitariko osterak egiteko, beti gengozan giztiok gertu. Joan-etorriren bat jakiñerazo ezkerero, an agertzen zan Zuster Gundrada; eta onek, guretarikoren bati dei egiñik, logelara joateko eta jazteko agintzen eutsan. Eguneroko gure soiñekoak beartsuenen antzekoak ziran: geure artean erabilteko bai, baiña ez iñoren aurrean agertzeko.

Ni leenengoz Koningshof'era etorrira, mutillen arteko batzuek ikusi ebazan uri ta lurak zelakoak ziran azaltzen entzun nebanean, amesetan lez nengoan, neuk be orrelako joan-etorriak egingo neukezan egunaren zain. Ekeren'en igaroriko egunetan ez yatan orrelakorik egiteko abagunerik agertu, eta nik ikustatu neban erri bakarra Eskalda'ren ertzean dagoan Tamise izan zan. Josken ikasten ziarduan ikastetxeke ume ta senideak, ikastaroaren amaierea zala-ta, ibaian gora egin eben osteratxo ori, eta neu be, Josken'ek artuta, erritalde ari batu nintzakion. Besterik ez.

Nire lagun barrietariko asko Bruselas'en egon izan ziran. Mateo'k bein Lieja'raiño joan zala esan eutsan. Anberes'en sarritan, eta Olanda'ko mugatik urr egoan Turnhout'en, eta beste

ainbat lekutan be egon izan zan bata edo bestea. Eta beti andikien artean, etxeetan mizkez eta gozaro artuak, eta eskupeko, eta jantziak, eta «breech»-soiñekoak emoten ei'cutseezan. Nik Ekeren'en orrelakoen susmorik be izan ez neban ezkerro, be-kaitzez ikusten nebazan nire lagunak; eta Aita Peters'en joan-etorrietarako bidelagun izateko, Zuster Gundrada'k noiz izentatuko ete-nenduan, beti amesetan niarduan.

Egun baten, nik gutxien itxaroten nebanean, ara non dorkidan Zuster Gundrada, eta ezetzik laketzen ez eban bere abots zoli-urduriaz, logelara igota, neukazan soiñekorik apaiñenak jazteko agindu eustan. Aita Peters ostera bat egiteko ei'zan eta ni bidelaguntzat izan nai nenduan. Nire jake urdiña, kolore bizidun jersey eta jaiegunetako praka zuriak jantzi nebazan. Eta etxeko ate nagusira joan nintzan. An egoan Mateo gure zain. Berari be jaiegunetako soiñekoak jazteko agindu eutsan Zuster Gundrada'k. Namur'erako bidea artu genduan. Autulari ta berbalari berarizkoa zan Aita Peters; eta gu, umeok be, gizontxoak bai'gintzan artzen genduzan, bene-benetan gugaz berbetan giten ebala.

Flandes'ko lur lauetatik giñoiazan. Bidean gure aurrez-aurre burdiari lotuta etozan idi bi ikusita, arro ta pozik erderaz guri esan Aita Peters'ek: «¡Como en Euzkadia!». «¡Como en Euzkadi!», zuzendu geutsan biok batera, eta berak eskerronez artu eban gure oker-zuzentzea. Ez eban ondo ezagutzen erdalizkuntza; bai, orraitino, gugaz egiteko beste. Eta beti egoan bai geugandik, umeokandik be, zerbait ikasteko gertu. Lobaina'tik igaro gintzazan. «Ezkerretara dagoan etxe eder eta bikain ori, emengo Udaletxea dozue. Erdi-Aroko azkenetako etxerik ederrera», esan eustan.

Leenengo gerratean alemaniarrek azpikeriz Beljika bakesua azpiratu ebenean, Lobaina ondatuaz, Udaletxe eder ori be errea izan zaneko susmoa zabaldu ei'zan.

Eta Aita Peters'ek: «Berealaxe jakiñerazo eutsen Alemania'ko Jaurlaritzak Ipar-Ameriketa'ko agintariai zurrumuru

ori guzur utsa baiño ez zana. Bildur ziran, antza, Ipar-Amerikarrak erreakziño gogorren bat izango ete-eben.»

Bravante erditik yoian orain gure bidea, Namur'ko bere-sian zear. Ibili ta ibili, beresi illuna baiño ez zan agertzen. Azken bagako tunel baten barruan bai'giñoiazan. «Beresi orretan —barriro be Aita Peters'ek— ainbat pisti dagoz. Basurde ta oreiñak, baita otsoak be. Udaldian ez dauz iñok ikusten, baiña negualdiko egun labor-otzetan, bedarra edo bear daben zerbait artzera, etxe-aurretara urreratzen dira.»

Nire gogoetak Brabante'ko Jenobeba'gana yoiazan, beresi illun areitan bearbada bere bizitzako urte luzeak bizi ebazan emakume santuagana. Ikastaro-azkenengo saritzat jaso neban nik «Berrio-Otxoa» Ikastetxean emakume orren barri laburra. Zenbat bidar irakurri nebazan nire ume-egunetan, begietatik negar-malkoak dariola, aren eta aren umetxoaren («Errukarria» izenez) gora-beerak! Golo'gandik igesi ibili, eta senarrak azpizapo il batentzat emazte zintzoa ebala. Onelako beresi sakon-ederrik ez neban iñoiz ikusi, eta «Brabante» izenak (gu igaroten gintzazan lurren izena, aurki) nik aspaldian Bilbo'ko ikastetxean bizi izandako egunak ekarten eustazan gogora.

Aita Peters eten bagarik ziarduan guri itaunak egiten.

Gure joan-etorri onen osteko egunetan, «Eresoinka» izeneko taldekoak, Anberes'ko antzoki baten, aurkezpen bat eratu eben. Kantari ta dantzari-talde oni geuk be, umetxuok, lagunduko geutsan-eta, zelan edo alan talde orretakoak gintzazala uste genduan. Gure autua, ba, berez aldatu zan gai orretara. Oraingotan, Aita Peters'ek euskerazko bere ezaguntzak ondu nai ebazan.

«Nondik dorkio talde orri «Eresoinka» izena? Niri norbaitek esan daustanez, taldearen izateaz zerikusia ei'dauko», itandu euskun Aita Peters'ek.

(Atzerrian beti ara-ona, talde orretakoak Euzkadi maitearen kanta zaar-ederrak abesten ziarduen.)

«Berba orrek «bidean kantari» edo orrelakoren bat esan nai ei'dau».

Urteak geroago jakin neban izen orren benetako esangurea, baita Aita Peters'ek entzun ebana egiazko susmoa zana be ikusi. Baiña egun areitan, nik Bilbo'ko euskaldun batek egin daikena baiño ez neban egiten euskeraz-eta, izen ori beste izkuntza batekoa bai'litzan egiten yatan. Mateo bera be, motrikuarra, erderaz baiño euskeraz obeto egiten ebana izanik, ez zan izan euskalkantari talde orren izenari buruz berarizko azalpena emoteko gauza. Namur urira urreratu gintzazan. Aita Peters ez zan luzaro egongo uri onetan egiteko eukazan arazoetan. Ordubete-edo. Itxaroteko geukan ordu orretarako, oartxu bat egin euskun Mateo eta bioi: «Zoaze Citadelle'ra! Leengo mendeetan, bere babespean egoan beeko uria-ta, or dago mendi-tontorrean orain be, iñor urira kalte egitera etorriko ete-dan zain.»

Gu beeko ate-aurrean itzita, bere lanera joan zan.

«Emendik ordubetera-edo, zatoze barriro toki onetara! Ementxe aurkituko nozue.»

Ate aretatik bide zabal bat yoian, beti gorantz, arresien inguruan zear. Tontoretik ikuspegi zoragarria agertzen zan. Bean, baketsu yoian Meuse ibaia. Alde batera eta bestera, Namur uri zabala. Urrunean, ipar-alderantz, lur leun eta emokorrak; bestaldera, Ardenas mendi ta beresiak.

Arduraz emon euskuzan Aita Peters'ek, gaztelu-barru orretan jazoriko beste jazopen askoren azalpenak be; baiña norbere erriaren istoria ezagutzen ez eben amabi urteko mutiko bik, zelan ulertu arek esandako guztiak?

Erri ta toki guztiak ikusi nai nebazala! Mateo'gaz batera itxaron bear izan neban ordu ori, naikoa gogaikarri biurtu yatan, bai biurtu be...

Urrengo illetan beste uri batzuetara eroan nenduan Aita Peters'ek. Beti besteren bategaz batera. Ondo eritxon alde onetatik Aita Peters'ek: bera bere arazoetara joan eta itxaron bear izaten genduan artean, ez geukan onela zetan gogait eginda egonenik. Egindako joan-etorri oneitatik, iru daukadaz biotzean tinko ezarrira.

Beljika'ko negu gogorraren erdian, Hasselt'era egindako osterea izan zan oneitariko leenengoa; bigarrenean, España'ko Karlos I erregea jaio zan Gante'ra joan gintzazan. Eta, atsegin-tsuenan, irugarrena: Turnhout'eko ezagun batzuekana egin genduan osterea.

Ez dot uste osteran oneitariko leenengoa iñoiz aaztuko yatanik.

Guk leen iñoiz ikusi ez genduan lako negu otz eta gogorra zan. Negua bera, aparteko esperientzia zan Euzkadi epeletik etorritako guztientzat. Edurra zan, eguraldi otza. Eta guretzat egoera barri zan ori, umeak oi dabenez, geuk be ezagutu egin nai genduan.

Gure Koningshof'eko ikastetxean, bestelako etxetan emakumeai dagokien lanean, mutikook laguntzea betiko oiturrea zan. Plater, koillara, ontzi ta enparaduak, geuk garbitu bear genduzan. «Geuk» diñodanean, umeen arteko azienak esan nai dot. Eskaratzetik ekarten genduan ontzi andi bat, ur beroz beterik; emakumeen erara gerrian amantala ipiñi, eta etxean gengoan berrogei umeon plater, koillara ta abar, zeatz garbitu eta legortu bear izaten genduzan. Guretariko txikarrenak, bazkaria edo aparia artuta, berealaxe yoiazan une orretan guretzat bananduta egoan etxe-barruko jolastokira. («Bananduta» egoala diñodala, berba ori berariz aukeratu dot. Izan be, bertoko eta euskaldun-umeen artean «apartheid» antzeko jokaera bat egoan. Lantzean-bein baiño ez gintzazan guztiok, beljikarrak eta euskaldun-umeok, alkarregaz egoten.)

Negu gogor orretan, bestela geukazan jokoan aldian, joko bat, joko barri bat bururatu yakun. Plater eta enparaduen garbiketara ori amaitutakoan, gure ur beroa jolastokira eroan eta toki-erdian egoan ur-bideraiño isurten genduan. Ur epela, bereala, lei (izotz) biurtzen zan. Orduan geuk be laban egin geikean, eta Austria edo Suiza edo beste negu-tokietan aberatsak euki oi dabenez atsedeen-susmotxo bat euki.

Bai, goazan gure negu-erdiko osteran orretara.

Lo-gelatik jantzi-«liturjia» amaituta, etxeko atera jatsi nintzanean, an egozan Mateo ta Josu, joan-etorrirako gerturik. Aita Peters'ek Don Manuel'egaz eban izketaldia noiz amaituko zain.

Beljika'ko Linburg errialdeko uriburua zan Hasselt, Olanda'ko mugatik naikoa urr.

Beti lez, Aita Peters'ek izketarako eukan erraztasunari esker, oso atsegintsu egin yakun Hasselt'erako joate ori. Gu bide orretan erri edo beste toki gomutagarrietatik igaroala, toki areitan jazorikoak geuk ulertu geikezanez azaltzen euskuzan.

S'Gravenwezel'en zear kilometro batzuetara, Schilde ize-neko erri txiki batetik igaro gintzazan. Izen ori zelan esan bear dan argitu euskun bereala: «Ez «Es-jilde», «Sch-hilde» baiño», iñoskun, irurok alkarri barre egiñaz, berba gaitz ori bear danez esateko aalegiñik andienak egiten genduzala.

«Gaitz egiten yatzue izen ori ondo esatea, ez ba?»

Guk barbarik be ez.

«Aspaldiko prantzesai be beste orrenbeste jazoten ei'yaken.»

Eta jarraian, erritxo orretako jazopen interesgarri bat azaldu euskun.

«Beraz, erritxo onen izena ez da «Schilde»; orain geienok esan oi dogunez, «Schilde het Vriend» (Schilde laguna) baiño. Gure Flandes'ko aundikiren baten gomutagarritz ezarri yako izen ori. Armadun gizatalde baten buruzagia zan gure aundiki au. Lur onetako jauntxoaren aurka egiten eban burrukan bere morroiakaz, jauntxo orreik inguruetako nekazariak zapalduaz gaiñera oneik egin oi eben Flandes'ko «patois» —prantzera— ezesten ebelako. Arelako burruka baten, prantzera baiño egiten ez eben jauntxo arein gudari-talde bat atxillotu eben gure buruzagi orren burrukalariak. Flandes'ko erriari eutsoen zintzotasuna egoki negurtzeko, atxilloturiko gudariai «Lagunaren» izena ebagi-erazotea baiño ez yaken pisti txar arei otu.

Prantzerea dakian edonok susmatu daike, «sch»-a bear danez esatea gaitz be gaitz egiten yakona edozein prantzesi. Ori

egokiro egiten ebenai askatasuna emoten eutsoen; egin ezin eikeenai, ostera, kokota kenduko eutseen. Erdi-Aroko oitura ikaragarriak azalduko au benetan izan zeitekeala jakiñerazoten dauskue, naiz-ta azalpen ori, arenbaten, beste erri askotan be aurkitu. Ez ete-da, baiña, Erdi-Aroan ain zabaldua dagozanez netariko ipuiñen bat?

Dana dala, barre egiten eban, bai barre egin be, Aita Peters'ek, guri istoria ori azalduaz, eta, ori egiten ebal, Flandes'ko bere lurrari buruz sentitzen eban maitasun sakona agertzen eban.

Westmale erritxotik be igaro gintzazan. Antxe egoan Trapistak prailletxe entzutetsu ta ezaguna. Orixe zan nik une aretan erri orretaz nekian guztia. Ez zan gauza andia, baiña bai bizitza arrigarriaz neukazan sentipen eta amesak neure barruan iratzartzeko. Nire gogo ameslari ta gaztearentzat naikoa zan ori. Geroago, era askotara gomuterazo eusten Prailletxe orren izena. Nire Euskalerriaz zerikusi dauan orreitariko bat azalduko dot orain. Azaltzen diardudan ostera au baiño urte asko geroago jazorikoa da esango dodan jazopen au.

Egun eder-eguzkitsu bat zan. Eguna orrelakoa izan, eta nik egun aretan ikastolan lanik ez neukala-ta, Bilbo inguratzen daben mendi alai ta atsegintsuetan zear ibilketa bat egitea erabagi neban. Artxanda'ra igo, eta Bilbo'ko ibarra Txorierri'tik banantzen dauan mendi-lerrotik, zugatz-landarak milloika ereiten diran «Vivero» (Mentegia) izeneko lur zabalera eldu nintzan. Emendik Lezama'ra eroaten dauan bidea artu neban, ibarrera jatsiteko asmoz. Aurrez-aurre Mungia-aldeko mendi-lerro ta Bizkargi mendia, neure eskumatara begiratu neikezan; ezkerretara, zeru urdiña, eta urrun, sakonean, euren kee baltza zeru urdiñera bialtzen iñoiz be aspertzen ez diran Sestao ta Barakaldo'ko lantegi ta burdin-olak.

Beerako nire bidearen ertzean, Lezama'ko gaztelu antzeko eliza ederra. Eliz-aurrean zear niñoiñala, domekako euren lana amaituta, elizpean atsedean artzen eben abade bi aurkitu nebazan. Nire «Egun on!»-a biotzez esan neutsen. Areitariko



bat ezagun yatan. Bigarrena ez neban leen iñoiz be ikusi. Mezea emoteko zala-ta, elizara joan yakun barriro leenengo abadea, nire ezaguna. Garerdikoagaz berbetan asi nintzan. Nor ete-zan, itandu neutsan nik.

«Ameriketa'tik etorri-barria naz —erantzun eustan berak—; baiña leen, Belgika'n egin dot lan ainbat urtetan. Franco-tarrak Bilbo'ra urreratu ziranean, «askatasuna aukeratu» eta erbestera egin neban iges.»

Esandakook entzunda, askozaz interesgarriagoa egin yatan alkarrizketea. Eta nik:

«Eta Belgika'n, non egon zintzazan?»

«Westmale izeneko Trapisten prailletxean egin nebazan urte batzuk. Neketsua zan, kaleko bizikerara oituta dagoanarentzat beti ixilik eta otoitzean jardutea, gizon arekaz bizi izatea. Baiña onurak be ba-cukazan nire bizikera ixil eta bakar orrek. Nire orduak zelanbait bete bear nebazan ezkerro, an nenbillen ni Prailletxeko liburutegian, antxiñako liburu zaarrak, Meza-liburu koloretuak, otoitz-liburuak, eta, batez be, eurak zirala-ta, Prailletxea arro egoan «Incunabilia» (leenen argitaratutako liburuak) artezten. Nire betiko jakinguraz lan au egiten niarduan baten, ara non agertzen dan liburutegiko arduradun zan praillea; eta, ni atzerrian nengoan euskal-abade bat nintzala jakiñaz, nire erriaz zerikusi andia eukan aspaldiko liburu ikusgarri bat erakutsi nai eustala esan eustan. Aldi areitako Europa'ko jeografia ekarren liburu oso zaar bat zan bera. Mapa nabarmena, latinezko txatal ulergatxak, suge ta erensuge, eguzki ta illargi irribarrez eta izarrez beterik egoan liburuua. Prailleak liburuaren mapa nabarmen bat erakutsi eta atzamarraz latinezko berba bat, «Terra vasconum», Euzkadi maitearen latinezko itzulpena adierazo eustan. Gaurko geure erria agertzen zan an, Baiona'ko Adour ibaitik, Fanum Sancti Sebastiani (Donostia politarentzat izen ederra), Flaviobriga (baiña non ete-egoan Strabo'k azaltzen dauskun Erromatarren portu ori? Gaurko Bermeo, ala Portugalete, ala Castro Urdiales ete-zan?) Mapa aretan gure Euskalerrriak gaurko Kantabria-erdia artzen eban.

Interesgarria, ez ba? Gure erriaren muga estuak zabaltze-ko gaurko euskaldun ameslari batzuen amesa, an egoan egia eginda Westmale'ko urrungo Liburutegian ...»

Mol'en zear eroan genduzan Hasselt'erako bideak. Erri orren inguruko bideetan geugana etozan gudari-taldeak aurkitu genduzan. «Inguruan ainbat gudalategi eta ekitaldi-lurak dagoz —esan eustan Aita Peters'ek, guri beti zerbait jakiñerazoteko asmoz—. Gure eskumatara, Geel dago. Erritxo onetan, burutik zerbait eginda dagozanak, betidanik artzen dabez erriko familien etxeetan. Etxeko bat izanik, askozaz errazago egiten yako bere geisoa garaitzea.»

Laiño ta otz dago gaur Ipar-Beljika'ko «campigne»-a, bes-tela ain orlegi (berde) ta argitsu izanik.

Hasset'era eldu gintzazanean, illun egoan. Belgika'ko neguko egun laburrak, gau luzeak!

Adrillu gorrizko etxe andi zaar batera —mojetxe edo prailletxeren batera— garoaz, antza, Aita Peters'ek. Abade-jantzi eta jesulagunak eroan oi daben gerrikoaz jantzita dagoan abade bat agertzen yaku atera, eta agurra damosku. Sartoki-gela baten itxaron bear izango dogu irurok, gure jesulagun biak euron alkarrizketa amaitu arte. Ormetara begira, ormetatik eskegita egozan argazki batzui buruz barre egin, jesarri ta jagi, barriro be ormetara begira... Ez euskuen emon Belgika'ko etxeetan alakoetan emon oi daben kaferik, ez barrunbeterik. (Ezagun zan jesulagunen etxeren baten gengoazala.) A zan gogaikarria, gela-txo aretan itxaron-bearra!

Alkarrizketea amaitu ebenean, etxerako bidera eroan genduzan Aita Peters'ek. «Aspertu ete-gintzazan...» (Zelan erantzun egia, ari miñik egin bagarik?)

Otza zan, ezin otzagoa, Belgika'ko negu errukibagea. Gero ta geiago edur-matazak jausten. Pozik gu, auto-barruan bero-gaillu on bat geukala, eta «chauffeur»-entzat argi iraunerazoteko berarizko tresna bat.

Gau illunean, argiak iziotuta, bide-alde batetik bestera

yoiazan basa-kuiak ikusten genduzán; eta gu, areitariko bako-txa ikusiaz, noiz zapalduko zain. Eta barre egin.

«Lurralde onetan ainbat basa-kui dagoz», Aita Peters'ek guri.

«Gure lurraldean erbiak bai, baiña oneitarikoak be triska-tzeko arrisku gogorrean; kuiak, etxeetan izan ezik, besterik iñon ez.»

Gure alkarrizketea aurrera yoian. Koningshof'erako bidea barriro egiten giñoiazala, Aita Peters'egana begira giñoiazan, burura etorkiguzan edozelako itaunak berari egiñaz.

Arek, beti lez, legunkiro emoten euskun bere erantzuna. Oraingotan, orraitño, bere jokaera guztia oso aldatuta egoan. Itun eta illun, Linburg'eko lurra lakoa zirudian. Aparteko gora-beerak izan ete-ebazan Hasselt'eko bere jesulagunagaz? Berak berbarik egiteko gogorik ez eukan ezkerro, geuk be ez geutsan geiago itaunik egin.

Astiro yoian gure berebilla. Gu gero ta urduriago gengo-zan.

Artetan, Koningshof urrun egoan eta eguna illuntzen. Noiz elduko etxera? Onelako baten, gure berebilla bakartade-bide aretan ezkerrean ta eskumara laban egiten asi yakun, Aita Peters'ek artez jarri eban arte. Izerditan geratu zan bera, ixilik gu. Geroago, bein eta barriro bide edurtsuan kotxeak laban egin..., eta barriro be bai. Aurrera egiten eban Aita Peters'ek; ixilik, illak lez, gu irurok. Arriskuan ikusten genduan eta orretan ego-zan gure gogoetak une aretan. Koningshof'era eldu gintzazane-an, gau illuna zan. Etxeko argirik geienak amatatuta egozan. Atera moja bat urten yakun, ain berandu gentozala-ta, asarre. Aita Peters'i agur egin orduko, guri ezbearren bat jazoenean be, bildur izan ete-zan itandu geutsan.

«Ez nigaitik, zeuekaitik baiño —erantzun arek—. Zuek etxera onik biurtzeko bete-bearra neban.»

Gure joan-etorri au ez zan orren ederra izan, geienez be lagunai guk igarorikoak azaltzeko aiña.

Askozaz nasaigarriagoa izan yakun, Olanda'ko mugatik urr dagoan Turnhout'era egin genduan urrengo osterea.

Uri onetan bizi zan familia oso kristau bategaz artu-emon oso estuak ebazan gure Aita Peters'ek. Uri orretatik Anberes'erako zerbitzua egiten eban «Autobus-alkartea»-ren ugazabak, edo bazkuneko nagusiak, ziran familia oneitakoak. Oraingotan be Mateo ta Josu izan nebazan laguntzat. Leen be bein egon zan Mateo etxe orretan, eta etxe orretakoak Mateo be besteakaz batera barriro Turnhout'era joan zeitela nai eben. Mateo'k, ba, «Cicerone» jokoa egin eban arro, guri familia ta etxe aretako zertzeladak azaldu ekeguzala-ta. Oso eskuzabalak ziran gure ezagun barri oneik. (Izan be, aitatzen dodan egun onetan, «breeches»-soiñeko ia barri-eder bat emon eutsoen gure Mateo'ri.)

Uri-inguruan egurats-etxe bat ei'euken, iñoskun Mateo'k. Scillo-batzailleak be ba-ei'ziran (a zan, ba, gure griña, izan be!), eta berarizko sorta ederra ei'euken. Etxean alabak eukezala —iñoan Mateo'k—, polita bietariko bat, ain polita ez bigarre-na, baiña biak biotz onekoak eta alaiak. Umeak, eurak ikusteko diran pelikula bat lagunuen batek azaltzen dautsela adi dago-zanez, alantxe gengoan adi Josu ta biok irugarren zorionekoak iñoskuzanak entzuten.

Turnhout'era eldu gintzazan. Gure ostalariak bizi ziran etxe ederra ez zan ez barrutik, ez kanpotik, orren oraingoa. Apain eta egokiro altzarituta egoan, Europa Erdiko antxiñako familien artean oi zan lako gustora altzarituta. Abegi onez artu genduzan etxagunak, bere alaba biak laguntzen eutsoela. Etxe-kandrea aspaldi zala il zan ezkerro, alaben eskua igarten zan etxeko zokondo guztietan.

Ara eltzean, datorren edonori beljikarrak eskiñi oi dau-tsoenez, kafe ta opiltxo batzuk eskiñi euskuezan.

Aita Peters alkarrizketaren bat egitera etorri zan-eta, etxa-gunagaz alde batera egiñik, biak langelara joan ziran, euren gora-beerai buruz berba egitera.

Artetan, aizta bietariko «politena» (Mateo'k iñoanez) uritik kanpo euken egurats-etxera eroan genduzan. Bere aldi-koak baiño aurreratuagoa egoan neskatilla aske (libre) bat lez yoian bera kotxe ariñean. Laster gintzazan laurok familiaren landetxean. Baserri-etxea zirudian; etxeko larretan oillo, oillas-ko, txarri, zaldi ta beiak egozan. Euren «vrouwken» (etxekan-dratxoa) ikusiaz, pozik egozan artzain-txakurak. Basetxe ederra, igali-zugatz, abere, lorategi, ortu eta larraz inguratua. Ortiko guzurrezko beste egurats-etxeren antzik bere ez. Emen, guztia zan zintzo ta ederra, berezkoa, koipekeri bagea. Pozik bera, guri bere poz apurren bat emoteko; berez jokutzen eban berak «Cicerone»-jokoa.

Guretzat ederrena, aren tolesbagetasuna zan. Aberats-etxeko alaba gaztea zanarren, gu irurok bere adin eta mailla-koak bai'gintzan artu genduzan.

Sastrakaz inguraturik, kanpotik etorrenak ez ikusteko lez, ortuko zokondo baten, urtegi bat egoan. Eguraldi armiñeko uda-egunetan, bustialdi bat artu eta uger egiten eben etxe are-takoak eta lagun gazteak urtegi aren ur gozoetan. Urtegi-aurretik giñoiazala, irribarre bigun bat egin eban gure zuzentzaille politak. Aldi luzea ez zala, aizta biak urtegi aretan ugerretan ziarduela, an non agertzen dan euren aitagaz Aita Peters, larra ta ortuko aize gozoa artzera etorrela. Aizta bietariko bat baiño ez zan agertu, Aita Peters eta aita alkarrizketan etozala.

«Egun on!», esan eutsen.

Aitak bigarrena non ete-zan itandurik, «urtegian —erantzun eban arek—; baiña, uger egiteko jantzia urratu egin yakota, gugana etorteko lotsa da.»

Barre galantak egin ebezana biak. Guk ez, jazoriko ori azaldu euskunean. Aizta gazte polit bi areik maitagarri bi antzera urtegian uger egiten geure barruan ikusirik, zelan ez jardun amesetan iru umeok?

«Onezkerok, Aita Peters eta gure aitak euren alkarrizketea amaitu dabe —esan eban nesketariko batek—. Etxeratzeko ordua dala esango neuke.»

Urira eldu gintzazaneko, maia atonduta egoan: plater eta ontzi, ardao-botillak... gure aparitako. Jateko amesetan bizi gintzazan umeontzat berarizko aparti ederra. Ez patata legorrik, ez gure agiñak zeetzeko gauza ez ziran okela gogorrik. Jateko-rik piñenak, igali bigunak, maiazken zoragarria. A zan lur onetan goiko zerua! Gu, an, guztien aurrean, gauza gozo guzti areik jateko bildur gintzazan. Bai pozik iruntsiko gendukezala gure mai-aurrera ekarritako guztiak, bakartadean, iñoren ardu-bagarik, besteak gu ikusten ez genduezala... Baiña, bai etxagunak, bai alaba biak, arratsalde gozo ta egokia atondu nai euskuen.

«Artu emendiko onetatik... eta beste orretatik... Bai gutxi artzen dozuela! Emen dakartsuegun au, geure albokoan erakutsi dauskuen berarizko maiazken bat da... Ez ete-yatzue, ba, atsegin / oneik jatea? Zuen errian, beste era batera jaten dozue, bearbada...»

Betikoa, guztiak guri poz egiteko gogorik onenaz, eta guk gure jateko zaletasuna ezin ase.

Zelan edo alan, aparia amaitu genduan. Aita Peters eta etxeko Mijnheer'ek alboko gela batera aldatu ziran, euren alkarrizketa sakonari ekiteko asmoz.

Artetan, andereño biak gauza obeak eukezan gertatuta guretzat. Leenen, euren aitaren seillo-sorta ikusgarria erakutsi euskuen. Guri, iruroi, egin leuskiguen pozik andiena. Konin-gshof'en gengoanok, seilloak batzea baiño beste aparteko jolasketarik ez geukan. A zan, ba, gure atsegin ezin andiagoa, mundu guztiko errietako seillo-erreskadak ikusiaz. Iñoiz be ez ikusi, ez susmatu be ez geikezan seillo ederrak. Erakutsi bakarririk ez, emon be egin euskuezan, guk orduan esan oi genduan ez «lortzeko gatxak» ziran berarizko seillo batzuk. Kongo'koak artu genduzan. Areitariko bat, maite-mandatu edo orrelakoren bat itsasita eukana, emon euskuen, bakotxari bana. Mateo'ri eskupeko ederragoa egin eutsoen. Alboko gela batera etorteko, Josu ta biok zer izan ete-zeitekean susmotan gengoan. Andik laster, ara non datorkigun, asean eta betean, jantzi barri bat

gaiñean ekarrela. Orrelako «breeches-jantzia» zan guretzat, umeontzat, gure amesen elburua. Mateo'rentzat elburu ori beteta egoan.

Nekatuta, baiña pozik, amesetan lez gengoan irurok, Tournhout'etik etxeratu gintzazanean. Berandu zan Koningshof'era eldu gintzazanean, eta ez geukan iñor gu noiz etorriko zain. Zuster Gundrada bakarrik egoan an, artega, asarre, Aita Peters'i berba garratzen bat esateko gertu. Isilik eta bake-tsu sartu gintzazan gure logela andian. Guztiak lo egozan. Mateo'k bere anaitxoa iratzartu egin eban, eta «Nazari —esan eutsan—, begira emon dausten jantzi dotorea!»

Nazari, alde batera eginda gero, erantzunik emon bagarik, barrero lo sakonean murgildu zan. Lo eta nekatuegi egoan anai nagusiaren berbak entzuteko.

Nik egin neban irugarren osterea, Gante'ra izan zan. Ostera onetan Joseba izan neban lagun, Goierrri'ko mendietako mutiko tentel bat. Baserrian euskeraz baiño ez eban egin. Beljika'ra etorriaz, flamenkar-etxe baten artu eban; eta izkuntza barria ikasiaz batera, erraz aaztu yakon bere ama-izkuntza ederra. Ikastetxean gengoanontzat, ez zan ezelan be gauza erraza Joseba'gaz patxadazko alkarrizketarik izatea. «Bai», «Ez», edo berba bagako barre ganorabagaren bat zan geienetan aren erantzuna guk berba edo itaunen bat egiten geutsan bakotxean. Oso lotsorra zan ezkerro, gure artean egin ebazan asteetan, gero ta lotsorragoa biurtu zan. Zuster Gundrada'k —beste iñok ez— bere poza agertzen eban, gure mutiko onek bere izkuntza latza ain erraz egiten ebala-ta. Ez ete-zan bera, ba, gu guztiontzako eredurik goragarriena? Kristau-Ikasbideko erantzunik flamenkeraz buruz emon eikena!

Berez, geure taldeko mutikoren bat izentatzen eusten bide-laguntzat; baiña egun onetan, nik zegaitik ez dakidala, berau jarri eusten laguntzat. Epailleko (martiko) domeka bat zan Aita Peters'ek Gante'rako ostera bat egitera artu genduzan eguna. Bera Koningshof'era ezin etorri zeitekeala-ta, Mijnheer

Hendrickx, gure ikastetxeko arduradunak, eroan genduzan bere kotxean, Aita Peters bizi zan Iñaki Deunaren Ikastetxe Nagusira.

«Institut Saint Ignace» —auxe zan aldi onetan bere izena'— Beljika-taldeko jesulagunak zuzentzen eban Ekonomi-Jakintzarako Ikastetxe Nagusia zan. Uri zaarrean, Prinstraat (Erregaiaren kalea) eritxon kalean egoan, 13'an. Bee-Lurretako erara eregia, etxea adrilluzkoa zan. Koningshof'en gengoanontzat, «Saint Ignace» esan eta Aita Peters etxe orretan ugazaba zala uste izatea, gauza bat ziran. Berez, etxe aretan bizi bai, beste jesulagunkideakaz batera bizi zan bera, baiña bestela ez eukan Ikastetxe orreaz beste zerikusi andirik. Gu guztiokaz —Ikastetxe orretara lantzean-bein giñoiazan besteokaz— zelan edo alan zerikusi eukan beste persona interesgarri bat be bizi zan Ikastetxe orretan, Azpeitia'n (Iñazio berbera jaio zan errian) jaiotako euskal-jesulagun anai laguntzaille bat. Urteak ziran anai au Beljika'n bizi zala. Jesus'en Lagundia España'n sakabanatu zanean, arek Beljika'ra jo eban, beste jesulagun askogaz batera; eta, Francotarrak garaille agiritu, areitariko geienak etxeratu ziranean, bera Beljika'n geratu zan, Anberes'ko Ikastetxe onetan, jaiotez beljickarra bai'litzan. Persona interesgarria zan bera, anai laguntzailleak geienetan oi izan diranez. Esan dodan au egiazteko, urte asko geroago neuri jazoriko bat azalduko neuke.

Amarren bat urte geroago, Lobaina'n nengoala, Bilbo'ko nire abade ezagun bategaz Aita Pierre Charles entzutetsuagana jo genduan. Nire abade-lagun ori oso misiozalea zan-eta, Aita Charles'i itaun batzuk egin nai eutsazan. Alkarregaz izan eban izketea amaituta, «agur» esateko egoala, azken-itaun au egin eutsan: «Ze mandatu eroan daikeoet nire lurreko lagun eta erritarrak, zu lako misioolari andi bategandik?»

«Kongo'ko gure misio-lanerako euskal-anai laguntzaille batzuk, zenbat eta geiago obeto, bialdu daiskuezala», izan zan Aita Charles'en erantzuna.

Orreitarikoa zan gure Azpeitiarra. Lau izkuntza ekizan: Azpeitia'ko bere euskera gozoa, España'ko urteetan errikokolan eta geroago beste jesulagunakaz ikasitako erdere, prantzerea (Anberes'ko jesulagunen artean bizi zan bati egokio-nez), eta flamenkerea (ikastetxeko langille edo beste anai-lagunakaz artu-emonak erabilteko, antza). Ez zan, ez, bere izkerea —Don Manuel'ek bein eta barrero iñoskunez— garbi ta «akademikoa», baiña bai beste era eta mailla guztietariko personakaz berba egin eta bere gogoetak adierazoteko aiñakoa. Izkuntza asko, arazoak be beste orrenbeste. Mekanikoa zan, chauffeur-a, mandataria, eta Aita Peters'en logela ta aretoa garbi eukiteko ardurea be ba-eban. Eta nik susmatu daikedanez, beste arazo geiago be beteten ebazan, urrean. Ni Ikastexera leenengoz joan nintzanean, a zan nik artu neban izua, bera



Koningshof. Eusko-ume taldea Don Manuel'egaz.

mekaniko baten erara jantzita ikusiaz! Zelan izan zeitekean bera jesulaguna, onela jantzita dagoana? Urrengoan (onetan prantzeraz egiteko edo elizara joateko gertu egoan, antza), abade-jantzi agurgarria eroian. Orrelakoa zan, ba, Azpeitia'ko gure jesulagun-anai laguntzaillea.

Joseba ta biok Aita Peters'en gelara eldu gintzazanean, an ziarduan azpeitiarrak aretoko azkenengo autsak kentzen. Iru-lau berba esan, lana amaitu eta gu soillik itzi genduzan. Ez zan gauza erraza Aita Peters'ek eukazan liburu askori buruz edozelako izketarik Joseba'gaz izatea. Liburuak izan, naiz larra-bedarra izan, «Bai», «Ez», edo ganorabagako barreren bat zan gure Joseba'ren erantzun bakarra. An gengoan, ba, biok, aurrez-aurre gure aulkietan jesarrita, batak besteagana begira eta tutik esan bagarik, senar-emazte asarratuak bai'gintzan.

Don Manuel'en bitartez, nik biotzez ain maite neban nire seillo-sorta eroateko esan eustan Aita Peters'ek. Sarritan emoten euskuzan berak, eta berak jaso edo ezagunen batek emoten eutsazan alde guztietako seilloak. Umeoi poz ori emoteak, berari be poz andia emoten eutsan. Beste egiteko apartekorik ez geukan mutikook. Pozik asi gintzazan, ba, guretariko banaka batzuk, guk etxetik artzen genduzan seilloak alkarregaz eta, batez be, beste etxeko umeakaz artzen eta emoten. «Solo»-margarinarenekoak ekarri oi euskuezan kuaderno-orrietan itsasten genduzan gure seillook, eta, besterik euki ez-eta, xabobitsaz itsasi be. (Gure leenengo seilloak erre ta alperrik galduta geukazan.) Geroago, beste tresna batzuk erabiliko genduzan gure seilloak kuadernoan itsasteko.

Aita Peters'ek emon geienetan, baiña eskatu be egiten euskun gure sortetan geukazanetatik. Guretariko batzuk sutu egiten ziran orrelakoren bat egiten euskunean. Esker-txarreko umeak! «Ez diot niretarikorik emango —iñoan bein asarre-bitsetan Mateo'k—, naiz-ta ori dela-ta, Turnhout'eko aiek neri eman zidaten trajea kentzen baldin ba'dit ere. Zer uste du urak?...»

Domeka onetan, ba, nire sortatik seillo batzuk artu ete-  
eikezan itandu eustan Aita Peters'ek. Zelan esan nik ezetzik?  
Ez eukan aukera andirik. España'ko batzuk, Malta'ko bat. Zer  
emon neikeon nik, neukazan geienak beragandik edo bere bi-  
tartzet jasota neukazan-eta? Berak kutun eban Merksen'go anai  
baten semearentzat ei'ziran. Eta iru-lau seillook batuta gero,  
neuretzat be esku-sari eder bat eukala esan eustan: bere anai  
orregandik arturiko «breeches»-jake bat. Gutxi zan, ba, nik  
emoniko seillo banakak emotea, beragandik artzeko nengoan  
sariaz bardindu ezkeru.

Leen esan dodanez, arro egozan gure artean orrelako jake-  
ren bat eukenak (batzuk, esaterako Arroita'renekoak, Donos-  
tia'tik ekarrita; beste batzuk emen artuak), eta amesetan berak  
eukan lako jakerik ez geukanok.

Gure Euskalerrian, muga-aldetik etorritako banaka batzuk  
izan ezik (gure Berrio-Otxoa'ko Irun'go anai biak, esaterako),  
orrelako jantzirik iñok ez eukan-eta, arrotz eta atzerritar emo-  
ten eban soiñeko orrekaz jantzita egoteak. Etxeratuaz, egunen  
baten, gure Bilbo'ko «atzeratuai» esan aal izango geutsen arro:  
«Begira non egon garean, egon be!»

Niri Aita Peters'ek emondakoa baltza zan, eta belaunetan  
naikoa ondatua. Zuster Gundrada'k bere lantxoak egin bear izan  
eban, belaunak konpontzeko... (Egunen baten Seminaria joan-  
go nintzala uste aal izango ete-eban, ba, gure Aita Peters'ek?)

«Zoaz alboko gelatxo orretara, soiñekoak erantzi, eta eka-  
rri dautsuedazan oneik jantzi egizuz. Jazki au zelan dagokizun  
ikusit nai neuke. Zuretzat ez, Jose edo besteren bati ondo eto-  
rriko yako. Ez izan ardurarik: urrengo baten be, zuri ondo da-  
gokizunen bat lortuko dot.»

«Egaz eun baiño, naiago bat eskuan!», erdaldunak diñoen  
esakerea etorri yatan burura neuri be une aretan.

Gelatik urten nintzanean, arro nengoan eta alai, Anbe-  
res'ko prakagiñik onenak berariz niretzat jantzi baltza, belau-  
netatik erdi zulatua, egin bai'leustan.

Aita Peters, ni pozik ikusirik, pozik egoan bera be. Jose-  
ba'k (zer itxaron besterik beronegandik?) ez eban arritziarik ez  
bestekorik agertu. Bardin yakon ari nik praka laburak edo  
luzeak eroatea, leengo soiñeko zaar edo oraingo jantzi barri-  
dotorea jartea.

Gante'rako bidea artu genduan. Gu artzen genduzan ostera  
guztietan egin oi ebanez, laster ikusteko uri ederraz zerikusi eu-  
ken istoria-jazopenak azaltzen euskuzan (Joseba ez, neu soillik  
nengoan arek esanai adi). Gante'n jaiotzala Karlos V kaiserra  
(gure eskoletako istoria-liburuetan «España'ko I» zana). Nik ola-  
korik iñoiz entzun ez, edo, bearbada, zelan ikasi alan aaztu. Izan  
be, España'n jaiotzala uste neban. Aita Peters'ek esandako ba-  
rriak, ba, arritziarik itzi nenduen. Bilbo'ko (eta geroago Igorre'ko)  
gure Anai irakasleak, geienak Kastilla'tik etorriak ziran ezkeru,  
ez zan arritzekoa edo eurak esan edo geuk uste, munduko gauza-  
rik andien eta garrantzitsuenak Kastilla'tik sortuak zirala. Zelan  
jaiotzala, ba, «atzerrian» «gure» Kaiser andia?

Kaiserra jaiotzala zan gaztelua, bazkaria izango genduan janto-  
kitik naikoa urr egoan ezkeru, geuk nai izan ezkeru, bazkal-  
ostean Joseba ta biok gaztelu ori ikustera joan geintezkera  
esan euskun gaiñera Aita Peters'ek. Beraren zain egon bearre-  
an, Gante'ko ikusgarriak begiratzea ondo letorkigula.

Lur leunetan zear, eldu gintzazan noizbait be Gante'ra.  
Uri zaararen erdian egoan jantoki batera eroan genduzan.

«Zer artu nai zeuke?»

«Ezer esatekotan, eguneroko patata legorak ez daitezala  
izan!»

Bazkari merke bat —«patata prijiduak eta urdankako-  
tea»— guri ekarteko esan, Gaztelura zelan eldu geintezkan  
azaldu, noiz eta non beraren zain egoteko jakiñerazo, eta, gu-  
gandik alde egiñaz, jantokian geu soillik itzi genduzan.

Domekea zan, eta jantokia lagunez beterik egoan: sendi-  
emazteak, neska-mutil gazteak, mutilzaar antzeko gizon alaiak;  
jaten batzuk, garagardoa edaten beste batzuk. Guztiak dome-  
ka alai bat ospatzeko asmoz.

Lotsorra zan Joseba. Neu be, gizon eta emakume-talde onen erdian ez nengoan pozik. Nortzuk ziran eurak? Nok ulertu ezer inñori ango zaratotsaz? Ixil-ixilik gure patatak eta urdankakotea aalbait ariñen iruntsi eta jantoki aretatik alde egin genduan. Ezer ordaindu-bearrik ez geukan. Aita Peters'ek ordaindu eban aurretiaz, gure ordeztu, bazkaria.

Gatzelura eltzeko asmoz, uriko kanal-ertzetik egin genduan ibilketak ez eban atze onik izan. Joseba'k eta biok bardiñezkorik tutik be ez geukan-eta, alkarrizketa baiño alkar-isilla euki genduan bion artean. Alkar-isil ori onelako berbak apurzen eben lantzean-bein: «Ederra da au, ez ba?» «Bai, ederra». «Goierrri'koa zara zu jaiotez, ez ba?» «Bai, Goierrri'koa».

Joseba'k, berak, ez eban itaunik egiten. Edo itauntzekorik euki ez, edo ezer esateko lotsa izan.

Beste era bateko ardurak neukazan nik une aretan nire barruan, baiña onelakorik ezin Joseba'ri jakiñerazo. Ez ebazan ulertuko.

Erabagitako orduan an egoan jantoki-aurrean Aita Peters, antxe gu biok be.

Anberes'erako bidean berba gutxi egin genduan. Zer esan guk ari, Gante'n ez genduan ezer ikusi-ta? Zelan agertu bere azalpen guztiak alperrekoak izan yakuzana? Joseba laguntzat, ez egoala inñora joaterik?

Gante'ra eroan genduzan bidea artu genduan etxeratzerakoan, eta laster Sint-Niklaas'tik Anberes'ko inguruetara eldu gintzazan.

Eskalda'petik doan «Tunel» luzea arturik —oraingotan Aita Peters'ek eroanda—, beste umeak ogeratu orduko, an gengoan geu be ataurrean Koningshof'en.

Pozik nengoan ni alako eguna amaitu zala-ta, barriro be nire ogetxora joan neintekeala-ta. Baiña alperreko aalegiñak egin nebazan nik lo bare-zabala artzeko. Pozik baiño asarre nengoan, egun aretan jazorikoak zirala-ta. Asarre, nogaz? Asarre, nor zala-ta? Ze erru gure Joseba'k, gerra zoritzarrekoak aren baserritik atara eta geure artera bialdu ebalako?

\* \* \*

Batzuetan esker-oneko, esker-tzarreko besteetan, umeen artean sarri jazo oi danez, guretariko geienok biotzez maite genduan Aita Peters. Ume-zale agertzen yakun eta guri buruz apala, naiz-ta bera andia izan, eta gu guztiok gure erbesteko garbitokitik ikusten genduan zeru urdin apur bakarra, bera zan.

Ez, ostera, guztiok, niri min sakona egin eustan-eta, orain-txe azalduko dodan jazoera onek argitu daikenez.

Gante'ra joan eta aste batzuk geroago, ni Bilbo'ratu baiño zerbait leenago izan zan, urrean. Ez dakit ziur noiz. Gure artean oiturea zanez, guretariko «zaarrenak» patatak zuritzen laguntzen geutsan, orren arduraduna zan moja biotz oneko baiña adimen laburreko bati. Etxabeean, patataz beteriko upel andi baten inguruan jesarten gintzazan gure lan ori egiteko. An gengoan betikook: Mateo, Jose Luis eta onen anai Josu. Besteren bat be bai, bearbada. Orduko, asieratik egozanetarikorik geienak etxera biurtuta egozan-eta, gu baiño besterik ez zan gure artean egon, urrean. Betikook, ba. Oraingotan, orraitino, ez gengoan mutillok soillik. Lan orretan geure taldeko neskatilla bik laguntzen euskuen. Honorina zan bat. Barakaldo'ko alabea, neskatilla zintzo, garbi ta lanzalea, gure mojak eurenetariko bat bai'litzan maite eta estimatzen ebena. Adela zan bigarrena. Sestaoarra, begi urdiñezko neskatilla polita ta barritsua, gure artean aste batzuk baiño ez eroiazana.

Leenengo bizartxo agertzen yaken mutikoen artean oi danez, an genbizan guztiok arro gure neskatillatxoan aurrean, nor gizonago zan erakusteko gogoz. Gure alkarrizketa, ba, gero ta ausartiago biurtzen zan. Asieran zelako edo alako gordinkeritxoak baiño ez ziran guk gerabillezanak; baiña gero, norberaren eretxi eta ikusi ta biziak lagun zirala, beti arriskugarriago biurtu zan gure izketa.

Gure jokoa labanegi yoiala-ta, guretariko batek, auxe esan eban: «Ez dot uste, gai onetaz berba egitea ondo yakunik. Zer pentsatuko leuke Don Mateo'k onelako gure autuak entzungo ba'leuz?»

Don Mateo aitatuaz, ba-ekian guretariko arek gu guztiok arduratsuago jokatu genduala. Izan be, beste biak ez, baiña Don Mateo guztiok maite genduan. Gure izkera ori eten, eta une baten guztiok ixillean ekin geutsan gure lanari, beste gai bat nok asiko ebanaren zain.

«Ori bai tentelkeria!», esan eban onelako baten Adela'k.

Arrituta lez, beragana begira geratu gintzazan enparaduok. Eta neskatilleak barrero: «Lelokeri utsa da zuek diñozuen ori! Eurak be, besteen antzeko. Or dozue, esaterako, Aita Peters.»

Berbok entzunda, guztiok lotsaz gorrituta geratu gintzazan. Eta Adela'k: «Nik neuri jazo yatana dakit! Baiña, ez bai bagarik, zeuei be beste orrenbeste jazo yatzue.»

Eta berari jazorikoa azaltzen asi yakun Sestaoarra: Aita Peters'ek berba bigunak ekazala beretzat; kotxean artu edo etxera ekarten eban bakotxean, mosu bat emoten eutsala ma-traillan. (Besteok be, ori egia zala autortu genduan. «Agur» esatean, mosu bat emoten euskun geuri be, baiña ez genduan ori iñoiz txartzat artu. Alde batetik, gurasoak urrun, maitasun bagarik, umeok esker-oneko gintzazan, norbaitek onela maite genduzala ikusiaz. Eta bestetik, ori egitea, ez ete-zan oitorea Beljika'n?)

Eta Adela'k: «Baiña bein, gauza okerragoa jazo yatan! Ostera bat egiteko zala-ta, laguntzat bere kotxean artu nenduan. Bidean giñoiazala, beti lez, gozokiak emon eustazan. Eta onelako baten, «benetan gozo zan gozoki bat eukala!», esan eustan. Ori entzunik, barruan susmo bada-ezpadakoa sortu yatan; baiña, ari naibagerik ez emotearren, eskiñitako gozokia artu egin neban. Andik alditxo batera, burua oso nekatuta eta lausotuta lez neukan. Ez naz geiago gomutatzen onen ostean jazo yatanaz. Iratzartu nintzaneko, gu giñoiazan urira elduta gengoan. Bere besoetan, umetxo bat lez, neukan Aita Peters'ek, eta irribarrez iñostan: «Orren nekatuta zengoan? Ostera osoan, lotan lez, barbarik esan bagarik egon zara.»

«Nik barre egin neutsan. Zer egin neikeon besterik? Baiña laster konturatu nintzan, norbaitek, niri jantziak kenduta gero, ni bestetan jazten nazan baiño beste era batera nengoala jantzi-ta. Argi egoan norbaitek ni ikutu ta mosuka erabili nenduana.»

Ordurarte guztiok arduratsu gintzazan. Baiña bein euskiñak ausi ezkerok, nok eutsi urai? Arresiak jausi ezkerok, esan urai astiro joateko! An gengoanetariko geienok, edo norberaren edo iñogandik entzunikoak azaltzen edo kontatzen asi gintzazan. Adela'ri jazorikoa antzekorik ez yakon iñori jazo; baiña bata eta besteak, geienak, ari buruz zer esanen bat euken. Eta, orrelakoetan jazoten danez, norbera aurrekoa baiño ausartiago izan nai genduan guztiok. Neu nintzan an tutik be ez niñoana. Agoa itxita, begiak lurraren ganean lez lotuta, mutiko ta neskatoen aurpegira begiratzeko lotsa nintzala, an niarduan nik, iñoiz baiño arduratsuago patatak zuritzen. Nire lagunak barrezka, bata besteak baiño istoria ausartiagoak azaltzen ebazala, ni lotsaz gorrituta, eurak «neskatillatxo»-tzat nenduen oni barre egiten eustela.

Bestetan baiño geiago luzatu zan illuntze onetan gure lana. Etxabeearen arduraduna zan moja zaarrak be — guri iñoiz ulca mozten euskunak—, geugana etorrita, patatak zuritzen lagun egin euskun. Gu barre egiten ikusirik, berak be barre egin. Zer zala-ta egiten genduan guk barre, ez ekian alako errukarriak. Neska-mutiko talde alaitsua baiño ez gintzazan gu arentzat.

Patata zurituak eskaratzera eroanda gero, etxeko pasai luze-illunetatik geure geletara eldu gintzazan. Bakotxa berera: mutikoak irugarren pisuko geure gela andi-zabalera; neskatokak —gutxi ziran-eta— pisu bat beerago egoan euren gelatxora.

Patatak zuritzen giarduala erabili genduan gaiari buruz, guztiok lotsatuta lez gengoan. Orduan ain alai esandakoak barrero aitatzeko adorerik be ez geukan. Esker-tzarrekoak gintzazala erakutsi, eta maite genduan Aita Peters lokatzaz bete giarduala geukan gure barruan.

Andik egun batzuetara, autortzera joan gintzazan. Biaramonean Jesus'en Biotzaren 1.º barikua genduan-eta, onelako



jaiegun-aurregunetan oiturea zan autortzera joatea. Don Manuel —edo, berau zerbaitegaitik Koningshof'en ez egoanean, Don Eustakio —agertzen yakun autorlekuan. (Don Mateo ez zan iñoiz agertzen.) Autorlekuaren ezkerretara, elizako atearen alboan egoan aulki luze baten, umeok belauniko jarten gintzazan, autortzarako gertatzen gintzazala.

Gure aulki ori autorlekuaren albo-alboan egoan ezkerro, gure aurrekoaren autortza ez entzuteko, munduko aalegiñak egin bear izaten genduzan. Autortzara giñoiazanean, txikarrok asieratik bananduta joaten gintzazan. Aitazen dodan egun onetan, «gure» txandarako, neskato-taldekoak be autortzara agertu ziran, eta euron artean baita geure Adela be. Guztiok, zelan edo alan, arrituta geratu gintzazan, Adela an geure artean ikusiaz. Guztiok gekian, bai ondo jakin be, Honorina ta beste neskatoak lako eraspentsua Adela ez zana. Beronen gurasoak «gorriak», Elizeaz zerikusirik ez ebenak ziran ezkerro, bera be kristaua ete-zanentz gengoan guztiok. Baiña egun onetan, an egoan bera, belauniko, nire urrengo autortzeko gertu. Zer zalata?

Asi neban nire autortza. Bere autortza aalbait ondoen egin nai leukean eta zertzelada guztiak esan ezik autortza ori zelan egin ez dakian umearen erara, neuk be alako illuntzean etxabe-ean esan eta entzundako guztiak esatera bearturik nengoala uste neban: besteak esan, eta nik entzun eta isillerazoteko adorerik izan ez nebazan guztiak. Egun aretako jazoera guztiak autortzen niarduala, nire albokoak euren artean erabillezan gorra-beerak entzun neikeazan. Izugarria zan niretzat une aretan bide bi onein erditik, nire burua ukatu bagarik, irugarren bide bat aurkitu ez aal izatea. «Autortza on» bat egitea erabagita neukan, eta oraingotan nire autortza orren ondorenak jasatera (eroatera) bearturik nengoan.

Don Manuel adi-adi egoan nire autortza entzuten ebala. Bere ezkerreko zapia noizean-bein esku-artearen igurtziten eban (izerdia zan, ala geure arnasea?). Berbarik ez, autortzarako nai-tanaiezkoa izan ezik. Egun onetan, orraitiaño, izerdia dariola egoan,

artega, ezpan-eraginka, bere buruaz berba egiten edo nik azaltzen neutsan jokaerea zala-ta, asarrea ixillean erakutsi gurarik.

Autortza amaituta, arnasa sakona artu eban. Orain aren berba asarreak entzun bear izango nebazan. Asieran leun eta bare egin custan berba; baiña, onelako baten, asarre jarrita, biotzetik etorkiona aurpegira jaurti eustan: «Beti bardin «maketo» orreik... Ainbat gauza on artu, eta zetako? Esker-txarre-kook!»

Oben-nekea entzun, eta autorlektutik alde egin neban.

Aulkira niñoiala, nire begi lotsatuak Adela'ren begietan tope egin eben. Sestao'ko neskatoak bere ukabilla erakutsi eustan. Ezagun zan bion artean burrukea sortu zana, eta burruka orretan —onen bildur nintzan ni— bakarrik egon bear izango neban nik nire lagun guztiak neure aurka nebazala.

Laster urtu ziran, orraitiaño, nire bildurrak. Autortzara joan ziran nire beste lagunak, eta egun onetan zegaitik edo agaitik joan ez ziranak be, alako illuntzean jazorikoaz lotsatuta eta garbatuta egoan.

«Ez izan ardurarik —esan eustan Mateo'k elizatik gure betiko gela andira giñoiazala—; ordukoak besteok be autortu doguz. Adela ez da iñoiz neskato ona izan, eta zabaldu dauan guztia bere biotz zantarretik sortua da. Autortzara eta Jaunartzera be ba-yoian, bai, domeka ta jeiegun guztietan. Baiña zegaitik? Mojai poz emon eta onela arekandik nai eban edozer lortzeko asmo bakarraz. Mojak Honorina'ri eutsoen maitasuna, berak be euki nai! Baiña ez ebazan sinisten besteok sinisten doguzan egiok! Alako aurpegi biko neskatillarik...!»

Aste batzuk baiña ez ebazan egin gugaz Adela'k. Guretarikoakaz eukazan artu-emonak oso urriak eta motzak izan ziran aldi orretan. Ona emen zegaitik aurkitu ez eban gure beste mutillen artean laguntza eta babesperik. S'Gravenwezel'go «lau andiak» illuntze aretan, patatak zuritzen, jazorikoak entzun ebezanean, gauza guztiak okerrago jarri ziran gure Adela'rentzat. Eta nik nire burua nasaiago ikusi neban. Onelantxe amaitu zan jazoera negargarri ori.

Ez dot nik uste guzti onen barririk Aita Peters'en belarrietara eldu zanik. Aurrerantzean be, aspaldi zanetik lez, geurera etorri zan. Pozik gengozan umeok, Zuster Gundrada'k ari laguntzeko dei egiten euskun bakotxean, pozik aren eskupekoak artzeko, bere gozoki ta jantziak eskuratzeko, pozik, Koningshof'era ekarten genduzala, bere mosu bigun bat artuaz. Illuntze aretan esan eta entzundakoak, ames larri bat baiño ez bai'litzaz.



## ZUSTER GUNDRADA

Nire bizitza osoan era guztietariko mojakaz zerikusi andia izan dot. Baiña ni Beljika'ra erbesteratua izan baiño leen, oso gutxi izan ziran nik ezaguturiko mojak, eta ezaguturiko orreik, nire amaren aizta biak izan ezik, nire umezaroko laiñoetan esalduta lez neukazan. Umetxoa nintzala, orduan gu lako ume koskorrentzat bestelako eskoletan leku egokirik ez egoalakoedo, bearbada amatxok bere umeak emakumeen esku bigunetan obeto babestuta egongo zirala uste ebalako-edo, ni lau urteko nintzala, Karmeldarren alboan «Maitasun Aiztak» zuzentzen eben eskolara bialdu nenduen. Orduko, gure Iñake be an egoala-ta, arek nire ta Benantzi'ren ardurea artuko ebala uste izango eban ezbai bagarik amak. Egunak baiño ez nebazan egin nik eskola orretan. Beti negar baten, beti Iñake'gana joateko «arrantza» baten, gure «Maitasun Aiztak» be ume etorbarri oneaz gogait egin eben, eta ni lako batentzat beste edonon leku egokiagoa aurkituko leukela be esan eutsoen amari. Or dozue, leenengoa ta bakarra, nire mojai buruzko esperientzia.

Nik baiño esperientzia luze ta sakonagoa eukan Bermeo'ko izekoarentzat, «Moja puxikak!» ziran nolabait mojak. Berba orrekaz izeko Mari Juana'k zer esan nai ete-eban, ez dot iñoiz argi ikusi. Baiña, edozela be, gauza onik ez.

Ekeren'dik, ba, Koningshof'era ekarri nenduenean —eta, ain zuzen be, mojetxe batera—, Bermeo'n umeakaz egin oi zan «ondokarri»-ren antzeko esperientzia barri bat euki neban, bai euki be.

Ni ume nintzala, nire jaioterrian uger egiten jakin ez, eta uretan sartzen bildur ziran umeai, ondartzan egoan zulo batera

olgetan etorrerazo eta, umea bere joko-amesetan egoala, ango nagusiak uretan murgilduko eben. Niri itsasontzi-kapitana zan Jose Mari Beotegi'k, nire lagunaren aitak, egin eustan «ondokarri» ori, eta, egia esan, ez yat egun a onen erraz aaztuko.

Koningshof'eko «ondokarria» be naikoa bardiña izan yatan. Nik mojak zer ziran ez nekiala, arean arein bildur nintzala, ara non murgiltzen nabon mojetxe baten.

Ba'al-dago «ondokarri» gogorragorik?

Baiña laster baretu ziran nire bildur eta eztabaidak, laster biurtu zan maitasun nik mojai neutsen oztasuna. Niretzat eta nigaz egozan euskal-mutil koskorrentzat, ama baten antzeko, maitatzaille, arduratsu, noizean-bein gogor, izan ziran moja areik.

Guri buruz zerikusirik geien eukenak iru edo lau baiño ez ziran: naikoa zaarra bata —gu geien maite genduzana, eta orregaitik gu beti aurrean gerabizana—, oso gazte ta bigunak besteak.

Zuster Gundrada eritxon moja zaar ari. Berez, gugaz prantzeraz egiten aalegintzen zan bera, guk besterik ez gekialako. Gazteleraz be iru-lau berba ikasita eukazan, une berarizkoetan erabilteko. Baiña, orregaitik edo aregaitik, gure erruz asarre jarten zanean, flamenkeraz egiten euskun, baserritarren bere izkelki traketsez. «Verdeke toch, protz van jonge a jij se!», zan asarre egoala, trumoiaren antzera jaurtiten euskun purrustadea. Gu, flamenkerarik ulertzen ez genduan ezkerro, ez gintzazan larregi asarratzen, orrelakoakaz etorten yakunean. Itsasoak be, zenbat eta asarreago agertu, azal-ganeko galarrena dakarrela ezagun ei'da. Guk be, ez geutsan jaramon larregirik egiten-eta, urrengoan be barriro bere purrustadakaz etorriko yakun. Geroago, urteak joanda, Beljika'ko nire lagun bati berba areik zer esan nai ete-eben itandu neutsan, eta arek erantzun: «Gauza argirik ez!» Izan daiteke, nik moja aren berbai ondo ez eustea; baiña, nire ustez, akatsa ez egoan nire belarrietan, aren agoan baiño. Aitita zaarrari antxiña entzuniko berbak, guri «arrantzaka» esaten euskuzan berbak ziran-eta, nok ulertu aal izan baserritar asarratu baten berbak?

Edozela be, biotzez maite eban gure Zuster Gundrada'k bere erria eta bere erriaren izkuntza, naiz-ta aldi areitan, bai erria, bai izkuntza, Beljika'ko andikien artean oso zapalduta egon.

Edo otz edo euri egin, edo guk kanpora joateko gogorik ez-eta, etxe barruan geratzen gintzazalako, laster etorriko yakun gure Zuster'a bere erri-kantak irakastera. Gabonak-aldean batez be, areik ziran aalegiñak gure belarrietan Flandes'ko Gabon-kantak sarrerazoteko! Edo belarri txarrekoak gintzazalako, edo buruz ikasten genduan ulertzen ez gendualako, edo eskola-modura an jesarrita egoteko gogorik ez gendualako, sututa jarriko yakun gure atsoa. Areik ziran gure barreak, berak guri Gabonetako «Stille Nacht» irakatsi nairik, guk beste edozelako kanta barregarriren bataz erantzuten geutsanean!

Bein, bidezko danaren mugatik aurrera egin eban berak. Aspaldi zanetik geukan ikasita Beljika'ko Erri-Ereserkia. «La Brabançonne» prantzerazko aren izena, baiña guk flamenkeraz ikasi genduan ereserki ori. «Après des siècles d'esclavage...» ez, «O Belgiëland, o edel Land der Belgen...» baiño. Pausu ori emonda gero, Zuster Gundrada'k joanerazo nai euskun urrengo pausua / Flandes'ko abertzaleen ereserkia ikastea zan. Ez egoan oker (Flandes'en gengoan-eta) ereserki ori ikastea. Baiña orretarako egoki zan unea aukeratu eban: gu Anberes'era kanta eta dantza egiten joan bear gintzazan egun berbera. Asi zan, ba, arro gure Zuster'a, guri abertzaleen ereserki ori irakasteko gogoz: «Zij zullen hem niet temmen, de fiere vlaamse leeuw...» «Ez dabe, ez, otzanduko Flandes'ko leoi arroa».

Guk egun aretan kantatzeko gogorik tutik be ez genduan. Arratsaldean be, naikoa kanta izan zan Iñazio Deunaren Ikas-tetxean.

Ori zala-ta, gure Zuster Gundrada'gaz «leoi arroaren» kanta ori ikasteko, beste iñoiz baiño zaletasun urriagoa agertzen genduan. An asi yakun bera be bere erriko leoiaren antzera arro: «Euren ereserki ederra ikasteko guk gogorik ez? Ba, ez gintzazan gela aretatik urtengo, ereserkiaren azkenengo berbak, «umearen arima errubagea» aitatzen eben berbak ikasi arte.»

Nai-ta-ez, makurtu egin bear izan gintzazan, ba. Ereserkia ikasi genduan, azkenengo «ume errubagea»-ren berbak be ikasi genduzan, baiña gure ezarriak aste bitan jarraian berba egin dauan sermolarien antzera egozan. Eta arratsaldean, laguntalde baten aurrean, gure «Ator, ator» eta «Boga, boga», bein eta barriro kantatu bear...! Ez dot iñoiz igaro arratsalde orretan eroan genduan beste lotsa. Gure ikastetxeko euskal-umeen ongille ziran ainbat gizon, emakume ta ume alkartuta egozan. Ongille orrei gure eskerrona erakutsi nairik, euskal-dantza ta kanta batzuk gerturik geukazan.

Bere Anaidiko Prailletxe edo beste etxeren baten bizi zan Aita Arrue prantziskotarra etorten zan gure dantza ta kantai laguntzaille izatera. Trebetasunik andienaz ekian arek pianoa joten-eta, nasai gengoan guztiok bera geure artean geukanean.

Egun aretan, orraitioño, zegaitik ez gekiala, ez zan agertu gure Aita Arrue jesuiten Ikastetxean. Zer egin? An batu zan laguntalde andia ezin geikean beste bagarik euren etxeetara esku-utsik bialdu-ta, bai dantzak eta bai kantak antzeztea izango zala egokien, uste eben gure abadeak. Etxeko zokondoren baten pianoa ainbestean be joten eban gazte bat aurkitu eta geurera ekarri eben. Gure Ezpatadantzako notak emon, eta an asi zan, musikeari antzik be emoten ez eutsala. Don Mateo guri geure abotsaz laguntzeko esaten. A zan Babel'go naastea, bakotxa bere aldetik ebillela!

Dantzok zelan edo alan amaitu genduzanean, Gabon-abetien txandea zan. Orretarako ez genduan piano-laguntzarik bear; Jose Luis eta Mateo'ren ezarriak be, «leioi-arroa»-ren abestia zala-ta, erdi-kiskalduta lez egozan, eta teillatu-ganeko katarrak baiño indartsuago kantatzeko be ez ziran gauza.

A bai lotsea, guk arratsalde aretan eroan bear izan gendua!

Gure areto aretatik kanpora goiazala, ara non aurkitzen gaituen Ikastetxe aretantxe ikasten egozan Barzelona'ko ikasle batzuek. Familia eskumaldekoak izanik eta etxetik alde egiñak, ezagun zan gu eurakana gure dantza, kanta ta ikurriñakaz joa-

tea oso txartzat artuko ebena. Euren asarrea agertu ta erakusteko, falanjisten banderakaz, España'ri goraka eta kantaka etorri yakuzan. «Leoi arroa»-ren ereserkiak asi zan egunak, burrukan amaitzeko antza emoten eban. Pozik be pozik geratu gintzazan guztiok, gure buruak Koningshof'eko geure txokoan ikusi genduzanean...

Gure kantakaitik eta Barzelona'ko gazte lotsabageakaitik, gure Don Mateo sutan egoan.

«Zer dala-ta egin dozue ori, egin be?», itandu euskun.

Guk, guztiok, gure buruai Adan billoiztuaren antza emoten geutsen, baiña ezpanetan erantzunik ez.

Azkenengo Adan'en erantzunaren antzekoa izan zan gure erantzun lotsatia: «Zuster Gundrada'k Flandes'ko ereserkia ikaserazo dausku goiz osoan, eta guk ari ezin ezetzik esan.»

Jainko-antzera joan zan gure Don Mateo goizeko Eba'gana, baiña ari ezer esan ete-eutsan ez genduan guk geiago jakin.

Orrelakoa zan gure Zuster Gundrada.

Baiña amama zaar baten antzeko biguna izaten be bakian arek. Bere illobatxoak gintzazan, guri edozetan laguntzeko beti gertu. Beljika'tik etorri gintzazan guztion artean, geu gintzazan alde batetik zorionekoenak. Aberritik urrun egonarrren, Euzkadi txikitxo bat aurkitu genduan gure alboan. Baiña, bestetik, etxe bakarretara joan ziran umeen aldean, bai bizikera gogor eta latza gurea! Oneitarikoak guretarikoren bat ikustazera etozanean, edo eusko-umeen jairen bat zala-ta, Anberes'en guretarikoak eta euretarikoak alkartzen gintzuzanean, bai beartsu ikusten genduzala guk gure buruak! Euretariko geienak burua «bisera» dotore bat azpainduta erabilen; «breches» eritxeen jake ta prakak. Geienetan, «guraso» maitatzaille ta lagun onez inguratuta agertzen ziran, besteakaz erri-izkeraz egiten ebela.

Guretarikoak, oster, besterik ez geukalako-edo, artetan be geure Euzkadi'tik ekarritako jantzi arlotek gerabillezan, edo geienbat familia aberats baten ondakiñak, Koningshof'eko «españar» ume saskelentzat ekarritako ondakiñak. Ez zan arri-

tzekoa, angoak eta emengoak batzen gintzazanean, besteak gugana eskekoak bai'gintzan begiratzea.

Zuster Gundrada biotz samurrekoa zan ezkeru, naiz-ta bera aberatsa izan ez, guretzat zerbait lortzeko asmoz, goikoak eta beekoak bultzatuko ebazan. Hendrickx jaunagana, Ikastetxeko kapeillauagana joko eban guretzako zerbaiten eske; edo Aita Peters gure laguntzaille berarizkoari, guretariko bakotxak bearrezkorik ebana jakiñerazoko eutsan; edo, Ikastetxeko jantzi-arduradunagana joanda, arrenka, guretzako zerbait lortu. Gauzarik barregarrienak jaristen euskuzan bein baiño sarriagotan. Ni Koningshof'era leenengoz etorri nintzanean, barre egin bear izan neban gure eusko-umeren batzuek erabillezan oiñetakoak zirala-ta. Ez ziran, ez, ume edo gazteen zapatak, kalean iñoiz ikusten ez diran zapata-antzekoak baiño.

Laster agertu eusten gure umeak zapata areik nondik etozan. Mojentzat eurentzat egiñak ziran zapata areik, eta, gureak besterik ez eukela-ta, an etorri yaken Zuster Gundrada mojen oiñetakoakaz. Amaren maitasun sakona zelakoa, alakoa zan guretariko batzuen eskerrik-eza. Orretan, Algorta'ko Jose Pérez zan mutilla! Eskumako oiñean zapatea artu eta oiñari indarra eragiñaz, an yoian zapatea aidean norbaiten lepora edo ipurdira. A zan gure Jose'ren poza joko orretan beste batzuek bere inguruetan ikusten ebazanean eta besteak baiño trebeago zala agertzen ebanean! Ori zegaitik egiten ete-eban iñok itauntzen ba'eutsan, «A ze! Mojen zapatak baiño ez dira!», zan aren erantzuna.

Gure Zuster Gundrada'ren samurtasuna ta biguntasuna, zetako? Orrelakoa zan, ba, gure Zuster Gundrada.

Baiña bera bakarrik ez. Biotz-oneko yakuzan, Koningshof'en gengozanoi, gutzaz zerikusi euken moja guztiak. Gazteak ziran geienak. Bat zan guretzat samurrena: leen aitatu dodan Zuster Assisia. Andiki-etxetik etorria zala (alantxe egoan, beintzat, zabaldua gure artean!), gu ain errukarri ikusten genduzalako, ez zan iñoiz aspertzen geugaz egoten, geugaz joka-

tzen, geuri laguntzen. Emakumeen artean oi danez, an be norbaitek ikusi-eziña eutsan. Edo geuk be berau maite gendualako, edo gugaitik bere beste erritarrakaitik baiño ardura geiago ebalako, edo guk ez dakigun beste errazoiren bategaitik. Nor murgildu emakume baten biotzean, eta nok ezagutu bere errazoiak? Bein, Josu etorri yakun, eta Zuster Assisia Ikastetxeko nagusiagaz egoala, eta negar baten egoala esan euskun. Arrezkeru, gugana itun eta biotza lainotuta bai'eban etorten zan. Ez zan geiago gure Zuster Assisia, polita ez, baiña alaia. Gero, gure artean zurrumurru au zabaltzen asi zan: laster Zuster Assisia beste etxe batera aldatzeko zala (Mateo'k Zuster Adula'gaz artu-emona eban-eta, andik sortuko zan, bearbada, zurrumuru ori). «Ori jazoten ba'zan, ez dogu mojakaz geiago barbarik egingo, ez artu-emonik izango», esaten genduan guk gure artean.

Orrelakoa zan gure asarrea, gure naibagea.

Baiña eguna elduta, guk ari «agur» egiñaz negar-malkoak isuri... eta gure bizikereak ordurarte lez egin bear aurrera. Gure Zuster Assisia aldatze orretan, enparadu mojak errurik bai?

Gugaz zerikusi andiagoo eukana, Zuster Maria Christine zan. Gorputzez luzea, aurpegiz polita, gu guztiok —geure autuetan agertzen zanez— ixillean aretzaz zerbaitetan maiteminduta gengozan. Baiña gogorra izaten be ba-ekian, gogor izatea bearrezko zanean. Etxean —guk beintzat— ez dutxarik, ez beste orrelakorik ez geukan-eta, gorputza mojak garbitzen euskuen. Upel-antzeko azpil zabal bat ur berroz beteta gero, ara giñoiazan guztiok, lotsariak ez, beste gorputz osoa billoizik. Aulkitxo baten jesarrerazo, lotsariak zapi bat az estaldu, gorputza koipe-antzeko xaboi az igortzi, eta an bialtzen genduezan beste upel batera, ur garbiaz gorputzeko xaboi kentzera. Garbiketa ori aalbait ariñen egiteko, iru-lau mojak laguntzen euskuen. Norbaitegana joatea geure eskuetan egon ba'litz, guztiok Zuster Maria Christine'gana joango gintzakezan... Ixillean lillurata egonarren, guztiok Zuster orri agirian begirune ta lotsarik andiena zor geutsan. Norbaitegandik entzunda geukan las-

ter Kongo'ra Misiñoetara joateko zala, eta jakite orrek beste moja guztiak baiño gorago jarten eban bera gure gogapenetan.

Bein, nebea ta ezkontza-aiztea etorri yakozan ikustera: a zan gure tristurea etxeakoak be laster itzi egin bear izango eba-zala aitatu genduanean gure artean! Emendik alde egin bear, misiñolari eta ain urrunera!

Guganako artu-emonetan, bestela, maitasun eta benetasuna alkartzen ondo be ondo ekian.

Gabero, Ikastetxeko elizatxoan gabeko gure otoitzak egin-da gero, goiko geure gelara eroaten genduzan. Geugaz egoan artean, ez eban iñok tutik be esaten. Isillean erantzirik (orretarako, argiak amatatu eta argi motel bat baiño ez eben biztuta izten) eta gure lo-soiñekoak jantzirik, bakotxa bere ogera joaten zan. Lo-gela andi ta zabala zan; an lo egiten genduanak, ogetamarren bat.

Gure artean egozan euskal-neskatoak oso gutxi ziran eta aparteko gelatxo baten, gurea baiño etxe-bizitza (pisu) bat beerrago egoan gelatxo baten, egiten eben lo. Gela ori non ete-egoan be ez gekian. Bein, Josu'k, berak ba-ekiala-ta, egunez gela ori ikustera eroan genduzan. Jakiña, an ez egoan iñor eta pasilloko ertz bietan geuretariko bi jarri ziran, iñor ete-etorren zain. Ez zan iñor agertu, baiña mutikoen jakingurea beteta urrengo zapatuan, guk egindako «pekatu andia» autortzera joan gintzazan guztiok. Gure logelako ogeak iru maillatakoak ziran. Leenen, aurreko lerroetan oge txiki-polit batzuk. Guretariko txikitxoan Ikastetxeko umeakaz egiten eben lo, gugaz ez. Baiña oge txiki-polit orreik urrengoentzat egozan gerturik: Narkis, Nazari, eta euren beste adiñeko batzuentzat.

Jarraian, beste oge naiko andiak egozan. Oge oneitan anaiak batzuetan alkarregaz egiten eben lo. Ez, ostera, eurotarikoren bat —txikarrena, jakiña— txizatia ba'zan. Orrexegaitik egiten eben lo bakarrik, euren oge txiki-politetan, Juantxo'k eta Getaria'ko bere lagun zan Joseba'k, naiz-ta biak anai zaa-

rragoak euki. Juantxo'k noizean-bein baiño ez eban «izerditan» egiten. Onelakoetan Zuster Maria Christine'k irribarretxoren bat egingo eutsan, eta, zemaika lez atzamarra gorantz jasoaz, erderarik gozoenaz esan be bai: «Guantxo aser agua kama!» Ori zanean, barre galantak egiten ebazan anai nagusiak. Joantxo, ostera, arrituta lez, zer zala-ta, alde guztietara begira geratzen zan.

Ain txikarrak izan ez, eta anairik ez geukanok, bakotxak bere ogean egiten genduan lo. Batzuetan oge oso zaarra zan. Azkenengo lerroaren ostean, bakarrik, Bilbo'ko Urazurrutia'ko batek egin eban lo.

Beste guztiokandik osoro bananduta egoan bera. Geisoa zan, eta gau guztietan zikindu egiten eban bere ogea. Guk isekatu, mojak gogor egiten eutsoen. Aren oge atsitutik alde egiten genduan guztiok. «Bonbero» ezizena ezarri geutsan. An ebillen gure mutiko errukarria beti erdi-bakarrik, beste guztiok aren aldetik iges egiten genduala.

Goizetan (goizegi guretariko geienentzat) barriro agertzen yakun logelan Zuster Maria Christine. Eskuaz txalo batzuk jotan ebazanean, ba-gekian guztiok ogetik jagiteko aldia eldu zana. Batzuk berealaxe jagiten ziran; beste batzuk, txaloak entzun ez ba'ebezan lez, lo-itxurea egiñik, ogean geratzen ziran. Zuster Maria Christine'k, onekana joan eta txitximurkada bigun bat eginda, laster jagierazoko ebazan. Aren orde zuster Gundrada etorreanean, naiz-ta agiraka asi, ez geuskion jaramon larregirik egingo.

Geroago, Don Mateo bera etorri zan gure logelara, estalduta egoan zokondotxo batera, gugaz lo egitera. Aren argitxoa bizturik ikusten genduan, ba-gekian laster txaloka asiko yakuna. Gabeko atsedean gozoa amaituta egoan.

Gure txizatiak lo egiten eban aldetik, leio eder batzuk egozan, eta leio orreititik Ikastetxea inguratzen eben beresiak eta lorategi batzuk ikusten genduzan. Beljika'ko neguko gau luzetan edurrez estaldutako zugatzak, eta illargiak biztutako edurak ikusten ziran ederto. Goizeko orduetan txorien txorrotzio



Andonegi anaiak.

gozoak, eta gau-txorien oiú itunak entzuten ziran, eta andikiro zugatetik zugatzera egaz egiten eben egazti andiak, basoillarrak eta antzarrak ikusi be bai.

Guretariko batzuk Zuster Maria Christine logelan agertu orduko jagiten gintzazan. Ez, gero, edurra edo illargia ikustera, edo egaztien oiú itun edo alaiak entzutera. Ez orrelakorik! Aurpegia ur gardenaz garbitzera joaten gintzazan goiztar oneik.

Gure logela orretan, edo Flandes'en iturriak legortuta egon edo beartsuen logela zalako, ura karua zala zirudian.

Mai luze baten garbi-ontzi batzuk egozan erreskadan jarrita, euren alboan xaboi-zatitxo bana, eta lurrean, urez beterik, pitxar batzuk. Guztiontzat bear genduan aña ur ez egoan ezkerro, lotiak edo azkenengo etozanak, aurrekoak erabilitako uraz garbitu bear euren esku ta aurpegiak. Ur garbia nai ebenak, ba, nai-ta-ez, goizago jagi bear.

Ipar-Europa osoan oiturea danez, gure Ikastetxean be Abenduaren asieran Saint Nikolas'en jaia ospatzen genduan. Umeentzat egun zoragarria. Euskalerrian dogun Errege-jaiaren antzekoa da-ta, umeai zerutik egun orretan Nikolas berbera jatsiten dala usterazoten yake. Urte-barruan onak izan diranak goratu egiten dauz; okerrak izan diranai, ostera, zugatz-adar batz emoteko lez egiten dautse. Nikolas ori aspaldiko gizaldietan beartsuai mesede andiak egindako gotzain bat ei'zan-eta, zerutik be gotzain-jantzi az jatsitea berezkoa da.

Gure artera agertu zanean, an egoan bera ederto jantzita, Gotzain-jantzi eder-gorriaz, bizar luze-guria eroian, eskuetan esku-narru zuriak. Gu guztiok eskumeaz bedeinkatzen genduzan; ezkerreko eskuan urre-gorritzko gotzain-makillea eroian.

Berba oso gutxi egiten eban; orretan beragaz etorriko moja batek laguntzen eutsan.

Guztiok, txikienak batez be, goitik jatsiriko Santuari, adurra dariola lez, adi-adi gengan. Azitxo enok beste ardura bat gukan: Gotzain-jantzi arein azpian estalduta nor ete-egoan jakitea.

Mateo'k atara genduzan iñok baiño leen gure eztabaideta-  
tik: «Zuster Maria Christine, bera da!»

«Bai zera! Nondik etorri yatzu burura ori?», itandu geu-  
tsan.

Umeai bedeinkapena emoten yoiala, Mateo'k eskutik ora-  
tu eutsan gure gotzain orri, eta berealaxe konturatu be nor zan.  
Begiaz kiñu bat egin, eta laster jakiñerazo be gotzaiña nor zan  
ondo ekiala.

Nikolas deunak beste alde batera begiratu bear, barrerik  
ez egiteko...

Zuster Gundrada'ren antzera, Zuster Maria Christine be  
benetakoa ta alaia izan zan. Guk, jakiña, bigun eta samurra  
izatea naiago genduan. Orrexegaitik genduan guztiok ain maite  
mojen artean gazteena zan Zuster Imelda.

Arazoz eta lanez beterik dagozanarren, gertu egon oi dira  
gure mojak poz-eguntxo bat ospatzeko, eta egun orretan beste-  
lako egunetako ardura ta naibageak alde batera izteko.

Orreitariko bat «Ume Errubageen» jaieguna da.

Mojetxerik geienetan oiturea da egun orretan etxeko gaz-  
teena etxe-nagusitzat aukeratzea. Ba'ete-dago era ederragorik  
eguneroko illunari argi-izpi bat emoteko?

Koningshof'en, ba, egun orretarako Zuster Imelda izenta-  
tu eben Nagusi. Gaztea ta alaia zalako, umetxorik txikienak  
zaintzea zan aren berarizko arazoa. Zuster M. Assisia gugandik  
aldatu ebenetik, geure txikitxoan ardurea eban, eta txikitxo  
oneik —batez be euren aita gerra zitalean galdu ebenak— aren  
biotzaren beroa aurrerantzean onegan sentitzen eben.

Ogetalau ordutan izateko zan, ba, Zuster Imelda gure  
Etxeko Nagusi, baiña bere agintaritzaldi orretan guztioi poz  
andi bat nai izan euskun emon.

«Zer eskatuko zeuskie Erregeai?», etorri yakun egun ba-  
tzuk aurrerago Zuster M. Christine itaunka. Beljika'n Iru Erre-  
geak ospatuak izan ezarren, a zan guretzat itaunik egokiena,  
gure biotzean zer ete-geukan agerrazoteko.

«Txokolatea», erantzun eban Nazari'k (guztiok gekian gu-  
re motrikuar onek eukan txokolate-zaletasuna. Mateo'k, iñok  
txokolaterik emoten eutsanean, zokondo baten eukan zorroan  
ezkututzen eban, «etxeoai eroateko». Baiña Nazari'ri poz an-  
diren bat emon nai eutsanean, zorrotik txokolate-zati bat atara  
eta anaiari emoten eutsan. Areik ziran orduan esker-oneko be-  
giak Nazari'k agertzen ebazanak!)

Txikitxoak beste asmo batzuk agertzen ebezan, iñok bete-  
ko ez ebazan asmoak: jantziak, jostailluak, etxera joan aal iza-  
tea. Guk, zaarrenok, orrenbesterik eskatzea alperrekoa zala-ta,  
jateko barriren bat euki ezkerok, pozik egongo gintzazala uste.

«Patata prijiduak zenbat nai ba'geukez!»

Koningshof'en patata egosiak, legorrak, koipe-saldeaz bi-  
guntzen genduzanak, emoten euskuezan, familia beartsuetan  
artzen zan lapikokoa. Gure eretxiz, patata onen ordeaz, beste-  
koak, prijiduak, emongo ba'leuskiguez, gure mundua aldatu eta  
gure ume-amesak benetan beteko litzatekezan.

Ume Errubageen jaieguna eldu zan. Betiko orduan maian  
jesarrita, an gengozan guztiok zer ekarriko ete-euskuen eska-  
ratzeko atera begira. Onelako baten, ara non agertzen yakun  
atean Zuster Imelda berbera, eta beragaz batera moja ta neska-  
me pillo bat, lapiko zabaletan «pommes frites», zenbat nai, da-  
karskuezala. A gure poza, prijidu areik ase arte jan aal izatea!

Egun baterako Nagusia aldatua izan zan ezkerok, ez zeite-  
kean egokiago izan, eguneroko gure patatak be aldatzea?

Eguerdikoa amaitu zan. Guztiok gengozan ase ta pozik.  
Illuntzean aparitako, barriro be patata prijiduak ekarri euskue-  
zan. Bigarrenez ase ta pozik guztiok. Umeok, mosuka iruntsiko  
genduan gure Zuster Imelda!

Biamonean, laiñotua ta ituna agertu zan eguna. Zuster  
Imelda, bere aulkitik jatsita, an egoan barriro, gure umetxoai  
bero apur bat emoteko gertu.

Eguerdia eldu zanean eta gu bazkaritako gertatu gintzaza-  
nean, betiko gatz bagako sopa ta patata egosiak ekarri euskue-  
zala uste genduan guk. Baiña ez! Aurreguneko poza egun one-



tan be barriztatu egin yakun. Moja ta neskameak ez ziran gei-  
go etorri, baiña eskaratzetik bestetan lez jatekoa ekarten gen-  
duanok, barriro be patata prijiduak ugari ekarri geutsezan gure  
euskal-mutikoai. Areik ziran Zuster Imelda'ri gorak, areik gure  
irrintzi ta zantzoak! A gure begietan argia! Bere nagusitza egun  
batekoa baiño ez zala-ta, egun orretan biaramonerako ta urren-  
go egunerako «pommes frites» egiteko esan eutsen eskaratzeko  
arduradunai. Guretzat Errubageen jaiegunak iru egunetan  
iraun eban, eta iru egun orreitan Zuster Imelda izan genduan  
gure Nagusitzat.



## ESKOLARA BARRIRO

«Txabi —egin eustan dei Josu'k Ikastetxe-barruko patio-  
tik—: Don Mateo'k etorteko!... Esan Mateo'ri ta nire anaiari  
be!»

Ikastetxe-ostean egoan areatza batera joanda nengoan.  
Eguzki-izpiren bat agertzen zanean eta etxe-barruko beroa  
geiago bear ez genduanean, antxe egiten genduan olgetan. Ma-  
teo ta Jose Luis nire aurretik joanda egozan areatzara, eta etxe-  
koai buruz berba egiten ziarduen.

Areik Bilbo'tik urtenda gero, etxeko enparaduak, leen  
Motriku'tik Bilbo'ra etorri ziranez, orain barriro «Erreketeen»  
eskuetan ez jaustearren, Santander-aldera egin eben iges. Ema-  
kume ta umeak ikatz-ontzi batera igo eta Bordel'era eldu ziran.  
Portu onetatik Ipar-Euzkadi'ra aldatu ziran, eta an, beste ain-  
bat euskaldun erbesteratu lez, batze-tokiren baten pillatuta  
egozan. Batak edo besteak etxekoan barriak artzen ebazanean,  
artutako eskutitzak alkarri, etxekoren bati lez, irakurri oi  
eutsoezan. Une aretan be, kartaren bat jasota, euren etxekoai  
buruz autuetan ziarduen:

«Zer dala-ta? Nor etorri da, ba?»

Gure Ikastetxe onetan, egunak egunen antzekoak ziran,  
beti bardiñak. Kanpotarren bat agertu ezkerro, egunen era-be-  
rea zerbait lokatu egiten yakun. Mateo'k eta Jose Luis'ek, geu  
ikustera etorritakoren bat izango zala uste eben.

Gure betiko egongelara eltzean, Don Mateo aurkitu gen-  
duan, eta, beronegaz batera, andereño txiki ta mee bi. Berga-  
ra'ko Miren Oianguren zan bata, guretzat aspaldi zanetik eza-  
guna. Bilbo'tik Prantzia'ra gugaz iges eginda, Capbreton'en

egin genduzan egunetan andereño izan genduan. Beljika'ra be geugaz etorri zan, baiña aren barririk ez genduan geiago izan. Bigarrenari Margari eritxon. Eibartarra zan Margari Murgizu au, eta beste «espediziñoren» bategaz Beljika'ra etorria, antza.

«Zer zala-ta, zer nai ete-eben gugandik?», itauntzen geutsen gure buruai. Laster etorri yakun Don Mateo'ren ezpanetatik guk egindako itaunari erantzun zorrotza: «Gaurdanik, astean birritan eskolea izango dozue! Maiak erreskadan jarri egizuez, klaseak artzeko lez!»

Bai Euzkadi'n, bai erbestean, zoritxar asko ekarri euskuzan gerra madarikatuak. Baiña zoritxar guzti onein artean, poz bat geukan umeok, euki be. Eskolara joan-bearrik ez geukan-eta, kaiolatik iges eginda dagoan txoariaren antzera libre gengozan.

«Diktado» egin-bearrik ez; zenbatzerik ikasi-bearrik be ez. Gaztelania'ko edo beste aldeetako erregeen zerrendak burubarruan sartu-bearrik be ez. Batez be maisuaren zugatz-adarrari edo makilleari bildur izan-bearrik ez. A zan gure poza ta atsedena ainbeste zoritxarren erdian! Mezatarra goizetan, Errosario Santutara illuntzetan, orreixek ziran gure betebear bakarrak. Artetan, txori kantarien antzera, adarrak adar pio-pioka eta txio-txioka saltoka ta jauzika bizi.

Orain, eskolara barriro joan bear gintzazala-ta, gure poza ta askatasuna amaituta geratzen ziran.

Don Mateo'ren ezpanetatik berba areik entzutean, nik leengo urteetan eukiriko maisu ta sasi-maisu guztien irudiak etorri yatazan burura, eta sorta ezin-eroana lepo-ganean ezarri bai'leusten, gorputza makurtu ta konkortu egin yatan.

Baiña gure andereñoak ez ziran leen izan genduzan prailleen antzeko artezak eta latzak, bigunak, umezaleak eta samurak baiño.

Umerik ez eben-eta (ezkonbageak ziran biak), geu gintzazan arein ume. Zurbilla zan bata, Eibar'ko Margari, beti baltzez jantzita, aldi aretan etxekoren bat ilda gero jaztea oiturea zanez. Moja baten antzekoa zirudian. Baltzerana zan bestea, mai-

tagarria, Bergara'ko Miren. Guretzat Eibar'koa baiño politagoa emoten ebalako, ari buruz maitasun-ipuin bat asmatu genduan. Bernaerts anaietarikoren baten emaztegaia edo erdi-emaztegaia zalakotan geukan. Mutil orrek euskaldunakaz ikustekorik naikoa eban, guri laguntzeko beti gertu egoan. Guraso oso aberatsak eukazan eta bera be oso eskolatua zan. Umeontzat axe zan Bergara'ko gure Miren'entzako senargairik egokiena. Eta guk asmaturiko edo pitxitutako maitasun-ipuiña, guk Miren'i geutsan makurtasun eta maitasunaren ezaugarria baiño ez zan, urrean.

Or genduan, ba, gure eskola barria. Ez zan, ez, gure albo-ko beljekar umeak eukun lako txukuna ta garbia. Ez geukan, areik lez, liburu polit, barririk, ezta idazteko tresnarik be, ez mairik, ezta bestelako eskoletan euki oi diranik be. Ez geukan ezer. Jateko mai andiaren ondora iru-lau maitxo ekarri ebezan, beljekar umeak geiegi eukezanetarik, mojak igeltso-zati batzuk ekarri ebezan (gure laguntzailleak ez eben orretarako igeltsorik ordaindu, antza), eta orixe zan gure eskola barria, euskal-eskola barria.

Gure andereño biak astean birritan etorten yakuzan. Berchem'en bizi ziran (moja-ikastetxeren baten eurak be), eta andik tranbian edo autobusean etorri bear. Ez zan, ez, gauza atsegingarria gugana etorri-bear ori. Negu gogorrean ura, edurra ta otza ziran Beljika'k eskiñi eikezanak, eta sarritan ikusi genduzan gure andereño errukarri biak edurrez zuri-zuri eginda eta gugana dardar baten etozala.

Aste bakotzeko ordu bi orreitan, zer egin zeitekean? Larregi ez! Batez be an egoan naastea ikusita. Guretariko batzuek, eskolara iñoiz be joan ez ziran ezkerro, ez irakurten, ez idazten ez eben ikasi. Beste batzuek, Gipuzkoa'ko baserritik etorrita, erderaz berba egiten be ez ekien, edo-ta, igaroriko illeetan, euren gurasoen izkuntza, euskera edo erdera zala, aaztu egin yaken. Egun gutxi zirala etorri yakun alako bilbotar umetxoa zan orreitariko bat. Bere anai aziagoagaz etorri yakun Koningshof'era; nondik ez dakit. Berba egiten ebanean, bere

gurasoen erderea eta bera egondako etxean ikasitako flamenkerea naastu egiten ebazan. «Mosquito hinder!» («jinder» esana) ezarri geutsan ezizenez. Bein, gure betiko gela zabalean gengoza, berbetan ziarduan. Onelako baten, erderaz bere anaiari: «¿No ves ese mosquito hinder?», esan eutsan. Guk zer ete-iñoan ezin ulertu. Nongoa ete-zan eulitxo ori? Orduan, begiak lezan lez sartuta eukazan aren anai nagusiak, anaitxoa babespean artzeko lez, diñosku: «An dagoan eulitxoa ikusten ete-dogun itandu dau, besterik ez!» Ezizena nok jarri ete-cutsan ez dakit. Baiña itsasertzekoren bat izan zala esan neike ziur. Lurralde-barruan, batez be Bilbo'ko erdaldunen artean, orrelako ezizena ezartea gauza arrigarriagoa izango litzake.

An batzen gintzazan, ba, martitzen eta barikuetan eskolamebarriak. Baten arduraz ebizan oraingotan gure andereñoak, urrengoan bestearenean. Emen, onek zenbatzeak zelan egin ete-ebazan; arago, beste arek aditzak zelan ikasi ete-ebazan... Astirik geiena deadarka egiten eben, gu isilik eukiteko. Gure andereño errukarriak ez eben gudan poz andirik izango, guk ikasten genduana ez zan esatekoa-ta. Poz andi bat genduan guztiok, eurak eta guk: eskolaldiaren amaiera. Ordua amaitzean, guztiok arnasaldi sakon bat egiten genduan. Amaitu zan umeakaz izandako gerrea. Andereño biak Berchem'go Mojetxera biurtzen ziran; gu, geure jolasetara.

Laburra zan, ba, gure eskolaldia, laburregia ezer ikasteko. Artzain bagariko ardiak lez, andik eta emendik sakabanatuta gengoza ikusiaz, Don Mateo gertu agertu zan gure andereño biai euron ardura ta arazoetan lagun egiteko. Gu zelan genbizan ikusi, onela ezer ezin ikasi geikeala-ta, erabagia artu. An egoan bera etxekoen ardurak zirala-ta zoratatu bearrez. Guri klaseak emoteaz, guri mesede bat egingo leuskigula uste. Pentsatu ta egin.

Aurrerantzean, martitzen eta barikuetan andereño biak soillik ez, baita maisu bat be izango genduan. Eta aste-barruko beste egunetan be, an egoan bera guri eskola-gaietan lagun egiteko gertu.

Eroapena zan orretarako bearrezkoa, baiña gure Don Mateo'k guri buruz saltzeko aiñako eroapena eban. Beti gertu gure lagun izateko. Barre egiteko istoria bat dirudi orain azalduko dodan onek, baiña onetan be aren biguntasuna, errukia ta umezaletasuna agertzen yakuz.

Etxetik eta etxekoakandik ain urrun gengoza ezkerro, ez zan arritzekoa guk, gozokirik onenak lez, etxekoen kartak jasotea. Batzuek karta asko, besteok karta gutxiago jasoten genduzan, eta beste errukarri batzuek ia iñoiz be ez. Asko jasoten ebezanak arro erakusten ebezan jasoriko kartak; gutxiago eta arean kartarik jasoten ez ebenak, minduta lez arekana begiratzan eben.

Sarritan, erri batekoak ziranen artean, baiña baita beste lagunen artean be, etxetik jasotako albistak zabaldu egiten genduzan. Eta bein baiño sarriagotan Don Mateo'ri izten geutsazan, gure albistak berak irakurteko. Neuk be nireak geienetan izten neutsazan.

Osaba Bizente abadearen ezaguna zan, gure amaren aldeko senide ta tartekoak aren errikoak, eta berezkoa zan, lagun eta erritarren barriak entzun eta jakin gura izatea.

Bein, beste edonoiz lez, karta bat jaso neban. Geure Miren zan karta au idazten ebana, eta, beragaz batera, beste etxekoak be lerro batzuk idazten ebezan: nitzaz egunean-egunean gomutatzen zirala, osasunez onik egozala, eta beste oneitarikoak.

Baiña ez larregi; bai erri-barruan bai erritik kanpora idazten ziran kartak ezaugarri andi bat ekarren-eta: «Visado por la censura».

Aitazten dodan egun onetan, orraitino, kexa bat agertzen zan karta eta lerrorik gienetan: Aspaldian nire kartarik jasoten ez eben ezkerro, ea zegaitik ez neban sarriago idazten. Kexa ori Miren'en kartan agertzen zan, eta kexa bardiña iñoen Iñake'k eta amak be. Beste albista guztiak —osabea Elgeta'n egoala, eta Lemona'ko beste osaba Felix be Galizia'ra «ostera bat egi-tera» joan zala, eta Juanito lengusua ikastetxera eroan bear izan ebela, eta abar.

(Onelaxe jakiñerazoten euskuezan aberrian jazoten ziran albista negargarriak.) Barri guztiok arduraz irakurrita gero, Don Mateo'k, neugana biurtuta, beti lez, otzan itauntzen daust: «Zer dala-ta ez dozu etxera sarriago idazten? Ba'zeki zure etxekoak zure kartaren bat jaso egien bakotxean artuko leuken poza!»

Eta nik, lotsaz beterik, zer esan ez nekiala, auxe erantzun: «Bear danez idazten jakin ba'neki! Ez dot, orain baiño leen, kartarik iñoiz be idatzi.» Eta Don Mateo'k niri: «Kartak idazten ez dakizula?» «Ez, ba —erantzun nik—; batez be kartak zelan asi eta zelan amaitu oso gaitz egiten yat!»

Arratsalde aretan, lauretako ogia ta kafea artuta gero, guretariko nagusienai bertantxe itxaroteko esan euskun. Lauretako maia garbitu, inguruan jesarri, gure idazteko tresnak artu eta berak iñoskuna idazten asi gintzazan:

«Ene guraso maiteoi, agur!» («Besteren bati —esate baterako, zuen osaba edo arreba edo ezagunen bati— idatzi dagiozuenean, asiera ori aldatu egin bear izango dozue. Gurasoen ordez, beste ori —zuek nori idazten dautsazuen— aitatu.»)

«Aspaldi da azkenengo karteia idatzi neutsuela-ta...» («Euren edo besteren baten urteguna dalako, edo beste zerbaitegaitik ba'da, idatzi ori, esan dautsuedazan berben ordez...»)

«... pozik izango zareala uste dot, nire karta au jasoaz. Ori dala-ta, emen idazten dautsuedaz azkenengo egunetan —edo asteetan— jazo yakuzanak.»

«Orren ostean, zer jazo yatzuen, edo bakotxak geien esan nai leukena, idatzi egizue. Esate baterako, egun oncitan doguzan edurak eta San Nikolas'etan egin genduzan barreak, edo, laster Gabonak doguzala-ta, etxean pozago zengokezala.

«Baiña arduraz izan idazten dozuezan albistai buruz!»

«Ez idatzi —esaterako— nire izenik. Ez aitatu zuekaz dagozan abadeak nongoak diran. Emen zuekaz iru abade dozuezala esateaz naikoa dozue. Azkenean, idatzitako guztiak amaitu dagizuezan, urrengo lerrook edo antzeko batzuk idatzi daikezuez.»

Eta guk idazteari ekin:

«Beste zer asko idazteko daukadaz oraindiño, baiña gaurko naikoa idatzi dodala uste dot. Urrengoan idatziko dautsuet geiago.»

«Onen ostean, gorantziak —giputzai «eskumuiñak» esaten eutsen— nori esan nai dautsezuezan esan. Eta onelaxe, gutxi gora-beera, amaitu daikezue zuen karteia:

«Egunero zaituet gogoan. Jaungoikoak nai ba'dau, laster zeuekana nai neuke joan. Baiña nitzaz ez ardurarik izan, osasunez onik nago-ta. Biotz-biotzez maite zaituet.»

(«Beste oartxo bat emon nai neuskizue: Zuen etxekoak Prantzia'n, edo beste norbait erbestean, ba'dagoz, esan dautsuedazanaz naikoa dozue. Baiña etxera idazten ba'dozue



Koningshof. Eusko-ume taldea.

—esaterako, Motriku'ra zuek, edo Bilbo'ra zuk (iñoan berak motrikuarrakana begira leenen, neugana begira gero)—, ez aaztu berba oneik kartearen asieran jartea: «II Año triunfal. Viva Franco! Arriba España!»»

«Batez be, zuen etxeko ori espetxean ba'dago, ez aaztu berba orreik idaztea. Ori idatzi ezik, ez yako karta ori bear danez elduko.»)

Ba-geukazan, ba, gure kartearen asiera ta azkena. Arteko utsa betetea baiño ez geukan. Paper barria Zuster Gundrada'ri eskatu eta idazteko tresnak artuta, an asi gintzazan baxotxa bere karte idazten.

Gure kartak, batzuk Ipar-Euzkadi'ra yoiazan, Donibane-Lohizun'era eta Kanbo'ra; besteak, Franco'ren menpean egozan errietara, Bilbo'ra, Motriku'ra, Zarautz'era, eta beste leku askotara. Batzuk eta besteak ia bardiñak ziran. Aldi aretan kopia asko batera egiteko tresnarik ez goan; bestela, a ze lanarintzea izango zan tresna ori!

Aurrerantzean ba-gekian gure kartak zelan idatzi.

Etxeko urrengo barriak jaso genduzanean, laster egozan gure erantzunak gerturik. Etxekoak euren poza agertzen euskuen, ain karta politak idatzi gautsezala-ta.

Don Mateo'ren karta-asiera ta amaiera artu, eta an yoiazan, aste batean eta bestean, gure kartak. Beti bardiñak, barrua bakarrik aldatzen geutsela. Onetan be, gauza barregarriak egin geikezan guk, Don Mateo'ren asiera ta amaiera arein artean.

Koningshof'eko euskal-umeok be geure ibitaldi-egunak izaten genduzan. Sarri ez, orretarako be dirua bearrezkoa zan-eta. Eta gure zuzendariak dirurik ez, edo urri baiño ez. Baiña bein (saria nok emon eban ez dakit), Koningshof'eko ume guztiok eroan genduezan Anberes'ko «Zoo»-a (Abere-parkea) ikustera. A zan guztion poza! Geienok —etxe-abereak izan ezik: katu, txakur, oillo, eta abar izan ezik— ez genduan iñoiz besterik ikusi. Guztiz be, erririk-erri tximiño ta artzaren bat croiela ebillen soka-dantzariren bat. Ni orretan zorionekoa nintzan. Bein, Bilbo'ko Ikastetxeko lagunakaz, Galdakano'n Bil-

bo'ko aberats batek —Bonifazio López'ek— eukazan abereak ikustera joan nintzan. Galdakano'tik biurtuta, gure irakasle zan Don Kastor'i gure ostera ori azaldu geutsanean, orreaz poza emongo geutsalakotan, asarre baten jarri yakun: Ea berari zegaitik esan ez geutsan! Bera be geugaz joango zala-ta!

Baiña Galdakano'n ikusi genduzan iru-lau leoi eta bestelako basabereak, ez ziran Anberes'koakaz bardintzekoak. Zer zan an leoietan (etxe andi bat eurentzat bakarrik eukela), zer era guztietariko katamotzetan, ibai-musker, andi eta txikitan, eta zoragarritzko txoritan!

Guretzat atsegiñena, zugatz batetik bestera, eunka eta milaka, jauzika (saltoka) ebizan katamixarrak ikustea zan.

Gugaz abereak ikustera etorren Don Mateo'ren eretxia beste bat zan: a sugeak ikusteak lilluratuta lez eukan. «Bein egon naz ni Erroma'ko Abere-parkean —esan euskun—. Emengoan baiño angoan leoi eta beste abere andiak geiago egozan. Batez be elefanteai buruz, angoan aldean umeak dirudie emengoak... Baiña emengo lako suge-talde eta muetak ez dodaz iñon ikusi. Ezagun da, beljikarrak, Aprika'n kolonia ederra eukirik, andik nai daben aiñako patari ta pistiak ekarri daikenezana!»

Eta an yoian Don Mateo gugaz, gizon bat euren indarrez «karrak» egin daikeen suge izugarriak ikustera; edo pintatzaille onenak be pintatu ezin daikezan lez eder eta txukun egozan sugetxoak; edo buztanean zutunik egozan suge buruandiak. Ainbat suge ikusita, guztiok erdi-gogait eginda gengoan. Ez, ostera, Don Mateo; an egoan bera suge-etxe aretatik urteteko gogorik ez ebala.

Illuntzea zan, domeka onetan, Abere-parkean orduak iga-rola gero, Koningshof'era biurtu gintzazanean.

Biaramonean, an gengoan guztiok mai-inguruan jesarrita, idazteko tresnak gure aurrean, etxekoai karta bana idazteko asmoz.

«II Año Triunfal», eta «Viva Franco! Arriba España!», karta-aurrean idaztea aaztu bagarik, an asten zan beti lez gure

sekulako karte: «Ene guraso maiteoi, agur! Aspaldi da azkenengo nire karte idatzi neutsuela-ta, pozik izango zareela uste dot, nire karta au jasoaz. Ori dala-ta, emen idazten dautsuedaz azkenengo egunetan jazo yakuzanak.»

Asteleen aretan, burua larritu-bearrik ez neban, nire karta ori zelan edo alan beteteko. Ez gintzazan egon, ba, aurreko egunean Anberes'en Abere-etxean ainbat abere ikustatzen?

Ori zala-ta, olantxe egiten eban aurrera gure karteak: «Atzo Anberes'ko Abere-etxean egon gintzazan. An ikusi genduzan katamixarrak zenbat nai, zugatz batetik bestera saltoka. Eta gero...»

Noizean-bein, albokoari itauntzen geutsan: « Josu, zelan eritxen ur-osin andi aretan ugerretan ziarduen patari barregarri arei?»

«Ibai-zaldiak!», erantzun eustan arek.

«Eta lepoan konkorra eroienak?»

«Ganbeluak.»

«Ez, orreik konkor bat baiño ez daukenak dira.»

Onela idatzi genduan, guztion artean, bata bestearen laguntzaz, bakotzak bere karte. Abere-liburutik atara geikezan lerro areik. Egun aretan ez genduan gure kartetan besterik idatzi. Orri bete bi, guztietariko patari-izenez beterik.

Amaieran, Don Mateo'ren berbak erabiliko genduzan gure karta barregarri a amaitzeko: «Egunero zaituet gogoan. Jaungoikoak nai ba'dau...» Eta abar.

Don Mateo'k bere asiera ta amaiera emon ez ba'leuskuz, egun aretan ez ziran gure kartak Donibane-Lohizun'era, edo Kanbo'ra, edo Motriku'ra, edo Bilbo'ra joango.

\* \* \*

Naiz-ta, andereño bien laguntzaz gaiñera, Don Mateo'ren eguneroko laguntza izan, ez genduan aurrerapide andirik egiten Koningshof'eko umeok. Niri dagokidanez batez be, alako ikustaldiak astia ondatzea baiño ez ziran. Andereñoak edo Don Mateo'k zerbait itandu orduko, an neukan nik nire erantzuna

gertu. Enparaduak uts-mordo bat idazten eben diktaduan, nirean uts bakar bat be ez eben aurkituko.

Bergara'ko Miren'ek, enparaduak entzuteko lez, neuri irakurrerazoten eustan batzuetan. Prantzes-izkuntza batez be, umeak baiño obeto bakarrik ez, abade eta andereñoak eurak baiño obeto berba egiten nebana argi egoan. Nire barruan barre egiten neban Larrabetzu'ko Don Eustakio'ri berba egiten entzuten neutsanean.

«Oui, ma Soeur», «Non, ma Soeur», edo «Oui, oui» baiño ez ekian esaten, pipea eskuan, burua makurtzen, mojaren bategaz berba egiten ziarduanean.

Andereñoak eurak be, irribarre lotsati bat egiñaz, bein baiño sarriagotan itauntzen eusten: «Zelan esaten da prantzeraz au?» (Ez zan arritzekoa onela izatea. Euren errietan ez eben orrelakorik ikasteko unerik izan, eta orain, flandestarren artean egozala, asko geiagorik ez.)

Ori zala-ta, neure lagunak be, bein baiño sarriagotan bekaitz-izpi bat agertu eusten. Jose Luis tolosarrak, esaterako, asieratik, Koningshof'era agertu nintzaneke, auxe esan eustan: «Zu be, gu lako «txapuzeroa», ez ba?» Arriskugarria zan, ba, inguru onetan norberak besteak baiño geiago ekiala agertzea. Ortik etozan, bein eurakanako artu-emonetan sortu yatazan gaiztasunak eta eragozpenak be.

Gure abadeak, egiteko andirik ez eben, antza, eta an ziarduen goiz osoan gure gerra zitalaren barriak irakurten. Egune-ro egunkari pare bat irakurten eben. «La Libre Belgique», eta prantzeraz idatzitako besteren bat. Eta Mijnheer Jendrick edo Aita Peters etozanean, asterokoak edo illerokoak be bai. Mezea emon eta gosaria artuta gero, an yoian areitarikoren bat—Don Manuel geienetan, Don Mateo banaka batzuetan—Schooten'era egunero, beste bagarik egunkaria eroatera. Orixe zan, beintzat, arein eretxia. Eta onelako baten, Don Mateo'k dei egin eustan:

«Bizikeletan ibiltan ba'dakizu?»

«Jakin ez, ba, Jauna? Leen be, astean-astean etorten nintzan Ekeren'dik Koningshof'era.»

«Schoten'era joango zintzakez goizetan, egunkaria erostera?»

«Bai, pozik be, Jauna.»

(Arro nengoan nire barruan, gure abadeak nigan orrelako ustea jarri ebelako. Baiña pozik baiño pozago barriro bizikeletan ibili neintekealako.) Eta Don Mateo'k:

«Goizetan, ba, gosaria amaitzean, ate nagusiaren alboan dagoan gelara joan zaitez. An Don Manuel eta ni gosaria artzen diardugula aurkituko gaituzu. Dei egin, dirua emongo dautsugu. Bizikeletea be ate-ondoan eukiko dozu.»

Biaramonean, Don Mateo'k esandakoa egin neban. Dirua emon eustan eta ateragiño lagundu be bai.

«Bide onetan zear joan zaitez —esan eustan—. Kanalaren beste aldera eldu zaitezanean, laster dozu erria. Errian sartu, eta kale nagusian eskumaldera, egunkariak eta aldizkariak saltzen dabean dendatxo bat aurrez-aurre aurkitu dozu. Eskatu «La Libre Belgique» eta Prantzia'ko beste egunkari au. Euskal-abadeentzat dirala esan.»

Don Mateo'k esanda lez zan. Nire egunkariak erosi, eta Schoten'era joan-etorria ordu baten-edo egin neban.

Aurrerantzean, ordu au nire eguneko ordurik ederrena biurtu zan. Negua zan artetan; aldi aretan goizeko otza ondo sentitzen zan, baiña egunak luzatzen asita egozan. Goizeko ordu areitan ez neban iñor bidean aurkitzen. Langilleak euren lantegietara joanda egozan, etxekandrak artetan etxetik urten bagarik.

Goizeko arnasa gozo-osasuntsua artzen neban; lainotik urtetan aalegintzen ziran izai ta urkiak euren usain gazi-gozoa eskintzen eusten. Eta ni, bide bakar areitatik, lurreko erregea bai'nintzan niñoian. A zan nire poza, goizeko bakartadea!

Leeengotan, errikoakaz berba egitea, lotseak galerazo egi-ten eustan. Egunkaria eskatu ta ordaindu; beste artu-emonik ez neukan dendatxoko emakumeagaz. Geroago, berba pare bat

esaten asi nintzan. Bera be nondikoa ete-nintzan itauntzen asi yatan. Gerra oso zitala zala. Eurak be, ogei urte leenago gogor-rrak eroan bear izan ebezala. Eta gauzak egozanez jarraitu ez-kero, nok esan bakea edo sasi-bakea luzaroko izango ete-zan.

Goizeko poz orrek ez eban, orraitifo, luzaro iraun.

Nik ezer esan ezarren, Ikastetxeko lagunak laster artu eben nire susmoa: nitzaz zerbait jazoten zala. Eta egunean-egunean ordu baterako alde egiten neban ezkerro, susmo ori argitu egin nai eben-eta, ordu orretan nik zer egiten ete-neban itandu eusten. Nik, bear ez zan gauzarik ez neban egiten-eta, argi ta garbi azaldu neutsezan nire gora-beerak.

Egun aretan ez eben geiago autu ori aitatu. Baiña euren artean zerbait erabillega argi ikusi eikean edonok. Eta, andik egun batzuetara, Mateo ta Josu aurreratu yatazan:

«Guk ez daukagu bizikeletarik.»

«Ta?», nik.

«Ba, geuk be bizikeletan ibili nai geukela.»

«Nigaitik...»

«Itzi eiguzu abadeen biziketetan ibiltan.»

«Iñori ez izteko esan dauste.»

«Ez egiezu jaramonik egin.»

«Eta susmorik artuko ba'lebe?»

Unetxo baten isildu egin ziran Mateo ta Josu. Eurak be bildur ziran, abadeak, susmoa artuta, asarre jarriko ete-ziran. Orduan, Mateo'k ekarri eban bere eskabidea.

«Zegaitik ez esan, zu Schoten'era joateak nekatu egiten zaituala, eta txandaka besteak be joan bear leukeela sekulako egunkari ori erostera?»

Nire barruan ia barre egin neban, ain zan sinisgatxa nik abadeai esateko neukana. Alde onetatik, ba, gogor egiten yatan Don Mateo'ri orrelako guzur bat esatea; baiña bestetik, ori egin ezik, ziur nengoan motrikuarrak asarre izango nebazana betiko. Leenengoa egitea erabagi neban, ba.

Don Mateo'gana joan nintzan. Lorategian egoan, bakarrik, bere otoitzak egiten.

«Don Mateo: berba egin nai neuke berorregaz», esan neutsan.

«Zer daukazu, ba?»

«Ba... —begiak beerantz jarriaz—. Egunean-egunean, Schoten'era neu joan bear baiño, naiago neuke besteren batzuk be txandaka joango ba'litaz...»

«Zer dala-ta?» (Bere barruan berealaxe konturatu zan guztiok be zetan gebizan, baiña berak ezer ezaguerazo ez.)

«Ba, nekatu egiten naz-ta, ara egunero joateaz...»

Ez zan, ez, sinistekoa nik lurrera begira niñotsana. Don Mateo'k, orduan, bake-baketsu, auxe erantzun eutsan:

«Ba, orregaitik ba'da, Don Manuel edo neu joango gara egunkaria eroatera. Leen be, luzaro eginda daukagu-ta, aurrerantzean be osteratxo ori egiteko gauza izango gareala uste dot.»

Besterik ez eban esan. Aurpegiko matraillak lotsaz gorri eginda lorategitik alde egin neban.

Biaramonean, Mezea amaituta, gosaria artuta gero, betiko orduan bizikeletea bere lekutik arturik, Koningshof'eko inguruko beresietan zear, Schoten'era joan nintzan, eguneroko egunkari biak eroatera. Etxera biurtzean, egunkari biak Don Mateo'ri emon neutsazan. Ez eustan ezer esan. Motrikuar biak be ez.

Ortxe amaitu zan umeen arteko joko ori.



## «ERESOINKA»

«¡Como en Euzkadia!», esan eban Aita Peters'ek bere erdera atsegiñaz, gure albotik burdi bat eskuaz erakutsiaz.

«¡Como en Euzkadi!», zuzendu geutsan Mateo'k eta biok.

Eta egiaz, gure aurretik ikusi genduan burdia Euzkadi'ko gure baserritarrak erabilten ebezan burdien antz-antzekoa zan. Ezbardintasun bi ebazan, orraitino. Buztarrian gureak eroien ardi-narruaren orde, kolorezko estalki bat eukan ipiñita burdi orrek. Eta olezko eusko-burpillen orde, beste burdiak daroetan lako burpillak eroiazan, ez areik lako zaratatsuak.

Lobaina'tik Namur'era daroan bide leun eta zabalean zear giñoiazan. Albo bietara landa ta zelai, lur emokorrak, soloetan lanean ziarduen baserritarrak. Udabarria zan, egun eguzkitsua. Negua geure atzean geukan, eta Aita Peters'ek, Namur'era batzar batera joan bear ebala-ta, bestetan oi eban, guretariko bi artu ebazan bide-laguntzat.

Euzkadi'koen antzeko zan burdiaren itaunak beste alde batera eroan eben gure autua.

«Zer esan nai dau «Eresoinka» berbeak?»

Mateo'k eta biok alkarregana begiratu genduan, ori zer ete-zan kiñu bat egiñaz.

«Eres...»

«"Eresoinka", bai. Niri norbaitek adierazo daustanez, kanta eta ibilteaz zerikusia ei'dauko berba orrek, ekin eutsan Aita Peters'ek.

Barrero be biok, Mateo'k eta nik, alkarregana erdi-arrituta begiratu genduan. Leen iñoiz entzun ez genduan berba aretan ez zan agertzen ez «ibili», ez «joan», ez orrean antzeko berba-



rik, ezta «kanta» (guk inogunez) edo «abesti» be (auxe zan liburuetan inoiz agertu yakun berba barria).

«Kantari batzuk dira, zeuen errikoak. Emendik aste batzuetara Anberes'era etorteko dira.»

«Kantatzera?»

«Bai, kantatzera. Lekuren bat, non kanta, aurkitu dagidala eskatu dauste, eta emengoen artean euren etorrerea zabaltzeko be bai. Alde batetik, orain atzerritarren oinpean dagoan Euzkadi'ren zoria emen zabaldu eta jakiñerazo nai leukee, eta bestetik, erbestean dagozan euskaldunen alde be diru apur bat batu.»

Laster Namur'ko bidean dagoan beresi zabal eta luze baten sartu gintzazan. Itzal eta gerizpetsu egiten eban bidean. Bidean zelan, alan aldatu zan gure autua be.

«Pistiarik-edo, ba'al-dago beresi oneitan?»

«Bai, andiak be. Oreñak, basurdeak. Otz egiten dauanean, esaterako, negu gogorrean, otsoak be agertzen dira. Baiña gizonarentzat ez dago, geienetan beintzat, orretan arriskurik.»


Gure ume-irudimenak ba-eben egun aretarako zetan ames egin naikoa. «Eresoinka»-koen kanta ta ardurak laster aaztu yakuzan, bai ondo aaztu be.

Andik egun batzuetara, ara non agertzen diran Koningshof'en iru-lau gizon ez-ezagunak. Kanpotik etozanak egin oi ebe-nez, geugana etorrira, betiko itaun bardiñak egin euskuezan. Nongoak gintzazan, pozik gengoan. Guretariko batzuen senide edo tartekoak be ezagutzen ei'ebezan. Gero, gu umeok alde batera itzita, abadeakana joan ziran.

Laster zabaldu zan gure artean, gurera etorritako jaun areik nortzuk ziran: «Eresoinka» taldekoak, antza. Andik egun batzuetara Anberes'era etorteko ei'ziran, Aita Peters'ek esan euskunez Namur'erako bidean, abestaldi bat eratzer. Abestaldi ori errian zabaldu ta jakiñerazoteko, ezpatadantzari koskor batzuk be bear izango ei'ebezan eta ori lortzera etorri ei'ziran gurera.

Gure abadeak ez eutseen, asieran, txera onik egin. Euzkadi maite ez ebelako ez, ezta mundu guztian sakabanatuta ego-

zan gizon eta emakume erbesteratu arei lagundu nai ez eutsee-lako be, ezta gure kanta zaarrak Beljika'n zabaldu nai ez ebeza-lako be, geure arduraz baiño. Umeak gintzazan eta euren babespean jarriak. Gu emendik ara ibiltea aalbait gutxien nai eben. Baiña «Eresoinka»-ko gizon zintzo ta neketsuai be erruki yakezan-eta, beste arduradunakaz, Aita Peters eta Koningshof'eko gure nagusiakaz berba eginda gero, gu «Eresoinka»-koakana laguntzat bialtzea erabagi eben.



Aita Peters.

Baiña, nortzuk joan? Or egoan, ba, gu guztion kezka. Orixe zan egun areitako gure autu bakarra. Pozik joango gintzakez, bai joan be, an gengoan guztiok, egun osoa Anberes'en egitera, gure txistu zoliak entzüttera, erriko kaleetan zear ibiltarra, eta azkenez —arritzekoa ete-zan?—, bazkari on bat jatera.

Kezka ta autu orreitan giarduala, ara non agertzen yakun Don Mateo, eta «Eresoinka»-koak nolako umeak euki nai leukezan jakiñerazoten dauskun: oso txikitxo batzuk, oneitari-koak biotzak errazago biguntzen dabelako, batez be erri zapaldu bateko umeak izanik. Eurak ez ekiela, umezurtz ziran giputz anaitxo biak izentatu ebezan leenen, ba. Biak txiki ta bigunak ziran, izan be. Beste bik osotzen eben lau txikarren taldea.

Beste lau ko taldea bearrezko eben, aziagoak oneik. Kaleetan zear giñoiazala, bidaztien artean abestaldirako orriak banatzea izango zan onein egitekoa. Emen be, erraz egin yakon Don Mateo'ri taldetxo ori izentatzea. Lau gintzazan guztion artean nagusienak, laurok taiu batekoak: iru motrikuarrak, eta ni laugarrena. Beste txikar arekaz, gu, laurok, izan gintzazan «Eresoinka»-ko arei laguntzeko aukeratuak.

Eguna eldu yakun. Goizerik urduri ta artega gengoan izentatutako laurok. Gure beste lagunak Mezatara yoiazala, gu gosaria artzera joan gintzazan. Anberes'era goiz eldu bear genduan ezkerro, ez geukan egun orretan Mezatara joan-bearrik. Mezatatik etozala, gugana ikusi-eziñez beterik begiraten eben. Mutillen artean oi danez, ikusi-ezin ori erdi-isillean esaniko berbetan agertzen eben Anberes'era ez yoiazanak. «Miin zuri», «Koipetsuok», «Jantxakurrok», eta abar. Gure erantzun bakarra bakea zan. Alako besteren baten, burrukan egingo genduan, baiña egun orretako pozak ez euskun burrukarako gogorik emoten.

Ate nagusiko alboko gelara eroan genduezan, gure ezpata-dantzari-jantzi zuri-politak jaztera. Zuster Gundrada eta Zuster Maria Christine etorri yakuzan gu garbi ta txukun jartera. Don Mateo, bera be, an egoan, geugana begira, gerriko gorria eta txapela, euskaldunen erara ipiñita ete-geukan ikusten.

Euzkadi'n geratu yakun amaren ordezeko genduan Don Mateo, gu, gure pobretasun eta bearrizanean, aalbait garbi ta dotoreen eukiteko gogoz. Gure ule-moztaille be berak egiten eban.

Ekeren'dik Koningshof'era leenengoz eldu nintzanean, tamal andia izan neban ango mutikoak ikustean. Capbreton'en, alako zorriak zirala-ta, moztu euskuezan buru soillak aparteko eder bat eukan gure mutikoen oraingo buruen aldean.

«Ori baiño ule-moztaille obeagorik ez al-daukazue errian?», itandu neutsan urrengo baten motrikuar bati.

«Nongo errian? Dirua orretarako dogula uste dozu, ala? Emengo moja zaar batek moztuten dausku ulea», izan zan aren erantzuna. Ezagun zan mojai burua soiltzen oituta egoanen bategen moztuten eutsena gure mutikoai buruko ulea. Guzti areik ain barregarri egozan!

«Igitaria» esaten geutsan gure artean moja zaar ari, gure baserritarrak larran lez, arek be bere lana geure buruetan egiten ebalako. «Igitaria» eta arek egiten ebazan kaskak zirala-ta, makiña bat barre egiten genduan aren aurrean! Berak be irri-barre gozo bat egiñaz erantzuten eutsen gure barrei. Susmatzen ete-eban berak guk alako barreak zegaitik egiten geutsazan? Guk, berau kokolotzat geukan-eta, ezetz uste.

Ulea moztutea ez zan bere egitekorik beiñena, patatak zuritzea baiño. Etxabeean eukan berak bere lantegia. Araxe eroan nenduen ni lagunak Ekeren'dik etorrita egun batzuetara.

«Noiz moztuten dautsuee ulea?», itandu neutsan Mateo'ri.

«Zeuk nai dagizunean. Gaur illuntzean beste batzuk be ara joateko gagozan ezkerro, geugaz etorri zaitezke.»

Esan eta egin. Apalostean an agertu gintzazan taldetxo bat etxabee aretan. Ardandegi baten antzekoa zan; baiña, tamalez, ardao bagarikoa. Gela-erdian upel andi bat egoan patata-azalez beterik. Inguruan iru-lau aulki, eta aulkietan lanerako amantalak. Urdin eta zuri, guztiak bardiñak, orrelako etxe andietan euki oi diran lakoak. Gure iru-lau euskal-neskatillak patatak zuritzen lagundu eutsoen.

Ara eldu gintzazaneko, an egoan, gure aurretik joanda, Durango'ko Xabier. Mojak ari ulea moztuten ziarduala, areik ziran tximiño baten kiñuak, gure Xabier'ek egiten ebazanak!

Neuri be txandea eldu yatan. Okozpe-inguruan neskatillen amantal bat ipiñi eustan, patata-sunda eriola. Batzuetan ulea moztu baiño zuztarretik atara nai eustala zirudian. Areik nire min eta aienak! Baiña gure moja ule-moztailleak, Xabier'ek egindako tximiño-kiñuak neuk be egiten niarduala uste izan, eta niri eta nire aienai barre egin...

Biaramonean, Mezatatik urteterakoan, Don Mateo'k, ni ikusirik, «Nok moztu dautsu ule ori?», itandu eustan.

«Alako etxabeean patatak zuritzen lan egiten dauan moja zaar batek.»

«Zer uste dau arek, ba? Zuek be mojak zareela? Bazkal-aurrean joan moja orregana, eta ule-moztaille tresnak izteko eskatu. Betiko gela andian, neuk moztuko dautsuet ulea.»

Bazkal-ordurako, guztiok erriko ule-moztailleagana joan izan bai'gintzan gengoan garbi ta dotore.

«Ulea Don Mateo'k moztu dautsuela! —itandu euskun, arrituta, Zuster Gundrada'k—. Eta, non ikasi dau ulea orren ondo moztuten?»

Nondik jakingo genduan guk, ba, Don Mateo'k eginbide ori non ikasi eban? Guretzat Don Mateo'k dana ekian-eta, zegaitik ez eban, ba, ori be berez jakingo? Urrengo baten berak esango euskun, Seminarioan, abadegai baiño ez zala, ikasi ebalu ulegintza ori. Baiña ikasketa ori iñoiz bearrezko izango yakonik, ez ebalu ezelan be iñoiz susmatu.

Aurrerantzean, berak moztuko euskun beti ulea. Gaztaroz gomutatzeaz eta Seminarioko aspaldiko urteak gogoan barrizatzeaz, poza artzen ebalu zirudian. Gu guztiok be, leen baiño dotore ta txukuntxuago agertzen gintzazan, ez geiago kanpoko mutiko zorritoen antzeko. Bein bakarrik bialdu genduzan erriko ule-moztailleagana: Euzkadi'ra biurtzeko gengoanean. Une zoragarri aretarako, gu ume aberatsen antzeko apain eta politak izatea nai eban Don Mateo onak.

Zuster Gundrada'k eta Zuster Maria Christine'k, Don Mateo lagun ebela, ondo apainduta itzi genduezan.

Schooten'go bidea artu genduan, eta errira eldu orduko egoan geltoki baten Anberes'erako trenbidera igo gintzazan. Udabarri ederra zan, otza goizeko orduetan, eguzkia sortzaldek gorantz yoian. Geuk be barruan geure eguzkia geroian.

Anberes'era eldu gintzazanean, an egoan Aita Peters gure zain; beragaz batera egozan, leen Koningshof'era etorri yakuzan gizonak be. Guri azkenengo oarrak emonik, gure biribilketak asi bear genduzan tokira eroan genduezan. Antxe egozan txistulariak gure zain. Dotore jantzita. Soiñeko baltz, urregorriantzeko botoiak, sedazko alkondarak, eusko-txapel ederrak. Euskalerriko gazte mardulak! Leen euskal-lurra zapaldu nai ebenen aurka burruka gogorra eginda gero, orain erbestean Euzkadi'ren izen ona kanta ta dantzen bidez zabaldu ta ezaguerazoteko gerturik. Beti Aberriaren alde burruka ona egiten!

Asi zan, ba, gure biribilketea. Anberes'ko kalerik nagusienetan zear, an yoiazan gure txistulariak euskal-soiñu alaiak josten. Gipuzkoa ta Bizkaia, Nafarroa ta Araba'ko eresi bigun eta samurrak, baserri, domeka-arratsaldeko soiñu alai ta bizkorak, Aberri zapalduaren eresi itun eta naibagetsuak.

Guk alboetan illuntzerako egitarauak bidaztai banantzen giarduan.

Batzuek jakinguraz artu, ezetza emon beste batzuek (ez zan gure izena —«gorriak» bai'gintzan— bear zan lako onetsia erbestetarren belarrietan), pozik be bai beste batzuek artu. Orixe gintzazan eusko-umeok gure erritik kanpo: jakinguraz artuak, «gorrien» seme lez baztatuak, gure erriaren zintzotasunagaitik maitatuak.

Arin igaro ziran eguerdi-aurreko gure orduak. Etxera biurtzeko gerturik gengoan. Bai egun ederra, Anberes'ko kaleetan egindako eguna!

«Nora zoaze?»

«Ez zeuke nai emen geugaz bazkaltzen geratzerik?»

Nok esan ezetz? Gure abadeak ez eben gogo beroz ames ori artu; baiña, zelan tximurtu guri poza?

Laster gintzazan erri zaarrekõ jantoki baten. Leku garbia, andikiena nai-ta-ez: guretzat egokia. Jantokian sartzean, an egozan guztien begiak geugana begira jarri yakuzan.

«Zer artu nai zeukee?»

Beti patata legorrak —Ume Errubageen jaiegunean izan ezik— jan dauzan umeari, zer eskiñi daikeozu besterik?

«Patata prijiduak aal ba'geukaz!»

Egun aretan barriro Ume Errubageen jaia ospatu genduan.

Gure bazkaria amaituta, euskal-musika zati batzuk an egozanai entzunerazoteko baimena eskatu eutsoen jantokiko ugazabari.

Oltza-antzera mai baten gaiñean zutunik, an asi yakuzan Aberriko soiñu bigun-ederrak joten. Unerik ederren eta tristeena, «Eresoinka»-ko batek «Nik bai nuan maiteño bat...», abots indartsu ta gozoz abestu euskunean izan zan. Maitatzaillearen negar biguna, arerioak senargeia Aberriaren alde egiten il dabela...

Gure eresi gozoak zirala-ta, maiteminduta lez geukazan jantoki aretako maikideak. Ugazaba berbera be esker onez etorri yakun, soiñularientzat eskupeko bat ekarrela. Eta maikideen aldetik be, zerbait artzea ez legokela txarto.

Gure txapeltxoak eskuetan artuta, an joan gintzazan umeok mairik maira maikideen eskupekotxoaren billa...

\* \* \*

Ez ziran guk Anberes'erantz egiten genduzan osterak beti egun onetan, «Eresoinka»-ko egunean, egindako osterea aiña-ko gozotsuak.

Oso garratz biurtu yakun ostera bat nai dot orain azaldu.

Arratsalde aretan, gure etxe-aurreko beresiaren ondoan egoan ondartza baten olgetan gengoan. Ondarraz jostailuak egin batzuek; urari eusteko ormak beste batzuek; guk, «zaarrek-nok», auturen bat gerabillen gure artean.

Ara non datorren Don Mateo gure ezagun ez ziran gazte mardul batzukaz alkarrizketan. Geugana elduta, gu nongoak ete-gintzazan itauntzen asi yakuzan. «Motriku'koa» - «Zorno-tza'koa» - «Bilbo'koa»..., bakotxak bere erria aitatzen eban. Areitariko batek, «Bilbo'n iñoiz izan dala, Bilbo'n izeko bat daukala», eta abar. Onelako artu-emonetan beti jazo oi dana. «Izatez Barzelona'koak dirala, eta Anberes'ko Iñazio Deunaren Ikastetxe Nagusian ikasten diarduela».

«Aita Peters be Ikastetxe orretan bizi dala», guk.

«Aita orregaz ia artu-emonik ez dabela». «España'ko beste jesulagun batzuk be Ikastetxean dagozala. Azpeitia'ko Anai bat be bai, oso jatorra bera». «Eta ikasleen artean be bilbotar batzuk edo Bilbo'n senideak daukezanak beintzat». «Euretari-ko batzuk, azterketak zirala-ta, ezin etorri izan dirala». «Beste batzuk urrengo baten etorriko dirala». «Gugana etorteko, Azpeitia'ko Anaiak esan dautsela, eta berak be geure zuzenbidea emon dautsela. A oso jatorra dala.»

Areik lako gazte eskolatuak ikusiaz, laster zan gure autua amaituta. Zer esan geuskien guk, eskola bagariko umeok, Barzelona'tik etorritako gazte eskolatu arei?

Baiña areik gure bizimoduari buruz zerbait jakin nai.

«Jaten ondo emoten ete-euskuen». «Eurari be, Ikastetxean, ez larregi ondo, naiz-ta asko ordaindu bear». «España'n gerrea zala-ta, nondik ordaindu, bear zan beste». «Euren guraso ta seniderik geienak be, Barzelona'tik iges egin eta Prantzia'n egozala». «Barzelona'n gauzak oso motel egozala». «Eskolara joan-bearrik ete-genduan». «Eskolan ez gengoanean, zer egi-ten genduan».

«Batzuetan ezer be ez —erantzun guk—. Beste batzuetan kantak ikasi.»

«Zelakoak?»

«Geienetan, euskal-kantak.»

«Politak ei'dira. Eurak be katalan-kantak ekiezala.»

«Eta guretari-ko batzuek euskal-dantzak be ikasten ziar-duela». «Gure ongilleak emendik ara eroaten genduezala-ta, an

eta emen dantzan egiten genduala». «Aita prantziskotar bat etorten zala». «Soiñulari entzutetsua, eta pianoa ederto jotzen ekiana». «Eta dantzan egiten genduanean, geure aberriko ikurriña zabal-eder bat erooten genduala». «Eta asieran, leenengo dantzea egiten genduanean, «Euzko-Abendaren Ereserkia» abestu, eta Ikurrinpean makurtzen gintzazala dantzari guztiok».

Eta abar, eta abar. Guk egiten genduzan gauzak azaltzean gintzazan, ba, mutillak! Eta gazte eskolatu areik guk esandakoai adi-adi adurra dariola, zelan egozan ikusiaz, a zan benetan gure poza ta arro izatea!

«Arin ez ba'zabize, iges egingo dautsue autobusak!», esan eutsen beste aldetik etorri zan Don Mateo'k, gure lagun bariak guri kendu nairik.

«Urrengo baten luzaroagorako etorriko gakizuez. Ez izan ardurarik. Etorriko gakizuez. Bai laster etorriko be!»

Gazte areik gugandik alde egin ebenetik eta leenengo egunetan, eurak ziran gure autuen gairik beñena. Noiz etorriko zain gengoan beti. Baiña agertzen ez zirala-ta, geuri be gazte areik laster aaztu yakuzan, umeen artean begi-aurrean ez dagozan gauzakaz jazo oi danez.

Gure eguneroko bizikeran murgilduta gengoan barriro. Guk ain gutxi maite genduan eskolea! Don Mateo'gaz Schotenhof'era edo Brasschaat'eko bidera edo S'Graven'era (gure artean S'Garvenwezel esaten geutsanez), edo alboko beste erri-txo batera egiten genduzan osterak.

Laster Garizumea zan-eta, egun areitarako be latinezko kantak ikasi bear genduzan. Zuster Maria Christine'gaz Mateo'k ain itun kantatu eta biotz-barruraino sartzen yatan: «Jerusalem, Jerusalem, convertere ad Dominum Deum tuum!», eta orreik lako beste kanta sakonak. (Ezagun zan gure Mateo'k bere Motriku'n, erriko Bandan, «turuta» jotzen ebana.) Ba-genduan, bai, jolasik naikoa Barzelona'ko gazte areik burura eka-rrri bagarik!

Beste askotan jazo oi zanez, Anberes'era joan bear genduala-ta, gerturik egoteko Don Mateo'k. Egun illuna zan, eta goiz osoa Zuster Gundrada'gaz egin genduan, bere erriko ereserkia ikasi bear genduala-ta. Gure dantzari-jantzi ta tresnak, makillak, ezpatak eta eusko-ikurrin ederra artuta, Iñazio Deu-naren Ikastetxe Nagusirako bidean jarri gintzazan.

Egun aretan be, gure ongille-talde bati poza emon bear geutsan; eta, Aita Peters bitarteko genduala, Ikastetxeko Erretoreak Ikastetxeko aretoan gure antzerketa ori egiteko baime-na emon euskun.

Gure dantzak eta kantak amaituta gero, dantza-tresnak batu eta etxeratzeko gengoan. Guztiok asarre: Aita Arrue etorri ez-eta, beste pianu-jole barregarri bat jarri euskuen aren orde. Txarto, ezin txarrago bete eban onek bere egitekoa. Guk ezin larregi lagundu egun aretan.

Don Mateo asarre, gu buru-makur gengoan egun aretan, andik aalbait ariñen urteteko asmoz.

Areto andi aretatik urten, eta non aurkitzen doguzan Barzelona'ko aspaldiko gure gazteak, gugana etorrita gugandik ainbat barri ikasi nai ebenak.

Baiña oraingotan ez egozan beste egunean lez lagunkoi, ez. Eskueta banderak eroiezan, gureak lako alaitsu ta biziak ez, illun eta itsusiak baiño. Gure iru kolore ederren orde, gorri ta baltzak ziran arein banderak.

«Viva la Falange!»-«Arriba España!», egiten eben deadar, guri kalerako bidea galera zuen nairik. «Nok esan zuei zuen ikurrin zikin orreaz gure Ikastetxera etorteko?» - «Nok emon baime-na zuen dantza ta abestiak kantatzera ona etorteko?» - «“Separatista” zitalok!»

Ikaraz gengoan umeok. Ikaraz, gazte areik ain aldatuta ikusiaz. Ume izan bearrean, gizon andiak izan ba'gintzaz...!

S'Gravenwezel'goak be egun aretan gugaz Anberes'era etorrita egozan. Mutil ederrak laurak. Guretzat —umeak gintzazan besteok-eta— beste iñor baiño indartsuagoak. Areitari-ko bat, batez be, ulegorria bera, ixilla, bilbotarra izanaren, ba-

serritik etorritako gurasoen semea. Umeon ustez, a zan benetan Barzelona'ko falanjistai gogor egin eta gu nortzuk gintzazan erakusteko.

«Emon zuk, orreik baiño geiago zara-ta!» (Gure kaleetako ume-arteko burruketan lez, nor geiago zan ikusi nai genduan, gurea besteak baiño geiago zalakotan.)

«Aurrera guztiok! Ez emen geratu! —iñoskun artetan Don Mateo'k—. «Ezin daikeguz jazoriko oneik onela baketan itzi, beste bagarik, ezer jazo ez bai'litzan!» —iñoan Don Manuel'ek, aurpegia gorri-gorri eginda eta zanak andituta eukazala—. «Aita Peters'egaz egin bear izango dogu berba! Erretoreari esan dagiola! Guk arratsalde au eratzeko bear diran baimen guztiak eskatu doguz eta emon egin dauskuez!»

Isilik, ume zigortuak lez, etxeratu gintzazan. Jazorikoak jazota, nekatuta gengoan egun aretan, alkarregaz berba egiteko gogo bagarik, ogera aalbait lasterren noiz joango zain.

Barzelona'ko gazteen autua be laster amatatu zan. Jesus'en Lagundikoak —gure arrenkurak Aita Peters'ek bere Erretoreari iñoiz jakiñerazo ba'utsazan—, edozela be, ez eben erantzunik emon.

Gu euskaldun erbesteratuak baiño ez gintzazan, «gorri» edo «erdi-gorriak», ume iguingarri ta ezeukiak. Areik, barriz, Barzelona'ko familiarik onenatariko gazteak. Gure gerra zitaren asieran, Lagundiko Nagusiak arturiko erabagia begi-aurrean izan ezker, ez zan arritzekoa Iñazio Deunaren Ikastetxeko Erretoreak guri buruz eukan naibagea ikustea.



## KONINGSHOF'EKO EGUNEROKO BIZIKEREA

Dantzan egin, abestu eta eskolara joan, ez ziran guk Koningshof'en egiten genduzan egitada bakarrak. Guzti orreik egun batzuetan, berarizko egun edo orduetan, jazoten zana zan. Ume ta zaarrak egin daikeenez, beste egun eta orduetan be geure «egitekoak» genduzan, edozelako egunetako egitekoak.

Eta «egitekoa» (edo arazoa) diñodan ezker, bat geukan batez be egunean-egunean eta egunero iru-lau aldiz bete bear genduana: bazkaltzeko tresnak garbitzea. Lan ori guretariko batzui baiño ez, taldeko nagusiai, egokigun.

Asieran, geure Zuferrak egiten eben lan ori, Zuster Gundrada'k eta Maria Christine'k geienetan. Upel andi bi beterik ekarten ebezan eskaratzetik: bata ur irakiñaz, ur otzaz bestea. Orduko, gure bazkal-tresnak mai-ganean pillatuta eukiten genduzan. Gure Zuster biak, jantzietako besarteak gora jasorik, an asten ziran gogor euren lanean. Leenengotan, an geratzen gintzazan enparaduok Zuster bien aurrean tinko, areik egiten eben lanera begira. Barri zan guretariko geientzat, esan bear, Zuster'en besoetan azal zuria ikusi aal izatea. Eta an gengoan, ori dala-ta, lelotuta lez, Motriku'ko irurak eta ni gertu Zuster'en bati edo besteri gure laguntza txikia eskintzeko, pozik zelako edo alakoren bat egiteko euretarikoren batek mesedetxoren bat eskatzen euskunean.

«Mateo, an, beste maian dagozan tresnak!»

«Josu, eskaratzetik beste esku-mantar bat ekarriko ba'zeuskit!»

Garbitzea amaitutakoan, an gengoan guztiok gertu Zuster Maria Christine'gaz batera —bera zan indartsuena eta upe-

lak eroateko egokiena-ta— ur zikiña jolastoki-erdira eroateko. Barre egiten euskun berak, barre galantak egin be, gu upela eroanaz nekatuta ikusten genduzanean.

Gero, gure laguntza txikiak bakarrik ez, tresnak garbitzen be, geuk artzen genduan aren lana. Eta zegaitik edo agaitik, garbiketa-lanak egitera ezin etorri ba'ziran, lan osoa geuk egingo genduan. Onelakoetan, gure maiko tresnak eurak baiño argi ta garbiago eukiteko aalegintzen gintzazan, eta Zusterrai be—ume-arrokeritxoaz— eurak ziran aiña geu be ba-gintzazala esan.

Onetan Josu zan mutilla! Zuster Maria Christine'ri aurre-ratuko yakon, eta bere prantzera bada-ezpadakoaz esango eutsan: «Nik zuk baiño obeto garbitu maiko tresnak.»

Eta Zuster Maria Christine'k Josu'ri barre egingo eutsan. Ez zan, ez, orren erraz gure Zuster Maria Christine asarre jar-ten.

Guk Koningshof'en egin genduan negua, oso gogorra izan zan.

Eusko-umeontzat edur latz eta gogorra. Edurra beste iñoiz ikusi ez genduan lakoia izan genduan negu aretan. Otz gogorra egiten ebanean, an geratzen gintzazan guztiok gure gela andian, kanpoko otzetara joateko gogorik ez genduala. Sututa etorten yakun batzuetan Zuster Gundrada, katua suaren ondoan lez, berogailluan gengoanok laster kanpora bialtzeko asmoz.

«Zuek lako gazteok! Zer egiten dozue emen otzak kikildu-ta? Nora joango zaree nire urteetara eldu orduko?»

Illuntzean otza gogortu egiten zan. Edurra joanda, zeru-sabaia izartzen zanean, otza azur-mamiñetaraiño sartzen yakun. Egun otz orreitarako, joko bat asmatu genduan zaarrenok, maiko tresnak garbitzen laguntzen genduanok. Tresna-garbitze ori amaituta, ura etxe-osteko urbidera eroan eta bertan isurten genduan. Larrain orretan urbide bat egoan, euri, edur eta beste ur guztiak iges egiteko. Esandako illuntze otz orreitan, gure ura aterpean isurten genduan, aldatz-beera yoian eta urbideetatik iges egiten eban. Illuntze otz areitan, bost miñutu baiño leen

ura lei biurtzen zan, izotz gogorra. Orduan, bata bestearen os-tean aterpetik arin urten eta izotz biurtuta egoan ur aretara saltoka joaten gintzazan. Ura baiño ez zan izotza, ur zikiña, izotz zikiña; baiña guk inguruetako etxe aberatsetako umeak lako poza geukan aldi aretan. Izotz-dantzan ebizan aberatsen antzeko geukazan une areitan gure buruak. Otza ta izotza ume guztientzat egoan gertu, baita geuretzat be...

Orretarako izan ezik, ez da otza ezelan be atsegingarri, eta geuk be naiago izaten genduan egun otz areitan orduak otzetan baiño aterpe berotan egitea.

Egunak luzatu eta epel biurtu ziranean, guretariko abade-ren bategaz —Don Mateo'gaz gienetan, iñoiz Don Manuel'egaz be bai— joaten gintzazan arratsaldeetan ibillaldiren bat egitera. Koningshof'eko inguruak baketsuak ziran, beresiz orniduak, eta egurastera edonora joan geintekezan. Bakarrik ezin iñora joan...; baiña sakelean txanpontxo bat euki ezkerro, laster joan-go gintzazan gure etxetik urr egoan gozoki-dendatxo batera txokolatea erostera. Mateo'k txokolatea erosten ebanean, a zan berak eta Nazari'k antzezten eben teatroa!

Mateo'k txokolate luzearen ertz bat agoan sartu ta miazka-tu, luzaro iraun bear eban-eta... Arek barre eginda, ukatu, agoan sartu, agotik atara. Anai bien arteko teatroa ikusiaz, areik ziran beste guztiok egiten genduzan barreak!

Baiña geienetan, beste zokondotxo batera joaten ziran Mateo'ren txokolateak, bai berak erosi bai iñogandik arturi-koak: ogepean ondo itxita eukan kaxa batera. Ipar-Euzkadi'n, Donibane-Lohizune aldean nonbait, eukezan anai bi oneik eu-ren ama ta anai-arrebak: eurak baiño nagusiagoak batzuk, ume txikarrak besteak. Oneik gerrea izan zala-ta, ezagutzen ez ebe-zala, euren amesetan bizi ziran gizajo biok. Aita Peters'ek «Pain d'épices» eritxon ogi-antzeko gozokia ekartsala, Zuster Adula'k ondo ezkutututa eukazan garau-antzeko gozoki batzuk emoten eutsazala, ba-gekian guztiok Mateo'ri emoniko sari guzti oneik nora joateko ziran: ogepeko kaxa itxira.

«Au, geure Josetxo'k artuko dau, bai pozik be!», iñotsan Nazari'ri, berak artzeko gogoz erdi-negarrez egoan Nazari bere anaitxoari. «Eta Zuster Adula'k emoniko beste au, geure Malentxo'rentzat!»

Anai-arrebatxoakaitik edozetara egoan gertu gure Mateo, naiz-ta bera be gozozalea izan. Eta polito-polito Nazari'k be, Donibane-Lohizune aldean nonbait erbesteratuta egozan anai-arrebatxoak maite izaten ikasi eban.

Ez eutsan guretariko iñok ogepeko kaxan ezkutatuta egozanai ezelan be ikuturik egingo. Mateo'ren amesai zaplada bat emotea lez izango litzakean ori egitea. Eta, Mateo guztiok maite genduan ezkerro, ez geutsan iñola be okerrik egingo.

Mateo'ren ogepeko kaxa ezkutatua ikusiaz, eta guk kaxa orri geutsan begiruneaz konturaturik, urteak aurrerago gure kaleko umeai jazorikoa, nai-ta-ez, burura ekarri bear: gure Karlos O.'ri buruz jazo yakuna.

Zabalbide'ko laguntaldekoen artean bera zan nagusiena, besteak baiño urte bi-edo zaarragoa, indarrez askozaz be indartsuagoa. Gure artean guztiok berau buruzagizat genduan. Arek Atxuri'ra joateko iñoanean, guztiok Atxuri'ra giñoiazan; arek guri teatroa antzetzeko esan, eta guk teatroa egin. Arek zelako soiñua jo, alakoa gure dantza.

Onelako baten, burutasun barri bat otu yakon, eta burutasun ori geure artean zabaldu eban.

«Zegaitik ez «tripa-jaialdi» bat egin?»

Gure Karlos'ek zer nai ete-eban ulertu ez genduan ezkerro, ez geutsan erantzunik emon.

«Bakotxak zerbait ekarri dagiala, gozokiak batez be, gal-tzen ez diranetarikoak. Bear dan beste pillatu dagigunean egin daikegu tripa-jaialdi ori.»

Burutasuna ez zan edozelakoa, eta guztiok, barri izan zeitekean zerbaiten gogoz, pozik bai pozik be, baietza emon aren burutasun ari. Baiña eragozpenak ez ziran makalak.

«Eta, non ezkutatu gozoki orreik «jaialdi» ori egin arte?»

«Solokoetxe'ko etxe barrietan dagoan zulo baten!»

Gu, umeok, sarritan olgetan (jolasean) egiten genduan Solokoetxe'ko Ikastetxe-aurrean egoan larra baten (Bilbo'ko Udalak etxe barri batzuk jasotea erabagi eban tokian). Ikastetxe-aldetiko larran egoan gure Karlos'ek aitaturiko zuloa. Ara yoiazan guk emendik eta andik lortu geikezan gozoki guztiak. Ara yoiazan Benantzi'ri ta niri, lanetik etorrela, aitik emoten euskuzan «malbabisko-karameluak» (aitak «Santiaguito»-re-ean erositako orretariko karamelo batzuk eroiazan beti bere sa-kelean); ara, Jesus'ek, amak edo arrebak ikusten ez ebela, den-datik artzen ebazanak; Migel Anjel'ek edo Jabier'ek etxetik arturikoak.

Illuntzeetan, Ikastetxetik urtenda gero, etxera joan baiño leen, ixil-ixilik geure «Aberastegia» (izen ori ezarri geutsan gu-re zuloari) ikustatzera joaten gintzazan. An egozan malbabiskoak, an karameloak, an beste gozokiak, intxaurrak, urrak eta kakahueteak...

«Oraindiño ez! —erantzuten euskun Karlos'ek, “tripa-jaialdi” ori noiz ospatzeko zan itauntzen geutsan bakotxean—. Zenbat eta geiago pillatu, ederragoa izango da gure jaialdia.»

Onelaxe yoiazan aurrera gure egunak, egunean-egunean gure pilloa gorago yoiala, eta guk illuntzero etxeratu orduko geure «Aberastegia» ikustatzen genduala.

«Biar, eskolatik urtendakoan, geure jaialdi ori ospatuko ba'gendu! Zer deritxazue? Nire ustez, moltzo ederra pillatu do-gu, bai pillatu be...»

Aspaldi zanetik egun aren zain gengoanok, ezin pozago gure baietza berak esandakoari emon.

Gau aretan ez genduan nasai lorik egin. Eskolan be, prai-lleak zer esan guk aditu ez. Beste nonbait egozan gure gogoe-tak: Solokoetxe'ko zelaiko zuloan.

Eskolaldia amaituta bereala, ara joan gintzazan gure talde-ko guztiok. A gure ames etena, Solokoetxe'ko Ikastetxera eldu gintzazanean: gure zuloa utsik egoan!

«Nor izan daiteke?», iñoan beste iñok baiño larriago gure



Karlos'ek. «Bearbada, gu ona gentozala, norbaitek ikusi gaitu eta susmoa artu dau!»

«Neuk be orixe uste! —erantzun eban Karlos'ek—. Urren-go baten zoliago ibili bear izango dogu. Guztiok alkarregaz etorri ez, banan-banan eta taldeka baiño. Edo beste tokiren bat gure "Aberastegi"-tzat aukeratu.»

Guretariko iñok ezer esan ez. Barriro gure karameloak orretarako alboratu? «Lapur ori nor izan dan jakin ba'neki, lepoko azurra apurtuko neuskio», berak barriro.

Gure «Aberastegia»-ren jazoera ori ez genduan geiago aitatu. Zelan aitatu be? Guztiok lapurra Karlos berbera zalakotan gengozan-eta!

Mateo'ri ez, Mateo'ri ez geuskion ezelan be orrelakorik egingo. Nasai ezkutatu eikezan berak ogepeko kaxan, anai-arrebentzat bananduta eukazan txokolateak.

Don Mateo'gaz ibillaldia egiten joatea gauza oso atsegin-garria zan, batez be beragaz giñoiazan iru-lau nagusiontzat. Aurretik txikarrenak yoiazan, gero aziagoak, azkenean gu iru-lau-rok, guztiok erreskadan kanpora doazan praillekien antzera. Don Mateo'gan uste osoa geukan, eta ari edozer gauza esan edo itauntzeko ez zan bearrezkoa ausarti izatea.

«Gerrea zelan doa aurrera? Geureak irabaziko ete-dabe?»

Don Mateo'k ez euskun erantzunik emoten. Naikoa mingarri yakon berari be, itxaropenik ez egoala jakitea.

«Don Manuel, autortzera giñoiazanean, gogor eta latza zala. Beragana joatea ez ete-litzakigun obe.»

Au entzuteaz, barre egiten euskun berak. Pozik egoan bera autortzak entzun-bearrik ez ebala, kezkatu utsa zan-eta. Abade egin orduko, urte bateko oporrak artu ebazan, Meza Santua emoteko bildur zala-ta. (Baiña gai orretzaz ez euskun iñoiz berbarik esango. Geroago jakin neban zertzelada ori.)

«Abadeai guri baiño askozaz obeto emoten eutseela jaten. Guk, Ume Errubageen jaiegunean izan ezik, beti patata legorak jaten genduzala.»

«Eurak ez ziran umeak, gizon zaarrak baiño», erantzun Don Mateo'k. (Berez, ez zan orren zaarra bera, baiña bai bear zan baiño zaarragoa eginda.) «Eta berak, Eibar'tik iges egin bear izan ebanetik, urdailleko miñak eukazala.»

Egia zan, antza, iñoskun au. Mezea erasoten geutsanean, ardao tantatxo bat baiño ez geutsan kalizan isurten. Geiago artu ezkerero, barru guztia garraztu egiten ei'yakon.

«Pelotazalea ete-zan», guk.

«Bai, eta Eibar'ko pelotalekuan txapelketa ederrak ikusi be. «Atano» anaiak, eta Gallastegi, eta «Arrasatekoa», eta bes-te ainbat. Otzarara be, eta puntara, eta abar.

Egun baten, barri pozgarri bat ekarri euskun: «Datorren domekan Anberes'ko Stadium'era joango gara, benetako jokaldi bat ikustera. Jendrickx jaunaren ezagun batek sartzeko txartel guztiok ekarri daustaz. Zuen artean etorri nai dagianak, ize-na emon dagiala. Guztiok nai genduan Stadium'era joan. Guztiok geure izena emon be. Guk bear izango genduken txartel ez eukan ezkerero, guretariko egokienak aukeratu genduzan. Jose Luis, Josu eta Mateo futbolari trebetsuak ziran ezkerero, areintzat txartel bat nai-ta-ez egon bear. Durango'ko Xabier ain trebetsu ez zan; baiña, aalegiñik andienak egiten ebazan ezkerero, berak be txartel bat lortu eban. Ostiko-pelotan atezain jokutzen eban oni, edo lurrera jausi, edo buruko bat artu, edo iztarrak zauritu, ez eutsan ezek jokorako eban adorea epelduko. Bera baiño andiagoa izandako baten jerseyia eroian, eta jersey onek atezain baten antza emoten eutsan, edo berak beintzat emoten eutsala uste. Xabier'ek be, ondo merezi eban futbolera-ko txartela jaso eban. Gauza zuzena zan berak txartela jasotea.

Orrelakoak ziran besteak be, euren futbol-zaletasuna zalata, txartel ori saritzat ondo merezita eukenak.

Futbol-zale guztiok ikusita gero, ez neukan nik txartelik jasoteko itxaropenik. Arrituta geratu nintzan, ba, eta ez gutxi be arritu, onelako baten Don Mateo neugana etorten ikusi nebanean. Eskuan txartela eukan, eta, beti lez, legunkiro esan eustan: «Ez zintzakez zeu be pozik joango partidu ori ikustera?»

Zer esan neikeon nik? Joan nai, bai, nai neban, baiña lotsa apur bat emoten eustan txartel arek.

Umetan, gerra-aurrean, aitzak Benantzi edo ni, domeka-goizetako partiduetara eroaten genduzan, Santi Mamiñe'ko zelaira. Orixe zan nire futbol-zaletasun bakarra! Futbolean jokatzeko ez nintzan iñoiz gauza izan. «Berrio-Otxoa»-ra joaten nintzanean be, klase-arteko jolasaldietan, ostiko-peloteari neure ankakaz emotea baiño naiago neban lagunen bategaz arona ibiltea eta edozein jazoeratzaz jardutea. Egia'tar Jose Mari, nire lagunagaz («Pintxapezes» ezizena ezarri geutsan), ibiltzen nintzan sarritan emendik ara, egunen baten misinolaritzan, guk egin bear genduzan ames-ekintzai buruz berba egiten genduala. Ames utsa zan gure autu osoa, eta orretan egiten genduzan gure jolastarteok. Baiña futbolean egin? Ez orrelakorik! Orretarako beste batzuk egozan, ikasten onak edo epelak, baiña jolasean ezin obeak ziranak: Aspiuntza, Pepito Martínez, Intzera, eta abar. «Abar» onetan ez nengoan ni, ez izan ardurarik.

Bazkal-ostean guztiok txartel bana artu genduan. Don Mateo lagun genduala joan gintzazan Stadium'era. Kiroltoki au ez egoan Anberes'en bertan, uritik kilometro batzuetara baiño.

Egun ederra zan. Sakelean txanpon larregirik ez geukan ezkerro, Stadium'era oiñez joatea erabagi eban Don Mateo'k. Aregaz futbolari buruz berba egitea poz emoten eban. Bilbo'ko gure Athletic edo Dinastia'ko Real-a zala, ez leuke iñok esango gure Don Mateo ain kezkatua izanik, ain elizkoi eta liburuzailea, futbol-gaietan orrenbeste jakin eikeanik. Gure Bilbo'koak pase luzea egitera oituta egozala, emengoak laburra egitera; areik biotz geiago, oneik burua artezago eukela. Baiña guztitara, gutarrak oneik baiño obeak zirala, eta, aldi aretan Mexico-aldeetik ebizan «Euzkadi» taldekoak onein aurka egin ezkerro, gutarrak izango litzakezala garaille ziur be ziur.

Stadium'etik etxerantz Schoten-alboko erritxo batean zear gentozala, ara non aurreratzen yakun abade gazte bat.

«Euskal-umeen arduraduna zara zu? —itandu eutsan Don Mateo'ri—. Berba labur batzuk egin nai neukez zugaz!»

Albo batera joanda, alkarregaz prantzeraz egiten asi ziran. Gugana biurtu zanean, ez zan geiago leengoa gure Don Mateo. Alaitasuna, gugaz berba egiteko poza, bere biotzetik alde egin da eukazan. Itun eta illun giñoiazan Koningshof'erako gure bi-dean.

«Zer dala-ta orrelako aldakuntza? —itandu eutsan, orretarako iñoiz ardurarik ez eban Josu'k—. Abade orrek albista okerren bat emon-ete?»

Josu'ren itaunari ez eutsan Don Mateo'k erantzunik emon. Guk be ez geutsan beste itaunik egin, eta ixil eta itun egin genduzan Koningshof'erako azkenengo kilometroak.

Baiña nik, prantzera ba-nekian-eta, alkarrizketa aretatik zer-bait ulertu neban, larregi izan ezarren be. Gure Don Mateo gorra ez, ez zan gorra; baiña orduko, geroago ta gorrago izateko geisoa asita eukan ezkerro, beronegaz berba egin nai ebanak bear zan baiño gogorrago egin bear berba... Erritxo aretan egoan euskal-ume bati buruz ekin eutsen euren autu orretan. Umea gugaz Capbreton'en egoniko eibartarra zan: geure urteetakoa, ulegorriskea, barritsua. Koningshof'era bera iñoiz etorri ez, baiña guk gure joan-etorrietan iñoiz erritxo orretan aurkitu gendua.

Erriko neskatxa bat zala ta ez zala... Besterik ez neban ulertu; baiña, Don Mateo'ren tristureak agertzen ebanez, erri orretan bear ez zanen bat jazo zan, antza, eta Eibar'ko ulegorriskea izan zan, nonbait, orretan errudun.

Orreik lakoak izan zeitekezan, ba, gure Don Mateo'k igaro bear ebazan ardurak. Ez gintzazan, ez (zelan izan be?), eusko-umeok beti izan bear gintzazan besteko onak. Besteen antze-koak gintzazan. Era guztietariko etxe ta familetatik etorriak: batzuk, on, zintzo ta tolesbageak; beste batzuk, oker eta biurriak. Izakeran, batzuk bear zan baiño errazago okertuak, edo euren etxetik kanpo, ardura bagarik egon eta iñor euren zain ez zala uste ebelako, edo gerra zitaleko min eta nekeak umeen biotzak be gogortu eta euren oiturak nasaitu egin ebezalako.

Orreitarikoak be ba-genduzan gure artean, edo, obeto esateko, iñoiz izan genduzan.

An egoan, esate baterako, izena «Txo» ezarri geutsan nire jaioterriko mutiko bat. Ez ekian iñok nondik eta zelan eldu zan gure artera. Berak esandakoa, sinistu ezkerro, gora-beera aparteko ta miragarriak igaro ebazan, Beljika'ra eldu orduko. Italia'ko «gezi-baltzak» Bermeo'ratu ziranean, an egoan gure bermeotarra. Geroago, inguruetakoko mendietan zear, Erroteta'tik edo Soillube'tik, Bermeo'tik iges egin eta Bilbo'ra eldu zala azaltzen euskun arro-arro. Baiña «fasistak» (onela esaten eutsen berak Francotarrak) Bilbo'n sartzeko zorian egozala, barriro be Santander'era iges egin ebala; eta andik arrikatz-ontzi baten, azkenengo euskaldunakaz, Prantzia'ko porturen batera. Portu orren izena ez eban ezagutzen gure bermeotarrak: batzuetan Baiona zala iñoan; beste batzuetan Bordele. Portu orretatik Beljika'raino zelan etorri zan itandu ezkerro, ez egoan berak esandakoetatik gauza argirik ataraterik.

Berau leenengoz ikusi nebanetik, arrotz egin yatan. Ekeren'dik Koningshof'era astero egiten neban ikustaldia zala-ta, ikusi neban bermeotar ori leenengoz.

«Zeure erritar bat dogu orain gure artean lagun —esan eustan norbaitek—. Egunotan etorri yaku, nondik ez dakigula.»

Bermeotar bat etxean egoala entzutea naikoa yatan, beragana joanda, erriko barriak jakiteko.

«Bermeotarra naz neu be —esan neutsan, poza emongo bai'neuskion—, naiz-ta umetarik Bermeo'n bagarik Bilbo'n bizi.»

Euria jausiko bai'litzan. Ez dot uste ardura andiagorik egin eutsanik gure bermeotarrari ni bermeotarra nintzana jakiteak.

Ni nongo etxekoa nintzan esaten asi nintzakion. Naiz-ta Bilbo'n urte asko bizi izan —ni jaio nintzanetik, izan be—, gure aurretikoak eta senideak Bermeo'n oso ezagunak ziran. Baiña, gure aitita Bermeo'ko alkate, eta aita «erriko gizon» izanikoak zirala esateak, ez eutsan ardura andiagorik emon.

(Aitita eta aita ezagutu ez ba'dauz be —nik neure kautarako esan—, osaba Bizente nai-ta-ez ezagutu bear izango dau. Osaba abadea ezagutzen ez dauanik ez dago Bermeo'n.)

«Nire osaba bat be luzaro izan da abade Bermeo'n. Portu'ko elizako abade nagusia da», esan neutsan, ardura apurren bat gure morroiaren biotzean iratzartzeko asmoz eta itxaropenez.

«A bai, alako abade fasistea!», izan zan aren erantzun bakarra.

Agiñak apurtuko neuskiozan! Tamalez, ni baiño indartsuago ta lotsabageagoa zan bera.

Orduko, osaba Bizente, ogetamar urte baiño geiago Bermeo'n eginda gero, ogetalau orduko astia emonda, beste lau abadeakaz andik atara eta Elgeta'ra bialdu eben.

Ez neban geiago berbarik egin gure bermeotar zoroagaz...

Ni Koningshof'era etorri nintzaneko, andik alde eginda egoan. Bermeo ta Santander'ko bere gora-beerak emen be barritzatzeko asmorik ete-eban ba? Ez, beste gauza bat zan berari eta bera lako beste batzui jazorikoa.

Gorago esan dodanez, lotsabaga utsak ziran, tamalez, gure arteko batzuk. Goikoai buruausteak emon, guri lepoko miñak batzuetan: orixe zan lotsabaga orrein arazo berarizkoa.

Mutiko arein lotsabagekeriak ikusiaz, gure abade ta Zusterriai beste ardura barri bat sortu yaken: an gengoan beste mutikook be, ez ete-genduezan euren bide okerretik eroango.

Eta Koningshof'en jazoten zana, eusko-umerik egoan beste edonon jazo zeitekealako, gure euskal-abadeak erabagi gogor bat artu eben. Besteentzat okerbide izan zeitekezanak, guttiak leku baten pillatu. «Pillatu» esan dot, baiña obe litzake «alkartu» esatea. Ez zan Duffel (erri onetan egoan mutiko oneik alkartuta egozan etxea) espetxe bat, ezta arein ardurea croienak espetxe-zaiñak be. Euskal-abadeak egozan an be nagusi ta arduradun. Euron artean, Don Jesus Orbe, Bilbo'ko Gaztediaren arduradun nagusia izanikoa. Ba-ekian arek bada-epadako mutillakaz, mutil gazte eta okerrakaz, zelako artu-

emonak izan. An egoan Don Dionisio Oar-Arteta be, Gernika-inguruetako iru anai abadeetarik bat.

Nik Bermeo'ko «Txo»-gaz azalduriko alkarrizketa izanda egun batzuetara, nire aste guztietako autortzara biurtu nintzan Koningshof'era. Bermeotarra ez egoan geiago an. Egun labur areik naikoa ta larregi izan ziran, an baiño beste lekuren baten egokiago egongo zala ikusteko. Nire erritarra non egoan itandu nebanean, «Duffel'era eroan dabez», erantzun eusten motrikuarrak, barretxo bat egiñik. Duffel zer zan edo non egoan ez nekian nik artetan. Baiña motrikuarren irribarretxo arek zer-bait adierazo nai eban. Besteren bat be ez zan an geiago agertzen. Barakaldo'ko C. baltza. Jaioterrira biurtu ete-zanentz nen-goan; baiña ez bere anai txikarra etxean egoan artetan-eta, ezin jaioterriratu izan.

Guztiok leenengotan jakinguraz gengoan, Duffel'en zelako arrera egin ete-eutseen jakiteko. Leenengo egunetan ez etorren barririk erri aretatik gugana. Geroago, gure artean geraturiko anaiak ara joanikoak ikustera joan ziran. Eta andik ekarrezan albistak ez ziran, edozela be, txarrak, ez. Pozik egoan, gure artean baiño libreago, jaten be ondo emoten ei'eutseen (orixe zan gure ardurarik andiena); zer geiago nai eikeen?



## ASPALDIKO NIRE LAGUNAK

Koningshof'en egoan motrikuarrak ez nebazan lagun Koningshof'era etorri baiño leen. Capbreton'en iñoiz ikusi, arein kantak iñoiz entzun..., orragiño eltzen ziran guk izandako artu-emonak. Giputzak ziran eurak, bizkaitarra ni. Eta, umeen artean oi danez, auzokoak izan ezik, ez egoan artu-emonik, ez adis-kidetasunik.

Beste batzuk ziran nire lagunak. Aspaldikoak areitariko batzuk, Bilbo'tik urten baiño leen ezagutzen nebazanak; orain-gotxuagoak beste batzuk, nigaz, Capbreton'en gengoala, artu-emon kutunagoak izan ebezanak.

Pedro ta beronen arrebea ziran aspaldiko nire kutunenak. Bolueta'n bizi ziran, Bilbo'tik kilometro pare bat urrun, eta antxe ezagutu nebazan, gure Karmen'en lagun zan Juli'ren etxean egun batzuk egin nebazanean.

1937-aren jorrailla zan. Ba-ziran aste batzuk Francotarrak burrukaldia gogortu eta Bilbo azpiratzeko aalegiñak egiten asi zirala. Guk Lemona'tik egazkiñak egunean-egunean ikusi, Otxandio-aldetik jaurtiten ebezan bonben zapartak entzun, eta etxerantz, banan-banan, sakabanatuta, koipez eta lokatzaz beterik etozan gudariakaz biotz itunez berba egiten genduan. Areintzat beti egoan zer jan bero, baita atsedan artzeko txokotxo bat be gure etxean. Baiña, ni umea nintzan-eta, bildurrez beterik bizi izaten nebazan jazoera areik.

«Juli'gana joan daiteke gure Txabi!», esan eban nire amak.

Juli, gure Karmen'en lagunik kutunena zan. Bolueta'ko zubiaren alboan egoan etxetxo polit baten bizi zan, bere lengusiña bategaz. Bigarren orri be Juli eritxon ezkerro, Juli Basoa

esaten geutsan leenengoari, Juli gaztea bigarrenari. «Basoa», leenengoaren abizena zalako; «gaztea», naiz-ta biak ia adin batekoak izan.

«Neuk lagunduko dautsut, eta Bolueta'n be zeugaz geratuko naz!», esan eustan amak, ni bakarrik ez izteko bildurrez.

Esan eta egin. Agertu yakun leenengo abagunean, an joan gintzazan biok Bolueta'ra.

Lemona'n lengusu bat genduan, gure osaba Felix'en seme bakarra. Gerra-aurrean «perito» ikasten ziarduan; gero, gerrea asitakoan, gudarien komandante egin eben, burrukarako ez, gudarien janari, jantzi ta abar zuzentzeko baiño. Ardura ori ebalako, bere arazoetarako autotxu bat jarri eutsoen.

«Eroango gaituzu Bolueta-ra? —itandu eutsan amak—. Gure Txabi ara joatea nai neuke, eta neu be beragaz ara joateko naz.»

Juanito legusua biotz onekoa zan. Bere ta gure etxekoan artean artu-emon ezin obeak genduzan. Juanito'k baietza emon euskun. Eta andik laster, ama ta biok Juli'nera joan gintzazan. Jantzi gutxi batzuk geroiazan. Ez genduan askorik bear. Bearrezko beste batzuk bai: arto-uruna, taloak eta morokilla egiteko —Paula'ren oilloen arrautza ederrak—, eskaratzean geukan zezin-zati bat. Aldi aretan jatekotan guztiok urri gengoan-eta, ez eban nai amak Juli'ren lepo-gaiñean zama barri bat ezarterik.

Baiña guzti oneik nire lagunai buruz ez dabe ikusteko andirik.

Juli'ren etxetik —bide barriaren azpian egoan-eta— aldi aretan gordelekutzat geukan tunelera joateko, Donostia'ko trenbide-ganean egoan zubitxo baten alboan, etxe zimel-aurretik igaro bear izaten neban. Antxe bizi zan Bolueta'ko nire lagunik onena. Non ezagutu genduan alkar? Bearbada, egazkiñak alde eginda gero, gordelekuaren aurrean egoan enparantzian umeak jolasari emoten geutsanean. Edo Juli'k esanda. Edo kalean. Bolueta'n egin neban aste luzean, ez neban aregandik alde egin. Leen be, biok «Berrio-Otxoa» Ikastetxera joaten gintzazan, naiz-ta urte ezbarriñetara (ni, orduko, Batxi-

llerra asita nengoan), eta orain be azal eta aragiaren antzeko biurtu gintzazan.

A zan andia nire poza, Pedro be egun baten nigaz Prantzia'ra joateko zala!

Aberritik kanpo, Bolueta'n lez, nire itxaropen beroa beti alkarregaz izango gintzazala zan. Alperrik! Capbreton'era eldu gintzazanean, gu bakarrik edo iñogaz zelan izan, alan banandu genduezan. Pedro ez egoan bakarrik, arreatxo bategaz baiño. Bakotxa bere taldeagaz bizi zan —mutikoak mutikoakaz, neskatoak neskatoakaz—. Baiña, jolasaldia zanean, alkarregaz egoteko eskubidea eben anai-arrebak. Arreatxoa zala-ta, ez nintzan Pedro'gana joaten. Eta onela, astiro-astiro, Bolueta'ko gure adiskidetasun eta kutuntasuna laster moteldu eta epeldu ziran. Andik aste batzuetara, Beljika'ra eroan genduezaneko, Pedro ia aaztuta neukan. Beljika'ra nora eroan ete-eben baiño ez neban ari buruz beste ardurarik. Orduko, beste lagun batzuk neukazan, lagun barriak, Capbreton'en egiñak.

«Guynemer Txabolan» gengoan artean, beste giputz eta Bizkai'ko errietakoak batera, Bilbo'ko gaztetxo bi egozan. Baketsuak eta isillak ziran, moduzkoak. Ezagun zan etxe onekoak zirana, aziera onekoak.

Naiz-ta bi izan eta alkarregaz bizi, sarritan ikusten genduzan biok negarretan. Bazkal-ostean atsedean egitera ogera joaten gintzazanean, guztiok ixilik gengoazala, areitarikoren bat negarretan asi zeitekean. Eta norbaitek zer zala-ta egiten eban negar itauntzen ba'eursan, olakoa-edo zan aren erantzuna: «Bilbo'ko nire etxeokaz pentsatzen diardut. Zer jazo ete-yake arei? Bizirik ete-dagoz?»

Guk ixilik egoteko esaten geutsan; baietz, bizirik izango zirala, ziur be ziur..., eta abar. Baiña areik negarrari emoten eutsoen eten bagarik.

Barrainkua kalekoak ei'ziran. Ni Bilbo'ko beste zokondoan bizi nintzan-eta, Barrainkua ori non ete-egoan be ez nekian. Baiña txikiak ziralako, eta biotzetan min andi ta sakona eukelako, gure mutikotxo orrei zaletasuna artu neutsen. Jola-



Zuster Gundrada (geure eskumaldean), mojen Nagusiagaz.

saldietan edo ondartzara joaten gintzazanean, eurakaz ibiltzen nintzan ni. Arein ardurak neuganatu egiten nebazan, eta laster eurak be neugan jarri eben euren uste osoa. Zegaitik edo agaitik asarre jarten nenduenean —geienetan negar larregi egiten ebelako—, euren negarretan isillerazoteko, batzuetan zemaitu egiten nebazan: «Orrela jarraitzen ba'dozue..., zagoze biok soilik zuen ardurokaz!»

Euren anai zaar edo nagusitzat neukan nik nire burua. Eta besteak be ni orrela eukiten asi ziran. Zemai ori egin neutsan baten, gure txabolako beste lagun batek, aurpegi itunaz auxe esan eustan: «Ez orrelakorik egin! Txikiak dira, eta euren ardurea izan dagien norbait bearrezko dabe.»

Egunak aurrera, laster eldu yakun Beljika'ra joateko eguna. Capbreton'dik alkarregaz urten, trena artu, osterea alkarregaz egin, Beljika'ra eldu eta irurok alkarregaz egongo gintzazala zan gure amesa. Baiña Sint-Willibrordus'ko sakristian aldendu genduezan alkargandik. Ni, bakarra nintzan. Nire lagunak, bi, anaiak. Oiturea zanez, alkarregaz bialdu ebezan. Nora? Ez neban geiago arein barririk izan. Ekeren'en nengoala, ardurarik naikoa neban nik iñoren ardurak be leporatzeko. Geroago, Koningshof'en nengoala, areitariko anai bietarik nagusiaen barriro ikusteko abagunea izan neban.

Eusko-umetxook, Beljika'ra etorri gintzazanetik geiago, erri andi ta txikietan sakabanatuta gengoan, geienok alkar ikusi bagarik.

Gure zuzendariak, abade ta andereñoak, ori zala-ta, jai andi bat eratzea erabagi eben. Anberes'en eta Malinas'en, edo inguruetako errietan gengoanok, abagunea izango genduan alkar ikusteko, alkarregaz berba egiteko, alkarregandik Beljika'ko gure bizikera barriaren gora-beerak entzuteko.

Beste elburu bat eben orrez gaiñera gure zuzendariak ori egiten ebela. Andiak ziran.gure ongilleakandik jadetsitako mesedeak. Zelan edo alan erakutsi bear yaken euskaldunok eskeronekoak gareala, ez yakuzala beste bagarik aaztuko eurakandik artutako mesedeak.

Gure jaia Anberes'ko antzoki (teatro) baten izango genduan. Eusko-umetxorik egoan etxe guztietara dei bat bialdu eben, ume ta «guraso» eta etxeko enparaduak be an agertu zeiteezala erreguturik.

Eguna eldu zan. Domeka illun eta motel bat zan, Belgika'n ain sarritan izaten diranetarikoa.

An agertu gintzazan Koningshof'ekoak. Anberes'ko inguruetan egoan ume-talde bakarra geurea zan ezkerro, onelako bakotxean berarizko egitekoren bat ezarten yakun. Dantzan egin, kantak abestu. Egingo genduan, bai, ardura bagarik! Orretarako geukazan gure Mateo ta Jose Luis, orretarako, eta batez be, gure Aita Arrue.

Asi zan, ba, jaialdia. Antzokia umez eta gurasoz beterik egoan. Aurrenengo jesarlekuetan, gure Euzko-Jaurlaritzako ordekotzat, Monzon jauna. Gazte, sasoikoa, moduzkoa. Egun batzuk aurrerago Koningshof'en ikusita neukan berau. Gure Lendakaria etorri bear ebala-ta, pozik gengoan guztiok, gure Joseba Andoni ikusteko. Baiña ez zan Lendakaria agertu. Beste arduraren bat eukala-ta, Monzon jauna bialdu euskun ordekotzat. Ez yat nire bizitzan aaztuko zelako «erreberentzia» egin eutsan gure mojen nagusiari, eskuan mun egin orduko. Ezagun zan etxe anditik etorria eta aundikiakaz ibiltan oitua zana.

Aren alboan, Anberes'ko kontseillari bat, eusko-umeokaz artu-emon andia ebana. Eta Aita Peters. Eta Malinas'ko Gongotzaiñaren ordezkoa. Eta abar.

Koningshof'eko gure dantzari-taldea proszeniora aurreratu zan, ume bakotxak eskuetan zapi bat eroiala. Zuriak batzuk, gorriak besteak, eta, azkenez, berdeak ziran zapiok. Guztiok isiltzeko agindu eben, eta gure mutillak euren zapiakaz Ikurrin andieder bat egin, eta, batzuk belauniko, zutunik besteok, etorritako guztiai geure Ikurriña erakutsi eutseen. Aita Arrue pianoz asi, eta guztiok batera geure Euzko-Ereserkia abesten asi gintzazan:

*«Gora ta gora Euzkadi,  
Aintza ta aintza  
Bere Goiko Jaun onari!...»*

Gizonak burutik txapela kendu, emakumeak begietara zapia eroan..., a zan ixilla guztion biotzetan! Gure Aberria, urru-nean zapalduta, guretarikoak espetxean, zigorroreko lanean, iñoren agintaritzapean, eta gu, ume errukarriok, erbestean, gure Aberri zapaldua goratzen.

Zelan ez kanta biotz-ikaraz gure Euzko-Abendaren Ereserkia?

Gure kantua amaitu zanean, gizonak txapela eta kapelak buruetara eroiezala, emakumeak euren begietatik negar-malakoak legortzen ziarduela, guztiok geure jesarlekuetara biurtzen gintzazala, ara non agertzen dan mutikotxo bat, ziur bere jokerran, aurreko lekura aurrerantzen dala. Belgika'ko aldi aretako mutiltxoan artean sasoizko ziran «breeches» izeneko prakak eroiazan, atzetik estututa jakea, buruan «biserea».

Guztiok aregana begira. Nor zan gure mutikotxoa? Zer zan guri esateko?

«Lieve ouders!», «Guraso maiteok!», asi eban gure mutikotxoak bere itzalditxoa. Areik ziran alde guztietatik aregana yoiazan txalo ta irrintziak! Eusko-umetxo batek orren erraz gu artu genduzan erriaren izkuntzaz berba egitea... ez zan arritxekoa guztiak, batez be flandestarrak, txaloka arela egitea. Euren erria be erri zapaldua zan. Atzerritik etozan umeak arein izkuntza zapaldua ikastea beste zerbaiten ezaugarri pozgarria zan. Besteak be euren arazoan ardurea artzen eben-eta, euren egunaren sortzaldia be laster agertuko zan. Erri zapaldu batek erri zapalduari laguntzen eutsan...

Gure mutikotxoa aurrera yoian bere itzaldian. Nik ez neban ia ezer ulertzen. Ekeren'en alan-olan ikasitako izkuntza zearo aaztuta neukan. Ez yatan, ba, ardura mutiko arek iñoana. Baiña, nor zan, izan be, bera? Ez ete-neban mutiko ori orain baiño leen ikusi? Baiña, non?

Etxe oneko ume baten antzera jantzita, eusko-umeak baiño bestela, mardul eta osasuntsu, ziur bere berbetan batez be, ezin nik igarri mutikotxo a Barrainkua'ko geure anaitxo bieta-

rik nagusia zanik. Nor zan konturatu nintzanean, itun jarri yatan biotza, bekaitzez lañotuta lez.

An izan nintzan ni, Capbreton'go egun tristeetan, anai bien lagun eta konsolatzaille, eta bide batez nire burua areña baiño goragotzat neukana. Alkarregandik alde egin genduanetik geiago, gure bizitzan bide oso ezbardinak artu genduzan. Arei ondo yoakien, niri ez ain ondo. Areik, antza, familia maitekorren batek artu ebazan umetzat; nire istoria ez zan orren alaia. Eta batez be, ume bati min geiago emon daikeona, areik ondo jantzita egozan; ni, barriz, Zuster Gundrada'k edo Aita Peters'ek emoniko iñoren jantziak.

Itzalditxo amaitu ebanean, guztiak joan yakoan zorionak emotera. An agertu yakozan Monzon eta Bernaerts jauna, eta beste asko, euskaldun eta beljekar. Baita aspaldiko lagunak be. Ni ez. Pobre jantzita nengoan ezkerro, lotsa nintzan ni aspaldiko alako bere laguna nintzala esaten. Ezin itandu, ba, non bizi etezan, anaitxoari zelan ete-yoakion, etxeokaz pentsatzean orain be negarrez asten ete-zan... Itau guzti oneik neure biotz ixillean gorde nebazan...

Kosingshof'eko gure dantzari-taldea gero ta ezagunagoa biurtzen zan. Noizbait dantzan ikusi genduezanak, jairen bat edo zala, urrengoan be dei egingo euskuen. Geienetan, eusko umeai buruz zerbait ikustekorik eukenak egiten euskuen dei.

Ez zan ezer be arritzekoa, bein Anberes'ko inguruetako errixo batera joateko guri dei egitea. Moja batzuekana ei'zan, eta arein Nagusiaren jaiegunen bat, urrezko edo zidarrezko ezteguak ospatzeko dei egin ei'euskuen.

Orreitarikoak egun pozgarriak ziran guretzat; gure betiko etxearen orde z aize barri-leuna arnastu; betiko patata legorren orde z, jateko barriren bat artu aal izan; jente ta errialde barriak ezagutu... Pozik gengoan, ba, oraingotan be, mojetxe orretara joateko.

Orreitariko egun-aurretik oi zanez, egun batzuk leenago Aita Arrue agertzen yakun Koningshof'en. Gure Aita ori zea-

tza zan-eta, guk kantak eta dantzak aspaldi zanetik jakinda eukiarren be, aldi bakotxean gu ikasi-barriak bai'gintzan, kanta ta dantzak asieratik jakiñerazoten euskuzan.

Eguna eldu yakunean, an egoan gure etxe-aurrean autobus dotore bat, gu artzeko gertu. Mojok eskuzabalak ziran, antza, eta orixe esaten geutsan alkarri; eta oraingotan beintzat, ez geukan, bestetan lez —tranbiaz, trenez, edo batek ba-daki ze modutara— joan-bearrik.

Eldu gintzazan, ba, gure mojetxera. Mojetzeko atectan, moja pare bat egozan gure zain. Eurokaz batera gazte bat, prantzeraz egiten ebana. Zelan edo alan aalegiñak egiten ebazan gugaz gaztelaraz be egiteko. Iru-lau berbatxo be euskeraz ba-ekizan (euskeraz ez dakien bilbotarrak edo donostiarak jakin oi dabezanak). Nondik eta zelan ikasita? Nor egoan mojetxe aretan gaztelaraz egiten ondo ekiana, eta euskerazko iru edo lau berbok iñori irakasteko aña zana?

Gazte ari itandu bear izan orduko, argi egin yatan nik jakin nai nebana. Alde batera, gure taldeko batzukaz berbetan ziarduen gazte batzuek: mutikotxo bi eta, antza zanez, euren arreatxo. Adi-adi begira..., a nire poza! Aspaldiko nire lagun eta ikaskide, Emeterio Pinilla zan areitariko nagusia. Beste biak aren anaitxo ta arreatxo ziran. Ia mosuka asi nintzan eurakaz! Ain andia zan nire poza areik ikusiaz!

Eurakaz batera Bilbo'n, ikastetxean, aspaldiko lagun eta ikaskideak urr, neure alboan, neukazan oraingotan eskuaz ikutzeko lez.

Pinilla neba-arrebak ezagunenetarikoak ziran «Berrio-Otxoa» gure ikastetxe zaarrean. Ume-etxe bat bertan egoalako, «Expósitos» izeneko kalean bizi ziran, ikastetxearen ondoan. Arein abizenetik atara daitekenez, Kastilla'tik etorriak ziran, baiña aspaldi zanetik bizi ziran Bilbo'n (ementxe jaio ziran umeak), eta bilbotartzat eben euren burua. Familia ugaria zan gure Pinilla'rena: lau mutil eta alabatxo bi. Larregi, bai larregi, langille baten lansari urrirako. Ez ziran, orraitño, Kastilla'tik etorritako oneik erraz makurtzekoak. Mutikoak, guztiak ikas-



ten eben gure «Berrio-Otxoa»-n, Eta bai ikasi be! Txikarrak ziran, baiña bai gogorak be euren lan eta aalegiñetan. «Arratia'ko zekorra, txikarra baiña gogorra» esakera zaarrak eurentzat esana zala zirudian. Ikasteko ordaindu-bearrak ez ziran Bilbo'ko beste ikastetxeen aldean andiak, baiña langille batek bide asko billatu bear txanponok idoroteko. Bide orreik guztioi ezagunak yakuzan.

Gure «Berrio-Otxoa»-n zuzendari ta ikasle ziran Lamennais Anaiak, norbait bear eben jantziak garbi ta txukun eukiteko, azkenengo urteetan batez be, Errepubliketa etorri zanetik beste prakadun guztiak lez jantzi bear eben-eta. Gure Pinilla neba-arreben ama zan orren arduradun. Iñoiz ikusten genduan prailleen etxetik etorrela, otzara andi baten Anaien jantziak ekazala. Lan orren orde ez ei'eben lansaririk jasoten. Onen orde, bere lau semeak Ikastetxean utsean (doan) ikasteko eskubidea ei'euken. Ori zan, beintzat, gure artean zabaldua egoana.

Gerra madarikatua asi zanetik —Lemona'n egon gintzazan-eta—, aspaldi zan arein barririk ez neukala. Noiz urten ziran Bilbo'tik? Zelan etorri ziran Beljika'ra? Egun aretan jente larregi egoan gure artean, zerikusi asko be bai, alkarregaz bakesu berba egin aal izateko. Naikoa genduan egun aretan gure dantza ta kantakaz, naikoa abesti ta dantzen ostean ospatu genduan jaitxoaz. Ez genduan gure istoriak alkarri azaltzeko astirik izan. Baiña ezagun zan Bilbo'ko nire lagunok etxe aretan pozik egozana. Eta pozik izateko zan, bai, izan be.

Gure jaia betiko legeen arauz igaro zan. «Agur, jaunak» asieran, guztiok zutunik gengoazala. Jarraian, berba batzuk. Gaurkoan, etxeko atean artu genduzan gazteak izan ebazan berba oneik: abegi onez artzen genduezala, gure Euzkadi'ren seme batzuk euren etxean eukezala, eta arein bidez gure erria maite ta aintzat artzen ebela; gure neke ta ardurak euren neke ta ardura zirala, eta abar, eta abar. Gogaikarriak ziran geienetan oneitariko agur-itzaldiak. Gizon agurgarriak, euren burua anditzat ebela eta mundu guztia eurak iñoanaren zain ba'lego

lez berba egiten ebenak ziran itzaldiok egiten euskuezanak. Emen, ostera, gazte batzuk genduzan gure aurrean, eta gazte batek egiten euskun berba: gazte alaitsua, bere izkuntza ulertzen ebenai barre eragiten eutsena, gero be guretarikoakaz aal ebanez banan-banan berba batzuk egiten ebazana.

Gure Jose Luis'ek eta Mateo'k be, egindako txera on onez az poztuta, bestetan baiño alaiago abestu eben euren «Aurtxo danak alkarturik...» Suge bat lako labana ta ariña zan Jose Luis'ek, bere dantzarik ederrenak erakutsi euskuzan. Guztien artean atonduriko Ikurrin zabalaren aurrean «Gora ta gora Euzkadi...», dedu ta begirunez abestu genduan...

Azkenez, gure «ostalariak» be poztu bat emoteko asmoz, «O Belgeland, o edeland der Belgen...» (O zu, Beljika, beljikarren erri zintzoa...), Beljikarren ereserkia abestu genduan. Etxe onetan, orduko Beljika'n sarri jazoten zanez, erriko izkuntza bagarik prantzera erabilten eben-eta, ez genduan Flandes'ko beste ereserkia —«Zij zullen hem niet temmen de fiere vlaamse leeuw...» («Ez dabe, ez, otzanduko Flandes'ko leoi arrosa») — kantatzeko adorerik izan.

Artetan, gu etxe-aurrean artu genduzan gazteak, edozelako gauzak egingo ebezan gu pozik, etxean lez, eukiteko. Gure kantak isillak eta itunak ziran, zatatsua eta alaiak areiñak. Guri ekarri euskuezan jateko ta edariak ondo ete-egozan gulgandik jakiteko, an asi yakun «Allo, allo, Jean, que des nouvelles?» kantatzen. Prantzia'ko politikariak eskumakoak egindako esamesa (kritika) bat izan nai eban kanta onek, eta aldi aretan Prantzia'n bakarrik ez, baita beste lurraldeetan be oso zabaldua egoan. «Tout va très bien, Madame la Marquise...» («ondo doaz guztiak, Markes andra ori!») zan kanta orren aapaldia. Gauza guztiak sekulako ondoen doaz, diño Jean'ek, Markes-andrearen morroiak. Baiña beti akatsen bat generatu bear.

«Zerbait esan bear izango, onela ta guzti be, Markes-andra ori! Ezbear txiki bat! Astotxo il yaku, baiña ez izan ardurarik! Ondo doaz gauza guztiak, Markes-andrea, ondo guztiak, ondo.

«Astotxoa bakarrik ez. Azeriak, oillotegian sartuta, oillandarik geienak il dauz..., eta txarria, geisorik jarrita, il-zorian dago... Eta azkenez, oiñaztarriak, sabaian jausita, galtsotegi, korta ta baserria bera be, guztiak erre dauz...

«Baiña, ez izan ardurarik, Markes-andrea. Ondo doaz gauza guztiak, ondo guztiak, ondo».

Urte areitan Prantzia'tik sortu eta oso zabaldua egoan soiñu ori. Eskumakoak iñoenez, III-garren Errepublikaren menpean egoan Prantzia'ko gizarteari egokiozan ondoen erri-kanta orren berbak. Erri-agintarien eretxiz, ondo baiño obeto yoiazan Prantzia'ko gauza guztiak; baiña, azalean zerbait atzamartu ezkerro, laster agertzen zan erri orren eta bere agintarien ustelkeria.

Stawiski eta beste «affaire» guztiak ardura gutxi emoten euskuen guri une aretan. An geukan aiña jan, edan eta poz euki ezkerro, gureztat «gauza guztiak ondo yoiazan, bai ondo be joan!»

Bilbo'ko nire lagunai be agur egin neutsen. «Laster arte», esan geutsan alkarri. Udabarria zan. Andik egun batzuetara etxerako bide luzea alkarregaz egiteko gintzazan. Trenean, eta gero Bilbo'n izango genduan asti geiago alkarregaz gure gauzai buruz berba egiteko.



## «ZUEN ATSEKABE ORI POZ BIURTUKO DA».

(Jn 16, 20)

Capbreton'dik alde eginda, Beljika'ko lurak leenengoz ikusi genduzanean isuritako negar-malkoak aspaldi zanetik egozan legortuta. Guretariko geienak etxe egokietan edo mojetxe eta antzekoetan artu eta ondo babestu genduezan. Batek baiño geiagok, euskal edo erdal-izkuntza aaztuta, aberri barriarena bertakoak lez ondo egiten ikasi eben. Eta, izkuntzagaz batera, bati edo besteri euren jatorrizko aberria eta etxeokak be aaztu egin yakozan. Euzkadi aaztu izan ezarren, ba-ziran, zegaitik edo agaitik, asaben lurrera joateko ez ziranak be, orduko arrotzen artean nai-ta-ez geratu-bearrean egozanak.

Gerra madarikatuak ekarrirako naaste ta zoritxarrak ez ziran egun baten konpontzekoak. Ume batzuen gurasoak ilda egozan, espetxean beste batzuenak, atzerrian, beartsu ta neketso, egozan beste batzuen senideak, euren umeak etxeratzeke gauza ez zirala.

Gure Koningshof'ekoen artean, aita espetxean euken Motriku'ko Andonegi anaiak, eta Prantzia'n, Ipar-Euzkadi'n, ama eta arrebak.

Non egoan Zarautz'eko gure Goiñi anai bien aita? Non beste donostiar arena, etxekoen zuzenbidea buruz ain ondo jakin eta, bein eta barriri, «Cambo-les-Bains, Villa Iturría» iñoana? Guretariko askok aspaldi zanetik euken galduta Euzkadi'ra noizbait biurtzeko itxaropena.

Geroago, urrengo gerrea amaituta gero, Beljika'ra biurtu nintzanean, an aurkitu nebazan Capbreton'dik Beljika'ra joandako banaka batzuk. Getxo'ko Agirre neba-arrebak, esate ba-

terako. Ez eben gure Lendakariagaz senidetasunik, naiz-ta abiterako bardiña eta erri berekoak izan. Arein istoria beste euskaldun-ume banaka batzuen antzekoa dan ezker, labur azaldu nai dot berau une onetan.

Getxo'ko bazter ederretik Capbreton'era etorri ziranak bost ziran: lau mutil eta neskatilla bat. Ez ziran etxeko guztiak bost oneik. Etxean beste iru ume, txikarrenak, geratu ziran aita eta amagaz. Eurak be, Francotarrak etozala, Santander'era alderatu ziran beste euskaldun asko lez, eta andik, ontzi zaarren baten aal ebenez sartuta, arerioen guda-ontziai igeska, Prantzia'ko ertzetara eldu ziran.

Euzkadi'ko Jaurlaritzakoak an egozan errikoai biotzez launtzeko. Gero, Prantzia guztian sakabanatuak izango ziran, izkuntza ezagutzen ez eben erritxoetan, askok txarto ikusiak, «gorritzat» eta fedebagetzat artu eta baztatuak, jan gutxi eta jantzi pobre bat baiño ez eukela.

Beljika'ra etorriak, artetan, abade-etxe bitan artu ebezan. Miren, neska bakarra, Malinas'ko kalonje zan Frateur jaunaren etxean; beste laurak, mutillak, Malinas'en bertan egoan Ceupens abade jaunaren etxean. Arein bizikerea gu guztion bizikerearen antzera yoian aurrera. Baiña Euzkadi'ra biurtzeko itxaropenik ez! Amama zaarra izan ezik, ez euken iñor Getxo'ko gurasoen etxean.

Zoritxarrez-zoritxar, gure gerrea amaitu eta bestea, izugarriagoa, asi zan. Alemaniarrak Beljika azpiratuta gero, Prantzia be zapaldu egin eben, eta gure erriaren ertzera iño eldu ziran. Gure Agirre lagunena ama errukarria eta umeak, nai-ta-ez, etxera biurrerazo ebezan. Aitari aukera garratza eskiñi: emazte ta umeakaz Getxo'ra biurtu, edo erri zapalduetako beste askogaz, Alemania'ra joan, eta ango gudarako lantegietan lan egitea. Bigarren bide au aukeratu eban. Naiz-ta emazteaganako maitasuna sakona izan eta umeak, aita bagarik, erdi-umezurtz itzi nai ez, Franco zitalari eutsoen bildurrak geiago egin eban. Berlin'en egoan, ba, aita; Beljika'n, lau mutiko ta arrebatxoa; Euzkadi'n, ama ta txikarrenak.

Eta orreitarikoak, ainbat eta ainbat! Beljika'ra joanak aberri barri bat aurkitu eben; antxe geratu ziran betiko, antxiñako aberriaren miñaz aazturik, edo aberri-miñak euren biotzetan irauten ebala.

Baiña guretariko geienok ez geutsan etxera joateko itxaropenari agurrik egin. Egun osoan, guretariko batzuk batez be, etxekoan ardurea baiño ez genduan.

«Oneik, Malentxo'rentzat —iñotsan Mateo'k Nazari'ri, kaxa andi baten Aita Peters'egandik jasoriko gozoki batzuk gordeten ebazala—. Eta beste jantzi oneik, zuretzat estu ta labur diran ezker, gure Martintxo'ri ondo joango yakoz...» Etxekoan miña eben gure motrikuar biak biotzean. Eta arein antzera beste geienok be.

Berba «majiko» bat ebillen gure artean agotik-agora. Erderazko berba bat: «Espediziñoa». Zenbat poz, zenbat tristura berba onetan ezkutatuta! Poza etxerantz yoiazanentzat, tristura arei agur egin-bearrean egozanentzat.

Gu Beljika'ra etorri ta ille batzuetara, gure erriaren egoera zelan edo alan «normalizatu» zanean, leengora biurtu zanean, an asi ziran gure guraso ta senide batzuk gu barrero etxera ekarteko asmoz. Aldi areitan gogorak igaro ebezanarren, ez zan eurentzat miñik leunena umetxoak urrunean euki-bearra. Eta onela izanik, seme-alabak aalbait ariñen etxera ekartea nai eben. Asmo zuzen eta ederra, guraso maitatzailleak ebena. Ez zan, baiña, ain zuzen eta garbia gure erriko agintari barri aurpegi-bikoak orretan agertzen eben asmoa. Begian arantza yaken onei, «gorri»-umeak arein sasi-kristautasunaren aurkako ezaugarri ziran. Ume oneik erbestera joan-bearra, abade eta andereñoen babespe zintzo ta ziurrean joatea, euretariko askok guraso ta senide espetxean euki edo illak izatea, eta guzti ori kristau-etxeko umeak izanik, nekez eroan eikeen azaluts areik orrelako arantzea euren lora-bidean.

Asi ziran, ba, «gorri» orrean aurka iñon diranak esaten. Umeak gurasoai kendu eta erbestera, alperreko galbide-zorian, eroan ebezala. Ez ziran erriko sasi-agintariak soillik onelako

guzurrak zabaltzen ebezanak. Elizan be aurkitu eben, euren guzurrok baiezteko, tamalez, gertu egozanak...

Bilbo «askatu» eta egun batzuetara, an agertu ziran Begoña'ko Amaren oiñetara Elizearen nagusiak: España'ko Elizearen Nagusi zan Goma kardenala —eta aregaz batera, Aita Santuaren ordezkot zan Antoniutti jauna—. Leenengoari zor eutsan gure erriak gerrearen asieran Gotzaiñik geienak baieztu ta izenpetu eben Karta entzutetsua. Bigarrenaren barririk ez genduan aldi aretan. Geroago, Kanada'ra joan eta andik barriro geure artera etorrita, agertu zan aren zaletasuna norantzakoa zan. Baiña orretzaz ezin emen, orri labur oneitan, bear danez ezer idatzi.

Begoña'ra etorri yakuzan, ba, Bizkai'ko Amaren eliza ederean jai andi bat ospatzera. Ama Birjiñaren urre-gorri ta pitxiak ekarrezan barriro. Prantzia'tik. Begoña'ko abade batek pitxiok ostu eta Prantzia'ra eroan ei'ebazan-eta. Ortik etorkion ustelkeria jai oso ospatsu oni. Or zan leenengo guzur ezin andiagoa. Baiña, zelan egin aal izan bere buaruaren alde Untzue-ta'tar Fortunato jaunak atzeritit?

Eusko-umeon txandea be eldu zan. Eta Goiko Egiaren ordezkot ta mandatari zan Toledo'ko kardenala, an asi zan «gure ume orbanbage ta errubageak ostu ta galbidera eroan dabezan gorri ta separatisten» aurka deadarka. An egozan gure etxeok, an beste erbesteratu askoren guraso ta senideak... Baiña ezin barbarik esan, ezin ezelan be esan Jainko-gizon areik iñoena guzurra baiño ez zala. Eta, barriro be, negar egin bear.

Bide orretatik jarraitu ezkerot, ezagun zan nondik joango zan urrengo pausua: Gurasoai euren umeak etxera ekarrazo. Biotzez ori egiñaz, argiro erakutsiko eutsoen mundu osoari, euren umetxoak erbestera gogo txarrez bialdu ebezala. Eta pozik batzuetan, bildurrez beste batzuetan, banan-banan eskatu eutseen agintariai euren umeak Bilbo'ratu egiezala.

Eta amaikatxo bidar —Martixa'tar Eusebio nire lagunari jazorikoak erakutsi daikenez— ezeren susmorik ez eben gurasoak eskatuta bai'litzan, umeak Bilbo'ra ekarrazo...

Gure Koningshof'etik be asi ziran aspaldiko gure lagunak bata bestearen atzean euren etxera joaten. Bilbo'tik edo Donostia'tik, edo beste edonondik eltzen yakuzan kartetan —asieran edo azkenean—, onelako lerro bat agertuko yakun sarritan: «X'egaz izan gara, eta zu laster etorri zaitekezala uste dau. Au, ba, barri ona! Jakin ba'zeki zu ikusteko dogun gogoa!» Eta guk, umeok, izan geikean albistarik onena barri ori zan ezkerot, alkarri erakusten geutsan arturiko karta barria.

Beste iñor baiño leen, Gernika'ko Zallo iru anaiak etxeratu ziran. Eurakaz batera, Barakaldo'ko M. anai biak: gazteena geugaz egoan; nagusiena, K., Duffel'en.

Andik egun batzuetara karta bat artu eban gure mojen Nagusiak. Gernika'tik, edo alboko erritxoren batetik, etorren, eta gernikarren aitald idatzita egoan. «Eskerrak emon nai dautsueguz, nire emazteak eta nik, gure umeen alde egin dozuezan guztiakaitik. Pozik gagoz semeak barriro geure artean daukaguzalako. Eurak be pozik, oso pozik, daukaguz. Nekez aaztuko yakuz zuek euron alde egindakoak».

Beste batzuk ez eben barririk emoten, ezta eskerrik txikarrenik be jakiñerazoten. Arein alde, bai mojak, bai arekaz egoniko beste guztiak egiñikoa, bakotzak egin bear ebana baiño ez zan. Eta egin bear dauana egiten dauanari esker-oneko zetan izan ez dago... Orretan be enparaduen antzeko ziran gure ama ta umeen gurasoak: batzuk esker-oneko, esker-tzarreko eta aaztukorrek beste batzuk.

Urrengoan, Getxo'ko José Pérez eta beronen anaitxoak etxeratu ziran.

Pozik joango gintzakezan guztiok Anberes'ko geltoki nagusira gure lagunai agur egitera. Naikoa zan arei agur etxean egitea. Guretariok abaderen batek laguntzen eutsen Anberes'era; gu, besteok, ateraiño baiño ez.

Eta ara non neuri be, egun baten, aspaldi zanetik itxaroten neban karteak eldu yatan! Karmen'ek eta Iñake'k eta Miren'ek idatzita etorren, eta, gutxi gora-beera, nire beste lagunai euren etxeok esaten eutseena zirausten neuri be.

Karta-ganean seillu bat agertzen zan: «Sellado por la Censura». Seillu ori karta bakotxagaz etorrela, iñok idatziriko kartak «Zensura» orren arduradunak irakurri eikeela jakiteak adoretuenari be ardura bagarik idazteko gogoia kendu egiten eutsan. Baiña, nire arreba biak eta Miren'ek euren kartak legor eta zeken idatzi bear izanarren, bai poz andia nik karta a artuaz izan nebana! Laster, amaika illabetetan ikusi bagarik neukazan guraso ta arrebak eta anaia eta Miren ikusiko nebazan! (Ba'al-daki ume erbesteratua izan ez dan batek zein luze izan daitekezan amaika illabete?). Egunez axe zan nire autua, gabez axe nire amesa. Neu be, Mateo'k eta Nazari'k egin oi ebenez, balio-ko ta balio bagakoak, pitxiak eta ondarrak, guztietariko gauzak kaxa andi baten pillatzen asi nintzan. Gauza guzti areik pozik artuko eikezanik ez egoan gure etxean, baiña nire amesetan bai, eta besteai poza ekarriko neutsela uste neban. Eta ames orrek ekarstan poza zan nik bear nebana.

Mateo ta onen anaitxoia be «espediziño» baten etorteko ziran. Ori zala-ta, leen baiño kutunago ta lagunago biurtu gintzazan. Etxe batekoak bai gintzan genbizan Mateo eta biok beti eta edonun alkarregaz. Zertzuk geroiazan, bidean zelan alkarregaz joan eta alkarri lagunduko, Donostia'raiño. Andik aurrera bakotxak bere bidea artu bear izango genduan. Areik, Arrona'rako bidea (araxe joan ziran, Prantzia'tik biurtuta gero, arein gurasoak), nik Bilbo'rakoa.

Onelakoetan genbizala, bein Don Mateo aurreratu yatan: «Zugaz berba egin nai neuke».

Bere albora eroan nenduan, eta alde guztietara begiratuta gero, auxe esan eustan: «Enkargu bat emon nai neuskizu. Enkargu au beteteko adorerik ez ba'dozu, esan. Nai ez ba'dozu, ez enkargurik artu. Ez uste ez-artze ori txartzat artuko dodanik. Gerra-zensurea dala-ta, etxera nik nai neukezanak idazteko bildur naz: etxekoai ezer egin daikeen bildur». (Ba-nekian nik —aren kartak sarritan ikusita neukazan ezker— Beljika'n ikasten ziarduan andereño batentzat bere izena emoten ebana: kartak andereñoaren izenean bagarik, Koningshof'era Srta. M.

de Uriarte'ren izenean eltzen ziran. Gure Koningshof Ikastetxe bat zan ezker, ezin iñok susmatu bestela izan zeitekeanik.)

«Karta bi emon nai dautsudaz —esan eustan gaiñera—: bata, zeure osabearentzat, bestea neure arrebearentzat. Zure osabeari idazten dautsadan karteagaitik ez dot ardurarik: ez dot an esaten «Zensurakoak» jakin bear ez leukeen gauzarik. Nire arrebeari idatzi dautsadana, ostera, askoz arduratsua goa da. Osterantzeko kartetan ezin idatzi daikedazan barri ta zeregiñak jakiñerazoten dautsedaz nire etxekoai karta orretan-eta, kaltegarri izango litzakie an diñodazanak poliziak edo besteren batek jakitea.»

Oraingotan, neuri sartu yatazan ardura ta bildurra; baiña, ezer jazo ez bai litzan, mutu geratu nintzan, tutik be esan bagarik.

«Orregaitik, ba, zuek frontierara eldutakoan, frontieraziñak zuek zeatz aztertzen asten dirala ikusiko ba'zendue, komu-nera joateko premiñan zagozala esan, eta nire arrebearentzat daroazun karte zearo txikitu eta bertara jaurti. Ez igaro, ba, frontierara leenengoakaz. Itxaron andik banaka batzuk igaro daitezcan arte.

«Apartekorik ez ba'da, zeu be ardura bagarik bestaldera joan. Iñok ezelako susmorik izan ez dagian, zuk daroazun jerscipean lotuko dautsut.»

Oar guzti orreik ez eusten ezelan be lagundu nire barrua baketsuago biurtzeko. Bestela be, bildurrez jarten nintzan España ta angu agintari ta ugazaba barriak burura ekarten nebazan bakotxean. Baiña, frontierara onela igaro bear izatea..., ori larregi yatan. Ez neban, orraitio, ezer esan. Don Mateo'ren alde edozer egiteko gertu nengoan.

«Ez dozu karta ori iñora eroan-bearrik. Neure arrebea be-  
ra etorriko yatzu karta ori jasotera. Neuk idatziko dausat zuekana zelan joan.»

Anai-arrebak lemonarrak ziran. Eta Lemona'tik naikoa urr bizi zan Don Mateo'ren arrebea, Arratia'ko erri txiki-polit baten. Izan be, Arantzazu'ko eskolan egoan bera irakasle.

Laster aaztu yatazan nire ardura oneik. Egunak Mateo'gaz egiten nebazan, etxerako gure osterea aututzat genduala; gauak, amesetan. Etxekoak burura ekarteak poz andia be andia emoten eustan.

Urrengoan, Don Eustakio etorri yatan.

«Berak be, bere ama zaarrantzat zerbait bialdu nai leukela eta ni zerbait ori eroateko gertu egongo nintzakean.»

Ez neutsan nik abade oni Don Mateo'ri neutsan añaiko zaletasunik; baiña, zelan uko egin aren eskabideari?

«Ez zala aparteko enkargurik. Karta bat amarentzat, eta beste bat Larrabetzu'ko osagillearentzat. Ez ekarrela karta oneik iñok jakin-bearrik ez eukan barririk. Amarentzat milla lauerlekoko billete bat eroango ete-neukean. Bilbo'tik alde egin ebanean, dirua beragaz artu ebala. Orain diru ori ez ebala geiago bear. Ama zaarra, Larrabetzu'ko baserrian bakarrik egoan ezkerro —iñok ez ekiala—, ez ete-zan premiñan bizi izango...»

Leenagoko diru ori (emon eustan billetea Errepublikal-dikoa zan) baliokoa ete-zan ez ekian berak, baiña ezer ez egin baiño obe amari laguntzeko aalegiñak egin. Esandakoi be baietza esan neutsen.

«Ama zaarrari beste au be bialdu nai neuskio —esan eustan gaiñera—. Paketetxo bat da. Gauzatxo batzuk erosi dautsadaz; ez dabe askorik balio; baiña poza emongo dautsadala-ta, eroan egiozu paketetxo au. Joateko egon zaitezenean, zure pakete ta besteakaz batera, esango dautsut Larrabetzu'n nogana joan, berak nire amagana lagundu dagitzun.»

Jaunari eskerrak, ez eukan Don Manuel'ek seniderik gure Bizkaia'n. Ortik, ba, ez neukan senideentzako kartaren bat edo dirua edo paketetxoren bat emongo eustanaren ardurarik.

Gure etxeratzea laster zan. Guztiok emoten euskuen etxerako saritxoren bat. Urliak gozokiak, sandiak ipuin-liburutxuak, berendiak gomutakiren bat. Zuster Gundrada'k Jesus Umetxo-

ren iruditxo bana emon euskun, eta irudian, prantzeraz idatzita, letra ederrez, guretariko baktaxaren eta bere izenak idatzi ebanzan. Mojen nagusiak be, zerbait emon nai izan eban-eta, erritik alkondara eder bana ekarri euskun. Isilla zan bera —gatz-bagea esango neuke nik—, eta gugaz, eusko-umeokaz, artu-emon gutxi eukan. Umeok ari geutsan dedu ta begirunea bildurraren ertzean ebizan; baiña, eskupekoak emotean, gutzaz be beti gomutatuko zala esan euskun.

Eguna eldu yakun: jorraillaren 25-a. Gau aretan, pozez eta ikaraz, ez genduan lorik egin. Goizean, bestetan lez, Mezatara joan gintzatan. Gero, gosaria artzera. Iñoiz izan genduan lakoa baiño ederragoa. Eta, beste bagarik, Anberes'erako bidera. Gu irurok: Oiartzabal anai biak eta ni. Hendrickx jaunak eroan genduzan bere kotxean. Abade au be, Aita Peters'en aldean, gutxitxo baiño ez zan gurera etorten; baiña egun aretan guri poztxu ori emoteko, Aita Peters'en aña izan nai eban. Gugaz ikustekorik izan eben guztiak agertu ziran une aretan guri agur egitera. An egozan Zuster Gundrada —negar baten—, Zuster Adula —guri ain sarri gozokiak emoten euskuzan moja biribilla—. An gure lagunak, gu bestetan lez, triste, an geratu-bearrean egozala. An Don Mateo eta Don Eustakio, biak gugaz pozik etorriko zirala bein eta barriro iñoskuela. Anberes'era, gure arteko nagusi zalako, Don Manuel etorren. Pozago gu, Don Mateo izan ba'litz.

Neskatillak be an egozan. Eurotariko bat zan gure «espediziño» onetan etorteko: Honorina Roca. Gu baiño nagusiagoa, ganorabagatxua («La sosonga» ezizena ezarri geutsan guk, mutillok), baiña neskatilla langillea ta ona. Amatxo baten antzeko zan guretzat, eta, guk ari edozer esanarren be, ez yakun iñoiz be asarre jarriko. Barakaldo'tik etorren, guretzat erdi «azur baltza». Oso elizkoia ta lan-zalea zalako, mojak oso maite eben, eurenatariko bat bai'litzan. Naiz-ta leku batetik leku bardiñera joan —Koningshof'en bizi gintzatan guztiok Anberes'ko gelto-ki nagusira—, Honorina beste kotxe baten eroan eben Anbe-

res'era. Zeatzak ziran orduko oiturak, eta, Bilbo'ra eldu arte, ez genduan geiago alkar ikusi.

\* \* \*

Udabarria zan Brabante'ko lurretan, gure trenan Beljika'n zear Paris'erantz yoiala. Amaika illabete leenago bide bardiña artu genduan. Lurrak bardiñak ziran, baserritar berberak ziar-duen lanean..., baiña gure biotza beste bat zan. A zan aldatzea Capbreton'dik etorri gintzazanetik oraingora! Pozik giñoiazan etxeokak ikustera, «jatorrizko Aberrira». Aspaldi zanetik ikusi bagarik genduzan lagunakaz autuan jarduten genduala, ez geukan gu giñoiazan lur eta urietan zear ezer ikusteko astirik. Uri andi batera eldu gintzazanean, orraitino, non ete-gengozan jakin-guraz asi gintzazan. Paris ete-zan, gure amesetako Paris? Geltokian itxaroten gengozala, an non igaroten dan gure aurretik moja bat. Nire alboan Pinilla laguna egoan. Eta ardura ta lotsa bagarik mojatxoari itandu: «Ma soeur, est-ce que nous sommes à Paris?» Mojeak ume «lotsabaga» aregana begiratu, bai, begiratu eban, baiña ez eutsan erantzunik emon. Paris'en gengozan? Gero, bai, etxera biurtuta gero, arro bai arro esango geutsan Bilbo'ko gure kale-lagunai: «Ba, ni Paris'en be egon naz».

Paris'en ordu pare bat baiño ez genduan egin. Gure aurretiko «espediziñoakoak» Paris ikustera eroan ei'ebazan. Autobus baten artu eta Paris'ko ikusgarrienak goiz baten erakutsi. Notre Dame katedrala, Montmartre'ko bizkarrean dagoan Jesus'en Biotzaren Basilika ospatsua, Paris'en ezaugarriarik andien eta entzutetsuena dan Eiffel torrea... Geuk be pozik egingo genduan orrelako osteratxo bat. Ez genduan, orraitino, gure aurrekoen zorionik izan. Geltokian ordu pare bat egin, trenetik urten aal izan bagarik, eta laster gintzazan barriro Euzkadi'rako bide luzean.

Atzean itzi genduzan erri andiak: Paris, Orleans, Poitiers, eta beste ainbat. Ez ziran aldi aretan guretzat ezagunak. Burdeos'era eldu gintzazan. Geltoki andi-zikin-illun aretara etorri

gintzazan amaika illabete leenago La Pallice'tik Capbreton'era-ko bidean. An aurkitu neban, Beljika'ra giñoiazala, Lemona'ko gure eliz-arduraduna: Don Maurizio. Aldi barriak ziran orain-goak. Une aretan erbestera giñoiazan, aberrira oraingotan. Prantzia'ko tren ariñetan ordu batzuk baiño ez dira bear, geiagorik ez, Burdeos'tik aberrira eltzeko. Landes'etako piñudi luze-artean zear igaro gintzazan —an egoan Labenne'ko geltoki txikitxoan Capbreton'erako tren zaarra (zenbat gomuta gure biotzetan!)—; eta, andik laster, gure begi-aurrean, Euzkadi'ko mendi ta zelai berde-maitagarriak, Kantauri-itsaso urdiña, erri garbi-parebageak, Donibane-Lohizun zoragarria, Biarritz, beste erritxoak, Getari...

Geroago ikasi nebazan Iparragirre andiak, bere lurraldera eldu zanean, abestu ebazan bertso maitagarriok:

*«O, Euskalerrri, eder-maitea,  
ara emen zure semia,  
bere lurrari mun egitera  
beste gabe etorria.  
Zuregaitan emango nuke  
pozik, bai, nere bizia;  
beti zuretzat, il arteraño,  
gorputz ta arima guztia.»*

Geltokietan gure Euzkadi'ko erbestertuak ikurriñak eskuetan, agurka. Batzuetan negarra begietan. Gure artekoen ezagunak be bai. Eta aspaldi zanetik guk Capbreton'en ezagutuak.

Endaia, Ondarribia, aurrez-aurre. Geltokia. Trenetik kanpora jatsi. Zubian oiñez. Bestaldean, España'ko zapiak eskuetan, «Viva España»-ka eztarrietan, an dagoz «Gurutze Gorri»-ko emakume zimelak gure zain.

«Pozik egongo zaree aberria (areik «la patria» iñoen, eta gure Euzkadi baiño beste bat adierazo nai euskuen) barriro ikusteko?»

Eta ori esanaz, platan oak banatu ebezan mutikoen artean. Guk ez geukan berba egiteko adorerik. Ikarea bai barruan! Mugako karabiñariak... Nik lepoan, jerseipean, neroiazan Don Mateo'ren karte a eta Larrabetzu'ko amaren diruak... Ez ziran emakume zimel areik, euren «Viva» ta berba bigun labanez, guri biotzetan poza sartzeko nor. Eta bildur eta ikara orreik, ume bildurtiai dagokien ganorabagekeria bat egitera bultzatu genduzan.

Gure motrikuarrak, Franco-pean izan ziran aldi laburrean, orduko kanta batzuk ikasi eta geuri irakatsi euskuezan. «Cara al sol» ikasi genduan Koningshof'eko zokondoetan, eta Italia'ko Gaztedi faszistearen «Giovinezza» (doiñua bat zan, bai, baiña berbak arekaz zerikusirik ez ebenak) eta beste banaka batzuk. Bat ikasi genduan beste guzti orreik baiño barregarriagoa zana. Gure Naparroa'ri buruz egiña zan, baiña sasi-naparrak egiña:

*«Navarra, noble y obrera,  
es la primera  
resurrección de la nación.  
Por eso no hay en España  
como Navarra  
a defender la tradición.»*

Eta gorapen onen ostean, gerrarako irrintzi baten antzera, beste au:

*«Voluntarios, a las armas,  
a las armas, no hay que temer!  
No hay que temer!  
Peleando, peleando por España,  
Por España morir o vencer!»*

Lezetako abade atzeraturen batek egiñikoa izan zan, urrean, kanta ganorabaga ta burubagako ori. Nok bestela?

Besoan ukabilkadatxo bat emon neutsan Mateo'ri. Oraingoa zan, iñoiz izatekotan, gure kanta barregarri ori emakume aurpegi-zimel arei kantatzeko unerik egokiena.

Ez eban Mateo'k zaletasun larregirik erakutsi nik agerturiko asmoari buruz. Biok, orraitño, gure «Navarra...» barregarria abestu genduan. Gugaz etozan beste umeak, orrelako kantarik ez eben iñoiz entzun-eta, arrituta egozan gugana begira. Emakume aurpegi-zimelak barretxo bat egin, bai, baiña ez eben beste alako azalpenik emon.

Orixe izan zan, negargarria ta lotsagarria benetan, alkarregaz azkenengoz egin genduan uea.

Agur, zuri, Mateo, lagun ona! Egun ederrak egin genduzan alkarregaz. Zugandik arturiko adiskidetasunagaitik, esker apala, zintzoa, emon nai dausut lerro labur onein bidez.

\* \* \*

Zaratatsu, aurrerapiderik egiten ez ebala, an yoian Donostia'ko tren txikia («Vascongados»-etako a) Bilbo'rako bidean. Zekor baten antzeko, lege bagarik, bizi, zaratatsu, baiña indarra ganora bagarik eralgiten ebala.

Saltoka yoian gure zekortxo a. Erririk geienetan geldialdia egiten eban. An alkartzen ziran erritar-taldeak, umeak batez be, gu ikustera. «Urrundik datoz», iñotsoen alkarri. «Beljika'tik. «Gorriak» eroan ebezan, etxetik atarata». Orixe zan umetxo arei irakatsi eutseena.

«Erririk erri doazan soka-dantzari, oneik daroazan tximiño ta beste pistien antzekoak ete-gara, ba, onela erri guztietatik gu ikustera etorri dakiguzan?»

Umetxo areik geltokietara euren irakasleak ekarrita etorriko zirala jakingo genduan geroago. Irakasleai, erri-agintari barriak edo txapel-okerrak edo, nok daki, besteren batek agindu eutsen, urrean, gugana etorteko: Aberri «zaarra» barriztuta egoala, ume ta zaar oso abertzale zirala (aberri barriarenak, jakiña) eta poz-pozik egozala agertu nai euskuen.

Geltoki baktokxean «liturjia» bardiña egiten zan. Gu elduela, an agertzen ziran irakasle ta ume, España'ko zapiakaz; España'ko ereserkia, Falanje'ren «Cara al sol...» eta txapel-gorrien «Oriamendi» abestuko euskuezan. Eskumea gora ta luze



—Mussolini'k eta beretarrak egin oi ebenez—, kantak amaitu-takoan, España'ri goraka asiko ziran, eta Franco'ri, beronen agintaritzaz pozez egozala jakiñerazoko eutsoen. Nok sinistu guzti ori, ikusi ta entzuten genduzan guztiak ikusi ta entzunda?

Laster eten zan guzurrezko gure ames ori. Eibar'era eldu gintzazan. Beste geltoki guztietan lez, an agertu yakuzan ikasle ta irakasle, ume ta zaar, guri euren poz barria agertzera. Bestetan baiño laguntalde andiagoa agertu yakun Eibar'ko geltokian. Jorraillaren 26-a zan, eta eibartarrak Eibar'ko Askatzearen («Liberación» iñoen eurak) urte-eguna ospatzen eben. Lantegiak itxirik, jenteak nora joan ez ekiala, geugana agertu ziran ainbat, Beljika'tik etozan umeak ikustera.

Geu be, leiotik begira gengozala, ara non aurreratzen yakuzan neskatilla bi. Ogei urteko-edo, eurak be eguna libre eukenen. Eskuma ta ezkerretara begiratuta gero, iñok ikusten ez ebezala konturatu ziranean, guri itandu: «Beljika'tik zatoze? Lur onetara? Jakin ba'zekie nora zatozen...!»

Ori esanda gero, gure neskatillak alde egin eben. Berba laburrak; naikoak, orraitño, gu gure amesetatik iratzartzeko. Ezagun zan, argitara bagarik, illunetara gentozala.

Aurrera yoian gure tren. Ermua (gure Mantxobas lagun-jaioterria), Zaldibar, Durango. Erri guztietan «liturjia» bardiña: irakasle, ikasle, España'ko zapiak, «Viva»k, eta abar. Lemona. Nik umetan egindako egun alaiak, gerrako egun illunak. Trenetik «tío Felix» ikusteko arduraz (gure amaren nebea zan bera), baiña ez neban iñor ikusten. Ez egoan an etxekorik iñor. Ezin, bestela be, askorik agertu aal izan.

Osaba Felix espetxean egoan. Bilbo'ko Karmeldarren prailletxean, Palencia'ko trapisten prailletxean, Vigo'ko erreka-erdia dagoan ugartetxo baten. Espetxe batetik bestera, beti Mezea erasoten. Gorroto bagarik. Espetxeko urte gogorak, barre egitekoak bai'litzaz. Juanito, aren semea, espetxerik gogorenean, eriotzara galdua zala (geroago, Aita Santuak eskatuta, beste askori lez, «ogeta amarrekoa» emongo eutsoen). Luis, suiña, leentxeago espetxetik etxeratua. Etxean emakume-

ak egozan. Margarita, zaarrena, bere bost umeakaz. Garbiñe, Miren eta Pele, Muxika'n, gure osaba abadeagaz. Ez neban iñor ikusi, ezta Lemona'ko beste ezagunik be. Trenean «Largo»-enatarikoren bat ikusi neban, baiña ari nor nintzan esatera azartu ez. Geltoki-aurrean egoan tabernakoak ziran «Largo» orreik. Tabernea be arrebeak, Kandida'k, erabillen. Nebak trenean ziarduen lanean.

Bedia («Kolaziñoa» esaten geutsan guk. Araxe joaten gintzazan sarritan «Bariku»-gana. Gure Miren'en neskame zanaren ezizena zan «Bariku» ori, eta amaikatxo bidar joan gintzazan gerrako ille okerretan, arto ta talo ta buzkantzak eta esne lodi-koipe-tsua artzera...!), Galdakano, La Peña (Atxuri)..., San Anton'go eliza maitearen kanpatorrea ikusten dogu; laster gara Bilbo'n.

\* \* \*

An egozan, gu noiz etorriko zain, etxekorik geienak, eta Zabalbide'ko lagun guztiak. Areik ziran mosuak, areik besar-kadak, areik itaunak, areik arritze-berbak!

«Bai lodi zagozala! Ezin ezagutu zaitugu! Jantzi oneik, nondik dozuz? (Aita Peters'ek bein emoniko «breeches» jantzia neroian. Barre egiten eustan Iñake'k, ni onela ikusiaz.) Nik, ostera, ezer erantzun ez. Ostera luzea zala-ta, zearo nekata nengoan, erdi-loak artuta, begiak zabaltzeko be gauza ez nintzala.

Kalekoen artean era guztietarikoak egozan an. Iru edo lau, Manolo R., A. anaiak (Migel Anjel eta Xabier), Jesus S. C., uniformez jantzita. Leenengoak «Flechas»-en jantzi urdin-sakona eroien, Jesus'ek «Pelayos»-en kaki berdea. Beste guztiak kale-jantziak baiño ez eroiezan. An egoan Errapel Arana, leentxoago Ingalaterra'tik «espediziño» baten etorria. Ramon Aranguren. Argi ikusten zan bakotxa nor zan eta nondiko bideetan ebizan bere eretxiak. Tamal andia artzen neban nik ori ikustez. Bitan erdibituta, zearo apurtuta egoan lurrera nentorren. Guztiok lur maite onetan garaille edo garaituak gintzazan-eta, ba-nekian nik aurrerantzean nortzuenatarikoa izango nintzan.

An egozan etzeko batzuk be. Ama geisorik egoan ezkerok, ez zan Atxuri'n agertu. Egun bat geiago itxaron bear, berau besarkatu aal izateko. Baiña aitatxo egoan an. Betikoa, alaia, maitekorra, urteetan beti gaztea. Portugaleta'ko geltokian azkenengoz ikusi nebanetik, ezer jazo ez bai'litzan. Gure biotzetan isurteko aiña adore ba-eban beti berak; miñak eta atseka-beak beretzat gordeko ebazan; guri poza ta alaitasuna bakarrik erakutsi.

Karmen be ba-egoan an, gure Karmen gogor eta zuzena — Benantzi'k eta biok ain sarri bildur geutsana—, baiña egun onetan bigun eta laztana. Miren eta Iñake iñoiz baiño politagoak.

«Zure arrebak dozuz oneik?», itandu eustan Honorina'k, nire arrebak areik biak izan zeitekezala-ta arrituta.

Ez neutsan erantzunik emon. Berbarik esateko be ez nintzan gauza. Benantzi be an egoan, gizontxo eginda, praka luzeaz. Ikastetxea itzi eta lanean asita, berak irabazirikoko dirua etxera arro ekarten eban. Aren aldean, leengo anai txikia baiño ez nintzan, eta izango be ez.

Ez gintzazan luzaro egon Atxuri'ko geltokian. Gau aretan, gu etxera artzeko asmoz etorri ziran senide ta lagunak, ames ori galduaz, gu bagarik biurtuko ziran, bakoxta bere etxera.

Txalo batzuk entzun genduzan. Irun'dik geugaz etozan emakume aurpegi-zimelak ziran, «Gurutze Gorri»-ko «Damak». «Kanpotik datozen umeak emen batu beitez —iñoen gogor eta garratz—. Gurasoak edo euren ordeztokak, biar agertu daitekez euren umeen jabe egitera. Aalbait lasterren betoz, umeai buruz paper batzuk bete bear izango dabez-eta. Orain umeak «Ave Maria»-ko eskoletara eroango doguz, etxe aretan gaba egin dagien. Zabalburu'ko Enparantza baiño goratxoago dozue etxe ori. Orain, ba, umeai agur esan.»

Barrero besarkadak, barrero mosuak, barrero eskuak emoteak. Uniformez jantzita egozanak, besoa jaso eta «Arriba España!» seriotasunik andienaz esan. «Biar arte! Bai, biar arte!»

Geltoki-aurrean auto andi zaar bat geukan gure zain. An sartu gintzazan guztiok, bakoxtak aal eban jesarlekuan, bakoxta bere maletakaz. Andiak (eta etxeetan egonikoak, maletak ondo beterik ekarrezan!) beste bidetik etozan.

Bilbo'ko Geisotoki zaarraren aurretik igaro gintzazan (zenbat bidar an kalekoakaz jolastu! Barrero be ara joango-ete?) Zazpi kaleak, «Arenala», Zubia, Geltoki andia.

Eskoletara eldu gintzazan. Mojak geukazan an be gure zain. Eta umeak, mutiko ta neskatotxoak, guztiak bardin, guztiak pobre ta itsusi jantzita, España'ko banderatxoak eskuetan, mojen «Viva»i «Viva»ka erantzunik. Bide luzeak nekatuegi itzi genduzan ogetamar bidar egindako «teatroari» jaramonik txikiena egiteko. Gose gintzazan, logura, eta etxera aalbait ariñen joateko gogo. Jateko beroa bear genduan, ez ogetamar bidar entzundako kanta gogaikarriak.

Jatekoa be eldu yakun. Gela zabala, mai luzeak, Capbreton edo Koningshof'eko gela zabal eta mai luzeen antzekoak. Jatekoa ez zan bardina. Baiña gozoa. Ogi zuria, sopa beroa, arrain gozoa (Durango'ko Xabier'ek teillatura jaurti oi ebana baiño samur eta gozōagoa), «arroza ta esne»-k katillu bete bana. Argi egoan, kankak bakarrik ez, baita jatekoa be barria ta ohea zala jakiñerazo nai euskuena. Ondo yoian orain arte eskitako guztia; biartik aurrera be ain ona izango-ete?

Orduko, Irun'go gure mutxurdiñak alde eginda egozan, pozik España barriaren alde misiño-lana egin ebela-ta. Gure «Ave Maria»-ko Mojak genduzan orain gure zaindari, edo, argi egoan, euren lege gogorraren menpean jarrita genduzan, biaramonean gutarrak geugana etorri arte. Mojak beti es-tutxo, baiña onein alde zabalak ziran gure Koningshof'eko Zuster Gundrada ta Maria Christine.

Apalosteko otoitzak egin genduzan. Guretariko askok oitura ori aspaldi zanetik aaztuta euken. Elizara eroan genduzan, «Gora altarako Jesus» esatera. Eta elizatik, banan-banan, besoak buztarturik, geure logeletara eroango genduzan. Moja bat aurretik, atzetik beste bat: bien artean gu guztiok isilik.

Neskatoak gela zabal batera eroan ebezan, gu beste batera. Barriro be, Aingeru Zaindariari otoitz bat, gure loa gau aretan ondo zaindu eta deabrua gugana etortetik laga ez egian. Aingeru errukarria! Bai beronen lana gugaz —benetako deabruokaz— gau aretan!

Gure otoitzetan gu ain eraspentsu ikusiaz, beste bagarik iges egin eikeala uste izango eban gure moja zimelak, eta gu ixilik egoteko esanda gero, gugandik alde egiñik, neskatotxoakana aldatu zan, otoitz bardiñak egin eta antzerako oarrak arei be esatera.

Isilik geratu gintzazan guztiok, andik berak alde eginda. Gau-argi epela biztuta itzita, gure kale-jantziak erantzi eta gabekoak jazten asi gintzazan. Erazteko bildur ni. Lepoan, jerseipean, neroian diru ta karteagaitik, nire eraztea gerokotu.

Gudurako jantzi barriak artu bai'ebezan, an asi ziran gure mutillak alkarrri oge-burukoak indarrez jaurtiten. A zan poza, a alaitasuna! Areik barreak, burukoaz buruan norbaiti emotean! Areik irrintziak, gerran garailleenak lakoak!

Oiñaztarria jausi bai'litzan, arelaxe eten ziran gure mutikoen agoan, barre ta irrintziak, eta saltoka sartu zan bakotxa bere ogean. Atea zabaldu, eta ara non agertzen yakun deadarka gure moja zimela. Sututa, ume okerrik bere bizitzan inoiz ikusi ez ba'leu lez.

«Ezagun da «Gorritxoen» seme zareena!» («Ya se ve que sois hijos de «rojillos»»).

Bularrean, paparretik eskegita, gurutze bat eroian. Jesus gurutzetuaren irudiaren inguruan, latinezko berba oneik: «Maitasun Errukiorraren Alaba».

Nekatuta gengoan umeok, eta minduta. Banaka batzuk negar-malkoak isuri genduzan ogean sartuta. Gero, biaramonerrate lo egin genduan, lo sakona, errubageen loa.



## AGUR!

Jorraillaren 27-a zan. «Gure» eguna, aspaldi zanetik miñez eta egarriz itxaron genduan eguna. Zerua eguzkitsua ete-zan, ez neuke orain ziur esango. Beste eguzki bat geukan guztiok gure biotzen sakonean.

Lo gengoan guztiok, «Maitasun Errukiorraren Alaba» jagi eta gure burua gertatzeko «tertzioa» zala esatera etorri yakunean. Ez eban gaurkoan jagiteko guri birritan esan-bearrik. Bart jazorikoak guztiz aaztuta geukazan. Moja zimela be atzo baiño biguntxoagoa eginda egoan.

Maiak aparteko gosariaz estalduta geukazan: sagarrak, ogi zuria, «txurroak», txokolatea eta esnea, bakotzak nai eban beste. Baiña geienok ez genduan ia ezer artu; batzuek, maiko areik ikutu bere ez. Guztiok urduri gengoan, larri gutarrak ikusi ta besarkatzeko.

An egozan guztiak aturrean. Guraso, anai, arreba, lagun, guztiak agurka, berba egiteko asmoz, euren barrua zerbait esateko erreten eukela. Euren eta gure artean, ate bat, guri kanpora joan eta gutarra gure artera sartzea galerazoten euskuna.

«An dozu nire arrebea!»

«Ezkerretara ikusten dozuzan bi areik, neure osabea ta izekoa dozuz».

Barruko guztiok geukan esatekorik asko. Txikitxo bat nire alboan negar baten egoan.

«Zer dala-ta egiten dozu negar, ba?» —«Nire etxekorik ez dot inor ikusten». — «Etorriko yatzuz! Ez izan ardurarik! Barakaldo'tik ona, Bilbo'tik baiño denpora geiago bear da.»

Udaletxeko bat agertu zan. Txapel gorria buruan, alkonda-

ra urdin-illuna, praka baltzak, gure erriaren agintari barriak aldi aretan eroan oi eben lakoak. Eskuan izen-zerrenda bat eka-rrera, gure izenak goitik asita esaten asi yakun.

«Agirre», «Alvarez»... Izen bakotxa esandakoan, izeneko mutiko edo neskatosa, eskuari eragiñaz, alde batean agertzen zan; bestean, aren aita edo ama edo arduradunen bat. Umea euren zala-ta, etxera barriro eroan nai ebela-ta, izen-zerrendan euren izena idatzi, eta umea etxeratzeko libre zan.

Eldu zan neure txandea be. Iñake ta Miren neukazan itxaroten. Aita, izena emoten. Ama, geisorik, etxean geratu zan; Karmen, ari laguntzen, eta Benantzi «Centro Radio Eléctrico»-ra lanera joan zan. A nire poza nireakaz betiko libre nintzala! Ama, Zabalbide'ko gure etxean barriro besarkatu aal izan nebanean! Amaika illabete igaro ziran aregandik berba ardura-tsuak entzun nebazanetik: «Txabitxu, izan zaitez beti ona».

Erbestean egindako amaika illabete arei «agur» egiten neutsela, amari be orduko ardureari erantzunaz, pozez eta eskerronez esan neikeon eta ixillean esan be: «Amatxu, askoren laguntzaz —zeuk nai izan zenduanez—, ona izan naz.»



## AZKEN-ITZA

Azaldu dodazan guztiok jazota amar urte geroago, Beljika'ra biurtu nintzan. Amar urte oneitan, jazoera garratz eta latzak igaro ziran. Gure anai-arteke gerrea amaitu zan, bai, baiña ari beste batek —gurea baizen errukibagea— jarraitzeko. Oraingotan, beste erri batzuk egozan gerra negargarrian naastuta. Beljikarrak be bai. Beste batzuek —eurak baiño indartsuagoak— jarri eutseen lepo-ganean, eurak nai ez eben gerra iguingarria.

Beljika'ra barriro etorri nintzan bigarren une onetan, ez nintzan ni leengo mutikoa. Abadegaia nintzan, laster abade egiteko gerturik nengoana. Lobaina'ra nengoan joanda, nire ikasketai ango Unibersidadean jarraitzeko asmoz. Arazorik asko, ortik ona ibilteko astirik ez. Baiña 1947-garren urteko Gabonetan Ekeren'era biurtu nintzan, nire umetako toki ta ezagunak barriro ikusi, eta «galduriko aldia barriro billatzeko».

Egun euritsua zan, gure Euzkadi'n eten-bagako zirimiria egiten dauanean lakoa. Anberes'era leenen, eta andik Ekeren'era joan nintzan. Gero oiñez, eskolatik etxera nire umetan joatea oi nebenez, egin neban eltzun-arteke bide luzea.

Ez zan agiri Heikenstraat'en gauza barri andirik. Judarren etxe arlotea leen egoan lekuan, orain txalet barri-txukun bat egoan. «Va» eta «Moe»-ren etxera be jo neban. An be, gure ezkerretara leen zelai saskel bat egoan lekuan, bosgarren etxe bat gure lau etxeke taldeari erantsita. Gu bizi izan gintzazan etxean dei egin neban. Emakume arrotz bat urten yatan atera. Nik aal neban eraz, erdi-prantzeraz, iru-lau flamenkerazko berba geiagoaz, Janssen-Van den Berg andra-gizonak an etc-egozan itandu neban.

«Ez dago emen izen orretako jaun-andrarik.»

Ni nor nintzan, zelan edo alan azaldu neutsan. Andragizon orreik aurreragoko etxe orretan bizi zirala eta ni eurakaz euki nenduela. Senarrak lan trenean egiten ebala...

«A, bai! —orduan berak—. Baiña familia orrek, aspaldi da etxe orretatik alde egin ebala.»

«Nora?» —nik. Eta arek niri: «Neuk ba'neki! Gerra-osteko naaste-borrastean ez zan gauza erraza nor nora joan zan jakitea. Ezta bizi dan be ez.»

Paenen'goakana joan bear, ba. Oneik, andra orrek baiño geiago ekien, bearbada. Baiña, areik be, bizi ete-ziran? Leengo etxean? Barriro be, atean neukan emakumeari itandu neutsan.

«Bai, or aurreragoko etxean dozuz orreik! Ama ta semea baiño ez.»

Zer jazo ete-yaken, Julia'ri eta Maria'ri? Eta aita burusoi-lari? Gerratean ilgo ete-ziran?

Ardura ori barruan nebala, joan nintzan aspaldiko nire lagunen etxetxora.

Dei egin neban. Josken bera urten yatan atera. Leengo lakoxea egoan, bere ume-aurpegiaz, begi biziakaz, orraztu bagako uleaz.

«Txabi!»

«Josken!»

Baiña eskua baiño ez eustan emon. Epelak dira euren ar-tu-emonetan Flandestarrak; eta ni, gizon eginda, soiñean abade-jantziaz, beste maite-erakutsirik be ezin egin.

«Moe: Txabi dago emen!»

An agiri zan Mijvrouw Paenen be. Betiko baserri-emakume lodikotea. Arek be eskua emon eustan, besterik ez.

«Jesarri zaitetz», esan eustan.

Eskaratzeko mai-inguruan jesarri gintzazan irurok. Ama, noizean-bein, aulkitik jagiten zan, su epela bizkortu edo suganean egoan lapikoari eragiteko.

Betikoak ziran etxea ta etxeakoak. Pobre ta ziztriñak. Ezagun zan igarotako urteetan aurrerapide andirik egin ez ebena.

Gauza asko nai neban arekandik jakin; baiña, zelan jakiñerazo alkarri gure barriak? Nik Ekeren'go Eskolan ikasiriko flamenkera apurra, aspaldian neukan aaztuta. Eta Josken'ek ez eban sekula Deurne'ko Eskolan prantzera askorik ikasi. Aren amak «Egun On»-ik be ez ekian arrotzen izkuntzaz esaten. Hoenven, flamenkera utsa egiten zan erritxoa zan.

Euren etxeokoi buruz zan nire leenengo itauna.

«Va?»

Biai jarri yaken aurpegi illunetik, Mijvrouw Paenen alarguna eta Josken umezurtza zirala susmatu neban. Gerratean il ei'ziran, baiña berez, geisoz. Ama, zaar biurtzen yoian ezkerro, Josken'ek eukan etxearen ardurea.

«Eta Julia? Eta Maria?» —nik. Eta arek niri: «Julia St. Marienburg'era ezkondu zan. Umetxo bi daukaz. Maria oraintsu ezkondu yaku. Ez dauko oraindiño umerik.»

Alboko gelara joanda, sarritan ikusiaz zerbait zakartuta egozan argazki batzuk ekarri eustazan amak. An agiri zan Julia, bere ezkontza-egunean, zurbil eta argal, baiña betiko galant eta maitagarri. Argazkirik barrienak Maria'renak ziran. Oneitan ez zan geiago aita agiri.

Etxekoen barririk geienak ba-nekizan orain-eta, Janssen-Van den Berg senar-emazteen barri eukiteko aldia zala uste neban.

«Eta Mijnheer eta Madame (izen onekaz ezagutzen genduzan ondoen nire aspaldikook), non dira?»

«Ez dira geiago emen.»

«Orixe entzun dot gu bizi gintzazan etxeokandik. Baiña, non bizi dira orain?»

«Jakin, ziur ez dakigu. Gerratean Mijnheer'i beste lan bat emon eutsoen, eta Bruselas'era, edo ortik norabait joan ziran bizi izatera. Arrezkero ez dira geiago emen agertu, eta geuk be ez dogu arein barririk-geiago entzun.»

Zuzenbidea lortu ete-zeitekean itandu neutsen. Aalegin-duko zirala. Lobaina'ko neure zuzenbidea emon neutsen, eta eurak araxe bialduko eustela.

Onetan, eguerdia zan. Alde egitera niñoiakoa egin neban; baiña amak, lotsatuta lez, arren eurakaz bazkaltzen geratzeko esan eustan.

Bazkari oso meea izan genduan. Koipe bagako sopatxoa, eta urdai legor zati bat. Besterik ez. Urte gogorak ziran gure eta euren artean orduko urteak. Josken lan bagarik egoan, eta etxe-alboko soloak ez eban askotarako emoten, antza.

Nora joateko ete-nintzan? Julia ta Maria astean iru-lau bi dar amari laguntzera etorten ei'ziran, eta illuntze aretan be etorriko zirala, bearbada. Baiña, Heikenstraat'en alboko elizaxoan egoan orduko abadea ikustatzera joan nai neban-eta, ezin areik etorri arte itxaron. Aldi aretako gure abade ori, Olanda'ko ertzean dagoan Stabroek errira aldatuta egoan, eta ordu pare bat bearrezko nebazan berau ikustatu eta Malinas'era sasoiz biurtzeko.



Poz-pozik etxera biurtzeko.

«Va» eta «Moe»-ren barririk ez neban geiago izan.

Aita Peters'en barri, Bilbo'ra biurtuta gero be, izan neban; eusko-umeai buruz Beljika'ko Gotzaiñen eta Aita Santuaren ordezko zan Antoniutti jaunaren bitarteko egiten eban ezkerero, noizean-bein Euzkadi'ra etorten zan.

Gu etxeratuta gero, urrengo illean, an etorri zan bera Beljika'n geraturikoen barriakaz. Bilbo'ko hotel lau baten bizi zan Bilbo'ko egunetan, eta ara egin euskun dei. An agertu gintzazan Koningshof'en egoniko banaka batzuk. Geienak, Aita Peters aaztuta euken-eta, ez ziran gugaz an agertu. Ni aitagaz joan nintzan hotel aretara. Aitak, nire bitartez (batak ez prantzeraz, eta besteak ingeleraz egiten ez ekien-eta), nire ta eusko-umetxo guztien alde egindako aalegin guztiakaitik, eskerrik beroenak emon eutsazan. Guk bere alde zerbait egiteko iñoiz gauza ba'gintzaz, pozik be egingo gendukela. Gero, Atxuri'ko geltokira lagundu neutsan, bakarrik, aita lanera joan-bearrean egoan-eta. Bidean, Atxuri'rantz giñoiatzala, pozik ete-nengoan eta etxekoen zoria zelakoa zan itandu eustan. Nire gurasoak premiñan ba'legoz, Beljika'rako bidea beti zabalik izango nebala. Beste guraso batzuk be, orretara erdi bultzatuak izanda gero, umeak etxeratuzazoz penaz egozala. Nik, nire etxekoak diru-aldetik egoera onean ala txarrean ete-ziran ez nekian, baiña barriro Beljika'ra joateko gogorik ez neban, eta nire gogo ori argi ta garbi jakiñerazo neutsan.

Arrezkerero, noizean-bein, eskutitz edo idazkitxoren bat artuko neban Beljika'tik. Bein, Iñake'k eta Karmen'ek eraginda, «O, Belgeland», Beljika'ko ereserkia eskatu neutsan, eta andik laster bai artu be. Etxekoai, Beljika'tik etorrita, sarritan abestu neutsen gatz-bagako ereserki ori. Gure biak, pianoa ikasten ziarduen-eta, eskatzeko esan. Ereserkia aparteko entzungarria ez dan ezkerero, bein-edo ikasita gero, laster alboratu eben paper zaarretara.

Gero, ni Seminario Txikira joanda gero, gure eskutitzak gero ta urriagoak biurtu ziran. Bergara'koan nengoala jaso neban aren azkenengo eskutitza. Orduko, Aita Peters beljekar-

gudarien abade zan. Eta gerra zitala Belgika'ko ertzetara urreratzen zala-ta, susmo ta bildur orretan, bere erriaren alde otoitz egiteko arren eskatzen eustan. Idazkitxoan, III-garren Leopoldo erregea, gudari-jantziaz agertzen zan, eta gregoriano-musika nota batzuen azpian urrengo berbok latíñeraz idatzita: «Jauna, Leopoldo gure erregea onik atara egizu». Andik laster, Hitler'en gudariak Belgika'ko gudarozte txiki ta adoretsua garaitu, eta beljkarren erri txiki-baketsua azpiratu egin eben. Gure errien arteko artu-emonetara isillaren oiala jausi zan, eta urte luze areitan ez neban andiko albistarik geiago jaso.

Gerrako bost urte ankerrak igaro ziran. Gasteiz'ko Seminario Nagusia niarduan nik Teolojia-ikasketak egiten. Bost urte areitan atzerritarrakaz artu-emon bagarik, espetxean lez izan gintzazalako, egarriz eta jakinguraz beterik gengoan atzerriatik etorren edozeri buruz. Erroma'n urteak eginda gero, gure artera etorritako ikasle bat batu yakun urte aretan. Ameslaria zan gure Don Iñazio, gu ameslari biurtzeko beti gertu. Alemaneraz ikasten be aregaz asi nintzala, gai oneitaz sarritan egiten genduan berba alkarregaz. Eta noizbait kanpora joateko asmoa agertu neutsalako, bat-batean diñost berak: «Ikastera kanpora joan nai dozu?» —«Ez, abade izateraiño itxaron!— «Laster barriro be gerrea izango dogu-ta, edo berealaxe joan, edo bestela ez zara iñoiz atzerrira joango».

Izan be, gerra-ostean Errusia eta Laterri Alkartuen arteko maite-miña, aspaldian epeldu eta otzitu zan, eta burruka barri bat etorri zeitekeala esatea ez zan, ez, auntzaren estula.

Nora joan? Noren bitartez gertatu nire osteria eta egoerea? Itaun bion erantzuna argi egoan: Lobaina'ra joan; antxe egoan Ikastetxe Nagusi entzutetsua, Lobaina'ko Unibersidadea. Aita Peters'i idatzi, nik Belgika'n neban ezagun bakarra bera zan-eta.

Urrengo urtean, ba, Lobaina'n agertu nintzan. Eta, ni libre nengoan egun baten, Anberes'era joan be bai, Aita Peters'i agur bat egitera.

Beti lez, maitekiro artu nenduan berak eukan idazgela (ofiziña) barrian. Eta, bere lana amaituta gero, Anberes'ko inguruetakoko erri baten bizi zan anai bat ikustera joan bear ebalata, neuk lagunduko ete-neuskion itandu eustan.

Joaterako bidean, gerrearen azkenengo egunetan bera zauritu eben zokondoa erakutsi eustan. Alemaniarrak Belgika'n sartuta gero, beste erri-gudari garaituak lez, atxillotua eta «bartzetoki» batera izan zan bialdua. Baiña, abadea zan-eta, laster askatu eben jaun barriak.

Azpi-burrukan ekiten eutsenai batu yaken. Eta azkenengo unean, Hitler'enak igesi yoiazala, bera be beretarraz arein aurka jagi zan. Ordutikoa zan eukan zauria.

Anaia Schoten'en bizi zan, etxe oso polit-eder baten, gure Koningshof'etik urrin. Pozik, bai pozik be, joango nintzan aspaldiko gure ikastetxea ikustera, eta orduko Zusterrik an artetan ete-egoan jakitera. Tamalez, ez nintzan ni nire egunaren jaun, beste batek deitua baiño; eta Aita Peters'i ez eutsan, antza, «Koningshof» izenak niri aiña gomutarik sorrerazoten.

Urrengo baten be, Anberes'ko Aizta-Ikastetxe baten ikustatu neban berau. Gure laurlekoak (pezetak) ango frankoen orde zelan trukatu neikezan jakitera joan nintzakion. Arrezkerro ez neban aren barririk geiago izan. Lobaina'ko «Seminaire Leon XIII»-ean beste euskal-lagun bat eta, onen bitartez, Malinas'ko abade batzuk ezagutu nebazan. Mundu barria onela ezagutuaz, laster laiñotu zan niretzat Aita Peters'en argia.

Koningshof'eko Zusterrek ez yatazan erraz aaztu. Onak, onegiak izan yatazan an ezagutu nebazan, eta, beste uts asko eukiarren, ez naz iñoiz be esker-tzarreko izan-eta, ezin Zuster areik nire biotzean aaztu.

Bilbo'ra etxeratu nintzanean, karta luze bat idatzi neutsen; eta, niregaz batera, aita-be beste esker-karta bat egin eutsen. Baiña ez genduan erantzunik izan. Ez zan oiturea, orduko mojen artean batez be, noizbait ezaguturikoai kartarik idaztea. Ez genduan, ba, geiago artu-emonik izan.

Baiña amabi urte geroago, abade egiña izan nintzanean, albista onek poza emongo eutselakotan, nire abadegintza orren barri emotea erabagi neban.

Zalantza asko neukazan, orraitino, nire buruan. Amabi urte, urte asko dira. Eta amabi urte oneitan, gauza asko jazo ziran, jazo be. Gutzaz zerikusirik geien eben Zusterrak (Gundrada, Maria Christine) bizi ete-ziran artetan? Koningshof'eko Ikastetxe ederra, ba'ete-egoan artetan zutunik? Nora idatzi nire albista ori bear zanez eta bear zan tokira elduerazoteko?

Kongregaziñoaren izena aaztu bagarik neukan: «Jesus'en Umezaroaren Aiztak» («Zuster van de Kindsheid Jesu»); Ama-Etxea (Moeder Huis) non euken be bai: («Gent-Flandres Sortzaldekoan»). Beste zuzenbiderik ez neukan. Ara idatzi, ba, karta bero eta esker-oneko bat, nor nintzan, noiz eta non egon nintzan, eta nortzukaz, jakiñerazoaz. Eskutitz bardiña Koningshof'era bialdu neban. Ango zuzenbidea, leengoa izan ezker, ondo nekian jakin be.

Baiña, tamalez, ez batetik, ez bestetik, ez neban erantzunik jaso. Bizi ete-ziran orduko Zusterrak? Zuster Gundrada ez zan, gure umetan, orren gazte.

Ba'ete-zan gerrateko oker eta miñak eroan aal izateko gauza? Zuster Maria Christine —gure aldiñan zabaldu zanez— Beljika'ko Kongo'ra, misiño-lanetara joateko zan. Ez dot geia-go arein barririk izan. Baiña bai zor dauset nire eskerronik gartsuena nire biotz-barruan.

Bilbo'n, 1987, urrillak 20.



## IZTEGITXOA

- abadagune, abagune:** ocasión, oportunidad, coyuntura.  
**altzaritu:** amueblar.  
**antzoki:** teatro (edificio).  
**areatza:** playa.  
**argazki:** fotografía.  
**armin:** caluroso, bochorno.  
**arrenkura:** queja.  
**ats:** hedor.  
**atzipe:** engaño, trampa, fraude.  
**aurkezpen:** representación teatral (acto), presentación.  
**ausarti:** atrevido, osado; descarado, insolente.  
**autu:** conversación.  
**autulari:** conversador, locuaz.  
**azartu:** atreverse; atrevido, osado.  
**azoka:** mercado, feria, plaza (del mercado).  
**azpi-zapo:** falso, traidor, desleal.  
**bagil:** junio.  
**baldintza:** condición.
- barrunbe:** pastecillo, bizcocho.  
**batze-toki:** campo de concentración.  
**bekaitz:** envidia.  
**berariz:** de intento, adrede.  
**berebil:** automóvil.  
**beresi:** jaro.  
**berogaillu:** estufa.  
**bidaldi:** excursión, viaje.  
**burdinsare:** verja, reja.  
**buruzagi:** jefe, caudillo.  
**dagonil:** agosto.  
**dastatu:** probar, gustar, saborear.  
**debekatu:** prohibir.  
**dedu:** honra, honor.  
**destaiña:** desprecio, desdén.  
**egazkin:** avión, aeroplano.  
**egiaztu:** probar, comprobar.  
**egurats-etxe:** casa de campo, granja.  
**ekaitz:** tempestad, tormenta; (ekaitz + a = ekatxa.) eltzun: chopo.  
**emoitza:** dádiva, regalo.



**emokari:** regalo, dádiva.  
**erail:** matar, asesinar.  
**eraspentsu:** devoto-devotamente, piadoso-piadosamente.  
**eratu:** organizar.  
**eregi:** construir.  
**ereserki:** himno.  
**eroan:** a) llevar; b) sufrir, padecer.  
**erosta:** queja, lamento.  
**espaka:** lamentándose, quejándose.  
**espatsu egon:** tener celos.  
**euskin:** dique de contención.  
**ezetsi:** menospreciar, despreciar.  
**jorrail:** abril  
**galarren:** galerna.  
**garaipen:** triunfo, victoria.  
**garaitu:** vencer, aventajar.  
**gardaska:** mata.  
**garil:** julio.  
**gongotzain:** arzobispo.  
**gotzain:** obispo.  
**igaro:** a) pasar (intransitivo); b) sufrir, padecer (transitivo).  
**idazgela:** oficina.  
**igitu:** moverse.  
**ikastaro:** curso académico; época de estudios.  
**ikasturte:** año escolar, curso.  
**ikustatu:** visitar.  
**ikatz-ontzi:** barco carbonero.

**iradu:** prisa.  
**iskillo:** arma.  
**itsasi:** adherir, pegar.  
**itz-ebakera:** pronunciación.  
**jazki:** traje.  
**jesulagun:** jesuíta.  
**kui:** conejo.  
**laketu:** permitir.  
**lauki:** cuadro, pintura (cuadro).  
**lorrotz:** surco abierto para la siembra.  
**lubagan:** trinchera, fosa, zanja.  
**maiazken:** postre (de las comidas).  
**mandatu:** mensaje, encargo, recado.  
**meatoki:** mina, paraje minero.  
**mende:** siglo.  
**mutxurdin:** solterona.  
**obo:** círculo.  
**oguzi:** pronunciar, articular palabras.  
**oguzkera:** pronunciación (de palabras).  
**onetsi:** aceptar, aprobar.  
**onulari:** consejero.  
**onularitza:** asesoría (oficio).  
**opari:** obsequio, regalo.  
**opor:** vacación.  
**orein:** ciervo, gamo, venablo.  
**ostera:** a) viaje; b) sin embargo, en cambio, al contrario.

**pardel:** bulto, maleta.  
**prantzer:** idioma francés.  
**prantzes-porru:** espárrago (Bot.).  
**salatari:** denunciador, espía.  
**sunda:** hedor.  
**tresna:** aparato, utensilio.  
**txerto:** vacuna.  
**txiro:** pobre.

**txirringa:** rueda.  
**txokor:** puro (cigarro).  
**txokor-erretaille:** fumador de cigarros puros.  
**zakartu:** deteriorar, deslucir, ajar.  
**zergaiti(a):** el porqué, la razón principal, el fundamento.



## AURKIBIDEA

Itzaurrea .....	7
Atzerrirako bide illunean .....	10
«Bizkai'ko lur osoa ezereztuko dogu ...» (Mola'k esana) .....	14
Erbesterako bidean .....	30
«Douce France» (Prantzia gozoa) .....	36
Capbreton .....	40
«Gare Centrale» (Geltoki Nagusia) .....	52
Van Roey Kardenalaren Ekintza .....	56
Heikenstraat, honder vier en dertig .....	60
«Va» eta «Moe» («Mu» esan) .....	68
Erriko eskolan .....	72
Udako oporrak .....	79
Kirmesak .....	85
«Errege-Jauregia» (Koningshof) .....	87
«Gu zapaldu nai genduezanen aurka jagi gintza- zan» .....	93
Heikenstraat'eko zerikusi gutxiko autu-mautu batzuk .....	101
Albert .....	103
Heikenstraat'eko Judarrak .....	108
Post data .....	112
Ez mutiko orrekaz ibili! .....	113
Ekeren, agur! .....	119
Euzkadi'ko zatitxo bat erbestean .....	129
«Negua eldu da». — Gure euskal-abadeak .....	138
Aita Maurice Peters jesulaguna .....	147

Zuster Gundrada .....	177
Eskolara barriri .....	191
«Eresoinka» .....	205
Koningshof'eko eguneroko bizikerea .....	217
Aspaldiko nire lagunak .....	229
«Zuen atsekabe ori poz biurtuko da» (Jn 16, 20) ...	241
Agur! .....	259
Azken-itza .....	261
Iztegitxoia .....	269

## SUTONDOAN SORTA

1. EGUNEKOA  
Ebaristo Bustinza «Kirikiño»  
Aurkezpena: Xabier Perea - J.M. Agirre
2. JOSETXO  
José Manuel Etxeita  
Aurkezpena: Aitor Etxebarria - A. Arejita
3. AZALPENAK  
Urkiaga'tar Estepan «Lauaxeta»  
Aurkezpena: Jon Kortazar
4. BERTOLDA ETA BERTOLDIN  
G. C. della Croce - «Otxolua»  
Aurkezpena: Adolfo Arejita
5. JAIOKO DIRA  
Eusebio Erkiaga  
Aurkezpena: Lino Akesolo
6. EDO GEUK EDO IÑOK EZ.  
EUSKERAREN ALDE  
Ebaristo Bustinza «Kirikiño»  
Aurkezpena: Xabier Perea - Adolfo Arejita
7. IPUIN ANTZEKO ALEGI  
MINGOTSAK  
Mikel Zarate  
Aurkezpena: Igone Etxebarria
8. BATETIK BESTERA  
Eusebio Erkiaga  
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte
9. AUÑEMENDIKO LOREA  
Txomin Agirre  
Aurkezpena: Rosa Mari Arano
10. KRESALA  
Txomin Agirre  
Aurkezpena: Mirari Alberdi - Jon Arretxe
11. JAIOTERRI MAITIA  
José Manuel Etxeita  
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte
12. TXURIO TXORIA  
Eusebio Erkiaga  
Aurkezpena: Igone Etxebarria
13. GAROA  
Txomin Agirre  
Aurkezpena: Bingen Zupiria
14. LATSIBI  
Resurrección María Azkue  
Aurkezpena: Mirari Alberdi - Karmele Olano
15. IXTORIO-MIXTERIO/  
IPUIN-MIPUIÑAK  
Jean Barbier - «Otxolua»  
Aurkezpena: Igone Etxebarria
16. ZAAR-BARRI  
José Antonio Oar-Arteta  
Aurkezpena: Segundo Oar-Arteta
17. EUSKO-UMEAK ATZERRIAN  
Goitia'tar Xabier  
Eratzaillea: Kerexeta'tar Jaime